

DANTZA-KOPLA ZAHARRAK

Neure adiskide maite F. Jabier Subinasi,
udabidean Ingalaterrara egindako itsasbidaia
baten oroigarri:

Ontziak eder uhara,
gau izartsuak bristara;
zuri eskerrak, adiskidea,
liburu hau da plazara.

JABIER KALZAKORTA

DANTZA-KOPLA ZAHARRAK

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA
BILBAO
2007

Argitalpen hau moldatzeko eta prestatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan da.

Azaleko irudia: Jose Ignacio García Muñoz

© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1ngo
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonpozizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S. L. L.

Lege Gordailua: BI-3380-07
ISBN: 978-84-86833-01-5

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoz fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Dantza-koplen mundu urruna hur. Adolfo Arejita	11
Dantza-koplen liburu honen historia dela eta sarrera	19

DANTZA-KOPLAK: SAIOAK

I. <i>Verso berriac Ambotoco Peru eta Antoni jarriac</i> sortaren gainean ..	29
Sarrera	29
Durangoko Panchillonon jatorrizko bertsopapera	30
Anbotoko bertsoak: iturriak, aldaerak	37
Balendin Enbeitaren aldaera	39
Deunoro Sarduiren aldaera	44
Juan Manuel Etxebarriaren aldaera	46
Dodgsonen <i>Ambotoko Peru eta Antoneri jarriac</i> sortaren transkripzioa	48
Anton Mari Aldekoa-Otaloraren aldaera	55
Aldaeren balio literarioa	59
Aldaeren euskara dela eta ohar gutxi batzuk	60
II. Antonio Goitiaren berri apurra eta koplak	61
Sarrera	61
Abel Muniategiren argibide eta koplak	63
Julio Bareño <i>Belu</i> idazlearen argibide eta koplak	67
Berri eta zehaztasun gehiago Antonio Goitiaz	69
Iurretako testigantza	71
Antonio Goitia ipuin bateko protagonista	72
Antonio Goitia protagonistatzat duten dantza-kopla gehiago?	74
III. Matxalen Busturiko dantza-kopletan	75
Sarrera	75
Hiztegi eta errefrautegietan bada ezer?	76

Juan de Irigoyenen testigantza	77
Balentin Aurre Apraizen testigantza	78
Azkueren testigantza	79
Busturiko testigantza	80
Otxoluaren testigantza	81
<i>Antzuolako hizkera</i> liburutikoak	81
Juan Karlos Gerrakoaren koplak boskotea	81
Aitzolen testigantza	83
Kopla lizunak direla eta	84
Matxalen Busturiko XIX. mendeko kantutegietan	86
IV. <i>Iruten ari nuzu kilua gerrian eta trikiti-koplak</i>	89
<i>Iruten ari nuzu</i> kantaren aldaera berri bat	94
Kantaren transkripzioaz eta nongotasunez	98
 DANTZA-KOPLAK: ERREPERTORIOAK	
V. Arantzazuko koplak	101
Cándido Izaguirreren lanen artean daudenak	101
Julian Alustiza <i>Aztirik</i> bildutako aleak	103
<i>Aránzazu</i> aldizkariko ale solteak	104
Pandero-joleen argibideak eta koplak	106
VI. Arratiako koplak: Zeanuriko lau bilduma	119
Lehen bilduma: Eulogio Gorostiagarena	119
Bigarren bilduma: Peli Etxebarriarena	131
Hirugarren bilduma: Bitoria Artetxerena	140
Laugarren bilduma: Resurrección M ^a Azkuerena	142
VII. Ataungo koplak	155
Juan de Arin Dorrnensororen gainean berri apurra	156
Kopla-bildumaren ezaugarriak	157
Kopla hauen gaineko zehaztasun zenbait	158
Kopla erreskada honetako hizkuntza-altxorrak	160
Koplak honetako eta gainerako kantutegietako bateratasunak	160
Txantulario kamino	161
Zehaztasun orokorrak	161
Cantos coreográficos al son de la pandereta	162
Coplas para la melodía del fandango	164
VIII. Eibarko koplak	181

IX.	Ereñoko kopladia	187
X.	Galdakaoko kopladia	191
XI.	Gernikako kopladia	195
XII.	Irungo kopladia	207
XIII.	Mañariko kopladia	211
	Errose Bustintzaren kopladiaren gainean	213
	Ebaristo Bustintza <i>Kirikiñoren</i> kopladia	215
	Errose Bustintzak bilduak	220
XIV.	Markinako kopladia	239
	Koplen ezaugarriak direla eta	239
	Hizkuntza zertzeladak direla eta	240
XV.	Nafarroako kopladia	245
XVI.	Ondarroa eta Lekeitioko kopladia	251
XVII.	Ubera (Bergara) auzoko kopladia	257
XVIII.	Zeberriko kopladia	261
XIX.	Manuel Lekuonaren bilduma	271
	Dantzarako gonbita	271
	Dantza despedida	272
	Dantza-koplak	272
	Erromeriatik bueltan	276
	Axeri-dantza	277
XX.	Han-hor-hemengo lan monografikoetan sakabanatutako koplak	279
	Loiuko koplak	279
	Bergarako koplak	284
	Antzuolako koplak	285
	Aia herrian bildutako uztatxoak	286
	Iñaki Gaminderen uzta	287
XXI.	Labayru Ikastegiaren artxiboko Bizkaiko antologia	295

XXII. Kopla asmatuak edo autorehun koplak	303
Sarrera	303
Lehen saila trikitiak: Gurutze Donearen egunean, nexkatx bati jarriak	304
Alper-alperrik	311
Hamaika ohar solte eta bat edo beste gehiago dantza-koplen gainean	313
Erabilitako bibliografia	329

DANTZA-KOPLÉN MUNDU URRUNA HUR

Liburu ezin jakingarriago bategaz plazaratzen jaku oingoan Jabier Kalzakorta irakasle eta ikertzaile markinarra. Ikerketa-eremurik kutunena dauen herri-literaturaren arlo hedatsutik atxina dabil oraingoan be, baina hemen aztergai dituenak ez dira ez herri-ipuinak, ez balada-erromantzeak, ez bertso-txortak edota atsotitzak. Oingoan kantu-koplakaz jatorku, dantza-koplakaz hobeto esanda.

Markinaldeko beste idazle eta sermoilari izan zan gizon ospetsu batek —luzaro barik beteko dira berrehun urte—, harako *olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz ozpinduba* idatzi ebanean, euskal dantzak erabili ebazan jardungai, eurotan ziran labanarriak galarazoteko asmo adoretsuaz bazan be. *Dantziak inpernuko pozuti urten dabela* zinoan hak. Gerora, eleizgizon ez ziran herri-gizon liberalago batzuen borondatez —Iztueta aurrengo dala— dantzea eta kantua begi atseginagoaz ikusten hasi ziran, eta inpernuko auspoa zeruko auspo bihurtu zan... eleizgizon euskaldunentzat be. Halan izan ez balitz nekez egingo eben dantza-koplak batzeko ahalegina, batez be XX. mendean, hainbeste eleizgizon eta hainbako herri- eta euskera-zale askok, galtzeko zorian ikusten ebezan koplak, zeinda harribitxiak balira legez.

Azken hamarkadotan herri-literaturako altxorak batu eta argitaratzeko ahaleginak ugariak izan dira: batean kantariak, bestean trikitalariak, baina baita herri-jakin-tza zale eta ikertzaileen aldetik be. Hurreko bat aitatzeko, ez dira aspaldikoak Xabier Amurizak Bizkaiko bertso zaharrakaz atera dituen aleak.

XXI. mendeko ahalegin barri honetan, plaza-erromerietako dantzak, ozpindu barik eztitu egiten dabezan kantu-koplak dakarkuz plazara Markinako Uriko seme honek, Frai Bartoloren susmo txarren ardura handiegi barik.

Dantza-kopla zaharrak idoroko ditu liburuan irakurleak; lehen plaza eta erromerietan panderoaren hotsean kantetan ziranak, gaurko moda barrikoen aldean bestelakoak diranak, gaur egungo erromeria eta dantzalekuetan usu ez diran kantu-moduak. Ohiturak asko aldatu dira azken 50-60 urteotan, bizimodua eta bizibideak aldatu ahala; eta belaunaldi zaharrekoak edo ez badira, gogoan be ez ditu kopla zaharrok gaurko

jenteak. Nekazal gizarteagaz bateratsu joan dira atzeraka. Kopla-kantuen hotsera dantzan egitea usu zan lehen; herri txiki eta auzoetan, urietan baino gehiago orduan be. Uri eta kaleetan gerora bizibarritu dira, baserrian bakandu eta mehaztu ahala. Baina bizibarritze horrek, lehengo usu zaharra antzaldatu egin dau halabeharrez: oraingo koplagingtza ez da lehengoa, bertsogintza be ez dan moduan. Dantza-koplagingtza modernoa, musika gizarteratzeko teknika modernoakaz batera garatzen joan dana —eta batez be Gipuzkoa aldean sustraitu eta indartu dana—, gaiz, doinuz eta eraz barriturik dator: bestelako koplak dira, gaurko gaiei oratzen deutse, puntu aberatsagoz eta teknika gehiagoz hornidurik dagoz... eta euron gizarte eginkizuna be ez da lehengoa: XX. mendearen lehen 60 urteetan baino eremu murrizagoan bizi da: trikitiak eta dantza-koplek ez dabe izan harrezkero lehenagoko tirarik plaza-erromerietan.

Kopla-kantuan jarduteko usadioa aspaldi zaharrekoa da gure artean be, Gaztelan eta beste auzo-herrialdeetan dan antzera. Euskeraz ditugun amodio kantu zaharretan diran kopla askok dabe, amodioaz ganera, dantzarako onduak edota kantatuak izatearen antza. Urrun joan barik, hor ditugu Lazarraga arabarraren izkribuko amodio kopla ugariak. Oraintsu panderu soinuan kantetan izan diranen antzantzekoak dirudie ondoko zaharrok:

(a)

“Mendi altuan erurra daidi,/ aran baxuan eguzki;
mendi-aran guztiak baino / ene koitaok nagusi.

Ikaz laztan ninduan donzeilla batek / aurten nai ez ekusi;
laster kanbiatu ninduan / deseo ebena gaiti”. (51r)

(b)

“Donzeillatxo atrebidea,/ ez zabiltz ene gogoan, ez;
bestela ondo deizut baiña,/ ezkondu baxinbatean ez.

Gure ortuan madari,/ gurazaurik amabi;
beste amore bilatuko nax, / amore bear banadi.

Ene laztantxo linda damea,/ esporzu artu egizu;
uste gutxien dozun orduan / enegaz bearko dozu.

Urtan eder arria,/ aen gaiñean txoria;
amorantian lekidanari / atera neio begiak. (17r)

Bilduma-liburu honetan batzen direan lango dantza-koplak unidade solteak izan ohi dira gehienetan; banango, binango edo hirunango katebegiak badira, baina nekez osotzen dabe dantza-koplen txortak unidade literario bat, konposizino baterakoi bat; ez ohi dabe batasun tematikorik edo hari narratiborik.

Jatorriari jaramon badagiogu be, iturri diferenteetakoak izaten dira: koplak batzuk jaso izan diran inguruak bertan sortu edo bertakotuak izaten dira; bertako persona, leku edo jazoerak aitatzen ditue; beste asko baterik bestera dabilzan koplak dira, hurrago edo urrunagotik ekarriak. Batzuk amodio-kantu zaharretan dabe jatorria, beste batzuk barriagoetan; askok amodiozko kantuetan; pandero-joleak, euren ederrarren edo euren politarren bere erreperetoria erakarri dituanak. Koplakantariak dantza-soinuaren erritmora errosario-garaun solteen antzera batu eta lotu ohi ditu holako koplak, beretzat gogokoen edo dituenak.

Badira izan formula antzera jotzen daben koplak, batez be hasiera eta akaberakoak, han eta hemen, behin eta barriro bardin edo antzera kantetan diranak. Hasiera-kopla polita dogu Arratiako kopladiako hau: *Hasiko naz hasitera,/ ai hau da lenengo vertsoa,/ veronek emongo'tsue/ dantzan eiteko gogoa.* Amaierakoak gehiago eta ezagunagoak dira beharbada: *Katarroa daukat eta,/ ezin dot ondo kantadu...* Nori ez jako ezagun egiten, Maurizia Arteakoak, Leon albokariari albotik panderoaz laguntzen eutsanean, akabuan kantau ohi eban harako: *Hauxe da akaberea,/ akabera honen tristea!/ Denpora txarrak emonda/ etzera doa jentea.*

Ikerlanaren egileak *kopladi* izen politaz bateatu ditu han-hor jaso dituen koplak txortak. Non kantatuak edota non batuak izanaren arabera, hain lekutako kopladiak: Arantzazukoa, Ataungoa, Arratiakoa eta abar luzea, batez be Bizkai partekoa, baina baita Irungoa be, Gipuzkoako beste ertzean.

Askotariko landaraxoen bidez osotzen dira landarediak: gaztainadiak, sagardiak edo harestiak dirala. Halantxe batu ditu egileak be bere kopladiok: lantzean leku baten, lantzean iturri batetik. Batzuetan iturri idatziez baliatu da, euretarik gehienak iturri xume eta erdi-ekutuak, gitxik edo inork ezagutzen ez zituenak. Beste batzuetan, eskuizkribuzko koaderno eta orriez, artxibo zaharrak arakatzearen porasuz. Eta hirugarrenez, biltzaileak berak jaso ditu iturri bizitik, lekukoen ezpanetatik, halako edo honako bertsinoak. Egia handia da izan be, hemengo koplak lango bitxiak euron bila dabilenak idoro ohi dituala, urligana beren-beregi eske doanak; uste-uste barik edo berezean nekez etorten dira eskura. Ahalegin hori, jakinaren ganekoa, zor jako bilduma honen egileari.

Kopladien jatorriari erreparatzen bajake, berehala ohartuko gara dantza-kopla txorta ia guztiak sartaldeko lurretan batuak dirala, batzuetan euskeraren sartaldea Gipuzkoan be sakon sartzan dala: Ataungo kopladia da, kasurako, bildumako aberatsenatarikoa. Baina gitxi-asko, Pirinioz beheko eremu zabaletan ibili izan dira, eta horren oihartzun da bilduma hau.

Aipu berezia merezi dau liburuaren lehenengo atalak. Bizkai aldean zahar antzekoak eta ezagunentzat dagozan Anbotoko Peru eta Antoni egindako bertsoak, Antonio Goitia binbolinteruarenak eta Matxalen Busturikoren ingurukoak ditu besteak beste aztergai ikertzaileak.

Antonio Goitia aitatu dogun ezkeru, akorduan daukat 1980an hasi eta hurrengo urteetan Derioko Eleiz Irakasle Eskolako ikasleak ipini nituala herri-kantak bazten, eta haetariko batek ekarri eustazala, orduan larogei bat urte ebazan Patxi Bargondiakoari (Dima) grabatu eutsazan dantza-kopla eder batzuk, euretariko batzuk Antonio horrenak izan behar ebenak. Gramatika-egitura lirainak baziran berean: *zeure berbien donosa, zazpi umarekin atsue* eta halakoak. Doinu ederrez eta eritmo biziz laguntzen zituan koplok, lehen eta hirugarren lerroak errepikatuz eta bigarrena atzenez barrero kantauez. Hara sorta osoa, lehenengo koplan kantaerako errepikak emoten dirala:

1

“Sasien txorillarrosa,
sasien txorillarrosa,
zeure berbien donosa.
Zaldunak euki lezake
zeugaz ezkontzeko poza,
zeugaz ekontzeko poza,
zeure berbien donosa.

2

Zeuk ederrorrek esana / etzagozala neuretzat,
maitia, eskerrik asko, / ez nago neu be zeuretzat.

3

Haxeak korri e(g)ikera, / mendi altuen zunzune,
Ezaguturik naukazu / saldute narabizune.

4

Igesik etorten dira / pena neuriek nagosi,
Igez maite ninduenak / aurten ez nau nahi ikusi.

5

Antoniok egin arren / mutil gaztetzat burue,
Etzean itxite dator / zazpi umarekin atsue.

6

Josepa Elorriokue, / orain berso bat behar dau,
Beran gorputz ederrori / ederto menietan dau.

7

Josepa Elorriokue / orain ezkontute dago,

Bere senar ederrori / korru eskinean dago,
Guardasol bi eskuetan da, / irribarre egiten deutso.

8

Josepak esango deutso / senarrari etxeratzean,
Antonion bersoakin / zeruen sarturik nago.”

Matxalen Busturikoren inguruko koplak eta bizi-zertzeladak batzen dituen atala, orain artean pertsonaiaz eta gaiaz egin dan osoena dogu. Sarri erabili izan ditut neure gramatika eskoletan, koplak ezagunen antzeko diran bi. Bata: *Matxalen Busturiko/ amari negarrez./ amantal barri barik/ ezkonduko danez. Zehar-galdera perpausetako -nez atzizki klasikoak herri-literaturan ondino bizirik eta indarrean dirauela erakusteko. Bestea: Matxalen Busturiko/ izan balitz ona./ etzala etorriko/ Busturitik hona. Norbaiten jatorriko herri edo etxea adierazoteko Urlia hain lekutako egitura jatorraren testigantza legez, edota bardin, ustezko edo ei/omen erako adierazpen-perpaua adierazoteko -la atzizkiaz eraikiriko egituraren lekuko modura: etzala etorriko Busturitik hona.*

Dantza-koplak Errepertorioak izena dau liburuaren bigarren atal nagusiak: hor datoz banan-banango kopladiak, hasi Arantzazukotik eta hurrengorik hurrengora hainbeste herritan, artxibotan edo agerkaritan batu edo jasoak.

Arantzazukoetan Aita Villasantek jasoriko mordoskak euren osotasunean hartzen daben neurria eta balioa nabarmenarazoten ditu egileak; artean gitxi ezagunak eta gitxiago estimatuak izatetik bitxi balio handiko izatera dakarzanak ikertzaileak; baina Izagirre eta Alustizarenak be ondo gogoan hartzekoak dira.

Arratia, eta berariaz Zeaunuriko kopladiak jorratzen ditu ondorik: gudu aurreko bitxi-txorta bana-banakoak Eulogio Gorostiagarenak. Gaur nekez entzun leikezan berba edo berba-kateak agiri ditu hor: *liñoa irun* langoak.

Ataungo kopladia, berrehun koplarrainoko txorta luzea batzen dauena da bildumako altxor aberats eta zaharrenetarikoa. Gipuzkoan barrena, Goierriren sakonean halako dantza-kopla sorta ederra aurkitu zeitekenik inor gitxiak usteko eban, harik eta gure ikertzailearen zazpi ahaleginek beronegaz topo egin arte. Bizkai-Gipuzkoen arteko zubi zahar sendoaren froga argia dira koplak honeetariko asko, gure erromantze zaharrak diran antzera. Hizkeran bertan be sartaldeko euskereagazko kide-tasunak ugari dira. Literatura aldetik balio bardinbakoak dabe, baina hizkera kontuan be Goierri aldearen banakotasuna ondo erakusten dabenak.

Ondoko kopladi guztiak be, zeinek gehiago, zeinek gitxiago, baktzak bere meritua dabe; baina guztien zertzeladak hemen aitatzea ez danez gure asmoa, Eibarkoa eta Mañarikoa aitatuko ditut labur. Eibarkoa, hizkeraz eta gaiz Bizkaiko sisteman sartzen dala bete-beteen esateko. Juan San Martinek, aurreko biltzaile batzuk erabili izan daben galbahe estuegi barik sartu zituan gordinak be bere bilduman. Kale

giroko koplak izanik, umore eta ironia ez dabe falta, nabarmenkeriak barru dirala. Mañarikoetan, Errose Bustintzaren esku fina eta herri-jakintza sena ezagun dira. Edertasuna darie batzuei. Berbarako, harako: *Gorengo kamarara/ bidien labana!*. Meritugarriena neurria bera, Bustintzatarren kopladian 240 koplarraino zenbatzen dirala.

Kopladiotan zehar, literatura ederraz ostean, berariaz ohartzekoak dira hizkuntza alderdiko hainbat era bitxi be, batzuk euren zahartasunagaitik, beste batzuk euren bakantasunagaitik, deigarri egiten jakuzanak. Labanegia gertatzen da sarri, halako berbea edo egiturea zaharkituak diralako eretxia. Arinegi jotzen dogu batzuetan zaharkituztat epaitzera. Herri-literatura testuetan agiri diran formak ezesten dabe arin sasiuste hori. Lexiko, morfologia zein sintaxi mailan hainbat era idoro geinkez testuotan —eta aintzat hartzekoak dira guztiz hizkuntzaren gaur egungo ibilirako be—, azaleko itxuren kontra, ez hilik ez galdurik dagozanak; bizi dira, batzuetan osasunez, beste batzuetan osta-osta, galdu-gordean herri-literatura horren uhinen artean.

Berba zaharraren gordairu izan ohi dira koplak. Halan irun aditz bakanaren azterrena dogu Arratian harako: *Liñua badot baye/ ondo iruteko./ andra ardozaleak/ ez dau ondo irungo* (Zeanuriko kopl.). *Zorigatx (zoritxar)* gitxi erabilia dogu harako: *Belea dabil hatxean/ verentzat zorigatxean* (Zeberioko kopl.). Ahaztu samar dogun *sobradu* adjektiboa dogu harako: *Soldadu noa, soldadu./ etzeko seme sobradu./ ez dot yoan gure baia./ eroango neude seguru*. Hurrengo baten *baize(n)* juntagailu zaharra, gipuzkeraz nekez entzuten dana, Ataungoan: *ez naiz ni maitegure./ dotearen baize*. Bizkaiko beste baten be agiri dana: *Santa Eufemiako zelaixen/ laprast einda jausi nintzen./ eneuen hazurrik hausu/ mamiña mailletu baxen*.

Sintaxiari jagokonez, hor dogu: *ama neurea*, ordena horrexegaz: *Ama neurea beti/ agiraka neuri./ iluntzean goizegi/ etorriagaiti* dakusku Arratiako kopladian. Taiu berekoa dogu harako bestea: *Ama zeuriak neuri/ parian pasaute/ ez deust agurrik egin/ burua jiraute.// Ama zeuriak neuri/ agur ez eiteko/ ze palazio dauko/ zeuri emoteko*. Bide beretik, *-ra* izan ugaria da kopletan. Halan harako: *Txinkirrin kitxin/ atzo nintzen Bilbora./ txinkirrin kitxin/ tomate berdetan*. Edota: *San Blas pasau dan urte bi/ Abadiñora nintzan ni* (Zeberioko kopl.).

Izen eta aditzen morfologian be bada zer esanik. Gaur nekez erabilia dan *-zaz* atzizkia dogu horrako: *Goien dago Larrunza./ parean Igartu./ horra bada Lorenza/ ni zuzaz beartu*. (Ataungo bild.). Aditz partizipioetan aspalditxo galdu zan *-adu* amaiera *-au* laburraren mesedetan, baina kopletan neurriari esker jagon egin da. Hala harako erromantzean: *Arantzazure yoan behar dot/ gabeen edo egunez./ Birjiña Amoni preguntaduten/ ixingo bada edo ez* (Neska ontziratua. Dima). Edo: *Ez egizu Errosa/ katua mankadu./ saguak kuxetako/ katua bear dogu* (Zeberioko kopl.). Noiz edo noiz adizki edo aditz-aldaera bereziak be agiri dira. Halan *nadila*

zaharra *naitela* barria barik harako: *Amak ezkondu nadille/ neure moduko batekin*. Edota *diñeust, iñautsi* aditzaren zahar kutsuko era, harako: *Amak ezkontzeko diñeust./ neure moduko batekin*. Biak koplak beraren aldaerak.

Jabier Kalzakortaren dantza-kopla bildumaren beraren ezaugarrietara etorruta, ezin esan barik itxi, beronen meritu handienetarikoa batze-lan eroapentsu eta neko-soa egitea dala; ez gauek goizera, urteetako inurri lan etenbakoaren porasuz baino: bazterretan inon diran paper zahar eta aldizkari apal ugari arakatu ditu, eskuizkribuak be parkatu barik, inor gitxik usteko ebazan koplak-bitxiak topau eta geuganatu arte. Ipar eta Hego, herri eta erbeste ibilia da Kalzakorta euron atzetik: artxibo handi eta txiki, publiko eta pribadu, danetarikoak azterkatu ditu.

Ikertzaile fin eta zehearen sena darakus kopladiok garantzeko orduan. Koplak batze hutsera mugatu barik, ahal diran ertz guztiai oratu deutse: *ze* gai darabilen, *ze* irudi datzan eurotan, koplak bertsino diferenteak, eurotako barianteak, hizkera alderdiko zehetasunak, transmisio eta transkripzio akatsak, izan dituen biltzaile edo egileak...; berba baten, euron testuinguruan ahalik eta osoroen girotzen jakin dau. Bilketa aberatsa eginez ostean, horretan datza beronen ekarri aparta.

Aparteko moduz argitzen daki bertso edo koplak askoren barru-zentzuna, berriaz hitz berezietan erreparatuz eta euron esangurak argituz. Koplak-txortak bakoetxaren eta koplak euren iturri eta aldaera guztiak ezagunak ditu; euren historia bibliografiko osoa, berba baten. Horren atzean, koplak eta koplak-txortak edo eurotako gaien inguruan liburu-aldizkarietan diran azalpen eta aipuez ganera, izkribu eta paper xumeetarainokoak arakatu eta ikertu ditu, euron azterren bila.

Berba baten, dantza-koplak arloan inoiz batu dan corpusik aberatsena eskeintzen deusku ikertzaileak, bestek nekez emon leikezan zehaztasun eta zidurri guztiez hornidurik.

On eta probetxu egin beigu irakurle guztioi liburu honek, *ze ez dago* esanenik, gozamina berez sentiduko dogu liburuaren orrietan atxina joan ahala.

Adolfo Arejita

DANTZA-KOPLA LIBURU HONEN HISTORIA DELA ETA SARRERA

Badira hamalau urte baino gehiago herri literaturaren esparruan neure oinak sartu nituela. Uste dut euskarazalea dena, euskararen ederra atsegin duena, euskararen ahozkotasanak liluratzeko duela lehenengo eta behin. Eta euskararen ahozkotasan bero horren distira herri literaturaren generoetan bizi da, ene ustean. Hemen xehero azaltzea nahi ez ditudan arrazoiengatik lo-kanten bilduma bat egitea pentsatu eta lanean hasi nintzen. Lo-kantak, ordea, non bildu?

Euskal kantutegi ezagunetako lurraz haraindi jo nahi nuen, eta horretarako bi esparru nituen, aldizkarietako ale sakabanatuak bildu batetik; eta gaur egunean emakume adinduen memorian gordeak daudenak biltzea, bestetik. Bi bideak ibiltzeko moduak oso bestelakoak dira, bistakoa denez. Lehenak bibliotekako lana eskatzen du, bigarrenak berriemaile on direnekin hartu-emanetan jartzea. Bi bideetan barrena ibili nintzen bosten bat urtean.

Bibliotekako bidea beste noiznahi ere egin zitekeela pentsatzen nuen; lekukoaren testigantza, ordea, presazkoa zen. Izan ere, lekukorik onenak norbera joan aurretik hilak direlako susmoa burutik kendu ezinik du langintza horretan saiatzen denak. Oraindik orain ere, duela hamabost urte herri-literatura berriemaileak izandako amona maitagarri haiek ezin izango ditudala berriro bisitatu pentsatze hutsak nahigabetu egiten nau. Bila doanak, bestalde, neurri handi batean behintzat, alde aurretik jakin behar du bila dezakeena. Alde aurretik jakiteko noraezekoa da liburuaren ahozkotasanaren berri izatea.

Zergatik eta zertarako lo-kantak bildu? Arrazoietako bat hau da: Bizkaian, lo eragiteko, ia oraintsura arte, koplak luzeak kantatzen zizkiolako amak umeari. Koplak horiek, askotan ere askotan, lo-kanta hutsak ez ezik, dantza-kopla lo-kanta bihurtuak ere izaten ziren.

Aldizkarietako aleak biltzea baino zailagoa, neketsuagoa da egunkarietako orrialdeak ikustea. Egunkari zaharrak aztertze hemerroteketako makinatan mikrofilmak ikusiz egiten da, nik ezagutzen ditudan liburutegi gehienetan; eta langintza

hori uste baino neketsuagoa da. Banekien herri-literaturaren aleak biltzeko, bertso zahar, koplak zein baladak, *Euzkadi* egunerokoan agertzen zirela. Dantza-kopla horien sorta batzuk ere banituen, Jaione Ibarrak bildurik. Nik, ordea, *Euzkadi* egunkari abertzaleko ale guztietako euskal sail guztiak ikusteko asmoa hartu nuen. Egunkariaren euskal atalaren ideia osoagoa izan nahi nuen. Folklore-aleak biltzeko ere, sailean ikustea baino sistema hoberik ez dagoela eta, hasierako urteetatik aurrera ale guztiak orraztu nituen. Bilbon Foru Aldundiaren bibliotekan egin nuen lan hori, uda batean baino gehiagotan, egun pasa lanera bibliotekara joanez.

Eguneroko horren ondoren aldizkaririk aberatsena *Aránzazu* aldizkaria egin zitzaidan. Dantza-koplen bilduma aberatsenak hor daude. Badira hala ere han-horhemen argitaraturiko ale bakan batzuk. Errose Bustintzak, Kirikiño idazlearen lobak, irudi polit baten bidez honelaxe zioen:

Udagoyenetan mendijetako orbel artietan ostenduta egoten diran gaztaiña aliak lez, geure basetxietako atso-agura agurgarriren kolkuetan ondo gorderik egon diran esakun eta bertso zarrak agertzeraz nayatortzue. Lenagokuak esaten eben lez, ludija zar eta barri dala ta, gauza zartxu oneik be atsegiñez irakurriko dozubezalakuan nayatortzue. Ona euretari-ko batzuk ba.¹

Atso-agureen kontzientzian, Errose Bustintzak dioskunez, bertso eta esaerak gordetzen dira basoetako orbel artean gaztainak bezalaxe, eta, era berean, euskal aldizkari eta egunkarietako orrietan koplak-aleak ezkututzen direla esango nuke konparantza beste leku batera ekarriz. Eta baso hori ibili ez duenak nekez jakingo du horren berri.

Liburu batean dantza-koplak biltzeko asmoa ez da enea bakarrik izan. Orain baino lehenago, Lauaxetak ere koplen edertasunari erreparaturik asmo bera erabili zuen. Laukizko olerkariarentzat, gainera, ez zen helburu bakarra edertasuna biltzea, aberriaren onerako ere bazen. Gernika inguruko koplak batzuen ondoren honelaxe idazten du Lauaxetak:

Uarra. Azkenengo abestitxu au polit-politta dozu. Olako asko batu biar doguz. Lagunduko dauskuzu, ezta? Aberrijaren onerako dira-ta. Erriko atsuakin ibilli igande arratsetan, bai?, eta asko ikasiko dozuz abesti txukunak. Lauaxeta.

Lauaxetak, *Euzkadi* egunkariako euskal ataleko zuzendariak, asko estimatzen zituen herri-koplak. *Arripe* delako berriemaileak, ordea, ez daki poesia horren balioaren berri eta honelaxe erantzuten dio gure olerkariak:

¹ *Euzkadi*. 7.379 zenb. (1936-08-20) 1. or.

Balijo daben, ittaunduten daustazu, *Arripe*. Neure ustez gauza gusti-jak balijo dabe. Gero emen argittalduten diranakaz, idaztiño txukun bat egingo dogu. Zayatu zadixe, ba, asko billatzen. Lauaxeta²

Idaztiño edo liburutxo polit bat egin zitekeela idatzi zuen Lauaxetak. Gure asmo nagusia ere horixe berori izan da, liburu polit bat egitea. Beste hizkuntzetan ere izan dugu liburu eredugarririk. Erdaraz, esaterako, Gerald Brenan-en *La Copla Popular Española*³.

Nik lan bitxi bat egin dut denbora luzean barrena: biltzaileen lana bildu. Lan hau egin dudanean, beraz, biltzaileen biltzailea izan naiz. Lan honen meriturik handiena, beraz, garai bateko biltzaileek dute. Hona zenbait izen: Kirikiño, Errose Bustintza, Juan Arin Dorronsoro, Aita Villasante... Biltzaile horien guztien uzta biltzeko, bibliografiarik ezean, aldizkari zein egunkarien orriz orriko orrazketa sistematikoan oinarritu naiz.

Bilduma egina nuen arren, orain dela hamar bat urte, ez nuen biderik onena zein zen asmatzen. Ordenadorean neukan bilduma guztiko koplak nola sailkatu? Modu batera baino gehiagotara, inolaz ere. Aldizkarika edo biltzaileka baino argiagoa herrika egitea izango zela uste izan nuen. Koplak herrika sailkatuak direnez gero, Manuel Lekuonaren *coplario* hitza gogoan, euskaraz *kopladi* hitza erabili dut. Koplario zein kopladi asmakizunak Manuel Lekuonarenak dira: erdaraz *coplario* bezala euskaraz *kopladi* edo *koplategi* erabiltzen baitzuten⁴. Liburu honetan, beraz, atalik interesgarrienak *Ataungo kopladiak*, *Zeanuriko kopladiak* eta *Arantzazuko kopladiak* hartuko dute. *Kopladi* izan beharrean berdin izan zitekeen *koplategi* ere. Bi aukeren artean batari hobetsi behar eta, lehenari hobetsi diogu.

² ARRIPE. *Euzkadi*. 6.126 zenb. (1932-08-13), 6. or.

³ *La Copla Popular Española*. Málaga: Editorial Miramar, 1995. Liburu honetan koplak zenbakiturik daude. Askoz kopuru handiagoko bilduma lanak egin zituen F. Rodríguez Marín ikertzaileak. Gaztelaniazko koplaren bibliografia on bat aurkitu nahi duenak jo beza Gerald Brenan-en liburuaren gainean José López Lópezek egindako bibliografiara.

⁴ Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* (Donostia, 1936) lan klasikoan "Las trikiti-kopla o coplas de sisi-soñu o bizkai-dantza: coplas de pandereta" atalean *coplario* (de *Zeanuri*) darabil. *Coplario* hitza, ordea, ez dugu inongo erdal hiztegitan aurkitu. "Conjunto de coplas" esateko "coplerío" hitza aurkitu dugu bakarrik. Manuel Lekuonak erdarazko *coplario* hitzaren baliokidetzat *kopladi* eta *koplategi* erabili zituen euskaraz, Ondarroako santa Klararen kantaren gaineko saioan. Hitz bien artean lehena aukeratu dut, nahiz eta bigarrena, denok ezagutzen ditugun morfologia-legeak direla eta, hobeto osaturik edo eginik egon. Lehena, landareek eta zuhaitzek duten bizitasun eta guritasuna duenez, bigarrena baino egokiagoa dela iruditu zait. Bi hitzak *Orotariko Euskal Hiztegi* zoragarrian ere badaude dokumentaturik baina ene ustez gaizki. Ez dute adierazi nahi, inolaz ere cancionero, era berean osaturik dagoen *coplario* baizik.

Liburua egiteko, ordea, sail berriak nahi nituen. Liburua koplak sailez gainera koplak-azterketaz hornitu nahi nuen. Bi aukera horien artean, koplak azterketen eta koplak-korpusaren artean, ni bigarrenarekin geldituko nintzateke. Koplak sailak urte aleak direla iruditzen zait, eta azterketak, ordea, kasurik gehienetan, lastoa⁵. Uste dut literatura kontuetan azterketarik onenak eta zehatzenak ere ez direla behin ere aztergai duten lan bikainen pareko.

Koplak sailak eta azterketa uztartu nahi nituen lan berean. Dena egiterik, ordea, ez dago. Txapel batekin buru bi estali ezina gertatu zitzaidan. Badago, gainera, beste kontu bat. Lan erabat borobilik eta konplirik ez dago eguzkiaren azpian. Askotan lan duina eskaintzea nahikoa izaten da. Lana hobeki biribiltzeko pandero-joleengana ere koplak bila jotzea erabaki nuen, baina lan hori Jose Mari Iriondo adiskidea egiten ari dela jakin nuenean arindu handia hartu nuen. Trikiti mundua nik baino hobeki ezagutzen duenak egingo du lan hori, hurretik hurrera hainbat urtetan trikitilariak ezagutzen dituenak samurrago burutan eman dezake lan hori.

Liburu honetan ahal izan ditudan koplak sailik eder eta osoenak ematen ahalegindu naiz, gorago esan dudanez. Koplak diodanean, koplak hitzak berak esan nahi dut. Liburu honetan ez baitago koplak partiturarik, koplak hitz hutsak baino. Partiturak edo pentagramak edo doinuak irakurtzeko lengoaiarik ez dagoenez gero, ez dago zehaztuta zein eratak pandero-koplak den ere. Porrua edo mar-txa, arin-arina edo dena delakoak ez dira hemen markatzen. Jatorrizko iturrietan balego holako argibide edo zehaztasunik, ekarriko nuke lan honetara.

Dantza-koplak hitz soilen bilduma bat da gure liburukoa, beraz. Eta hitzen bildumak direnez gero, ahalik eta ondoen ematen ahalegindu naiz. Zer irizpide erabili koplak-hitza emateko? Zein da irizpiderik onena honelako lan baterako? Hona hitz batez: koplak-bildumak jatorrizko dokumentuetan agertzen diren bezala ematen ahalegindu naiz. Jatorrizko eran ematen badira, gaurko ortografiako erregeletara ekar daitezke, samur asko, inolako buruhausterik gabe. Zergatik bide hori? Jatorrizko irizpideak ere oso desberdinak direlako. Gerra aurreko *Euzkadi* egunkariko Bizkaiko Markina aldeko fonetismoak, garai bateko ortografia, Azkueren eskuidatzietakoa eta abar. Euskara estandarreko grafia ekarriko banu koplak-bilduma hauetara, mila koplak-mila sortuko lirateke.

Koplak ordenari dagokionez, zer irizpide erabili? Koplak ordena edo aurren-hurrena biltzaileak jarri duen modukoa edo neure beste era bateko segida ezarri? Koplak aurren-hurrena aldatzen ibiliko banintz, sekulako anabasa sortuko litzateke. Hor ere irizpide bera erabili dut: biltzaileak jarritako koplak-segida bera jarri dut nik ere.

⁵ Badut nik neuk lantxo bat koplak-bilduma zahar baten gainean “Una colección antigua de coplas vizcaínas” in *Litterae Vasconicae: euskeraren iker atalak*. 9 zenb. Bilbao: Labayru Ikastegia (2004), 9-63 or.

Beste sistema bat izango litzateke koplak dantza klasearen arabera ordenatzea. Kopla-letrak, beraz, ene lan honetan, ez daude sailkaturik dantza-klasearen arabera. Zergatik? Batetik ni ez nagoelako musika kontuetan jantzia, eta, lan nahastetsua izango litzatekeelako, bestetik. Sailkapena egiten ibiltzea niretzat alferlana eta antzua izango litzateke. Eta sailkapena dela eta, Eugène Ioneskoren ipuin bateko eztabaida batez gogoratzen naiz lerro hauek idazten ditudanean. Kalean behera datozen erri-nozerontek afrikarrak edo asiarrak diren eztabaidatzen dute pertsonaia bik. Adar bat edo adar bi duten eztabaidatzen dute. Adar bateko izanez gero, kontinente batekoa da, adar bi izanez gero, beste batekoa. Nik uste, kontu honetan, zer eratako piztia edo pataria den jakitea dela kontuzkoena eta axolagarriena. Eta zein kontinentetako den jakingo du, dudarik gabe, horren berri dakienak.

Euskal dantza-koplak Japoniako haikuen antzekoak dira, alde batera. Olerki minimoetan pentsamendu bat edo eztenkada bat edo ideia poetiko bat borobiltzen da. Gure dantza-koplak beti iruditu zaizkit Euskal Herriko haikuak: silaba gutxitan ideia zorrotz eta harrigarria gordetzen dutelako.

Beste konparantza hurbilago bat erabiltzera, euskal dantza-koplak gure aho literaturako jakirik primoreetan primoreenetakoak iruditu zaizkit beti. Beste era batera esan, euskal dantza-koplek badute basamarrubiekin bateratasuna. Basamarrubi bila basora sartu bazara inoiz, irakurle maitea, kontu handia izan behar duzu hankapean lehertu ez dezazun bila zabiltzana. Orri artean behin marrubi gorria ikusiz gero, hazmamien artean kontuz hartu eta ziri batean sartu behar duzu. Bi hazmamietan baldarki hartzen baduzu, desegin egingo zaizu basafritu xinglea. Zirian sartu beharrehan ahora eramaten baduzu, mihi edo ahosabaia ukitu bezain laster desegin egiten da fruitu basotarra, dakizunez; eta desegin bezain laster zaporea hauta izango duzu. Zaporea hori, gainera, pertsonala da. Basa-marrubia ahoratzen duenak bakarrik daki basa-fruituaren zaporearen berri. Eta basa-marrubia ahoan desegiten den bezala, bizten eta ernetzen da kontzientzian.

Zinez diotsut: haur baten atzokolaren tamainako basa-marrubi bakarrak zaporea handiagoa eta gozoagoa du negutegietako marrubi erraldoi guztiek baino. Niri, —aitorpen modura diotsut hau, irakurle maitea— liburu honetako kopla bakoitza basa-marrubi gozo bat dirudit. Eta zirian sartu ditudan marrubiak kopla sail bat. Basoan aurkitutako sasi-marrubi bakoitza bezain gozoa iruditzen zait liburu honetako kopla bakoitza.

Bestela esan, dantza-kopla bakoitzeko bizipoz bat izan dudala iruditzen zait, kontzientziaren alegeratze bat. Koplen esangura azalduz gero, bere zaporea gutxitu edo goxoa gezatu egiten da. Kopla bakoitzak oihartzun berezia du bakoitzagan. Koplak azalduz gero, irakurlearen adimena eta sentimena ez dira aintzat hartzen. Egin dezadan saio bat. Kopla gehienak zirikatzaileak, adarsoinukoak dira. Bestela esan, ironikoak, sarkastikoak eta are kaustikoak ere izan ohi dira, denok onartzen dugunez. Har dezagun koplarik ironikoetan ironikoenetako bat:

Igaz ogei urte ta
aurten emeretzi,
zuret zat nago ni
biar edo etzi.

Hau esaten duenari —hemen, jakina, norik entzuten duen izango da kontua mutila edo neska izateko— urteak gehitu beharrean gutxitu egiten zaizkio. Lehen esaldian, *igaz ogei urte ta/aurten emeretzi/*, dagoen ironia edo *imposibilia* bigarren esaldian biribiltzen da: *zuret zat nago ni/ biar edo etzi*. Zuret zat egotea, ez orain, ez gero, ez gaur, *biar edo etzi* baizik, “inoiz ere ez nagoela zuret zat” esateko modu finagorik ba ote da? Puntuen edertasuna eta egokitasuna azaldu behar ote da? Baina nik hemen idatzi dudana baino askoz eta askoz gehiago, eta hobeto eta laburrago, bidenabar, ez ote du biltzen koplak horrek berak? Beste zenbait nekez ulertu daitezke gaur den egunean. Eman dezadan adibide bat:

Oraingo mutillek
Bana-binekoak:
Lapiko tapatzat
Ala-galakoak.

Kopla hori nekez ulertuko du gaurko irakurleak. Alferrik izango ditu beharbada hiztegiak eta biltzaileak berak ematen duen itzulpena:

Los chicos de hogaño
Escogidos:
Para tapa de pucheros
De a gala.

Egin dezagun azalpen saio bat. Dantza-kopla askok sarrera bera dute ‘oraingo mutillek’, ‘oraingo neskatxak’ eta abar. Zergatik? Bistakoa denez, dantzan ari diren neska-mutilei zuzendutako koplak direlako. Koplariak zirikatatu nahi ditu neska-mutil dantzariak eta horrexegatik zirikatzearren erabiltzen ditu horrelako zirikadak.

Mutilak bana-banakoak, bakarrak, hautak eta ezin hobeak izan beharrean *bana-banakoak* izan beharrean *bana binakoak* dira. Hitz joko horrekin ez direla hain apartak eta onak adierazi nahi da? Ez, justu kontrakoa baizik⁶. Mutilak *alagalakoak* direla, egokiak, ajutuak adierazi nahi du. Baina zergatik lapiko tapatzat alagalakoak? Esateko era hori errefrau batean oinarritua dago *Lapiko bakoitzak bere tapa* esaeran, hain zuzen. Bestela esan: denek bilatzen dute beren neurriko norbait. Baina errefrau hori modu ironikoan ulertu behar da erdarazko *Siempre hay un roto*

⁶ Alberto Zuluaga fraseologoak *atomización de las unidades fraseológicas* deitzen zion fenomeno horri.

para un descosido paremian bezala, edo euskaraz *Intxaurrak aurkitzen dau bera apurtuko dauen harria*. Mutilak, beraz, zerbait izatekotan, lapiko-tapak dira, eta neskak lapikoak⁷.

Baina gatozen goragoko harira eta esan dezadan ene ordenadorean hamarkada bat baino gehiago daramatela dantza-kopla hauek, eta ordua dela nigandik bes-tegana abiatzeko. Ordua da zure begien aurrera, irakurle maitea, joan daitezten. Ordua da nik gatibu izan ditudan dantza-kopla soil, eder eta jostari hauek zure kontzientzian dantzan ari daitezten. Dantza-koplak sugandila bihurri, urduri eta bizkorrak dira, kontzientziaren zirrikituetatik sartu eta dardara batean jartzen direnak.

Esan dezadan, hitz beste eginez, liburu honetan dauden dantza-kopla guztiak, hiru sortatxo izan ezik, nik neuk euskal aldizkari-egunkarietako basotxoan bilduak ditudala. Bi sortatxo txiki, Uberakoa eta Markinakoa, bestek niganatuak dira. Hirugarren sorta luze xamarra Labayru Ikastegian dagoen materialetik osatutako antologia gisako bat da. Antologia horretan sorta batean eta bestean errepikatzen diren kopla ezagunak ekarri beharrean desberdintxoena edo berezitzxoena aukeratu ditut.

Ez dago esan beharrik egin dudan lanerako oso uzta urria dela, inolaz ere. Ehunka eta ehunka ordu sartu arren, basamarrubi-ziri gutxi bildu ditut. Eskutada bat marrubi biltzeko zenbat atzamarkada bota behar izan ditudan! Hiru bilduma aberats daude liburu honetan: Zeanurikoa, Arantzazukoa eta Ataungoa. Hiru hauek marrubi-habia aberats baten modukoak dira. Hiruretan ederrena, ene ustean behintzat, Ataungoa da. Ederrena eta zaharrena. Euskal dantza-koplen Kapera Sixtina bezalako. Bilduma zoragarri horrek dantza-koplaren mami eta legamirik aberatsena eskaintzen du. Bilduma bakar horrek, bere urrian bezain aberatsean, euskal liburu-rik txiki bezain politenetakoa osatzeko balio du. Bilduma bakar horrek, ene ustean, eman dezake XIX. mendeko euskal koplaritza zaharraren nondik norakoa.

Badago, azkenik, liburu honek argia ikusteko azken arrazoi bat. Liburu bat egiteko adorea hartzen dugunean, irudimeneko begiekin etxeko apaletan edo bibliotekoetara txertatu nahi dugun objektu bat ikusten dugulako da. Objektu horrek, era berean eta besteak beste direla, gure barneko gurari bat du txertatua erdian, mer-txikak hezurra bezala eta gorputzak bihotza bezala. Liburu honek ere neure gurari zahar bat gauzatu nahi du. Kopla-bilduma polit zenbait, barreatuegiak eta ezkutu xamarrean gehienak, ahalik eta modurik duinenean argitaraturik eskaintzea.

⁷ Hona Gotzon Garateren 30.466 *atsotitzak = refranes = proverbs = proverbialia* (Bilbao: Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2003) liburuko bat: 10393-Ba(d)uko nori iduri atalak lapikoari.

DANTZA-KOPLAK:
SAIOAK

I. VERSO BERRIAC AMBOTOCO PERU ETA ANTONI JARRIAC SORTAREN GAINEAN

Sarrera

Liburu honetako atal honek bigarren idazketa bat izan du. Lehenak *Karmel*¹ aldizkarian ikusi zuen argia. Bigarren aldi honetan, han esanak berritu eta osotu egingo ditut ahaleginean. Lantto horretan bertso sorta beraren hiru ereduren aldaerak eman nituen. Delako bertso sail hori polita izateaz gainera, Bizkaian dugun eza-gunenetakoa zen, eta lan berariazko bat merezi zuen, inolako dudarik gabe.

Baina zergatik osatu lan hura eta liburu honetaratu? Arrazoia argia da: gure kopladietako hainbat trikiti-koplak bide bitxi bat izan dute. Bertsopaperetik hitzunen memoriara joan dira bertsoak, eta, gerorantz, konposizioa desegin ahala, trikiti-kopla edo dantza-kopla bihurtu dira. Beste hitzez esan, konposizioa osoa erabat desegin baino lehen, bertso batzuen erdiak dantza-kopla bezala irauten dute. Jauregi bat lurreratzen denean haririk ederrenak etxeetako atalburu bihurtzen diren bezalaxe, gure bertso sortako erdika edo kopla batzuk trikiti-kopletan ikusten ditugu.

Diogunaren froga eta argigarri dira liburu honetako kopladi batean baino gehiagotan dauden trikiti-aleak. Trikiti-ale hauek ez dira, beraz, “Peru eta Anton” en bertso sailaren puskak baino. Gernikako kopladian 62, 63 eta 65 zenbakidunak, Mañarikoan 9 eta 176, Zeanurikoan 42, 92 eta 93.

Karmel aldizkariko artikuluan hiru aldaera desberdin erabili nituen. Hipotesi bat ere luzatu nuen, sortaren autoreak Durangoko Plateroak zirela, alegia. Erabili nituen hiru aldaerok han-hor-hemen argitaraturik zein aldaera argitaragabe bat ziren.

¹ Lehen argitaraldia KALZAKORTA, Jabier. “Verso berriac Ambotoco Peru eta Antoni jarriac sortaren gainean hitz bi” in *Karmel*. 245. zenb. (2004), 3-22. or. Artikulu honek nik nahi baino huts gehiago izan zituen. Hutsak, jakina, eneak ziren, lanak eskatzen zuen baino denbora gutxiagorekin eta presa gehiagorekin egin zelako.

Pentsatzekoa denez, hiru sortak bertsopaper zahar bateko sailaren aldaerak baino ez ziren. Oraingo lan honetan bost sail polit argitaratzeaz gainera, jatorrizko bertsopapera ere argitaratuko dugu. Konposizioaren autoretzaren gainean, bestalde, ez dago inongo dudarik: Pantxillon izan zen. Baina kontu horretaz hurrengo puntuan arituko gara.

Durangoko Panchillonon jatorrizko bertsopapera

Eman dezagun orain gure kanta-paperaren egilearen gainean dugun berri apurra. Hemeretzigarren mendean kanta-paperak puri-purian zeudela sorta batek sekulako arrakasta bildu zuen Bizkaian. Hona hemen delako paperaren izenburua: “Canta papel barriyac Durangoco Panchillonec ipiñiyac”. Gurearen berri esan dugu, baina Jon Bilbaok ere eduki zuen eskuen artean guk aztergai dugun konposizioa, zeren Durango hitzean honelaxe dakar: Canta papel barriyac Durangoco Panchillonec imiñiyac (17 estrofas. Comienza: Biscaico baster baten/ Amboto partian/ guison bi visiciran/ baserri batian) Durango, 1893.

Jon Bilbaoren *Bibliografian* agertzen den kanta-paperak noiz argitara emana den ere argitzen du: 1893. urtea. Guk puntu honetan transkribatzen dugunak ez dakar horrelako zehaztasunik. Sortaren izenburua antzekoa bada ere, ez dakar argitara-datarik, silutegi edo inprentako berri badakar, ordea: Durango. Imprenta y Librería de Florentino de Elosu. Gurea, atal honetakoa, eta J. Bilbaok esku-artean izan zuena bat ote datoz? Erabat berdinak ez direlako irudipena dut J. Bilbaorenak *imiñijak* baitio eta gureak *ipiñijak*. Kantaren hasera bera izan arren, gure alean *Biscaico* dio eta J. Bilbaorenean *Biscaico*. Kontu ezaguna da bertsopaper batek arrakasta izaten bazuen argitarapen berriak egiten zirena. Nikolas Alzola Gerediagak ere, Aita Berriotxoa erlijio izenez, J. Bilbaorena bera edo urte berekoa behintzat izan zuen. Nola jakin dezakegu kontu hori? 1983. urteko *Gerediaga* aldizkarian² “Bertsokanta paperak Durangoko inprentan” hitzaldian honelaxe esaten baitu:

Eta amaitzeko: Pantxillon durangarrak egin zituen bertsokantuen argitaldariaren ehun urte betetzen dira urte batzuk barru (1893-1993).

Nork ez dakizki beren bertsokanta hauek gure artean:

Bizkaiko baster baten
Amboto partian
Gison bi bisi siran
Baserri batian

² ALZOLA GEREDIAGA, Nikolas. “Bertsokanta paperak Durangoko inprentan” in *Gerediaga*. 1. zenb. (1983), orrialderik gabe.



Canta papel barriyac Durangoco Panchillonec ipiniyac.

1		5		9		13
Bizcaico baster baten Amboto partian Guison bi visiciran Baserri batian Goisian sartzen ciran Tabernaco atian Es eben alde eguiten Biyamon artian.		Atzui gorde yeuchat Ule copetia Costaco yacoc orain Bera topetia Saldu ta edan yaigun Aguardientia Buru mots dabilela Atzo trompetia.		Peruc dirantzco Antoni Ser dosu Antonchu? Kacartzartian majo Eindogu coipatzu Bost aldiz descansuten Artu dogu pentzu Jarri saite onduan Dartuisu descantzu.		Artua sopan eta Choletian ura Echuat ach onduan Olan bisi gura Lebatz edo ternera Lucainka musturra Onecas egotenoc Tabernan gustura
2		6		10		14
Guison biyoc sirian Peru eta Anton Buren aldi gustian Bisiyac Amboton Biyac euqui esquero Pdariya bon bon Atzuari esateutzen Ua ta banaton		Chapella escuan da Pipia mosuan Bideric topau esinda Dabiltzas ausuan Estropesetan dira Bigarren pausuan Begui biyas aurrera Sartzeira posuan.		Urrengo dirantzco ser Su Anton Curtzulu Curtzulua isan da Ilkun eiten dosu? Asten dira esaten Anton eta Praiscu Sure buru calvuac Argui eingo deuscu.		Tabernerai dirantzco Entzunein, patrona, Apari charbi baño Obayean bat ona Eser bayaun biyoutzat Ecarriña ona Diruric espayeuntin Emon gunau bona.
3		7		11		15
Biyac eguin eiyeben Seguru juntia Moseorra artu baric Echera es justia Erretiratu arte Errico gentia Echera duanari Kentzeco multia.		Biyac an ebilsala Berbas alcarrequin Esin aitu eiyuen Euskel ala latin Bator asto bategas Errotaco Martin Arec atera situan Bere astuaquin.		Curtzulu; ipiniyoc Argui yai mechia Besteia esingoyuc Bilatu echia Neure corta burdiya Balichoc cochia Ainche ebalico neuquec Neure atzo mochia.		Arratzalde erdiyan Jarri siran mayan Euren estamanguac Betarte larriyan Juan siran echera Iya gaberdiyan Gomuta asco baric Euren fameliyan.
4		8		12		16
Peruc dirantzco Antoni Ateraiç pipia Asumbra terdirequin Bete yuoù tripia Gañera edan yaigun Aguardientia Neuri beti gustaiyat Edari Puertia.		Orain badator lagun Praiscu errotariya Guison erraso escua Da edale garbiya Icusi ebanian Peru Burja ain arguiya Calvunaiti usteban Sala irarguiya.		Echian euqui arren Sarri moroquilla Onec ipinten yeuscuc Estamangu illa Guasen tabernara Obiaren billa Atzua umiacas Chimurtu daitela.		Aren andra tristiaç Bildurres icara Anamai Erroteta Da Malen Particara Alambere aguroc Basesquen bisarra Atznei austeco buruan picarra.
		17				
		Amazapi vertzo onen Oru despedida Curtzuluren cantuas Acabatu dira Atzuc aguracas Asarac badira Alcarreneac dirata Componduco dirata.				

Es propiedad.

DURANGO.—Imprenta y Libreria de Florentino de Elosu.

Anbotoko bertsoen bertsopaperaren argazkia.

Bertsoen data horrezaz baditut berri gehiago ere. Edward Spencer Dodgson (1857-1922) euskaltzaleak 1891. urteko urriaren batean idatzitako nota batean dienez, ordurako ezagunak ziran bertsook. Honelaxe dio ikertzaileak:

This song said to be 200 years old is sung in the taverns of Durango. This copy was given to me today by the bookseller de Elosu, son of the author of “Elementos de gramática castellana para uso de los niños etc.: Bilbao 1869” (un real) I have much pleasure in presenting it to monsieur Antonio d’Abbadie/ E.S. Dodgson (Durango October 1st 1891).

Kantak berrehun urte izatea ez ote da lartxo eta gehiegixto? Argitarapen kontuaz argi ikusten dugu 1893. urteko bertso papera baino lehenago ezagunak baziren Durangoko tabernetan, lehenagokoak izan behar zutela. Argitarazio bakar bat baino gehiago izan zituelako arrasto argi bat, esaterako, hamabigarren bertsoaren bukaran dugu, *Atzua umiacas Chimurtu daitela* horretan. Nik uste dut bukaera hori beste era batera izan behar lukeela, *Chimurtu dedilla*, hain zuzen. Era horretara hoshkidetasun betekoagoa egiten da *moroquilla/ illa/ billa* hitzekin. Argitarazio bat baino gehiagoko data biak 1890. urte ingurukoak izan arren, ez dugu bertso sailaren jatorrizko data zehatza finkatzeko daturik.

Kontuak honetara, eta pellokeria argietan erori gabe, datu argi batzuk baditugu. Pantxillon durangarra zen eta batez ere Durangon argitaraturiko bertso paperak hedatu ziren Bizkai guztian, baina eguerdian eguzki argia klar den bezala, normala den moduan, Durangoko tabernetan kantatzen ziren batez ere bertso horiek.

Joan gaitzen, orain, beste kontu batera, zer da Panchillon hitza? Nor da Panchillon delakoa? Itxura eta iduri guztiak direnez, bertso-jartzaile —seguru baino seguruago, bertsolari— baten izengoitia izan behar du. Bertso-jartzailearen izen-deiturak, ordea, ez dakizkigu. Autore beraren bi bertso sail bakarrik ezagutzen ditugu, gainera. Bietako bat guk atal honetara dakarguna da; bestearen berri nahi duenak jo beza X. Amurizaren *Bizkaiko Bertsogintza II. Izendunak* liburura³.

Orain arte bertso paper bakarraren jabe egin naizenez gero, hona hamazazpi ahapaldiak. Lehen idazkeran jatorrizkotik transkribatuko dut eta gero bizkai euskarara berraldatu. Bigarren transkripzioan Durangaldeko bizkai euskararen fonetismo gehienak transkribatuko ditugu. Modu horretara, bertso paperereko sailarekin berdintasun handiagoa izango du.

³ AMURIZA, Xabier. *Bizkaiko Bertsogintza II. Izendunak*. Bilbo: Kulturgintza, 1995-2006.

1

Bizcaico baster baten Amboto partian
Guison bi visiciran baserri batian
Goisian sartzen ciran tabernaco atian
Es eben alde eguiten biyamon artian.

*Bizkaiko bazter baten,/ Amboto partian,/ gizon bi bizi ziran/ baserri batian./
Goizian sartzen ziran/ tabernako atian/ ez eben alde egiten/ bijamon artian.*

2

Guison biyoc sirian Peru eta Anton
Euren aldi gustian bisiyac Amboton
Biyac euqui esquero edariya bon bon
Atzuari esateutzen ua ta banaton.

*Gizon bijok zirian/ Peru eta Anton,/ euren aldi guztian/ bizijak Anboton./
Bijak euki ezkerro/ edariya bon-bon/ atsuari esate(n) eutsen:/ -Hua ta bana(ja)ton.*

3

Biyac eguin eiyeben seguru juntia
Moscorra artu baric echera es juatia
Erretiratu arte errico gentia
Echera duanari kentzeco multia.

*Bijak egin ei eben/ seguru juntia,/ mozkorra hartu barik/ etxera ez juatia./
Erretiratu arte/ herriko jentia/ etxera duanari/ kentzeko multia.*

4

Peruc dirautzo Antoni ateraic pipia
Asumbra terdirequin bete yuou tripia
Gañera edan yaigun aguardientia
Neuri beti gustaiyat edari puertia.

*Peruc dirautso Antoni:/ -Atera e(g)ik pipia,/ azunbre ta erdirekin/ bete joa(g)u
tripia./ Gainera edan daigun/ aguardientia,/ neuri beti gusta jat/ edari puertia.*

5

Atzuai gorde yeuchat ule copetia
Costaco yacoc orain bera topetia
Saldu ta edan yaigun aguardientia
Buru mots dabilella atzo trompetia.

*Atsua(r)i gorde jeutsat/ ule-kopetia,/ kostako jakok orain/ bera topetia./
Saldu ta edan daigun/ aguardientia/ burumotz dabilella/ atso tronpetia!*

Bertso honetan *burumotz ibili* esapideak zer esan nahi du? Zer ote da *buru hutsik* edo *buru has* ibiltzea edo *kaskamotz* ibiltzea? Lehen adieran painelurik gabe ibiltzea da. Bigarren adieran ileak mozturik dituena edo ilerik ez duena kaskamotza izango litzateke. Bigarren adieran zentzu gehiago du, inolaz ere. Atsoak ez duenez gero ile-kopeta, buru motz dabil... Atso *tronpetea* esapideak zer esan nahi du? Herri kanta ezagunean bezala, *atsoak tronpeta joten* delakoak zerikusiren bat ote du honekin?

6

Chapella escuan da pipia mosuan
Bideric topau esinda dabiltzas ausuan
Estropesetan dira bigarren pausuan
Begui biyas aurrera sartzeira posuan.

Txapela eskuan (e)ta/ pipia mosuan,/ biderik topa(d)u ezinda/ dabiltza(z) auzuan./ Estropezetan dira/ bigarren pausuan/ begi bijaz aurrera/ sartze(n) dira pozuan.

Mosu Bizkaiko hitzak gaur dan egunean *potta* (gainerako euskalkietan *musu/muxu* ezagunak) adierazten duen arren, hemen lehenengo adieran dator *aholdea*, *ahoa* edo *musturra*. Pip(i)a, hortaz, mosuan egoten da.

7

Biyac an ebilsala berbas alcarrequin
Esin aitu eiyuen euskel ala latin
Betor asto bategas errotaco Martin
Arec atera situan bere astuaquin.

Bijak han ebiltzala/ berbaz alkarrekin/ ezin a(d)itu (l)eiyuen/ euskel ala latin./ Betor asto bategaz/ errotako Martin/ harek atera zituan/ bere astuakin.

Komitatiboa edo sozietatiboa era batera baino gehiagotara ikusten dugu: *bategaz*, *batetik*, eta *astuakin* eta *alkarrekin*, bestetik. Kontuan izatekoa da kasu guztietan komitatibo singularra dela. Kontu ezaguna da Bizkaiko ekialdean, Markinaldean batez ere, bi moduak erabiltzen direla, singularrean *-gaz* eta pluralean *-(e)kin*. Instrumentala, ostera, *-z*, behar den bezala: *berbaz*.

8

Orain badator lagun Praisçu errotariya
Guison erraso escua da edale garbiya
Icusi ebanian Peru burua ain arguiya
Calvuaiti usteban sala irarguiya.

*Orain badator lagun/ Praisku errotari(j)a,/ gizon errazoezkua/ ta edale gar-
bija./ Ikusi ebanian Peru(n)/ burua hain argija/ kalbuati uste eban/ zala irargija.*

Hizkuntza aldetik *lagun Praisku errotari(j)a* dio, *lagun* aposizioa aurrean dela. Gaur egun alderantzira esango genuke bizkaitar gehienok: *Praisku errotari laguna*. Interesgarria da, bestalde, *Irargi* hitza. Bizkai euskarako hitz zaharra halaxe da. Gaur eguneko *iretargi*, *itargi* berriagoak dira. Ilargiaren argia *irartargia* edo *iratargia* izango litzateke. *Iretargi* hitza ilargiaren argia izatetik ilargia bera izatera pasatu da.

9

Peruc dirautzo Antoni ¿Ser dosu Antonchu?
Kacatzartian majo eindogu coipatzu
Bost aldiz descansuten artu dogu pentzu
Jarri saite onduan dartuisu descantzu.

*Peruc dirautso Antoni:/ -Zer dozu Antontxu?/ Kakatza artian majo/ e(g)in
dogu koipatsu./ Bost aldiz deskantsuten/ hartu dogu pentsu./ jarri zaite onduan/
da hartu e(g)izu deskantsu.*

10

Urrengo dirautzo ser ¿Su Anton Curtzulu
Curtzulua isan da illun eiten dosu?
Asten dira esaten Anton eta Praiscu
Sure buru calvuac argui eingo deuscu.

*Hurrengo dirautso:/ -Zer zu Anton Kurtzulu,/ Kurtzulua izanda/ illun
e(g)iten dozu?/ Hasten dira esaten/ Anton eta Praisku:/ -Zure buru kalbuak/ argi
e(g)ingo deusku.*

11

Curtzulu; ipiñiyoc argui yai mechia
Bestela esingoyuc billatu echia
Neure corta burdiya balichoc cochia
Ainche ebalico ñeuequec neure atzo mochia.

*Kurtzulu, ipiñi (eg)ijok/ argija(r)i metxia,/ bestela ezingo joa(g)uk/ billatu etxia./
Neure korta-burdija/ balitzok kotxia,/ haintxe ebaliko ñeukek/ neure atso motxia.*

12

Echian euqui arren sarri moroquilla
Onec ipinten yeuscuc estamangu illa
Guasen tabernara obiaren billa
Atzua umiacas chimurtu daitela.

*Etxian euki arren/ sarri morokilla,/ onek ipinten jeuskuk/ estamangu illa./
Guazen tabernara/ obiaren billa,/ atsua umiakaz/ tximurtu daitela.*

Beste aldaera batzuetan *dedilla* ikusten dugu azken puntu bezala. Modu horretara, hoskidetasuna beteagoa da.

13

Artua sopan eta choletian ura
Echuat ach onduan olan bisi gura
Lebatz edo ternera lucainka musturra
Onecas egotenoc tabernan gustura.

*Artua zopan eta/ txoletian ura,/ ez juat hatx onduan/ holan bizi gura./
Lebatz edo ternera/ lukainka musturra,/ honekaz egoten nok/ tabernan gustura.*

Hemen *hatx onduan* ez ote da Atxondo leku-izenari dagokiona? Era horretara mugagabeen izan beharko luke. Anbotoko bertsoak direnez gero, Atxondo Anbototik hurbil dago. Atxondo eta Anboto, gainera, biak dira Durangotik hurbil dauden mendiak. Bizkai euskaran *joat/juat* ezezkerak *etxoat/etxuat* egin ohi da. *Etxuat atxonduan* bitxi eta bizi egiten da, halako aliterazio polit bat eginez.

14

Tabernerai dirautze entzunein, patrona,
Apari charbi baño obayeun bat ona
Eser bayaun biyontzat ecarriña ona
Diruric espayecun emon gunau bona.

*Tabnera(r)i dirautse:/ –Entzun e(g)in, patrona,/ apari txar bi baño/ hoba
ja(g)on bat ona./ Ezer baja(g)un bijontzat/ ekarri(eg)iña ona,/ dirurik ez bajeukun/
emongo juna(g)u bona (?)*

Emakumeen arteko hikako bertso bizia. Bertso honetatik esaera bat ere sortu da: *afari txar bi baino hoba dok bat ona*. Esaera sortu da ala esaera ezagun bat bertsoan txertatu ote da?

15

Arratzalde erdiyen jarri siran mayan
Euren estamanguac betarte larriyan
Juan siran echera iya gaberdiyan
Gomuta asco baric euren fameliyan.

*Arratsalde erdiyen/ jarri ziran ma(ha)ijan,/ euren estamanguak/ bete arte
larriyan./ Juan ziran etxera/ ija gaberdiyan/ gomuta asko barik/ euren famelijan.*

Aren andra tristiciac bildurres icara
 Anamai Erroteta da Malen Particara
 Alambere aguroc baseuquen bisarra
 Atzuai austeco buruan picharra.

*Haren andra tristiciak/ bildurrez ikara,/ Anamai Erroteta/ ta Malen Partikara./
 Halan bere agurok/ ba(z)euken bizarra,/ atsua(r)i hausteko buruan pitxarra.*

Amazazpi vertzo onen orra despedida
 Curtzuluren cantuac acabatu dira
 Atzuac aguracas asarre badira
 Alcarrenac dirata componduco dira.

*Hamazazpi bertso hone(e)n/ horra despedida!/ Kurtzuluren kantuak/ akaba-
 tu dira./ Atsuak agurakaz/ hasarre badira,/ alkarrenak dira ta/ konponduko dira.*

Anbotoko bertsoak: iturriak, aldaerak

Oraingo gure bertso sorta honi, modu laburrean nahi bada, “Anbotoko bertsoak” deituko diogu. Bertso sorta beraren bost aldaera bakarrik aurkitu ditugu. Aldaerarik zaharrena Edward Spencer Dodgsonek (1857-1922) bildu eta Parisko Bibliothèque National delakoan dagoena da⁴. Konposizio hau 1891 baino lehenago bildua da, eta Dodgsonek berak dioenez, berrehun urte lehenago kantatzen zen Durangaldeko tabernetan. Berrehun urte askotxo badira ere, urte sail mordoxka batean behintzat herriko jendeak kantatzen zuela argi dago.

Gure XIX. mende bukaerako testigantzak, bertso paperetakoak edo ahozkoak, zaharrak izan behar ziren ordurako. Ingelesez transkribatu dugun testuan honelaxe dio, gutxi gorabehera: “Kanta honek berrehun urte dituela esaten da eta Durangoko tabernetan kantatzen zen. Kopia hau Elosuko liburu-saltzaileak eman dit, *Elementos de gramática castellana para uso de los niños etc.* Bilbao 1869 lanaren egilearen semeak. Erreal bat (balioa). Antonio d’Abbadieri ematea atsegin handia da. Durango 1891ko urriaren lehena”.

Aurkitu dugun bertso sorta beraren bigarren aldaera 1937. urtean argitaratua da. Bertso sorta hori *Eguna* egunkarian⁵ argitaratu zen. Eta aurreko transkripzioan bezala, bertso sortaren zahartasunaren berri ematen da. Biltzaile ezezagunaren azalpenak honelaxe dio hitzez hitz:

⁴ Celt & Basque 169, 90-91-92 or. Verso berriak recogidos por Dodgson.

⁵ “Peru ta Anton” in *Eguna*. 98. zenb. (1937-04-25), 4. or.

Oarra: Mendiolar Joseba zarrak abestu dauskuz *bertso barriok* eta berorrek aitzen emon dauskunez orain 70 urte-inguru argitalduak dira ta *Pantillon* izeneko bertsolariak egiñak: *Pantxillon* ori Gernika aldekoa zan ausago ta gitxik egin izan dabena egin eban: bertsoak bizkaieraz.

Ohar hau aztertzen badugu, garbi dago Joseba Mendiolar bertsopaper batetik ikasi zuela, autorearen izena ere gogoan baitu: Pantxillon edo Pantillon. Datari erreparatzen badiogu, ordea, 1867. urtean gutxi gorabehera ikasi beharko zituen bertsoak buruz, eta data hori Dodgsonnek dioena bezain zaharra ez bada ere, ez ote zaio beroarena kendu behar?

Hirugarren iturria oraintsuagokoa da eta Balendin Enbeita bertsolari muxikarrak argitaratu zuen (*Zeruko*) *Argia* aldizkarian⁶. Bertso sorta zaharra zela argi asko zekien Urretxindorren seme argiak “Orain dela 150 urte eginak, Peru eta Antoni jarriak” zehaztasunarekin batera, nori jasoak ziren ere jarri zuelako. Hona nola zioen: “Bertso hauek Muxika-Areatzako Bixente Bilbaori entzunak dira. Orain dela 12 urte hil zen 91 urte zituela. G. B.”.

Laugarren bertso sorta Deunoro Sardui Enbeitari bildua da, 1985. urte inguruan. Bilketa hau Labayru Ikastegiaren artxiboan dago. Aldaera hau ere interesgarria dela deritzagu Enbeitatarren artekoa delako.

Bosgarren aldaera Iurretakoa bertakoa da, Anton Mari Aldekoa-Otalorak *Ibaizabal* Durangoko aldizkarian⁷ argitaratua. Bertsopaperen batetik aterea bide da, “Canta papel barrijac Durangoko Pantxillonek iminijac” dio eta. A.M. Aldekoa-Otalorak berak esan didanez, etxean bazuten bertso sail honen eskuidatzi bat. Ez dago dudarik, ordea, buruz dakien bertso saila bertsopaper batekoa denik. Gorago aipatu dugun Nikolas Alzolak honelaxe dio bere hitzaldi-artikuluari:

Gure gazte denporan entzunak dira, eta orain ere bizirik daude Durangaldean, zaharren artean batez ere. Otalora-Aldekoak bildu ditu herriaren ahotik, eta *Ibaizabal* aldizkarian eman argitara. Baina mereziko lukeela uste dut bertsopaper berezi batean argitara ematea, Pantxillonon omen eta gorazarrez.

Seigarren bertso sorta, ordea, gehiago da koplak sorta bat. Juan Manuel Etxebarria Ayestaren *Zeberioko kantak* liburuan⁸, “Bertso barriak Anbotoko gizon biri jarriak” atalean aurkitzen da.

⁶ ENBEITA, Balendin. “Anbotoko bertsoak (orain dela 150 urte eginak, Peru eta Antoneri jarriak)” in *Argia*. 1070. zenb. (1985), 41. or.

⁷ “Bertso zaharrak. Canta papel barrijac Durangoko Pantxillonek iminijac” in *Ibaizabal*. 2. zenb. (1979), 41. or.

⁸ ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel. *Zeberioko kantak*. Oartzun: Sendoa, 1999, 172-174.or.

Sei bertso sorta hauetan, harrigarria badirudi ere, bertso gehien dituena B. Enbeitak bildua da. Interesgarriena, ostera, gure ustean, Dodgsonen bildua da. Bilketa-data ere askoz lehenagokoa dela kontuan izan behar da. Kontu ezaguna da guztiontzat: zenbat eta lehenago bildu, ale osoagoa izaten da —gehienetan, ez beti— bildutakoa. *Eguna* egunkariko sorta, ordea, berrogeita hamar urte geroago Balendin Enbeitak argitara zuena baino askoz murriztagoa da.

Hona ekarri ditugun hiru sortak janzten edo hornitzen duen azalpena bateratsu dator hiru kasuetan: bertso sorta zaharra da eta interes handikoa, hain zuzen. Zahartasunaren alderdi hori izan da, besteak beste direla, lan honetan murgiltzeko bultzatu gaituen eragilerik handienetakoa.

Bertso-kopuruari dagokionez, azkenik, Dodgsonen bilduak 15 bertso ditu; *Eguna* egunkarikoak 9; B. Enbeitak bildutakoak 17 bertso. Hiru bertso sorta hauen iturria bertsopaper bat izan behar zuen. Bertsopaper zahar hori ere bildu dugunez geure atalaren hornigarri jarriko dugu.

Balendin Enbeitaren aldaera

Atal honetan (*Zeruko*) *Argia* aldizkarian agertzen den aldaerarik osoena agertu nahi dugu. Guk, betiko geure irizpideari jarraituz, ahalik eta fidelen jokatu dugu jatorrizko testua transkribatzen. Ezagutzen ditugun bertso sorta guztiak modu berean jarri nahi izan ditugunez gero, Iparraldeko sistema aukeratu dugu, Jose Mari Aranaldek lerro luzea izendatzen zuen sistema, eta ez Hegoaldekoa. Zergatik aukera hau? Begi-bistara gozoagoa delako, batetik, eta, Dodgsonen berak ere hala egiten duelako, bestetik.

Atal honetarako gure transkripzioan jatorrizko ortografia gorde dugu. Puntuazioa, ordea, gurea da. Egin dugun aldaera bakarra bosgarren bertsoan *zopa(n)* horretan parentesiak jartzea izan da. Azken bertsoko parentesiak, ostera, B. Enbeitarenak berarenak dira.

Balendin Enbeitaren aldaera honek 17 bertso ditu, gure bertsopapereko sailak beste. Bertsopapereko bertso bat, zortzigarrena, ez dago sail honetan. B. Enbeitaren hirugarren bertsoa, harrigarria bada ere, ez dugu aurkitu beste inongo sailetan. Sail guztietako bertso desberdinekin sail berri bat osa bageneza, hamazortzi bertsoko sail bat egin genezake. Hona bertsopapereko sailaren segidaren arabera nola eraturik dagoen oraingo hau: 1-2-desberdina-12-13-3-5-14-4-15-6-7-9-10-11-16-17.

Sail honezaz zerbait nabarmentzekotan, hikaik ez izatea nabarmenduko nuke. Aldaera guztietan hikako bi sistemak ikusten dira, emakumezkoena eta gizonezkoena, edo Markinako erara esateko, *eztok eta baidok* eta *ezton eta baidon*. Gure eredu honetan, ordea, zuka baino ez dugu ikusten. Beste sailetan lan konparatiboa egitea pentsatu badut ere, oraingo sail honetan bertsoz bertso ohartxo batzuk baino ez ditut egingo.

1

Bizkaiko bazter baten, Anboto partian
gizon bi bizi ziren baserri batian.
Goizean sartzen ziren tabernako atian,
ez zuten alde egiten bieramon artian.

Bizkaiko euskararen ehuneko laurogeita hamarreen badago ere, badira adizki harrigarri batzuk. Lehen bertso honetan *zuten* ikusten dugu gainerakoetako *eben* dagoen lekuan.

2

Gizon biok ziraden Peru eta Anton,
euren aldi guztian biziak Anboton.
Biek euki ezkeru edaria monton,
atsuei esaten eutsen: “baguaz ta or konpon”.

Bertso honetan *edaria monton* ikusten dugu. Dodgson-en aldaeran ere berdin ikusiko dugu, besteetan, ordea, *ez*. Ezaugarri polit bat ikusten da hemen bestetan ikusten ez dena: gizon biak atsoei pluralean zuzentzen zaizkie eta despedida ere halakoxea da, beste ereduetan ikusten ez dena: “Baguaz ta or konpon”. Gainerakoetan atsoari agur esaten diona gizon bakarra da.

3

Bekixen hotza zena etxeko artua,
Agaitik armatzeben beiakin tratua,
tabernara ezkeru seguru katua,
pozik eskapatzeko bazen zapatua.

Bertso hau ez dago beste inongo aldaeratan. Herriak asmatua ote da ala jatorrizko bertso sailen batekoa ote da? Bertso honetan baserritarren trikimailu bat ikusten da baserritik alde egiteko gezur bat asmatzea. “Tabernara ezkeru seguru katua” horretan *katua* mozkorra da, eta *Peru Abarka* liburutik hona dokumentatzen da.

4

Etxian eukiarren sarri morokille,
harek ipinten eutsen estomangu ille.
–Goiazan tabernara hobiaren bille,
andrea umiak in ixurratu delle!

Zeharreko estiloan ikusten ditugu lehen lau bertso-lerroak, gainerakoan estilo zuzenean.

5

Artoa zopa(n) eta txoletian ure
 etxuat atxonduan holan bizi gure,
 lebatz eta ternera, lukenka musturre
 honekin egoten naz tabernan gusture.

Txolet hitza guztietan agertzen da Dodgsonen aldaeran izan ezik. *Txolet* hitza, Bizkaiko mendebaldekoa, Bizkaiko ekialdean erabiltzen den *anto(i)sin* hitzaren esangurakoa izango da. *Acetre*, *gallofa* edo *bacineta* erdaraz. *Orotariko Euskal Hiztegia*⁹ ez dugu literaturako adibide bat bera ere aurkitu. Bertso honetan egokiro kontrastatzen da etxeko pobretasuna eta tabernako bon-bonkeria.

6

Biak egin ei dabe seguru juntie
 mozkorrik hartu barik etxera ez juatie.
 Erretiratu arte herriko jentie
 etxera doianari kentzeko mueltie.

Eredu guztietan mozkorra hartu barik ikusten dugu. Oraingo honetan, ostera, *mozkorrik* partitiboa. Kolokazioen artean polita da eredu guztietan *multa kendu dela*.

7

Atsuari gorde dausat ule-kopetie
 kostako iako orain bera topetie.
 Hau salduta edan daigun aguardientie
 buru motzik dabilela atso tronpetie.

Hemen ere partitiboan ikusten dugu: *buru-motzik*. Aditzei dagokienez, *dabilela* ez da besterik inperatiboa baino, *ibil bedi* baten tankerakoa esanguraz.

8

Tabernerai dirautse: -Entzuxu, patrona,
 apari txar bi baiño oba da bat ona.
 Ezer baldin badago, ekarrixu ona,
 dirurik ez badogu, emango iak bona.

⁹ MITXELENA, Koldo. *Diccionario general vasco = Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Desclée de Brouwer; Mensajero, 1987-2005.

Bertso polit bezain bitxia. Bi aldiz ikusten dugu *ona* baina biak esangura desberdinean; lehena adjetiboa da eta bigarrena adlatibo kasua, nora kasua. Aldaera guztietan agertzen den *bona* delakoa zer ote da? Diruaren ordezeko bonoa? Hori izan behar du *dirurik ez badogu* aurretik dioelako. Bertso honetako esaldi bat erre-frau moduan ere erabiltzen da: apari txar bi baiño oba da bat ona. Berez erre-frau ezaguna izango ote zen bertso saila baino lehen edo bertso sailetik bihurtu ote da erre-frau? Bi bideotatik bigarrenaren aldekoagoa naiz ni.

9

Peruk dirautso Antoni: –Atera pipie
asunbra ta erdirekin bete daigun tripie,
gainera edan daigun aguardientie,
neri beti gustau iat edari fuertie.

Azunbrea litro bi bada, azunbre eta erdi hiru litro dira. Hiru litro aguardientez hornitzen dira Peru eta Anton, beraz. Polita da bizkai euskara klasikoko *dirautso* gordetzea bertso honetan.

10

Arratsalde erdian jarri ziran maian
euren estamangillak bete arte larrian.
Gero handik etxera ia gauerdian,
gomuta asko barik euren familian.

Gure bertso-paperetik gordetzen da *bete arte larrian* esapidea. Gainerako alda-eretan estamangoak dena hemen *estamangillak* “estamango illak” hitzen laburdura dena. Zergatik hau? Aurreko bertso batean ere *estamango illa* dagoelako. Polita da *estómago* erdal hitza euskaraz *estamango* izatea bertso-paperetan eta gure alda-era honetan.

11

Pipie mosuen ta txapela eskuen,
biderik topau ezinik badabiltzaz auzuen,
estrepesetan dira hurrengo pausuen
begi biez aurrera sartu ziren pozuen.

Aldaera guztietan alderantziz da *Txapela eskuen da pipie mosuan*. Aldaera guztietan, era berean, *bigarren pausuan* da, hemen, oster, *urtego pausuan*. Bertso hau da komikoenetakoa, mozkorraldiaren deskripzio zoragarria.

12

Biak han ebixela kakatzen aratin,
ezin aitu eukixuen euskara ala latin.
Bator asto bategaz errotako Martin,
honek atara zitun bere astoakin.

Kakatzen ahoz gora igerian daudela esan nahi du *kakatzen aratin* esapideak. Ahoz gora badabiltza igerian kakatzen eta mozkor handiarekin, ezin aditu dakieke euskara ala latin hitz egiten ari diren. Aditzei dagokienez, zer da *bator asto bategaz* edo *betor asto bategaz*? Dударik gabe *bator* badator adizkiaren laburdura. Laburdura modu hau uste baino zaharragoa da bizkai euskararen. Orain hirurehun urteko testuetan ere ikusten dena.

13

Peruk dirautso Antoni: –Antontxu, Antontxu,
kakatza artian majo ein dogu koipetsu,
bost aldiz deskantsuan hartu dogu pentzu,
jarri zaiz albuan da hartuxu deskantsu.

Gaur egun ere *majo* erabiltzen dute adberbio gisa bizkaitar zahar batzuek. ‘Majo egin dogu koipetsu’ ‘ondo egin dogu koipetsu’ esan nahi du.

14

Peruk dirautsa Antoni: –Zu Anton Kurtzulu,
kurtzulia izan da illun eiten dozu.
Hasten dira esaten: –Anton eta Praisku
zure buruko kalbuak argi eingo dausku.

15

–Kurtzulu, ipini iok argiai metxie
bestela ezin geinke topatu etxie
kortako burdi zarra banaiok kotxie,
hantxe ibilko neuke neure atso motxie.

16

Haren andra tristeak bildurrez ikera
Ana Mari ‘Errota’ ta Malen ‘Partikera’.
Orregaitik agurak bazeukan bizarra
atsuai kokotien austeko pitxerra.

17

Amazazpi bertsorekin orra despedida
Kurtzuluen kantuak akabatu dira.
Atsuak agurekin aserre badira,
alkarrenak (dira ta) konponduko dira.

Deunoro Sarduiren aldaera

1

Bizkaiko bazter baten, Anboto partian
gizon bi bizi ziran baserri batian.
Goisean sartzen ziran tabernako atian
ez eben alde egiten biramon artian.

2

Gizon biok ziraden Peru eta Anton
euren aldi guztian biziak Anboton.
Biok euki ezkerro edaria monton
Atsoai esaten eutsen: -banoa eta banator.

3

Bekixen motza zana Anbotoko artua,
agaitik asmatzeben beiekin tratua.
Tabernara ezkerro seguru katua
pozik eskapetako bai zan zapatua.

Bertso hau ez dago besteetan, ez eta bertsopaperean ere. Badira aldaketatxo nabarmenak. Balendinen eredian *hotza zana etxeko artua* dator. Hemen *motza* eta ez *hotza* eta *etxeko* izan beharrean *Anbotoko*.

4

Etxean euki arren sarri morokilla
arek ipintten jauskuk estomangu illa.
Goazen tabernara obearen billa
andria umiekin izurrau dedilla.

Aldaera polit batzuk Balendinenarekin. Gure oraingoan estilo zuzena ikusten dugu: *ipintten jauskuk* eta ez *ipintten eutsen*.

5

Artoa zopa[n] eta txoletian ure
etxoat Atxondoan olan bizi gure.
Legatz eta ternera lukeinka musturre
onekin egoten naiz tabernan gusture.

Harrigarria da nola hiketa ez den bertso osoan ematen. Batetik *etxoat bizi gure* daukagu eta, bestetik, *egoten naiz*.

6

Peruk dirautso Antoni: –atara pipie
azunbre ta erdirekin bete daigun tripie,
ganera edan daigun aguardientie,
niri beti gustau yat edari fuertie.

Hemen seigarren bertsoztat duguna Balendinenean 9.a dugu. Aldaera nabarmenik ez dago, bestaldetik.

7

Biak egin ei dabe seguru juntie
mozkorrik artu barik etxera ez joatie.
Erretiratu arte erriko jentie
etxera doanari kentzeko mueltie.

Guk baliatu dugun transkripzioan *bueltie* dator eta ez *mueltie*. Balendinen ereduaren antzerakoa da, bestalde.

8

Tabernerai dirautse: –entzuizu, patrona,
afari txar bi baiño oba da bat ona,
ezer baldin badozu, ekarrizu ona,
dirurik ez bada be emongo yakona.

9

Atsoari gorde deusat ule kopetie
kostako jako orain bera topetie.
Au saldu ta edan daigun aguardientie
buru motzik dabilela atso tronpetie.

10

Arratsalde erdijen jarri ziran maian
euren estomango illak bete arte larrian.

11

Bost aldiz deskantsuan artu dogu pentzu
Jarri zaiz alboan da artuizu deskantzu.

12

Krusulu ipini yok argixai metxie
Bestela ezin giñei billatu etxie.
Kortako burdi zarra baneizu kotxie
Antxe ibilliko neuke neure atzo motxie.

13

Peruk dirautso Antoni: -zu, Anton Krusulu,
Krusulua izan da illun eiten dozu.
Asten dira esaten Anton eta Praisku:
-Zeure buruko kalbuak argi eingo deusku.

14

Aren andre tristiek bildurrez ikera
Ana Mari Errota ta Malen Partikera.
Orraitik ñoa agurok bazuten bizerra
atsoei kakotien austeko pitzerra.

15

Amazazpi bertso onekin orra despedida
krusuluen kantuak akabatu dira.
Atsoak agurekin asarratu dira
alkarrenak dira ta konponduko dira.

Juan Manuel Etxebarriaren aldaera

Juan Manuel Etxebarria Ayestaren *Zeberio*ko kantak liburuan “Bertso barriak
Anbotoko gizon biri jarriak” atalean gure bertso saila agertzen da.

Laugarren bertsoko *beteiun* ‘bete dagigun’ da.

1

Bizkaiko bazter baten, baserri batean,
gizon bi bizi ziran Anboto partean.

2

Gizon biak ziraden Peru eta Anton,
euren aldi guztian biziak Anboton.

3

Goizean sartzen ziran taberna batean;
ez eben alde egiten biaramon artean.

4

Peruk diñotso: –Anton atera pipea,
azunbre terdirekin beteian tripea.

5

Andreari ostukotsat ule kopetea
orain kostat eingo jako bera topetea.

6

Saldu ta edan yeguan aguardientea,
niri gustetan yatak edari fuertea.

7

Tabernerari din(ñ)otsa: entzun eina, patrona,
apari txar bat baño oba don(a) bat ona.

8

Baldin ezer badona ekarri eina ona
dirurik ez ballaukun fiagu eiguna.

9

Lebatz edo ternera lukainka musturra,
orregaz e(g)oten dona tabernan gustura.

10

Etxean egoten dok sarri morokilla;
arek iminten jostek estomagu ila.

11

Txapela eskuan da pipea mosuan,
aurrera sartzen zara lelengo pozuan.

12

Ba(da)ator asto bategaz errotako Martin;
axek atera ditu bera astoakin.

13

Bost bider artu joguk deskantsu ta pentsu
jarri adi ondoan ta artu deskantsu.

Dodgsonen Ambotoko Peru eta Antoneri jarriac sortaren transkripzioa

Bertsopapereko bertso bat, zortzigarrena, ez dago sail honetan. B. Enbeitaren hirugarren bertsoa, harrigarria bada ere, ez dugu aurkitu beste inongo sailetan. Testua bere osoan ulertzen da eta ez du merezi gaurko ortografiara aldatzea. Hamabost bertso sail honek ez du gure bertsopaperaren segida edo haria jarraitzen. Hona kantapaperaren ardatzean gure oraingoaren segida: 1-2-12-4-6-9-10-11-8-16-7-13-3-17. Bertso sorta honetan ezer aipatuko banu, bere giputz euskararen ukitua da. Hona adibideak 2-siraden, 4-neroni, 13-oyequin, 15-egon gabe.

Bada sorta polit honetan ahapaldi bat Balendin Enbeitarenean agertzen ez dena, hamargarrena hain zuzen. Dodgsonek eragindako transkripzioaren ondoan *Eguna* egunkarikoa eta B. Enbeitarena jarri ditugu aldaerak irakurleak berak ikusi ditzan. Hona beste gabe:

1

Biscaico esquiñabaten, Amboto partian
Guisombi bisiciran baserribatian;
Goisian sartzen ciran, tabernaco atian
Eseben alde eguiten moscortu artian.

Eguna: 1. Bizkai'ko bastar baten, Amoroto partian,/ Gizon bi bizi ziran basarri batian;/ Goizian sartzen ziran Tabernako atian,/ Ezebela urteten /Biaramon artian.

Enbeita: 1. Bizkaiko bazter baten Anboto partian/ gizon bi bizi ziren baserri batian./ Goizean sartzen ziren tabernako atian/ ez zuten alde egiten bieramon artian.

2

Guisonbioc siraden Peru eta Anton
Euren alde gustian viciyac Amboton,
Biac eure baseuquen edadia monton
Atzuari esateco ua, ta banaton.

Verſo beriae

90

Ambotoco Peru eta tutouar' passice

¹
Bicaies esquinabaten, Amboto partien
~~Amboto partien, Amboto partien~~

Quinombi bisiciran basenibatian;

Quinan sartzen eiran, tabernas atian

Eseten alele equiten masarten artian,

²
Quisonbioc sirachu Peru eta tutou

Cuden alele partien vicigac e Amboton,

Bive eue baseriquen edardia moutou

Atuari esateco nua, ta banaton.

³
Carian enqui rnen sarr' maroquilla

Ace ipiten clausu estomunguilla

Goacen tabemara, Obiaren hil'ra

Atzua uniaquin iurra abilla

⁴
Peru direntzo tutou betein pipia

Amumbra ta erdaregun betedu tripia

Qurosu edan daigun aguardientia

Veran quitatzen, eabari fuestia

⁵
Atuari gorde clentrat ule copeta

Orain costaco jaco bera topatia.

Saldu ta erundaigun aguardientia

Peru mout abilla utzo trompetia.

Chapela eruan da pipia moman
Bicini topau enuda dabiltes aupman
Estreparaten dira bigusen pauman
Begni biacas aurrea sartzen dira posuan

Teruc direntes Auton serdoni Autondan
Lupas artian, mapo equinulu eipaiten
Post aldiz de eantuan artu egiu piam
Tari saite, onduran de artan eb. canu.

Vrengo direntes se Auton curala
Curcelu idan etia ilun eiten don
Asiran contatetan Auton etia Truisen
Luce buru calbuac argui equingo dnuen.

Curcelu fina dago, argui ley medua
Fentela con ~~gure~~ gurey, billatu etia
Guro artaco burdia balisa eolia
Andre eralico ~~gure~~ gureyque gure ato ~~medua~~

Orandua legun Truisen, errotaria,
Gurin, estaxiy asosen, da erale garbia
Fusi ebamun Perua buru arguia
Calbutie pentean eban sala idarguia

Itren andra tristia, bildures icara
Truamari eotico malen partitara
Orraitno aguroc, basenqueu bisarra
Itzuari auttes eocotian pitharra

- 12

Arise an abillala supasan, alatin⁷¹
Laini comprehendite susquere, p' la tatin
Puto, osto batiglin, errotao Martin
Aco etora, bituran, bere, astuaguir.

13

Artea sopan eta, cho colatiam ura
Aduat ach aududu albu bairguran
Lebatx edo tuncera, lucinca, mustusa
Obeguir egotenoe tabeman gustura

14

Terne eta intonea equindate puntia
Mocorra, artu boric eshera es puntia
Arretiratu arte erico gaurie
Idhere duanari, quentzeco multue

15

Ora bera onenae orra abpedida
Lusero egon gabe, atzera begura
Agurce astuaguir, atarre baclisa
Alesseuae clira ta, compoudues diui.

This song said to be 200 years old is sung in the towns of Durango.
This copy was given to me today by the bookseller Le Elose, son
of the author of "Elementos de Grammatica Castellana para uso
de los niños de: Bilbao. 1867" (unusual). Have much pleasure
in presenting it to the author Antonio d'Abadia.

S. L. Dodgson
Durango October 1st 1871

Bertso hau da sail guztitik desberdinena. Zergatik? *Edaria bon bon* esan beharrean, *edadia monton* dioelako. Peru eta Anton ez dira mutiko koskorrak agureak baizik, horrexegatik ondo dator aldaera hau. Atso-agureak, edo hobeto esan, agureak izatea bertso sail honetako protagonistak argi ikusten da despedidako bertsoan: atsuac aguracas asarre badira...

Eguna: 2. Gizon biok zirian Peru eta Anton,/ Euren aldi guztian biziak Amoroto'n;/ Biak euki ezkeru Edaria bon-bon/ Atsuari esaten eutsen: "Nua ta banayaton".

Enbeita: 2. Gizon biok ziraden Peru eta Anton/ euren aldi guztian biziak Anboton./ Biek euki ezkeru edaria monton/ Atsuei esaten eutsen: -Baguaz ta or konpon(.)

3

Echian euqui arren sarri moroquilla
Arec ipinten deuscu estomangu illa
Goacen tabernara, obiaren billa
Atzua umiaquin isurra dedilla

Eguna: 6. Anton. Etxian eukiarren Sarri morokilla,/ Arek ipinten dausku estomangu illa:/ Guazen tabernara Obiaren billa,/ andria umiakaz Tximurtu dadilla.

Enbeita: 4. Etxian euki arren sarri morokille/ harek ipinten eutsen estomangu ille./ -Goiazan tabernara hobiaren bille/ andrea umiakin ixurratu delle!

4

Peruc direutzo Antoni beteisu pipia
Asumbra ta erdirequin betedu tripia
Gurosu edan daigun aguardientia
Neroni gustatzen edari fuertia.

Eguna: 4. Peru'k dirautso Anton'eri: -Atara egik pipia,/ azunbra ta erdirekin bete yaiagun tripia,/ Gaiñera edan yaiagun aguardientia./ Niri beti gustau oi yat edari puertia."

Enbeita: 9. Peruk dirautso Antoni: -Atera pipie/ asunbra ta erdirekin bete daigun tripie,/ gainera edan daigun aguardientie,/ neri beti gustau iat edari fuertie.

5

Atsuari gorde deutzat ule copetia
Orain costaco jaco bera topatia,
Saldu ta erandaigun aguardientia
Buru most dabilela atzo trompetia.

Eguna: 8. Anton. –Atsoari kendu yautsat Ule-kopetia,/ Orain kostako yakok bera topetia:/ Saldu ta edan yaiagun aguardientia/ Buru motzik dabillela atso tronpetia.

Enbeita: 7. Atsuari gorde dautsat ule-kopetie/ kostako iako orain bera topetie/ Hau salduta edan daigun aguardientie/ buru motzik dabillela atso tronpetie.

6

Chapela escuan da pipia mosuan
Bideric topau esinda dabiltzas ausuan
Estrepasatzen dira bigarren pausuan
Begui biacas aurrera sartzen dira posuan.

Enbeita: 11. Pipie mosuen ta txapela eskuen/ Biderik topau ezinik badabiltzaz auzuen,/ estrepresetan dira hurrengo pausuen/ begi biez aurrera sartu ziren pozuen.

7

Peruc direutzo Antoni zerdosu Antonchu
Lupas artian majo egundu coipatzu
Bost aldiz descansuan artu degu pensu
Jarri saites onduan da artisu descansu.

Enbeita: 13. Peruk dirautso Antoni: –Antontxu, Antontxu,/ Kakatza artian majo ein dogu koipetsu/ bost aldiz deskantsuan hartu dogu pentzu/ jarri zaiz albuana da hartuxu deskantsu.

8

Urrengo direutzo se Anton Curcelu
Curcelu isan eta ilun eiten dosu
Asi siran contestetan Anton eta Fraiscu
Sure buru calbuac argui eguingo deuscu.

Enbeita: 14. Peruk dirautsa Antoni: –Zu Anton Kurtzulu,/ Kurtzulua izan da illun eiten dozu./ Hasten dira esaten: –Anton eta Praisku/ zure buruko kalbuak argi eingo dausku.

9

Curcelu fina dago, argui ley mechia
Bestela esin guiñey, billatu echia
Gure cortaco burdia balisa cochia
Anche erabilico gueunque gure atzo mochia.

Eguna: 9. Peru: –Krusaillu ipiñi egiok argiai metxia,/ Bestelan ezingo yok billatu etxia:/ Kortako burdi zarra ba-litzok kotxia,/ antxe erabiliteko neure atso motxia.

Enbeita: 15. –Kurtzulu ipini iok argiai metxie/ bestela ezin geinke topatu etxie/ kortako burdi zarra banaioak kotxie/ hantxe ibilko neuke neure atso motsie.

10

Oraindua, lagun Fraiscu, errotaria,
Guison errasoy ascoren, da erale garbia
Icusi ebanian Peruen buru arguia
Calbutic pentzau eban sala idarguia.

11

Aren andra tristiac, bildurres icara
Amamari cocoteco malen particara
Orraitino aguroc, baseuquen bisarra
Atzuari austeco cocotian picharra

Enbeita: 16. Haren andra tristeak bildurrez ikera/ Ana Mari *Errota* ta Malen *Partikera*./ Horregaitik agurak bazeukan bizarra/ atsui kokotien hausteko pitxerra.

12

Biac an dabilsala lupasan alatin
Esin comprenditu eusquera a la latin,
Bator asto batequin, errotaco Martin
Arec etara situsan, bere astuaquin.

Bertso honetan hitz hoskide berri bat agertzen da: alatin. Bertso sail guztietan aldaera askotxo egon arren ia beti mantentzen dute puntua. Honetan puntua aldatu egin da eta *elkarrekin* ikusi beharrean *alatin* ikusten dugu. Harrigarria bada ere, Balendin Enbeitaren ereduaren ere puntu bera ikusteaz gainera ideia bera dator *kakatzan aratin* eta gurean *lupatzan alatin*.

Enbeita: 12. Biak han ebixela kakatzan aratin/ ezin aitu eukixuen euskara ala latin./ Bator asto bategaz errotako Martin,/ honek atara zitun bere astoakin.

13

Artua sopan eta, chocolatian ura
Echuat atch onduan alan bisiguran
Lebatz edo ternera, lucaınca musturra
Oyequin egotenoc tabernan gustura.

Eguna: 7. Peru. –Artua zopan eta txoletian ura,/ etxuat atxonduan olan bizi gura;/ lebatz edo ternera ona lukaika musturra./ Orrekaz egoten naz tabernan gustora.

Enbeita: 5. Artoa zopa eta txoletian ure/ etxuat atxonduan holan bizi gure,/ lebatz eta ternera, lukenka musturre/ honekin egoten naz tabernan gusture.

14

Peruc eta Antonec eguindabe juntia
Moscorra artu baric echera es juatia
Erretiratu arte errico gentia
Echera duanari quentzeco multia.

Eguna: 3. Biak egin ei eben seguru juntia,/ moskorra artu barik etxera ez juatia;/ erretiratu arte erriko jentia,/ etxera duanari kentzeko multia.

Enbeita: 6. Biak egin eidabe seguru juntie/ mozkorrik hartu barik etxera ez juatie./ Erretiratu arte herriko jentie/ etxera doianari kentzeko mueltie.

15

Orra berso onenac orra despedida
Lusero egon gabe atzera beguira
Aguroc atzuaquin, asarre badira
alcarrenac dira ta, componduco dira.

Enbeita: 17. Hamazazpi bertsorekin horra despedida/ Kurtzuluen kantuak akabatu dira./ Atsuak agurekin haserre badira,/ alkarrenak (dira ta) konponduko dira.

Anton Mari Aldekoa-Otaloraren aldaera

Hamasei bertso ditu sail honek. Jatorrizko bertsopapereko sailak hamazazpi ditu. Kanta-paperekoa jatorrizkotzat hartzen badugu, bederatzigarrena falta du. Bertsoen ordena ere desberdina da. Lehen biak bakarrik jarraitzen diote jatorrizko ordenari. Hona nolakoa izango litzatekeen ordena 1-2-12-13-15-3-14-4-6-7-8-10-11-5-16-17.

1

Bizkaiko bazter baten, Anboto partian,
gizon bi bizi ziran baserri batian.
Goizian sartzen ziran tabernako atian,
ez ebela alde egiten bijamon artian.

‘Bizkaiako’ *Bizkaiko* bihurtu dugu.

2

Gizon bijok zirian Peru eta Anton
euren aldi guztian biziak Anboton.
Sarri euki ezkeroko edaria bon-bon,
atsuari esate(n) eutsen “nua ta banaton”.

Ibaizabal aldizkariko ‘esare eutsen’ *esate(n) eutsen* bihurtu dugu. Bigarren bertso hau orpoz orpo jarraitzen zaio jatorrizkoari. Gure bertsopapereko *biyac euqui esquerero* hori *sarri euki ezkeroko* bihurtzen da. Oraingo aldaera honetan *nua ta banaton* zentzuzkoagoa da jatorrizko *Ua ta banaton* baino, doana eta datorrena gizona baita. Adizkietan, oster, biak izan behar lukete hikan eta ez bigarrena bakarrik.

3

Etxian euki arren sarri morokilla
onek ipinten jeuskuk estomagu illa.
Guazen tabernara obiaren billa
atsua umiakin ajorran dedilla.

Jatorrizkoarekin oso antzerakoa. Jatorrizkoaren 12garrena da oraingo gure 3. Azken bi bertso-lerroetan *atsu umiakaz chimurtu daitela* beste modu honetara ematen du: *atsua umiakin ajorran dedilla*. Jatorrizko hoskidetasuna hobeto gordetzen du azken *dedilla* horrek. *Ajorran* aditza *izorratu* ote da?

4

Artua sopan eta txoletian ura
etxuat atx onduan olan bizi gura
lebatz edo ternera lukainka musturra
onekaz egoten nok tabernan gustora.

Gure bertsopapereko 13garrena da. Bertsopapereko ia berdin-berdina. ‘Atx onduan olan bizi gura’ esaldiak Anboto ondoan bizi gura adierazten du, Anboto mendia hatx handi baten tankerakoa baita. Ohartzekoa da jatorrizkoan sozietibo plural guztiak *-acas* direla eta singularra *-gaz/-equin*. Otoraren aldaera honetan plurala bietara dago, *-akaz/-ekin*.

5

Arratsalde erdian jarri ziran maian
euren estomaguak bete larrian.
Juan ziran etxera ia gauerdian
gomuta asko barik euren familian.

Jatorrizko 15garrena. Jatorrizkoaren oso antzerakoa. *Betarte larriyan* bertsopaperekoa *bete larrian* bihurtzen da.

6

Biok egin ei eben seguru juntia
moskorra artu barik etxera ez juatia.
Erretiratu arte erriko jendia
etxera doianari kentzeko multia.

Jatorrizko hirugarrena. Orpoz orpo jarraitzen dio bertsopaperekoari. Aldatzen den gauza bakartxo *biyac* horretatik *biok* plural hurbilera da.

7

Tabernerari diñotse entzun ein patrona
afari txar bat baiño oba juaun bat ona.
Ezer bajaun biyontz(a)t ekarriña ona
sosik ezpajekunau emongunau bona.

Bertsopapereko 14garrena da. Orpoz orpo jarraitzen zaio bertsopaperekoari. Bi hitz bakarrik dira aipagarri *dirautse* bizkaieuskara zaharrekoa *dinotse* batez ordezkutzen da. Bigarren aldaketa harrigarriagoa da *diruric* hitza *sosik* batera aldatzea.

8

Peruk dirautso Antoni ataraik pipia
asunbre t'erdirekin bete juk tripia
Gaiñera edan daigun aguardientia
neri beti gustau jat edari fuertia.

Bertsopapereko 4garren bertsoa da. *Ibaizabal* aldizkariko *ataraik pinia* guk *ataraik pipia* egin dugu. Orpoz orpo jarraitzen zaio bertsopaperekoari. Oraingoan *dirautso ez da diñotso* batera aldatzen. Harrigarri egiten zait eni jatorrizko *neri neri* gipuzkerazkora etortzea.

9

Txapela eskuan da pipia mosuan
biderik topau ezinda dabilatzaz auzuan.
Estropezatzen dira bigarren pausuan
begi biyez aurrera sartzeira pozuan.

Jatorrizko 6garrena. Bi aldaera egin ditugu: *dabultzaz dabilatzaz* erara ekarri dugu, batetik; *espropatzen estropezatzen* jarri dugu, bestetik. Jatorrizko bertsopa-

peretik oso hurbil. Hitzen bat iruzkintzekotan *estropezetan* bizkai euskara ekialdekoa *estropezatzen* batean bihurtzea da.

10

Bijok an ebiltzala berbaz alkarrekin
ezin aitu leiyuen euskel ala latin.
Bator asto bategaz Errotako Martin
arek atara ebezan bere astuakin.

Bertsopapereko 7garrena. Orpoz orpo jarraitzen zaio bertsopaperekoari. Hiru aldaketatxo aipatzekoan bertsopapereko *biyac* hemen *biok* bihurtzen da. Bertsopapereko *eiyuen* adizkia *leiyuen*. Azken adizki hau Bizkaiko aditz jatorrizkotik hurrago dago. *leio* eta *leie/leioe* adizkien iraganak *leion* eta *leien/leioen* formak dira bizkaitar hitzun on zaharrengan. Hemen agertzen den *leiyuen* euskara estandarreko *zekiekeen* izan behar du.

11

Orain badator lagun Praixku errotaria
gizon arrazozekua ta edale garbia.
Ikusi ebanian Peru buruz ain argia
kalbuatik uste eban zala iragargia.

Bertsopapereko 8garrena. Bi aldaketatxo aipatzekotan *burua ain arguiya* hori *buruz ain argia* batera bihurtzea, batetik, eta *irargia iragargia* hitzera. Bigarrena erratua ote da?

12

Peruk dirautso, Antonio, zu, Anton Kurtzulu,
kurtzulua izan ta ilun eiten dozu.
Asten dira esaten Anton eta Praixku
zure buru kalbuak argi egin deusku.

Bertsopapereko 10garrena. Badira aldaketatxoak *Peruk dirautso* sarrera hori beharrean, *Urrengo dirautso* dator bertsopaperean. Adizkietan bertsopaperean *argi egingo deusku* dator eta hemen, oster, *argi egin deusku*.

13

Kurtzulu ipini jok argiyai metxia
bestela ezingo juk billatu etxia.
Neure korta burdija balitza kotxia
antxe ebaliko neuke neure atso motxia.

Bertsopapereko 11garrena. Orpoz orpo jarraitu arren bertsopaperekoari, baldintzako adizkiak ez daude hemen hika. Bertsopaperean *balichok* eta *ñeuquec* ikusten ditut. Hemen *balitza* eta *neuke*.

14

Atsuari ostu deitsat ule kopetia
kostako jakok orain bera topetia.
Saldu ta edan daigun aguardientia
buru-motz dabilela atso tronpetia.

Bertsopapereko 5garrena. Orpoz orpo jarraitzen zaio kanta-paperekoari. Bertsoaren zentzuari dagokionez, bertso hau zentzuzkoagoa da kanta-paperekoa baino. Zergatik? Gure honetan ule-kopetia ostu egiten diolako atsoari. Kanta-paperean, ordea, gorde. Behin gordez gero, kostatzen da topatzea, baina ostuz gero ezina da topatzea. Baina ule-kopeta hori saltzen badute, *ostu* da eta ez *gorde* egin duena Peruk.

15

Aren andre tristiak bildurrez ikara,
Ana Mari Erroteta Malen Partikara
gaiñera aguriok baeuken bizarra
atsuari austeko buruan pitxarra.

Kanta-papereko 16garrena. Orpoz orpo jarraitzen zaio kanta-paperekoari. Izenak ere ez dira itxuraldatzen. Bertsopapereko *alambere* gure honetan *gaiñera* bihurtzen da.

16

Amasei bertso onen orra despedida,
Kurtzuluren kontuak akabatu dira.
Atsuak agurakaz asarre badira
alkarrenak dira ta konponduko dira.

Kanta-papereko 17garrena. Orpoz orpo jarraitzen zaio kanta-paperekoari.

Aldaeren balio literarioa

Bertso sorta ironikoak eta zoragarriak dira, gure ustez, atal honetara aldatuak. Estiloaren aldetik Durangoko zilargin edo plateroek egindakoen tankerako bertsoak dira: barregarriak, ironikoak, teatraltasun handikoak... Bertsolariaren izena badaki-

gu Pantxillon. Pena da bi bertso sail bakarrik ezagutzea Pantxillon delako honenak. Euskararen aldetik Bizkaiko euskara eta Gipuzkoakoa nahasian daude, askotan gertatzen den bezala. Bien nahaste handia egon arren, bizkaieuskara gehiago dago Gipuzkoakoa baino. Bertso ironikoak direnez gero, hemengo bertso erdi zenbait trikiti-kopla bihurtu dira. Zeintzuk? Azkeneko *Agurok atsuakin/ asarre badira/ alkarrenak dirata/ konponduko dira*. Edota: *Atsuari gorde deutzat/ ule copetia/ Orain costaco jaco/ bera topatia*. Hirugarren bat ere oso ezaguna. Luis Baraiazarra adiskideak diostanez umetan kantatzen zuten: *Neure korta burdija/ balitza kotxia/ antxe ebaliko neuke/ neure atso motxia*.

Bertso sail hau dugu, inolako zalantzarik gabe, zenbait bertso sorta ezagunetako bertso erdi trikiti-kopla bihurtu direlako froga edo adibiderik garbiena.

Aldaeren euskara dela eta ohar gutxi batzuk

Hainbat berri eta zehaztasun eman daitezke bertso sorta hauetako euskararen gainean. Ez dugu, ordea, atal honetan guztien berri emateko astirik. Egin dezagun, hala ere, oharren bat edo beste. Dodgsonen aldaeran *lupasan alatin* dioena *lupatzan alatin* da, hau da, basatzen ahoz gora. *Arat* edo *aratean* edo *aratinik* formek ahoz gora adierazten dute. Ondarroan *ara-* izan beharrean *ala-* da, eta, *aratean* edo *aratin* (fonetismoarekin) esan beharrean *alatin* diote, gure transkribatzaileak jartzen duen bezalaxe. Arkaismoaren aldetik *norbaitek bizarrrik ez eukitzea* esapideak *adorerik ez izatea* adierazi nahi du modu indartsuan. Esapide hori euskaraz oso gutxitan dokumentatzen da, ordea. Adibiderik zaharrenak Arrese Beitiaren bi dira, *Orotariko Euskal Hiztegiak* dakarrenez. Beste esapide bat bitxia bezain zaharra *multa kentzea* da. Gaur egun ere halaxe esaten dute Markinaldean zaharrek. Nik batutako adibide batean: *multa aundixe kendu eutsen. Oba narrue kendu baleutsee*.

II. ANTONIO GOITIAREN BERRI APURRA ETA KOPLAK

Sarrera

Antonio Goitiaren berri jakin nahi duenak alferrik izango ditu mundu honetako entziklopedia guztiak. Antonio Goitia edo Antonio de Goitia garai bateko bibolintero izan omen zen. Bizkaiko XIX. mende bukaeratsuko erromeria eta mendi-auzo askotan bibolina jo eta kantatu ohi zuen.

Baliteke Antonio Goitia eta emaztea erromeriarik erromeria ibiltzea senarrak bibolina joz eta emazteak kantatuaz. Baliteke, era berean, kopletan agertzen denez, emazterik ez izatea eta pandero jole (zahar) batekin ibiltzea. Dena dela, itxurak direnez, biak bietara, bikote barregarria osatzen omen zuten. Garai bateko bibolina edo txerrebeta eskuko soinu edo trikitia baino zaharragoa zatekeen, eta, dantza-koplak, guk trikiti-kopla bezala ezagutzen ditugunak, garai zaharragoetan bibolin-kopla bezala ezagutuak ziratekeen.

Bibolin musika-tresna aipatzen dugunean, antzoki ederretan jotzen den musika-tresna apaina baino baldarragoa den trepeta edo txarrabeta itxuragabea izango zen. Pentsatzekoa denez, Antonio Goitia ez zen bibolintero bakarra izango, baina bai famatuenetakoa.

Herririk herri eta mendi-auzorik mendi-auzo eta basarterik basarte ibiltzen ziren artista haiek ez zuten jaun handikien itxurarik izango. Artista arlote eta barregarrien itxura handiagoa izango zuten, noski. Xabier Amurizak bere *Bizkaiko Bertsogintza. Izengabeak* liburu ederrean zehaztasun zoragarri bat dakar 44. orrialdean:

Bigolineru: bibolinteru, bibolintari... forma asko hartzen ditu hitz honek. Eta herri hizkeran gehienez ez dauka bibolinarekin zerikusirik. Hurrei *handitan zer izango zara geldetzean, bibolinteru* erantzuten genuen, horrek barregura emango zuela jakinik. Musika tresnaren bat. Gauza alai eta informal samarra behintzat.

Garai batean bibolinteru izatea barkilleru izatea bezalakoa zen: pobrea, baldarra eta alderraia. Txerrebetero edo zarrabetero hitza ere garai bateko bibolinteroa adierazteko erabiliko zen, Zeanuriko kopla honetan agertzen denez: *Zotz-zuritzaillea dozu senarra/ zarrabeteroa koñatu,/ zotz-zuritzailëen irabaziak/ zarrabeteroak ondatu.* Zotz zuritzailearen langintza pobrea baino pobreagoa izango zen, eta berdin zarrabateroarena ere. Zarrabateroa zarrabata-jotzailea zen, eta zarrabata gure bibolina ere izan zitekeen.

Aurkitu dudan Antonio Goitiaren lehen aipamen luzea 1934koa da¹ eta garai bateko txarrabata-jotzaile eta trikiti-kopla asmatzaile famatutzat jotzen du Ibon Uribitartek. Hona aipamena:

Balasi, ta Balasi-txiki egunak, ni gastetxuba ixan nintzan aldiko notiñakin eta abar gometetan iminden nabe.

“San Blas eta San Blas-txiki” egunen gomutiak, barriz, Goitia’tar Andoni aldi aretako arrabitari ospetsubarena ekarten dauste: “Antonio bibolinteruarena”.

Soñulari ospetsu au, Bizkai’ko euzkeldun errijetan, ezaguna be ezaguna ixan zan, eta gasterijaren begikua.

Andoni arrabitari trebiak, “biboliñari” ots eragin eta abestu, bijak batera egiten ebazan, eta gasterijari dantzan eragin be bai.

Aren abestijak, barriz, asikeratik amaira, euzkera utsezko abestijak ixaten ziran, eta berak asmaurikuak ixan be.

Palasi Deuna’ren eguna, geyenetan, euritsuba ixan oi-da-ta, Andoni’ren aldijan be alan ixaten zan, urrian, arek gasterijari dantzan eraiteko abestuten eban dantza-abesti onek ori bayeztuten dausku-ta. Ona emen soñulari ta oleskari begiko arek abestuten ebazanetatik bat:

“San Blas ira udan urte bi,
Abadiñora nintzan ni.
Denpora txarrak emon da
Enintzan ondo ibili.”

Itz neurtuok biarba eztira ixango gaur-egunetako olerkari ospetsubak idazten dabezan añako orraztubak eta oldozkun sakonekuak, baña bai errikoyak eta entzuten ebezanen belarrietatik barrura arin sartzen ziranak.

Andoni gixagaxo aundija, edo bere aldikuak esaten eutsen lez, “Antonio bibolinterua”, antxiñatxu il zan. (G.B.). Eta beragaz batera il zirala dirudije areik dantza-soñu garbijak eta soñubari lagunduteko asmetan ebazan euzkerazko abesti errikoyak be. ¡Auxe bai dala tamala...!

¹ URIBITARTE, Ibon. “” in *Euzkadi*. 6.603 zenb. (1934-02-04), 6. or.

Antonio Goitiak ikerketa bat merezi du, Matxalen Busturikok bezala, eta atal honetan ahalegintxo bat egingo dugu han-hor-hemen sakabanaturik dauden argibide eta koplak bildu eta ordenatzen. Gure liburu honetako bilduma guztietan dauden Antonioren koplak guztiak ez ditugu hona ekarriko. Politentxoak ekarrita nahikoak izango dira gure pertsonaiaren gaineko irudi argi bat egiteko.

Abel Muniategiren argibide eta koplak

Antonio Goitiaz zer berri dugu? Bi izan dira nagusiki gizon honez zer bait esan dutenak: Abel Muniategi eta *Belu* izengoitiaz idazten zuen gernikarra. Abel Muniategik esaten dituenak “Bertsogintza Bizkaian (koplatik bertsoa)” lan ederrean aurkitzen dira². Hona zehatz zer dioen:

Antonio Gregorio Goitia Azketa Mundakan jaio zan 1830eko abenduaren 24an eta Bermeon bizi izan zen, Erriberan arotz lan eginez un-tziak konpontzen.

Antonio Goitia *Bibolinterue* izenez ezagutu zan Bermeo-Gernika inguru guzti horretan. Bera zan Bermeotik Autzagane eta Bizkargira arteko erromerien auspo, jaun eta jabe. Abadiñora eta Urkiolara ez eban hutsik egiten. Esparru horretako³ abade eta fraile guztiak eukazan aurka. Bat-bateko koplaz, ilustratu eta hornitzen ebazan bere soinu-joaldiak. Ahapaldi batzuk lortuagoak dira beste batzuk baño. Danetik dago. Gehienetan bere buruari barre eginez alaitzen ebazan inguruak. Hara:

1
Antonio, nora zoaz
zeure bibolin zar horraz?
SantaKurtz Bizkargikora
nai bozu etorri neugaz.

2
Antonio Goitia
bibolinterue,
txapela pasau eta
pezeta bikue.

² MUNIATEGI, Abel. *Bertsogintza Bizkaian (koplatik bertsoa)*. Bilbao: Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. 1995, 12-15. or. 1994ko ekainaren 17an eta 1995eko otsailaren 11an emandako hitzaldi bat da. Honelaxe dio portadan: Disertaciones de Abel Muniategi Elorza, Vocal de la Junta Rectora de la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, durante las celebraciones institucionales habidas en Durango y Bermeo, los días 17 de junio de 1994 y 11 de febrero de 1995, respectivamente. Lanak 31 orrialde ditu. Guk 12-15 bitartekoak aldatuko ditugu hona.

³ Jatorrizkoan *horrelako* dator. Erratua delakoan aldatu dugu.

3

Abadinon San Blasetan
Antonion soinetan,
andra gazte polit batek
dantzan ederto eiteban.

4

Antonio Goitia
bibolinterue,
sardina buruaitik
joten dau soinue.

5

Antonio goiko kalekok
txalan dirue zor deko,
txalan dirue pagetako
bibolina joten dago.

6

Antoniok ez daki
bibolina joten
kanta gangar batzugin
jentie enginaten.

7

Altuan dau San Kristobal,
beregó Madalenie
ta haren bien bitartian
Urrutxuan tabernie.

8

Antoniok koplaz koplá
dirue poltsara,
hamaika gazte zoro
batzen dau plazara.

9

Antoniok egin arren
mutil gaztetzat burue,
Antoniok etxean euki
zazpi ume ta atsue.

10

Neskatilaren batek
uzkerra bota dau,
Antionioren surrak
arin susmatu dau.

11

Antonio txoriburuk
kalabazak ostu ditu,
onenak berak jan eta
besteak saldu ei ditu.

12

Antonio izan balitz
atxurlari ona,
ez zala etorriko
Bermeotik hona.

13

San Polikarpo Santuak
otz ta aterri egin dau
eta Antonioarentzat
mesedea ekarri dau.

14

Antonio Goitia
bibolinterue,
lastimaz andra barik
lotara ei due.

Hamalau koplá hauek eta koplén gainean dagoen zehaztasunak urregorria balio dute. Abel Muniategik ematen digun zehaztasun horren arauera, badakizkigu Antonio Goitiaren izen-deitura osoak, zer langintza zuen eta noiz jaio zen.

Langintzaz ontzi-arotza⁴ zen eta erromerietan bibolinteroa. Abel Muniategiren hitzaldiaren garai beretsuan argitara zen Xabier Amurizaren *Bizkaiko Bertsogintza I*. Amurizaren liburuan, “Abel Muniategi sorta” sailean (96-98 or.), eske-kopletako sarrera duen irudi ezaguneko koplak ematen du:

Eder altaran kaliza
soinean sobrepeliza
Ibarruriko santu ta santak
nire korruan dabilta.

Kopla honetako irudia ez da besterik apaiz jaunaren notan agertzen dena baino: *Eder altaran (elizan) kaliza/ soinean sobrepeliza*. Harrigarriena, X. Amurizak ondo hartzen duenez, irudi horri ematen dion ondorena da. Hona X. Amurizaren hitzak:

Lehen bi puntuak —eder altaran kaliza, soinian sobrepeliza— halako solemnitate gurkorrean jarri ta gero, begira bigarren partean santu-santak zertan dabilta: bere korruan dantzan. Apaizak meza eman bitartean, Ibarruriko neska-mutilak Antonioren korruan. Ez da harritzekoa orduko elizgizonak bibolintari hau demonioaren bidalitzat madarikatzea.

Eta harrigarriago dena, A. Muniategiren lan argitaratuan agertzen ez den ale berri bat:

San Poliparko jaune
santuak urten dau
haizia bada ere
aterri eingo dau.

Zehaztasun hauezaz gainera badago besterik ere: koplak ez dago berdin emanda sail bietan. BRVAP artikuluan *Antonio Goitia/ bibolinterue,/ lastimaz andra barik/ lotara ei due* beste era zaharrago eta harrigarriago batean dator:

Antonio Goitia
bibolinterue
lastimaz andra barik
lo egin darue.

Gorago aipatu ditugun A. Muniategiren zehaztasunez gain beste hauek ezartzen ditu X. Amurizak:

⁴ Hitz hau niri Lekeitioko Rufo Atxurra gogoangarriak erakutsi zidan. Lekeition itsasontziak egiten zituzten arotzei, ontzi-arotzak deitzen zieten. Arotza, beraz, markagabea, hiperonimoa da, eta, ontzi-arotza, zehaztua, markatua edo hiponimoa.

Gabon gaez munduratu zen bibolintari honek bizkaieraren barruan entzute handia hartu zuela argi dago, koplagingintzari begiratzen badiogu. Bai besteri eta bai bere buruari ere hamaika koplak sortzeko jaio zen, zehaztasun handirik ez badaukagu ere. Bilduma honetan Antonio izenez agertzen diren aipamen ironikorik gehienak ez dira Antonio horrengandik urrun ibiliko, batzuk berak atereak, beste batzuk berari.

Abel Muniategiren material eta koplez baliaturik beste artikulu monografiko bat badago gure bibolinteroaren gainean. Artikulu hau Jon Enbeitak idatzia da *Aizu*⁵ aldizkarian. Hitz batean: Jon Enbeitak ematen dizkigun datuak eta Amurizarenak berdintsuak dira, biek iturri beretik edan dutelako. Badago, ostera, beste inon irakurri ez dugun daturik; goizaldean jaio zela diosku batetik eta heriotza-data ere ematen digu, bestetik: “Egun zurririk ez badakigu ere, 1910 inguruan hil zen.” Datu hauezaz gain, zehaztasun berri gehiago ere ematen ditu. Hona artikuluko pasarterik mamitsuena:

Bermeotik Zornotzara bitarteko gazteri guztia bere atzetik zebilen. Hori zela eta, Ereñoko abadea ere Antoniorekin haserre omen zebilen. Soinua inpernuko auspoa zen eta abadearengana baino koplariarengana jende gehiago inguratzea ez zen nonbait zuzena. Azken koplariarik handienetariko bat izan genuela aitortzen ausartzen gara. Askotan gertatu ohi den antzera, ospetsua izan bazen ere, azken urteak bakardadean eta eskean igaro zituen. Abadea ere orduantxe lasaitu omen zen. “Ona izan haz, baina hi ere gelditu haz” esan omen zion irribarreka.

Jon Enbeitak jartzen dituen koplak A. Muniategiren berberak direnez gero, ez ditugu hona ekarriko berriz. Zehaztasun bat, ordea, jarriko dut, huskeriatxo bat bada ere. *Antonio txoriburuk/ kalabazak ostu ditu/ onenak berak jan eta/ bestiak saldu ei ditu* ikusten dugu Enbeitaren artikuluan. Muniategirenean, ostera, *saldu ei ditu* irakurtzen dugu. Biak zilegi dira, nahiz esanguraren aldetik desberdintxoak diren. *Ei* partikula eta *egin* aditzaren artekoa, hain zuzen. Guzti honez gain, eta azkenik, J. Enbeitak koplak lekuko edo berriemaileak ere ematen ditu. Hona zehaztasun horiek:

Adibide gisara jartzen ditugun koplak hauek, Abel Muniategiren laguntza apartekoari esker, Ereñon, M. Luis Elorza, Domingo Zarraonaindia, Eugenia Agirre, Pedro Arrate, Flora Merikaetxebarria, Paula Arrizabalaga eta Hilaria Urrutiaren ahotik jasoak dira.

⁵ ENBEITA, Jon. “Koplariak, Antonio Goitia” in *Aizu*. 131. zenb. (1994), 32-33. or.

Julio Bareño *Belu* idazlearen argibide eta koplak

Gure bibolinteru famatuaren gainean zehaztasun polit bezain argitsuenak *Belu* izengoitiaz izenpetzen duen idazle batenak dira. *Belu* hitzak bizkai euskera mende-baldekoan *berandu* adierazten du, denok dakigunez. Baina zein idazle da *Belu* delakoa? Argitasun bila Jose Antonio Arana Martija euskaltzainagana jo dut eta hona zer idatzi didan 2004ko iraileko 4an sinatutako eskutitz batean:

Eta goazen BELUren argibideetara. Ez dakit zure kabuz edo besteren batek esan dizulako nigan jo duzun, baina benetan esan behar dizut informatzaile hoberik ezin izango zenuela aurkitu. Gure BELU (BELU-MENDU ere sinatzen zuen), Maiteder Bareño Omaetxebarria nire emaztearen osaba zen. Angel Bareño Atxirika-ren alaba da nire seme-alaben ama, eta honen anaia Julio Bareño Atxirika zen BELU, *Euzkadin* idazten zuena, Gernikako kronikak Bilbora bidaliz. Eta niri dagokidanetik, anekdota bat: nire jaiotzaren berri eman zuen egunkari horretan, uste dut 1931.eko martxoaren 12an (ni 10ean jaio nintzen). Beraz, BELUren esker agertzen da nire jaiotza egunkari baten, moldezko letran.

Banco de Vizcayak Gernikan zeukan ordezkaritzako zuzendaria zen Julio Bareño. Baina 1936ko gerra zela eta, ihes egin behar izan zuen Lapurdira, hango Getarin hiru urte edo egonaz. Lehendik Seber Altuberen lagun mina zen, baita Eusebio Erkiagarena (hau ere banku berean zebilen lanean). Altube Pabera joan zen erbesteratua, eta Getaritik Pabera, eta alderantziz, gutunak gurutzatzen zituzten. Altube baino lehenago etorri zen Gernikara Bareño, eta gutunekin jarraitzen zuten, gehienak diru arazoezin, Altubek akzio batzuk zituen bankuan eta. Azkuerekin ere izan zituen harremanak Bareñok (ikus Azkue Bibliotekako artxiboa), eta Antonio Zavalarekin ere, Auspoa bilduman agertzen den bezala. Lehenengo aleetan agertzen da harreman hau, baina ez daukat une honetan astirik nire bilduman datua aurkitzeko(...).

Julio Bareño *Belu*-ren herria Gernika zen eta Antonio Goitiarena Bermeo. Bi herriak hamar hamaikaren bat kilometrora daude. Julio Bareño *Belu*k umetan eza-gutuko zuen, beharbada, Antonio Goitia bibolinterua. Entzutea behintzat, bai denbora eta lekuari gagozkiola hurre-hurrekoa izan zuen. Hona, gehiago gabe, Julio Bareño *Belu*-k idatzirik artikulu monografiko polit batean datozen zehaztasun zein koplak.⁶

⁶ BAREÑO, Julio [Belu]. "Antonio bibolinterue" in *Brisas guerniquesas*. 43. zenb. (1961), 5-6. or.

Antonio bibolinterue

Orain irurogetaz urteak, emen agertzen zan, Gernika inguruko erro-meri geyenetan, Antonio Bibolinterue'gaz ezagutzen zan gizon baldras, arlote, barregarri bat. Beti bere bibolin zarategaz eta, ber-berak asmetan zituzan bertso-kantakin, gazteari dantzan eta barre eragiten. Geyenetan, pandero-jotzalle, atsotxu zimel, garbi eta polito jantzi batek laguntzen eutsan, eta bere bertsoak bai bere buruari eta, batez bere, aurrean dantzan eukezan neskatillari zuzenduak izaten ziran. Bertso-kanta bitartietan, batak "tiribiribiri" biboliñagaz eta besteak panderoa alaitsu joaz; ederto euren kantari gatza ezartzen eutsen.

Antonio ori (Antonio de Goitia) bermiotarra eizan eta gaztetan mariñeru-edo ibillia. Olan bada, berak asmetan zituzan kantak askotxu izen bear eta neuk batu izan dodazanetan ikusten danez, geyenak arintxuak eta edozeñek irakurteko ipiñi ezin diranetarikoak... Politenak ementxe jarri bear, baña:

1

Antoniok egin deu
bierra majue
Bermion itxi ditu
zazpi ume ta atsue.

5

Antonio nora zuaz
zeure biboliñ orregaz
Santa Kruz Bizkargikora
etorri naibozu neugaz.

2

Antoniok koplakopla
dirue boltsara
;amaika neska-mutill
joaten da plazara!

6

Ori dok neskatilla
dantzarako planta!
Airera botaten deu
ezkerreko anka.

3

Orrako neska orrek
"aizea" bota deu
Antonio barrabanak
beingoan susmau deu.

7

Etxera doyanian
esangotzo amari
"Antoniok bertsoak
atara ostaz neuri."

4

Antoniok eztaki
biboliña jotan
kanta zantar batzukin
gentia engañatzen.

8

Antonio de Goitia
bibolinterue
San Koliparkoetan
Artiara due.

San Koliparko egun baten Artiako plazan, bere inguru guztia neska-mutillez beterik eukala eta kantau ta jo ta jo ta kantau iñarduela, eurija sendo asi ei-zan. Bere bibolin da guzti ondatu bear eban eta garai atan, gora begira jarri oi-zan eta ben-ben (seriyo-seriyo) eta apal-apal bertso auxe jaurti ei-eban:

San Koliparko gloriosue
eixu miserikordie,
biboliña be, busti yat-eta
altsaixu eguraldie...

Eta, diñue, berialaxe atertu zala eta bere sartalde-bidean, eguzkijak, bai kiñu-izpitxuak bidaldu bero...

Gure bibolinteruaren argibide zein koplak balio handia dutenez gero, ez dugu inolako konprimeturik izan Beluren artikulua oso-osorik hona aldatzeko.

Berri eta zehaztasun gehiago Antonio Goitiaz

Dantza-kopletan hiru modutara behintzat agertzen da gure bibolinteru famatua: *Antonio* huts hutsean, *Antonio Goitia*, eta behin bakarrik halako noblezia apaina ematen dion *de* preposizioarekin: *Antonio de Goitia*. Hiru erabilera haue-tatik ugariena, dudarik gabe, bere hutsean datorrena da: Antonio. Inoizka, hala ere, Antonio Goitia ere agertzen da. Esan beharrik ez dago Antonio hutsean ager-tzen bada, ez dela, nahietanahiez, gure bibolintero famatua izan behar. Eman deza-gun, kasurako, ale hau: *Antoniok egin ei dau/ itturrijen santzo/ Maritxu saladiak eskatzien salto*. Ale honetan, jakina, ez da gure bibolinterua derrigorrean izan behar. Beste askotan, ostera, ez dago dudarik. Eman ditzagun bi adibide Ma-ñarikok⁷ bilduak:

Antoniok egin arren
soltero burue,
Bermion itxi dittuz
bost ume ta andrie.

Hemen ez dugu dudarik txikiena gure bibolinteroaz. Bost umeren aita delako kontua behin baino gehiagotan aipatu dugulako atal honetan. Kopla honek, bestal-de, izan dezake eztenkada handiagorik?

⁷ MAÑARIKO. "Dantza-kantak" in *Euzkadi*. 7.213 zenb. (1936-2-6), 1 or.

Antoniok koplakopla
dirua poltsara,
amaika mutil zarko
bayuak plazara⁸.

Antonio Goitiaren berri behin eta berriro agertzen denez dantza-kopletan, eman ditzagun adibide gehiago. Hasi gaitzen Zeanuriko kopladiarekin. Eulogio Gorostiagak honako koplak hauek bildu zituen⁹:

Antonio Goiko-kaleko(k)
txalen dirue zor dauko,
txalen dirue pagetako
bibulin prenda dauko.

Antonio-n andrea,
txikitxu ta polite,
kana bi perkalegaz
ze gana polite.

Antonio koplakopla
dirue foltzara,
amaka gazte zoro
batzean da plazara.

Hiru koplak horiek elkarren segidan agertzen dira eta Zeanuriko kopladiako 57-58-59 zenbakia dute. Zeanuriko kopladian Antonio Goitiak beste izen bat hartzen du, Antonio Goiko kaleko. Esan beharrik ez dago egokitzeak baduela bateratasun bat: *Goitia* delakoa *Goiko kaleko* bihurtzen baita. Azkueren bidaia-koadernoan ere antzera ikusi dugu. Hona hemen koaderno gorrian hamargarren zenbakian bilduak¹⁰:

Antonio goikokaleko
txalen dirua sor dauko,
txalen dirua pagetako
bibolina baituran dauko

Antonio nora oa (s)eure
bibolin orregaz?
Urkiolara erromerian noa ni
etorri nai bozu neugaz

⁸ MAÑARIKO. in *Euzkadi*. 4.963 zenb. (1928-9-28).

⁹ "Yantza-abestia-k" in *Euzkadi*. 5.768 zenb. (1931-06-09), 6. or.

¹⁰ Katalogazio-kode berriaren arabera ABA-RMA-030-002.

Antonion andrea
txikitto politä,
kana bi perkalegaz
ze gona politä.

Antonio bibolinen
aurten zarrak ilgo dire,
gazteak beste urtean
olga du daigun geuk beste urtean.

Eulogio Gorostiagaren erreskadan hiru koplak ikusten ditugu, Azkuerenean lau. Gorostiagak, osterak, Azkuek ez dakarren bat ematen du. Azkuek bi koplak berri ematen ditu. Erreskada biak elkar joz gero, gainera, zuzentasun bitxiak egin ditzakegu. E. Gorostiagak biltzen duen “ze gana polite” inprenta-hutsa edo koplaren desitxuratzeko jatorrizkoa izan daiteke, Azkueren aldaeran zentzu bete-beteko hartzen duelako: *ze gona politä*. Eulogiok *prenda* dakarrena Azkuek *baituran*. Hizkuntzaren aldetik ere badago bitxitasunik. Azkuek *-a* baten gainean bi puntu jartzen dituzenean *politä* zeantzarrek dioten *polite* transkribatzeko da. *Antonio bibolinen* delakoan inesibo zaharra dago eta *Antonio bibolin jotzen* ulertu beharko genuke.

Zeanuriko kopladitik irten gabe hona Peli Etxebarriak bildutako alea:

Antonio Goitia
Bigolinerua,
zortzi marigaitino
yotzen dau soinua.

Kopla honek gorago jarri dugun A. Muniategiren *Antonio Goitia/ bibolinterrue/ sardina buruaitik/ jotzen dau soinue* horren itxura handia du. Honetan sardina-bururik aipatu ez arren, zortzi mari edo zortzi marabedi aipatzen dira. Diru gutxi garai hartarako.

Iurretako testigantza

Testigantza polit hau puntu honetara ekartzea zilegi dela iruditu zait. M. Luisa Alberdi Arroitauregi iurretarrari bildutako dantza-koplak dira puntu honetakoak. Biltzailea Argiñe Urkiola Andrinua da¹¹. Hemen Antonio Goitia izan beharrean koplako protagonista Antonio Goiri da. Ez da dudarik, halere, gure bibolinterru famatua denik. Zorrontzara Karmenetan badoa, herri horretako jai nagusiak direlako da. Kopla honen antzekoak ugariak badira ere, sortatxo polita da honako hau:

¹¹ Bildumatxo hau Natxo de Felipe kantariak eskuetaratu zidan. Gehienetan kopla zein kantu ezagunak diren arren aldaera interesgarriak ditu, inolako dudarik gabe.

1

Ai Antonio nora zoiez?
Karmenetan Zorrontzara,
Karmenetan Zorrontzara,
ai beraren biboliñakin.

2

Antonio Goiri
biboliñerue,
poltsan diru gutxi baña
bai enbusterue.

3

Antoniok eitten dau
eskongai burue
baña etxien dauzko
lau ume ta andrie.

4

Ai Antonio nora zoiez
Karmenetan Zorrontzara
ai zeure biboliñakin

.....

Antonio Goitia ipuin bateko protagonista

Ataltxo hau osatzeko nire lantxo biko zenbait datu baliatuko ditut, “Bizkaiko ipuin baten ereduak”¹² eta “Lapurdikoko eta Bizkaiko ipuin-eredu baten aldaera barriak”¹³ izeneko artikulak. Europa osoan barrera kontatzen den ipuin baten Bizkaiko aldaerak ematen nituen bi lantxo horietan. Ipuin-ereduak asko direnez, nik neuk batutako bat ekarriko dut hona. Ipuin hori Bitori Artetxeri bildu nion 1992ko azaroaren 13an. Esan beharra dago Bitori Artetxe zeanuriztarraren ama pandero-jotzailea izan zela eta gure ipuineko protagonista Antonio Goitia bibolinterue. Hona hemen:

¹² *Bizkaiko euskera, bizkaiera?: II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*. Bilbao: Barrainkuako Udal Kultur Etxea, 1993, 309-316. or.

¹³ *Idatz & Mintz*. 23. zenb. (1997), 24-27. or.

Gurean amamari te entzuten gontzesan emen... Bibolinderue san da eukeasan amasei se eukean ba? Iru duket, amar duket? Ak gorde eusan, aik duketak auki euasanak, diruek, duketak esaten yako, milloiak, eta, mille peseta edo... ta duketak euki euasan, euki euasan, da gorde euasan pagoa, bakisu pagoa ser dan, basokoa, pago arro baten, pagoak euki euen suloa, basoan esta? Arbolak, alango pago sulo baten gorde euasan aik amar duketak.

Ta gero gorde uasan an da yoan san atzera a dirue seoselan iminten yoan san, da ostu iotzesan andi, dirue be ostu, eneee!

Da yoan san plasara, da kantau uan, da pentzisu ak ostu otzenak atzera dirue bertan ipini otzen:

Amar duket deukedaz
(p)aretx arro baten
beste ainbeste iminteko
bier-etzi beten¹⁴.

Beste ainbeste iminteko bier-etzi beten plasan kantauban, biboline yota ta ak ostu otzesanak:

—Ene!, ederto, bier-etzi beten diño beste amar iminiko itusela an. Da alan be, danak era batera goatukodas.

Da Antonio Goitiak ser euan? A ser iuan ak? Ostu eusanak imini iotzen atzera an, da bier-etzi beten kantebana letxe, beste amar iminteko beste bier etzi beten. Iminiotzesan da, yoan san lapurrori gero ba gaubian an topauko itusela serak, eta Antoniok ser eieuan lengoak rekogidu.

—Bai, eta engañau egin eban? (Nik galdera)

Bai, ein euan, bai, agaiti kantau eioan berak be ostu otzesanean andi pagoti, berak kantau euan. Abadiñoko plasan edo kantau ein euan:

Amar duket deukedas
aretx arro baten
beste hainbeste iminteko
bier-etzi beten
aaai ai ai bier-etzi beten.

Da gero yoan san iminten, eee... yoan san gaubian da ser ein euan Antoniok? A dirue sertu, ak lapurrek iminiotzen atzera dirue pago arroan esta? Ta yoan san Antonio da artu diru ori ta eskapau da gero kanteauan berak:

¹⁴ Trikiti koplén doinuan.

Antonio Goitia
bibolinderue
bete-beterik deuko
beren ingurue
Ai, ai, ai beren ingurue. (Erromeria doinuan)¹⁵.

Antonio Goitia protagonistatzat duten dantza-kopla gehiago?

Orain arte hona aldatu ditugun kopla guztietan era batera edo bestera Antonio edo Antonio Goitia aipatzen dute. Aipatu, gainera, bete-betean izen eta deiturarekin edo izenarekin. Hain ezaguna zenez badakigu Antonio agertzen denean, antonomasiar, Antonio Goitia dela. Eman ditzagun atal honetan zeharkako aipamena dutenak. Jarri dezagun, kasurako, kopla hau:

Mariñela, mariñela (bis)
andre bille dabillena,
oapien topo¹⁶ dabe
txapela eskuen dabela¹⁷.

Koplako mariñela ez ote da gure Antonio Goitia? Alde batetik Antonio Goitia itsa-soak hausten ibilia zen. Gero, lehorreratu ondoren, ontzi-arotz. Mariñela bezala ez ote zen ezaguna? Badago beste kontu bat ere: andrezalea, gonazale amorratua da...

Erreferentzia zeharkakoetan ez ote dago sorterrria bera ere?

Abarketak apurtute
Zapatarik ez,
Bermion gelditu nitzen
Oiñeko miñez.

Txikirrinkin soiñuen
Dantzan ein genduen
Bermioko portuen
Mundekar usuen¹⁸.

¹⁵ Elkarrizketa bidez egindako ipuina transkribitzen ahalegindu naiz. Nire galderak ipuinaren haria hobeki matazatzekoak izan dira. Ipuina Stith Tompson-en *Motif Index of Folk-Literatura* liburuaren arauera K166. 1. 1 zenbakia izango luke. Euskarazko eredu gehiago ikusi nahi dituenak jo beza *Idatz & Mintz* aldizkariko artikulura.

¹⁶ *Topo* ikusten dut transkribaturik. Ez ote da *tope* edo *topeu*?

¹⁷ Gerardo Elegagari (1912-?) batua, Muxikan, 1983an. Biltzailea Ana Astelarra. Labayruko artxiboa.

¹⁸ Antonio Arana-etxebarriari batuak 1983 urtean, 84 urte zituela. Biltzailea Nerea Alkorta.

III. MATXALEN BUSTURIKO DANTZA-KOPLETAN

Sarrera

Matxalen huts hutsean edo *Matxalen Busturiko* emakume famatu bat izan behar omen zen. Gure kantutegi zaharrean Matxalen Busturikoren testigantza kopla batean baino gehiagotan agertzen da. Gaur egun ezer gutxi jakin dezakegu XIX. mendean bizi zen emakume honen gainean.

Gure emakumea agertzen den kopla mordoxka bat ere eman dezakegu, baina hortik gora ezer gutxi. Matxalen Busturiko eta Antonio Goitia dira dantza-kopletan agertzen diren pertsonaiarik famatuena. Bata kopla-sortzailea eta kopla-kantaria ez ezik, koplen protagonista ere bada. Antonio Goitiaren gainean ezer gutxi badakigu ere, Matxalen Busturikoren gainean askozaz gutxiago jakin dezakegu, zoritxarrez.

Bere garaian, herritar xumeen artean, emakumerik famatu bezain nabarmene-netako bat izango zen. Famatua, gainera, ez gure idazlerik garaienak, Axularrek, “fama on famatua” esapidea erabili ohi zuen eran. Nabarmena, bestela esateko, Bizkaian eman ohi zaion adiera txarrerakoan. Beraz, hain famatu eta nabarmendu non, are ezagutu ez zuten lekuetan ere, haren izena eta omena aho-mihietan ibiliko baitzen. Garai bateko aho-testigantzak, ostera, gaur egun, ditugun kopla urri batzuetara mugatzen da.

Atal honetara, han-hor-hemen bildu ahal izan ditudan berri guztiak ekarriko ditut, eta argibide xpi guzti horiekin, emakume honen irudi lausoa, beharbada, zerbait gehiago itxuratu ahalko dugu.

Emango ditudan berrien artean neure etxetik hasiko naiz. Neure amari Matxalen Busturikoren gainean galdetuz gero, bi koplaxo eman dizkit:

1

Matxalen Busturiko
izan balitz ona,
etzala etorriko
Busturitik ona.

2

Matxalen Busturiko
pipa artzaillia,
aittari erre dotze
surraren puntia.

Eman ditugun bi adibide hauetako lehenengo koplari beti agertzen da Matxalen, bigarrenean, ordea, ez. Bigarrena da, bestalde, gehien dokumentatzen den kople-tako bat. Iñaki Gaminderen liburuetara joz gero, herri bakoitzean aldaera bat behint-zat ikusten da.

Bigarren koplari horrek izan dezake besterik ere. Matxalen pipa-erretzailea bal-din bada, marimutil baten itxura duela pentsatuko du batek baino gehiagok. Marimutileri, egia esan, Markinaldeko euskaldun zaharrek –eta euskaldun zaharrez ari banaiz, atso-aguretuez ari naiz oraingo honetan– *Matxalen* esaten zaie.

Zehatzago esan, bi izen propio behintzat badaude lexikalizaturik, edo lehen esa-ten genuen bezala, izen komun bihurturik, bata *Antton* da. *Antton* pobre edo apal edo goikoa ez denari esaten zaio, batez ere ezezkako esaldietan. *Gu ez gaittuk Antton* ‘gu ez gara pobreak’ adierazteko. Eta *Matxalen*, bigarrenik, marimutilak izendatzeko. Gure pertsoniarekin zerikusia izango ote du? *Urretxindorrak* “Matxalen Kardu” kanta sortu zuenean ez ote zen gure Matxalenen geriza kanta horren ostean?

Ugaritasunaren alderditik begiratu gero, zeintzuk izango liriteke koplari eza-gunenak eta barreiatuenak? Bi aipatzekotan goraxeago aipatutako *Matxalen Busturiko/ izan balitz ona,/ ez zala etorriko/ Busturitik ona eta Matxalen Busturikok/ goizean goizean/ errondea darabil/ bere portalean dira*¹.

Hiztegi eta erretrauegieta bada ezer?

Kontu ezagun xamarra da erretraue edo esaldi egin zenbait koplari erretraueak direla. Markinaldean, esaterako, esaera ezaguna da *Pentsamentuan dago san Jose Koruko, ez dala mutilzarrik zeruan sartuko*. Esaera hori koplari bezala ikusi nue-nean Mañarikok egindako bilketa batean, aho bete hortzekin gelditu nintzen. Holako adibideak bat baino gehiago daude, baina utzi dezadan kontu hau hurren-gorako. Antzeko adibideen bila Damaso Intzaren *Naparroako euskal esaera zarrak*² liburuan ibili naiz eta hona aurkitu ditudan aletxo bi:

209-Begiak beltzak beltzak, Mantzalin, dituzu; baño ur gorria edaten poleki dakizu. Itxuraz ez, baño izanez ona denari zabaltzen zaiz-kio atea.

1494. *Kattalin, pottolin. ire amak aurra egin din; aur-zapillik (zapirik) ez, ta kattu-larru(a)n bildu din.*

¹ Bi koplari hauek agertzen dira Juan Manuel Etxebarriaren *Zeberioko kantak* liburuan. Oartzun: Sendoa, 1999, 107 or. Auspoa liburuetegia 259, 1999, 107. or.

² Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, 1974.

Bi ale hauek ezin ote dira kopla-lerroetan tolestu. Hona lehena behintzat:

Begiak beltzak beltzak
Mantzalin dituzu,
bañon ur gorria edaten
poleki dakizu.

Modu horretara tolesturik 7/6A/ 7/6A laukoa ikusten dugu. Bestearekin, ordea, ez zaizkigu kopla-lerroak hain ondo ateratzen. Kontuak honetara, *Matzelin* horrek ez ote du gure Matxalen irten eta banderarekin zerikusirik? Matxalen ausarta, aurrera eta ardozalea denez, edaten duen ur gorria ez ote da ardoa?

Matxalen, ordea, ausart, marimutil eta ardozale baino gehiago emakume lizun edo biziera arinekoa da. Horretara dator M.A. Iñarraren³ testigantza. Honela dio berak: “*Sarri Matxalen izatera etortzen dira, ta au... lizuna dan gauza da.*”

Matzalin delako horrek *ur gorria* edaten omen du. Zer da ur gorria? Metal-ura edo ardo gorria? Matxalen Busturiko, beherago ikusiko ditugun kopletan, kolore gorri bila joaten da Bilbora... Kolore gorria zer da, aurpegiko masail zein ezpainak gorriagotzeko kolorea? Era berean, ezin ahaztuta utzi, Matxalen Busturikok gona gorria jantzita ezkondu nahi duela... Ez ote da kopla multzo handi batean, edo nahiago bada, koplarik ezagunenetan kolore gorria gehiegixko agertzen? Zer du benetakotik kolore gorri horrek? Egiaz Matxalen Busturiko emakume beltzarana –oroit koplan begiak beltzak beltzak– izanik kolore gorriz pintatzen zituen ezpainak zein, beharbada, masailak?

Juan de Irigoyenen testigantza

Juan de Irigoyen idazleak *Los tremendos de Kanala. Kresala eta Lurruna (Aliento del mar; vaho de la tierra)* liburuan⁴, zazpigarren kapituluan, Matxalenen gaineko pasarte bat dakar. Ez da ahaztu behar, ordea, elaberri bat dela lan hau “Kresala eta lurruna (Aliento del mar; vaho de la tierra) Novela vizcaina del mar” autoreak dioen bezala. Elaberria den neurrian, sorkaria edo sorkaria da eta giza irudimen eta asmamenaren ume, beraz. Baditu, hala ere, egiazko kontakizunak, liburu sarreran dioen bezala: “He podido recogerlos de boca de octogenarios inmobilizados en los negros rincones de humosas cocinas aldeanas, de Akorda, Tremoya, Kanala, Ibarranguelua y Elanchove”. Gure pertsonaiaren gainean datu berriak esan ez arren, hona dioena:

³ “Izen-kontua” in *Euskalzalae*. 43. zenb. (1897), 339-340 or.

⁴ Bilbao: [s.n.], 1936.

En Amunátegui vivió también la celebrada en coplas de ronda, la famosa *Matxalen Bustiriko*: Magdalena Amunátegui, casada y con familia a la sazón.

Matxalen había ejercido indudable sugestión e influencia decisiva en los destinos del capitán hijo del corsario. Cuentan los que conocieron a la damisela busturiana, que era la simpatía y gracia en persona; con una elegancia natural que la distinguía de todas las demás muchachas contemporáneas. Nacida y criada en pleno romanticismo, con una cultura muy de la época, supo mantenerse, aun viviendo en una aldea, en comunicación de gustos y orientaciones que se llevaban en los ambientes más selectos, sin plegarse a la vulgaridad, ni mucho menos a la cursilería, de una señorita pueblerina. Cultivó buenas amistades en Guernica, Bermeo, Bilbao; y su buen ánimo y mejor palmito le hicieron tan popular, como para que de vuelta de fiestas y convidadas en los pueblos citados, le siguieran entusiasmados románticos rondadores, a los que alude la conocida canción de ronda: “*Matxalen Bustúriko, gabian gabian: errondariak dabiltzes, zure portalian...*”

Era en la época posterior a la primera guerra civil, y no faltaban en la Villa elementos civiles y militares, jóvenes en su mayoría, que entretenían las ociosidades de guarnición y oficina con galanteos, que terminaron muchos de ellos en bodas. De familia carlista los Amunáteguis, *Matxalen*, con exquisita corrección y gracia, mantenía a respetuosa distancia a los presuntos tenorios, militares y civiles, que la asediaban; algunos con espléndidas floraciones poéticas, según el gusto de la época.

Pasarte hau guztia irakurririk, zer ondorio atera dezakegu? Ezer gutxi. Eta aurrea baino lehen esan behar dugu ez dela gure *Matxalen* agertzen den pasarte osoa, baina gure pertsonaiaren pasarte osoa hona aldatzeak ez liguke argibide gehiago emango. Joan gaitezen, beraz, bestetara argi bila eta utzi dezagun bere horretan atal hau.

Balentin Aurre Apraizen testigantza

Balentin Aurre Apraizek (1912-2007) badu gure pertsonaiaren gaineko artikulua monografiko bat⁵. Aurre Apraiz gernikarra dugu, *Belu* idazlea bezala. Oraingoan ere inguruaren hurretasunak argi handia emango zuelakoan nengoen. Hona bere argudioaren muina:

⁵ AURRE APRAIZ, Balentin. “*Matxalen Bustiriko*” in *Egan*. XX. libk. (1962), 272-273 or.

Aitatu dodazan abestiez ganera erriari entzunda dakidazan beste kanta barregarri asko bere ba-ditu gure Matxalen ospetsuak, eta baita batzuek lotsazko aldizkarietan argitaratzeko zillegi ez direan lorrin eta gordiñak bere. Emen jarri ezin leitekezan abestieri jaramon badagiogue, ez genduan, ba, gari garbia Gernika'tik Bermeo'ra bitartean datzan itsasaldeko erri dotoreko alaba entzutetsua: ludoia izan bear gabero etartean errondea dabilkion emakumea. Ari buruzko kanta gordin batek dagerzkunez, aintziñako gudateen batean gudu-mutillen lagun bere ba-genduan, antza, neskato alai au; Matxalen Busturi'ko lehengo gerratean... asten da ba, ari buruzko kanta lizunenetarikoa.

Guzurrezko izakien gomutakizuna arin suntsitu oi da, ba, ta emakume ori izan gendualakoa dot nik neuk; eta neure eretxi argalak diraustanez lehelengo karlistada-aldikoa-edo izan be. Zana zala, Pernando amezketarra bere ipuin barreeraikarri ta esakune zorrotzetan mihiñean bere kanta barregarriekaz; eta Euskalerrriak dirauan arte iraungo dabeela aren abestiek nik uste. Baiña emakume naiz gizakume barregarri, ganorabako ta besterik ezlakoeri bertso barriak atera ta zabaltzen gure Erria izan dan izatekoa izan, eta arritzekoa dogu Matxalen'i (egiazkoa baldin izan ba-zan beintzat), ateratako bertsorik guganaiño eldu ez izatea. Nik neuk ez dodaz iñoz entzun izan beintzat, Busturitik urrekua nazan-arren.

Artikuluaren bigarren-hirugarren pasarteak aldatu ditut hona zer nolako artikulua den jakiteko. Artikuluan, zoritxarrez, ez dago koplak bat bera ere. Eta koplak bi eratakoak izan daitezke artikulugilearen iritzian: lizunak eta gainerakoak. Berak, entzun dituen lizun ez diren horiek ere ez ditu agertzen. Artikuluan, azken batean, balizko aukera batzuk ematen dira. Bi aukera nagusi daude: egiazko emakumea edo alegiazkoa izatea. Egiazkoa baldin bazen, hezur-haragizkoa zen, eta antzinako garai batean bizi izan zen. Egiazkoa izanez gero, lehen karlistadakoa izan behar du. Eta kanta baten hasiera oinarri harturik, ustea ustearen gainean dator. Espia edo zeltari izan zitekeen, hizketa zoliz soldaduak bizkortu edo azkortzen zituenetakoa...

Nik artikulua hau irakurri nuenean aipatzen zituen eta artikuluraten ez zituen koplak horien bila abiatu nintzen Balentin Aurre Apraizengana. Baina neure ahaleginek huts egin zuten. Aipatzen zituen koplak ez zituen gogoratzen eta ni lehen bestean gelditu nintzen.

Azkueren testigantza

Azkueren kantutegi nagusian, 227 zenbakian, "Danzas" sailean "Mari Kortederreko" izenburupean bi koplak daude. Honelaxe dio Lekeitioko ikertzaileak:

De Juan Martín Ibarretxe, de Bedia (B), y Nicolás Uranga, de Amorebieta (B). El primero tarareó además del interludio como pasaje de albogue, que más de una vez había tañido. Del segundo es el estribillo ¡Ai ene!..., etc. No se concibe que Mari de Korteder (Antigua posada de Amorebieta) haya sido trasquiladora, por lo cual el triskilladorea que me dijeron de ella queda convertido en ostatu-lorea, y en vez de entalladorea se ha puesto senartzat eulea, habiendo también quitado portalean por atartean. La adaptación castellana es del folklorista:

1	2
Mari Kortederreko	Mari Kortederrekok
ostatu-lorea,	gabean-gabean
berak bear dabela	errondea darabil
senartzat eulea.	bere atartean.

Bi koplaxo hauetan emakume baten berri ematen da. Bigarren koplak ezagunagoa da Bizkaialdean Matxalen Busturikoren izena duela.

Busturiko testigantza

Itziar Apraiz busturiarraren erretra-bilduma batean erretrauekin nahaste hiru koplak agertzen dira⁶. Lehena koplak gisa tolestu genezake:

–Maritxu ser dakasu
[zuk bada] Deusturik?
–Irabasiak baño
geiago gasturik.

Lehen koplak honetako pertsonaia Maritxu dugu, baina gure Madalen beste bitan behintzat ikusiko dugu:

Matxalen Busturiko	Matxalen Busturiko
amari negarrez,	illien, illien
gona gorriarik barik	joaten da Bilbora
ezkonduko danetz.	kolore gorriten.

Hiru koplak hauetatik, inolako dudarik gabe, lehena dugu bitxiarena eta arraroena. Leheneko Maritxu hori Matxalen izan ote daiteke?

⁶ Itziar Apraizek egindako bilduma Mikel Agirreazkuenaga adiskideak eskuetaratu dit.

Otxoluaren testigantza

Bernardo Garro *Otxolua* mundakarrak Aita Donostiari bi koplak kantatu zizkion⁷. Mundaka, denok dakigunez, Busturitik hurbilxko dago, bosten bat kilometro-ra. Mundaka eta Busturia, gainera, auzoerri edo alboerriak dira. Hona bi koplak:

Pista zapatarijek amari negarrez, Balentziana bagarik Ezkonduko zanetz. La lara la tra lara...	Pista zapatarije Ez egin negarrik: Etzara ezkonduko Balentziana barik. La lara la tra lara...
--	---

Matxalen Busturiko protagonista izan ohi duten koplak hauek beste protagonista bat dute: Pista Zapatarije. Badago besterik ere, gehienetan *ezkonduko danetz* agertzen da, honetan, ordea, iraganean: *ezkonduko zanetz*.

Antzuolako hizkera liburutikoak

Goragoko puntuan ikusi dugun lehen koplaren antzekoa da *Antzuolako hizkera* liburukoa⁸. Koplak honetan, ordea, Busturiko hori zertxobait aldatua dago: Kustubiko. Hona hemen:

Matxalen kustubiko astian birritan Bilbaora jute san kolore gorritan.	Gorriak eraman txuriak ekarri ori gertatzen zaio Madalentxori.
--	---

Bi koplako multzo honetan lehen koplak ezagunaren ondoren bigarren ezezagun bat ikusten dugu. Hemen kolore zuri delakoak nabarmenkeria bat adierazten ote du? Kustubiko delakoa argi dago Busturiko horren desitxuratzea dela. Antzuola Busturitik urruntxo dago eta herri-izena desitxuratu egin da, itxura guztiak direnez. Auzoerria edo bailada bereko herria balitz, inolako dudarik gabe ondo legoke herriaren izena.

Juan Karlos Gerrakoaren koplak boskotea

Juan Karlos Gerrakoak bere eskuidatzien artean bost koplak idatzi zituen orrialde batean. Bost koplak hauek herri-koplak dira bete-betean. Bost koplak, gainera,

⁷ JOSE ANTONIO DE DONOSTIA (O.F.M. Cap.). Cancionero vasco, IV: Danzas (1224) in *Obras completas*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994, 1698 or.

⁸ LARRAÑAGA IGARZA, Jone. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala, 1998, 313 or.

Juan dan aspaldian
Nago Bisturisan
Ire oberik erde
Iustien aspisan

Machalen Bisturiko
Astian birriten
Pillora jnatem da
Colore gorritan.

Mairian curia te
Mairian aterri
Machalen Bisturikok
Colonia huri

Machalen Bisturikok
Gabian gabian
Irendia badantko
Bere portalian

Ay Machalen, Machalen!
Machalen zera huri!
Iure banidadia
Kabel darabiten.

Juan Karlos Gerrakoaren eskuidatzi autografoa.

elkarren segidakoak dira. Lehen koplari Busturi herria aipatzen da eta gainerako koplak guztiek Matxalen Busturiko aipatzen dute. Bilbora kolore gorria erostera joateko kontua gure bilduma honetako koplak askotan agertzen da, baina zergatik ez genuen ezagutzen bilduma honekin jo arte: Matxalen Busturiko azalzuri edo zur-bila da eta horrexegatik joaten omen da Bilbora. Hona bost koplak.

Juan dan aspaldián
nago Busturián,
erri oberik ez da
euskien aspián⁹.

Matxalen Busturiko
astian birritan,
Bilbora juaten da
kolore gorritan¹⁰.

Naiz izan euria ta
naiz izan ateri,
Matxalen Busturikok
koloria zuri.

Matxalen Busturikok
Gabian gabian,
Errondia badauko
Bere portalian.

Ay Matxalen, Matxalen!
Matxalen zera zu!
Zure banidadia
Zabal darabitzu.

Boskote honetatik bigarren eta laugarren koplak dira ezagunak, besteak, ostera, ez. Matxalen Busturikoren berri ematen zuten koplak-kateak bi, hiru edo are lau eta bostera artekoak izan zitezkeen. Juan Karlos Gerrakoaren adibide hau ez ote da diogunaren erakusgarri aparta?

Aitzolen testigantza

Aurreko puntuan koplak boskote bat ikusi dugu gure Matxalen Busturikori eskainia. Oraingo atal honetan beste boskote bat transkribatuko dugu. Gerraurrean Aitzoli, Jose Ariztimuñori, bidalitako bost koplak dira. Ez dakigu bidaltzailearen izenik. Julio Urkixoren 091 AIT doc-38, 21 orrialdean aurkitzen da. Oraingo bost koplaren protagonista Maritxu Mendaroko da. Izen eta lekuizena Matxalen Busturikoaren erara eratua dugu. Koplak ere gure Matxalenen berberak dira:

⁹ Guk honela transkribatuko genuke lehena: *Juan dan aspaldixan/ nago Busturixan/ erri oberik ez da/ euzkian aspixan*. Lehen koplak honetan zergatik ez euzkixen/ euzkixan?

¹⁰ Koplak honetan *Colore* agertzen da.

MARITXU

Maritxu Mendaroko
Ílian birítan
Bilbaora yoaten da
Kolare gořitan (bis)
Ai! Maritxu, Maritxu
Ez sařitan¹¹
Deskuidatu ibiltzen
Beste erítan. (bis)

Maritxu Mendaroko
Neskatía piña
Burutikan ez balitz
Pizkabat ariña. (bis)
Ai! Maritxu, Maritxu
Ain apaña,
Zeñek, txoratu zaitu
Zu orélaría. (bis)

Neskatíak ez dauka¹²
Ona juiziyua
Íñork ez dau eukiko
Orén desiyua.

Ai! Maritxu, Maritxu
Au leziyua
Bakarík izango dozu
Despreziyua. (bis)

Maritxu Mendarokok
Gura leuke artu
Gizon on bat balego
Arentzako gertu. (bis)
Ai! Maritxu, Maritxu
Ora ugartu
Uste zenduen baño
Len neska¹³ zartu (bis)

Maritxu Mendaroko
Domeketan plazan
Neska zartuta bere
Bapo dabi dantzan (bis)
Ai, Maritxu, Maritxu
Beti olgantzan
Zure edertasuna
Kakatara yoantzan (bis)

Kopla lizunak direla eta

Dantza-kopla lizunak badira, denok dakigunez. Dantza-kopla lizunak askotan dantzan ziharduten gazte-jendearen bizigarri ziren. Ironia handiko kopla bi zentzu-koetatik dantza-kopla lizunera salto kualitatibo bat dago. Eman dezagun Eibarko kopladitiko bat:

Kamisa zaarrak dauka
aurrian zulua,
andik ikusten jako
bere mozolua.

Kamisa edo emakumezkoen atorra kopla batean baino gehiagotan agertzen zaigu. Hona aldatu dugun alea nabarmentxo da, osterá. Hona beste bat:

¹¹ Jatorrizkoan 'zařitan'.

¹² Jatorrizkoan 'pauka'.

¹³ Jatorrizkoan 'nezka'.

Maritzen

Maritzen Mendaroko
Glian biritas
Bilbarrak yo atengoa
Kolore goiltan (bis)
Ai! Maritzen, Maritzen
Ez saritan
Deskuidatu ibiltzen
Beste eritan. (bis)

Maritzen Mendaroko
Neskakita pija
Burutikas ez balitz
Pizkabat ariza (bis).
Ai! Maritzen, Maritzen
Aiz apantia
Zerok, txoratu zaitu
Zu oielaria. (bis)

Neskatilak ez panka
Ora jizizua
Inork ez, las eukiko
Oren desina (bis).
Ai! Maritzen, Maritzen
An lesizua
Bakarik izango dozu
Desprezizua (bis).

Maritzen Mendarokok
Gura lenke artu
Guras on bat balego
Arentzako gertu (bis).
Ai! Maritzen, Maritzen
Ora ueartu
Uste zendules bano
Len, yozka, zartu (bis)

Maritzen Mendaroko
Domketas plazar
Yozka zartuta bere
Bano dabit dantzan (bis)
Ai, Maritzen, Maritzen
Beti oigantzan
Zure ederttasuna
Kakatarra yozantzan (bis).
Ururum (?).

Oraingo neskatillek
kamisie baltza,
nik guzurra badiñot
gona ori altza.

Baina atal honetan aldatu dugun lehen koplak ere badu bere aldaera:

Matxalen Busturikok
Kamisien zulue,
Andixik agiri deu
Beren mozulue¹⁴.

Matxalen Busturiko XIX. mendeko kantutegietan

Atal honetan bi kantutegiko berri emango dugu. Lehena Jose Antonio Santestebanen (1835-1906) *Colección de Aires Vascongados para canto y piano* [1880]¹⁵ eta bigarrena Echebarria eta Gimonen *Ecos de Vasconia* (1896)¹⁶. Bi kantutegi hauetan gure pertsonaia agertzen zaigu. Hona lehenean, 54. zenbakian, zer daukagun:

Madalen busturingo
Gabian gabian
Errondian davilza
Zure portalian
Madalen busturingo
gabian gabian
Errondian davilza
zure portalian

Ay! Madalen, Madalen
Ay! Madalen
Zure billa nebillen
Oraiñ baño len.

Bi koplak baino ez ditugu, bi koplarik ezagunenak, gainera. Gure pertsonaiak Gipuzkoako euskaran Madalen izena hartuko du Bizkaikoaren bustidurarik gabe. Busturiko, gainera, itxuraldaturik ikusten dugu: busturingo. Bi aldaera hauek berdin berdin emango dira *Ecos de Vasconia Arreglados para piano y canto Por Los Maestros Echevarria y Guimon* lanean ere. Liburu bereko 63 zenbakikoa, oster, desberdina da:

¹⁴ Hona aldatu ditugun azken bi koplak Kortezubin bilduak dira, 1984an, Maria Ansotegiri. Biltzailea Eba Perez. Labayruko artxiboa.

¹⁵ SANTESTEBAN, José Antonio de (biltzailea). *Colección de aires vascongados para canto y piano*. San Sebastián: Almacén de Música de Santesteban, [1864-1895].

¹⁶ ECHEVERRIA, José María, GUIMÓN, Juan. (moldatzaileak). *Ecos de Vasconia*. San Sebastián: A. Díaz y Cia., [1893].

1

Madalen Buzturingo
gabian gabian
errondian dabilza
zure portalian.
Ay! Madalen Madalen
Ay! Madalen
zure billa nebillen
orain baño len.

2

Asi goiko kaletik
eta bekoraño
ez da ederragorik
Madalenchon baño
Ay Madalen Madalen
Madalen gashua,
Madalenek eraten du
erari goshua.

3

Zeiñ ote da berorri
orren famosia,
Madalen deritzona
neskacha airozia.
Ay Madalen Madalen
Madalen neria
Zure ondoren dabill
buelbaka jendia.

4

Kalian gora bera
ishil ta seriyo,
illiaren puntian
zintia dariyo;
Ay Madalen Madalen
Madalen gashua
seigarren batalloyian
daukazu majua.

5

Elizara joan eta
belauniko jarri,
lenbiziko errezua
bere majuari;
chikichua da baño
bai konponduhua
kazadorietako
kabo aurrengua.

6

Chikichua naizelako
ez nazazula utzi,
Kapitan irichiko naiz
bigar edo etzi;
Ay Madalen Madalen
Madalen maitia
zu nai zinduzket izan
nere emazia.

7

Asi goiko konbetutik
eta kaleraño
ezkonduko lirakenak
makiña bat dago
Ay Madalen Madalen
Ay Madalen,
Zure billa nebillen
Orain baño len.

8

Ikuste bakoitzian
Madalen Kalian
poza sentitzen det
nere biyotzian
Ay Madalen Madalen
Madalen loria
nayago nuke baziña
betiko neria.

Behin honetara ezkerro esan dezagun ahapaldi hauek guztiak baliatu zituela Aurre Apraizek *Egan*-eko artikulua moldatzeko.

IV. IRUTEN ARI NUZU KILUA GERRIAN ETA TRIKITI-KOPLAK

Orain baino lehen neure bi lantxotan, zeharbidez bada ere, Baxenabarreko eta Lapurdiko kanta hau iruzkindu nuen, “Bilbaoren oihartzuna herri literaturan”¹ eta “Una colección antigua de coplas vizcaínas”² titulupeko artikuluetan. Lehen laneko puntu batean gure trikiti-koplak Baxenabarre eta Lapurdiko kantarekin dituen bate-ratasunak ikusi nituen. Hona Azkueren *Euskalerraren Yakintza*³ lanean datorren bezalaxe:

1

Ama, gura badozu mutilik erosi,
Bilbo zarrean dagoz lau zirian zortzi.

2

Lau ziri gitxi da ta lau maraira ezkeru,
Askaoko iturrian elejia dago.

3

Bilbo zarreko atsoak okerrak eta gaiztoak,
ardao gozotan gastauko leukez oien azpiko lastoak.

¹ *Bilbao, el espacio lingüístico: simposio 700 aniversario*. Bilbao: Universidad de Deusto, 2002, 163-185 or.

² “Una colección antigua de coplas vizcaínas” in *Litterae Vasconicae: euskeraren iker atalak*. 9. zenb. (2004), 9-63 or.

³ *Euskalerraren yakintza = Literatura popular del País Vasco*. Madrid: Espasa Calpe, 1935-1947. IV. libk., 53-54 or.

4

Bilbo zarrean barberu asko, endemas barrenkalean.
¿Nongo barberuk osatuko nau eztula ddatortanean?

5

Bilbo dinoe, Bilbo dinoe, eztago Bilbo langorik,
txokolatea artuteko goizean bero berorik.

6

Maitea, Bilbora noa, ezertxo gura badozu,
Ulearen puntarako zintatxo bat ekarridazu.

7

Maitearen portalean arbola eder bi
Bata da lirio ta bestea madari.

Bilboko aipamenez josita dauden ahapaldi hauek trikiti-koplak dira bete-betean eta beste trikiti-kopla sail batzuekin antzekotasun handiak dituzte. Hona Azkuek berak *Cancionero Popular Vasco* lanean⁴ Eibarkotzat ematen dituen bost kopla hauek:

1

Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño
mutila merkeago, bai neskatxa baiño.

2

Mutila nahi duenak beretzat erosi,
Arrateko zelaian txanponean zortzi.

3

Onak baldin badira, eztira garesti;
txarrak baldin badira, probatu ta utzi.

4

Lau, bost, sei, sardiña-makaillero;
sei, zazpi, ez gabiltza gaizki.

⁴ Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1990. I. libk., 199 kanta, 288 or.

Bi sail hauetan, esaterako, berdintasun eta bateratasun nabarmenak daude. Bilboko lehena eta Eibarko bigarrena, esaterako, berdintsuak dira; leku-izenak, ordea, desberdinak. Trikiti-kopla hauek guztiak, ordea, “Iruten ari nuzu” kantarekin antzekotasun garbiak dituzte. Hona kanta hori J.D.J. Sallaberryk *Chants populaires du Pays Basque*⁵ liburuan dakarren bezalaxe:

1

Iruten ari nuzu, khilua gerrian,
Ardura dudalarik nigarra begian.

2

Jendek erraiten dute ezkondu ezkondu:
Nik ezdut ezkon-minik, gezurra diote.

3

Ezkon-minak dutenak seinale dirade:
Mathel hezurak seko koloria pherde.

4

—Jendek erraiten dute hal’ eztena franko,
Ene maite pollita, zur’et’enetako.

5

Ezkontzen balin bazira mariñerarekin
Chardina janen duzu makalluarekin.

6

Ezkontzen balin bazira mandazainarekin
Arraina janen duzu oliuarekin.

7

—Anaia, nahi duzuia emazterik erosi:
Baratze kantoinetan sosian hemezortzi.

8

—Anaia, nahi duzuia gizonik erosi:
Eliza bazterretan bi sosetan zortzi.

⁵ Bayonne: Imprimerie de Veuve Lamaignère, 1870.

Hona aldatu ditugun zortzi ahapaldi baino gehiagokoa da berez kanta, zortzi ahapaldi hauen ondoren eten-puntuak jartzen dituelako Sallaberryk. Kantutegi askotan zortzi ahapaldi baino gutxiago ikusten ditugu. *Mariya*⁶ eta *Kantuz*⁷ kantutegietan, esaterako, lehen lau ahapaldiak baino ez daude. *Kantu kanta khantore*⁸ liburu ederrean hamabi ahapaldiko eredu bat ikusten dugu. Hona hemen:

1

Iruten ari nuzu, kilua gerrian,
Ardura dudalarik (bis) nigarra begian. (bis)

2

Nigar egiten duzu, oi, suspirarekin...
Kontsolaturen zira (bis), bai, denborarekin. (bis)

3

Jendek erraiten dute hal'eztena frango,
Ene maite pollita (bis) zu ta neretako. (bis)

4

Ofiziale seme, kolore gorria;
Baigorriko nexkatxen (bis) karesatzailea. (bis)

5

Nik ez dut karesarik, bertzek ez dutenik;
Berak dabiltz ondotik! (bis) zer egingen dut nik? (bis)

6

Jendek erraiten dute: ezkondu, ezkondu!...
Niri ez zait oraino (bis) gogorik berotu. (bis)

7

Beltxarana naizela zuk omen diozu...
Ez naiz xuri gorria (bis), egia diozu. (bis)

⁶ *Mariya*: 75 *euskal-abesti xorta, bakoitza bere eresi berezia'rekin*. Bordeaux: Imprimerie M. Mendiburu, [s.a.], 148. or.

⁷ *Kantuz*. Bayonne: Le Livre, [s.a.], 118. or.

⁸ Baionan: Kordelieren Irarkolan, 1967, 185-186. or.

8

Xuriak eta beltzak... mendiak ardiak...
Ez ditutzu zuk ere (bis) mentaka guziak. (bis)

9

Xuriak xuri dire, ni naiz beltzarana...
Ongi kontentik dago (bis) ni behar nauena. (bis)

10

Ezkon-mina dutala zuk omen diozu...
Nik ez dut ezkon minik (bis), gezurra diozu. (bis)

11

Ezkon-mina dutenak seinale dirade:
Mathel hezurak seko (bis), koloriak berde. (bis)

12

Andrea, jan ezazu sagar gezamina!
—Zertako jan behar dut
jan dezakedalarik ona eta fina? (bis)

Hona aldatu dudan *Kantu Kanta Khantore* liburuko ale hau baino osoagorik ez da beste inongo aldizkari zein kantutegitan aurkitzen. Julen Urkizaren bertso-bibliografiako ale guztiak⁹ banan-banan ikusi ondoren ondorio horretara ailegatu naiz. Lapurdiko eta Baxenabarreko kantu honek baditu gure liburu honetako hainbat kopladitan agertzen diren aleekin berdintasun nabarmenak. Hona, kasurako, Ataungo kopladi argitaragabeko bi ale:

113

Ezkontzen bazerade
mandazayarekin,
artu bearko dituzu
pastaburniarekin.

⁹ URKIZA, Julen. *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Markina-Xemein: Karmel, 1999. Hona hemen erreferentzia guztiak: Iruten ari nuzu, *Eskual Herria* 3 (1895, 43. zk.) 1./ *Euzkadi* 13 (1925, 4030. zk.) 4./ *Baskonia* 33 (1926, 1176. zk.) 374./ *Euzko Deya-A* 3 (1941, 80 zk.) 11./ *Gure Herria* 33 (1961, 1 zk.) 15. (Zat)./ *Haize Garbia* (1979, 23. zk.) 15. *Luzaide* (1958, 5 zk.) 9.

Ezkontzen bazerade
 basagizonarekin,
 artu bearko dituzu
 aizkol kirtenarekin.

Hona aldatu ditugun Ataungo kopladiko bi ale hauek eta Salaberryren 5-6 aha-paldiak antzekoak dira zalantzarik gabe. Bietan baldintza-ondorioak elkarren ondoran daude. Zein da baldintza? “Ezkontzen bazara X-ekin”. Ondorioa, gainera, langintza horri dagokiona da. Baina era honetako baldintza-ondorioak hobeto ikusteko ale ezezagun baten berri eman nahiko nuke hurrengo puntuan.

Iruten ari nuzu kantaren aldaera berri bat

Ezuste gozo bat izan nuen kanta-paper zaharrak arakatzten nihatuela. Letra txukunez idatzirik nik ezagutzen ez nuen aldaera zahar bat aurkitu nuen. Kopiatzaileak letra argi eta garbiz “Iruten ari nuzu” kanta kopiatu zuen paper solte eta bakar batean¹⁰. Hona nola dakarren:

1

Iruten ari nuçu khulia guerrian
 Ardura dudalaric, ardura dudalaric nigarra beguian
 Ardura dudalaric nigarra beguian.

2

Nigar eguiten duçu suspirurarekin
 Consolaturen cira, consolaturen cira demborarekin
 Consolaturen cira demborarekin.

3

Gentec errayten dute ezcondu, ezcondu
 Nic eztut ezcominic nic ez dut ezcominic gueçurra diote
 Nic ez dut ezcominic gueçurra diote.

4

Ezcominic duyenac seinale dirade
 Mateleçurraseco, mateleçurraseco coloriac berderic.
 Mateleçurraseco coloriac berderic.

¹⁰ Paper hau Daranatz-en paperen artean aurkitu dut.

5

Muthico gazte propi colore gorria
Baygorrico nescatchen, Baygorrico nescatchen caressaçaylia
Baygorrico nescatchen caressaçaylia.

6

Nescato gazte propi colore gorria
Çoumbana saltcen duçu, çoumbana saltcen duçu dozena chardina
Çoumbana saltçen duçu dozena chardina.

7

Marabidian çortci azkena memena
Erossi nahi duyenac, erossi nahi duyena jin bite ni gana
Erossi nahi duyenac jin bite ni gana.

8

Ezcountcen bacirade laboriarekin
Chardina janen duçu, chardina janen duçu artho hotçarekin,
Chardina janen duçu artho hotçarekin.

9

Ezcountcen bacirade arraingçaliarekin
Arragnac janen tutçu, arragnac janen tutçu oliouarekin
Arragnac janen tutçu oliouarekin.

10

Ezcountcen bacirade jaün yugiarekin
Oillasco janen duçu, oillasco janen duçu ogui mouflirequin
Oillasco janen duçu ogui mouflirekin.

11

Ezcountcen bacirade jaün notariarekin
Café edanen duçu café edanen duçu sucregnouarekin
Café edanen duçu sucregnouarekin.

12

Ezcountcen bacirade aberax batekin
Adarrac batuketçu, adarrac batuquetçu hamar bachtartekin
Adarrac batuketçu hamar bachtartekin.

1 } *Fenton are uicou Kheulic querrian*
Ardura dudalaric, uolura dudalaric nigara bequan
Ardura dudalaric nigara bequan

2 } *Nigur equiton ducu suspuraretin*
Consolatoreu ara, consolatoreu aia, dem boraretin
Consolatoreu aia dem boraretin

3 } *Gentecamayten dute ezcondu, ezcondu*
Nic ezlat geminic nic ez dat geminic quocura dute
Nic ez dat geminic quocura dute

4 } *Ezeminic diynac seinalc dirade*
Matelecurrasco, matelecurrasco coloriac berdein
Matelecurrasco coloriac berdein

5 } *Montico garte propu colore gorma*
Baygorric nescatchon, baygorric nescatchon crassa craylia
Baygorric nescatchon crassa craylia

6 } *Nescato garte propu colore gorma*
Cumbana, ^{deh duna} cumbana saltceduca Dozana charulina
Cumbana saltceduca Dozana charulina

7 } *Marebitian artci aykone memona*
Erassi nahi dugenac, erassi nahi dugena jin bite nigara
Erassinahi dugenac jin bite nigara

8 } *Ez aruntcen bacirade laboruaretin*
Charulina jinen ducu, charulina jinen ducu urtho horearetin
Charulina jinen ducu artho horearetin

9 } *Ez aruntcen bacirade uruinqularetin*
Aragnac jinen tutu, aragnac jinen tutu oluaretin
Aragnac jinen tutu oluaretin

Eskudatziaren aurkia eta inrentzia agertzen dira orrialde honetan eta hurrengoan.

10. } Ezcounten bacirade Jainu ziguruetekin
 Billesor jenen duçu, viltisio jenen duçu ogui morefliriquin
 Cillaco jenen duçu ogui moreflirikin

11. } Ezcounten bacirade jainu moteriarakin
 Cafe' edanen duçe cafe' edanen duçu sacrognouaretin
 Cafe' edanen duçu sacrognouaretin

12. } Ezcounten bacirade aberea batetkin
 Adarac batetketen, adarac batetketen humur bashartekin
 Adarac batetketen humur bashartekin

13. } Ezcounten bacirade cihaur uduri batekin
 Phaüssia baduqueçu Phaüssia baduqueçu unioniarekin.
 Phaüssia baduqueçu unioniarekin.

Tin.

13

Ezcounten bacirade cihaur uduri batekin
 Phaüssia baduqueçu Phaüssia baduqueçu unioniarekin
 Phaüssia baduqueçu unioniarekin.

Irakurle begi-zoliak ohartuko duenez, kanta honetako hainbat ahapaldi ez daude guk ezagutzen ditugun kantutegi eta aldizkarietan. Badira ezuste harrigarriak, hala ere, Gernikako kopladian agertzen den 19. ahapaldia, hauxe da:

19

Katalin tiruri-taran,
 Kataliñ ariña,
 zenbaten saltzen dozu
 dozena sardiña?

Ahapaldi hau, begi-bistakoa denez, bete-betea bat dator gure eredu zahar-berri honetako seigarren ahapaldiarekin. Eredu berri honek baditu Salaberryren

kantutegiko eta KKK kantutegiko ahapaldiekin bateratasun eta berdintasun handiak. Baditu, hala ere, hainbat ahapaldi berri, batez ere “Ezkontzen bazirade” saillekoak.

Kantaren transkripzioaz eta nongotasunez

Nongoa ote da gure eredu berria? Orain arteko testigantzak bi eratakoak izan dira. Bata kantaren kanpoko eta bestea kanta barnekoa. Kantaren kanpoko testigantza kontuan izanik, Lapurdi-Baxenabarre zela agertzen da Salaberryren liburuan. Kantaren barneko testigantzaren arabera, Baigorri hitza dugu: *Ofiziale seme, kolore gorria;/ Baigorriko nexkatxen (bis) karexatzailea. (bis)*. Euskal aldizkarietan, batez ere *Gure Herria* aldizkari apainean, askotan daude kanta baten gaineko ikerketa monografikoak. Gure honen gainean ez dugu inoiz inon ezer ikusi. Gure eredu berria Zuberoakoa dela uste dugu. Gure baieztapen honek, ordea, ez du erabateko ziurtasunik. Adizkiei gagozkiela *diote* eta *dute* ez dira Zuberoakoak. Zuberoako euskararen, esaterako, *die* da erdi-euskalkietako *dute*. Zuberoakoa, beraz, ez bada, Nafarroa Behereko ekialdekoa izan liteke. Euskalki kontu horretan ziurtasun handia dutenak mintza bitez.

DANTZA-KOPLAK:
ERREPERTORIOAK

V. ARANTZAZUKO KOPLADIA

Arantzazuko koplak altxorra ezagutzen dudana ugari bezain ederrenetako bat da. Aizkorri mendi-magaleko Euskal Herriko bazter euskaldunenetako horretan, trikiti eta pandero-joleen tradizio handia izan da, inolako zalantzarik gabe. Urbiako zelaian zein Araotzen zein Arantzazun bertan zenbat koplak kantatu ote ziren? Koplak horiek gehienak ezin bildu ditugu, dagoeneko. Joandako garaietako eguzki-erreinuak bezalaxe, betiko aienatu dira; itsaspean hondoratu den ezpata bezalaxe, betiko galdu dira; ez non eta ez han, lasta-zuzia erretzen den bezalaxe, betiko galdutzat eman beharko ditugu.

Atal honetara ekarriko dudana bilduma hau garai aberatsagoen ispilu ederra dela deritzat. Hor-han-hemen barraiaturik aurkitu ditudan Arantzazuko koplak-testigantza guztiak atal honetara ekarri nahi nituzke. Iturririk emankorrena *Arantzazu* aldizkaria da, zalantzarik gabe. Biltzaileen artean hiru frantziskotar aipatuko nituzke Cándido Izaguirre, Julian Alustiza *Aiztiri* eta batez ere Luis Villasante.

Cándido Izaguirreren lanen artean daudenak

Arantzazuko koplak osatzeko iturri bat baino gehiago erabili ditut esku artean. Cándido Izaguirreren *El vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate y zonas colindantes*¹ liburu zoragarrian, hitz batzuen adieretan koplak zenbait ematen dira atsotitz edo esaldi egin bezala. 43 orrialdean, esaterako, bi ale hauek aurkitu ditugu:

¹ San Sebastián: [s.n.], 1967.

Agura pipa-luze
begi arranpalo,
tabernara juan eta
negarrez ei dago.

Agura zirki-marki
pipa artzaillia,
txingarra[k] erre dio
surraren puntia.

Bi ale hauetaz gainera, badago besterik ere. *Orain* hitzean, esaterako:

Oraingo mutill obek
zer dute merezi?
Errekan beratuta
lisiban egosi;
Arrian kolpe bi ta
sasian esegi.

Eta 224 orrialdean, hiru koplako gune polit bat:

Tiriki tauki tauki
mailluaren otsa;
amalau argin baño
oba dok arotza.

Tiriki tauki tauki
urunak eralgi;
ontza bat txokolate
amalau atsori.

Amalau atso eta
amabost jikara
ondora arrimatzeko /(aiek danak bete orduko)
bildurrez ikara.

Azken hiru koplak hauetan badago zer nabarmendu. Lehen alea liburu honetan sarrien agertzen den koplekako bat da. Hiru koplak kateatu daudenean, bigarren eta hirugarrenak ez dira hain ezagunak izaten. Hiruko taldeko honetan Oñatiko herrian hain ezaguna izan den txokolategintza ere ez ote da agiri? Edo zehatzago esan, Oñatiko txokolatea inguru horretako koplekako agertzea ez da hain harrigarria. Koplekako agertzen diren atso(-agure)ek badute hemen ere protagonismoa: atsoek txokolatea hartzen dute kikaretan. Atsoen kopurua ere finkatua da, hamalaukoa, harginena bezalakoa. Zenbakiak herri-literaturan agertzen diren hamalau-hamabos-tak dira, baladetan bezalaxe.

Julian Alustiza *Aztirik* bildutako aleak

Julian Alustiza euskal idazle frantziskotar argiaren bi lanetan aurkitzen dira sakanaturik zenbait pandero-kopla. *Lihoaren penak eta nekeak*², eta *Euskal base-riaren inguruan*³. Bi liburu hauetatik dantza-kopletarako lehena izan dugu aberatsena. Hona *Lihoaren penak* liburuan zein zehaztasun polita ematen duen:

Eta nik, berriz, Felixiana Arsuagari jaso nizkion gau bileratan eman ohi ziren kopla zahar batzuk ere; beraren ama zena pandereta-jotzailea izaki, eta bere pandereta laguntzaile zuelarik, hamaika aldiz kantatu omen zituen kopla eder hauek:

1
Altuan Arantzazu
bajuan Oñati,
eder galanten bila,
urten dot etxetik.

2
Ederra gura neuke
galanta al balitz,
igual aberatsa
berez ona balitz.

3
Ederra ta galanta
biak leku baten,
ona ta aberatsa
neke da bilatzen.

4
Gonea zuri ta
manteliña beltza,
hori da begiaren
argiaren ertxa.

5
Ederra da larrosa
zuria dalako,
asko engainatzen du
hobea dalako.

6
Mutil bekozko ilun,
begiak logure
baietz uste dok, baino
ez nauk hire gure.

7
Sagarraren lorea
haizeak darama,
zurekin nere pena
hala balerama...

Hona aldatu ditugun kopla hauen antzekoak aurki litezke bestetan ere.

² Arantzazu, Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu, 1981.

³ Oñati: Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea, 1985.

Seigarren koplaren aldaera bat Oskotz-Imotz-ekoa Azkuek bildu zuen arabera: *A mutil kopetillun/ begiek logure/ bayetz uste duk bainan/ ez nauk ire gure.*⁴ Egitura aldetik markagarria da “Noren gure izan” egitura are Nafarroako kopletan ere ikusten dugula. Zazpigarren koplari dagokionez, Ataungo kopladian bakarrik aurkitu dugu kideko bat: 68: *Sagarraren lorea/ aizeak darama,/ zurekin nere pena/ ala balarama!*

Gure haria beste leku batera eramunik, ez ote da penagarria pandero-jole baten altxorra zazpi kopia hauetara bakarrik mugatzea? Pandero-jolearen erreperitorioa hamaika aldiz aberatsagoa izan behar zuen. Gure sortatxo hau, beraz, segida luzeago baten besterik ezeko altxor handi baten erakusgarria da.

Aránzazu aldizkariko ale solteak

Aránzazu aldizkariaren orrietan aurkitu dugu ezagutzen dugun trikiti-kopla bildumarik ederrenetakoa. Aurkitu ditugun lehen koplak 1924. urteko aleetan daude, “La vida en Arantzazu” lanean⁵. Lan honetan, otxandiotarrek Arantzazura egiten duten erromesaldiaren berri eman ondoren, trikiti-kopla bat bururatu eta bere kronikan txertatzen du kronikagileak. Kopla txertatu hori oso ezaguna da eta gure bilduma honetan behin eta berriro dokumentatzen dugu. Honelaxe dio artikuluko egileak:

El celoso y activo párroco de este histórico pueblo vizcaino, D. Andrés de Iza, ferviente devoto de Aránzazu ha organizado también este año con sus feligreses una bonita peregrinación. Verificaron la entrada al son del txistu y tamboril, cuyas notas de la marcha de S. Ignacio mezclaban con las del himno de la peregrinación resultando el conjunto graciosamente típico. Nosotros no pudimos menos de recordar en aquel momento estos dos cantares de ese pueblo tan castizo:

Altuan San Bernabe
bajuan Gordobil,
Otxandijoko plazan
tamboliña dabil.

¡Otxandijoko kontzejupean
dabilen jentien-jentia!
eta plazan, mamboliña ta mamborra.

⁴ Azkuek herri kanta txapelketara bidali zuen laugarren kuaderno eskuidatzia, 812-813 or., 1791 kanta.

⁵ Artikuluaren izenpetzailerik gabe. *Arantzazu*. IV. urtea, 39 zenb.(1924), [219]-223 or.

Trikiti-kopla ezagun honen ondoren datorrena kopla desitxuratu bat ote da? Baina ez dezagun geure lorratzik galdu eta esan dezagun aurkitu dugun aldizkari bereko bigarren testigantza ere urte berekoa dela⁶. Oraingo honetan, gainera, uzta handixeagoa da. Zortzi kopla dira guztira, baina binaka jarrita daudenez gero, lau ahapaldi balira bezala emanak daude. Lanaren izenburuak ere bere muinaren berri ematen du: “Trikitixak, baratzeko pikukak”. Ez dator, ordea, biltzailearen izenik. Orrialde bakar batean daude lau koplak eta atzealdean, 350. orrialdean, doinuaren pentagrama. Trikiti-kopla hauek lelo edo errepika bat dute lau aldiz errepikatzen dena: *Lau, lau, lau/ dotia badu, baña, / lau, lau, lau / Bergaran utzi dau*. Hona besterik gabe zortzi kopla politak:

Baratzeko pikukak
iru txorten ditu:
neska mutilzaleak
ankak ariñ dittu.

Bidakit dituzula
bat eta bi ere;
esperantza galdurik
ez nago ni ere.

Ankak ariñ eta
burua ariñago,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

Ai nere txiki polit
txikitxo maitea!
atoz zaldi gañean
nerekin batera.

Arto jorrara nua
luberrri berrira,
belarra jorratu ta
artua sasira.

Erdi bat izan ez ta
lau kuarto gastatu,
mutil andrezaliak
nekez aberastu.

Bergarako neskatillen
dote arriyua,
burruntzari zartxo bat
iru zulokua.

Bukatutzera nua
asi detan lana
berriz ezta faltako
emen zer esana.

⁶ Aranzazu. IV.urtea, 43 zenb. (1924), [349-350] or.

Pandero-joleen argibideak eta koplak

Aita Luis Villasantek 1966 urtetik aurrera Arantzazu eta inguruko auzoetako pandero-joleen koplak argitara eman zituen *Aránzazu* aldizkarian. Kopla hauek Villasantek berak bilduak dira eta *corpus* polit bat osatzen dute, inolako dudarik gabe. Pandero-joleak baino zehatzago, pandero-jole ohien koplak esan beharko genuke, plazetako trikiti-soinu eta pandero-hotsak utziak baitzituzten ordurako. Aita Villasanteren lan ugarien artean bilketa lan hau da nik gehien estimatzen dudana. *Aránzazu* aldizkarian egin zituen herriz herriko artikulua zein kopla argitaratze hauek Villasanteren biltzaile edo folklorista alderdia erakusten dute. Artikulu hauen berri ez dugu aurkitu J.A. Arana Martijak egindako Bibliografia zehatzean⁷, baina ez dago dudarik nor den L.V. siglen azpian dagoen biltzailea: Luis Villasante. Aurrera baino lehen egin dezadan ohar garrantzizko bat. Aita Villasantek pandero-joleak elkarrizketatu zituenean amonaturik, atsoturik zeuden behialako pandero-jole azkar eta indartsuak. Hainbat urte zeramatzen plazetan jo eta kantatu gabe. Esku-besoetako zein bozeko indarra ez ezik, memorioaren indarra ere ahuldurik zuten. Begien bistakoa da memoria lausotua eta indargetu antxean zeukatela. Aspaldian kantatu gabeko kopla kate luzeak, gainera, ez ziren ateratzen plazan bezain ugari. Pentsatzekoa da, kasurik gehienetan, gerra aurrean ibili zirela kantuan eta hogeita hamar urte baino gehiago zeramatela kantatu gabe. Isilaldi luzeegia, beraz, kopla sail luzeak bilatzeko.

Guk atal honetan pandero-joleen berri emango dugu L. Villasantek ematen digun bezalaxe. Lehen saileko pandero-jolea Mari Barrena da. Hona zer dioen Villasantek: “Maria Barrena Araozko alaba eta Arantzazuko Albitxuri baserrira ezkondua, pandero-jolea izana degu bere gaztetako denporan (gure kopladian 1-35).”

Bigarren saileko pandero-jolea Maria Ugarte da. Hona Villasanteren hitzak: “Gure auzokoa au ere. Maria Ugarte, Arrikruzko baserrikoa. Bere gazte denboran makiña bat aldiz, jo izan du panderua. Gesaltzako ariztitxoa omen zan, orduan, gazteen jolas-leku autatua. Manuela Anduaga, Graziano bertsolariaren arrebak, erakutsi omen zizkion bertso auek, panderua jotzearekin batean kantatzeko (gure kopladian 36-71).”

Hirugarren saileko berriemailea Claudio Zurutuza da. Hona Villasanteren hitzak: “Claudio Zurutuza, Beillotsa baserriko etxeko jaun zaharra. Errebista onen beronen estalkian dezute arro arro. Berau ere pandero-jole izana baita. Garai batean orrelako asko omen zekian, baiña ahaztu egin zaizkio geienak. Kantatu dizkigunak, ordea, oso politak dira (72-79).”

Laugarren saileko berriemailea Primitiba Erostarbe da. Gipuzkoako pandero-

⁷ ARANA MARTIJA, Jose Antonio. “Luis Villasanteren bio-bibliografia” in *Luis Villasanteri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1992, 11-88 or.

jolerik ezagun bezain famatuenetakoa izan da. Herriz herri eta plazaz plaza gehien ibilitakoa ere bai, esan digutenez. Oso ezaguna zelako argibide gutxi dakartza L. Villasantek. Haren argazki baten azpian hauxe dio: “Primitiva Erostarbe, telebisioko pantallan. Araoz’koa degu (80–85).”

Bosgarren saileko berriemailea Aniceta Barrena da. Hona L. Villasantek dioena: “Aniceta Barrena andreari jasoak dira oraingo auek. Makiña bat olako dakizki. Gazte denboran pandero-jole izana baita. Araoztarra da. Urruxolako auzoan bizi da, Olateko indar-olan (86-98 koplak).”

Seigarren saileko berriemailea Timotea Guridi da. Hona Villasanteren hitzak: “Oraingo au ere Araozkoa degu: Timotea Guridi, Txomena baserrikoa. 68 urte ditu. Oso goiz ikasi zuen panderua jotzen. Gogoan du berak nola egin zan, aurrengo aldiz, panderu baten jabe. Neska txiki zala, eta zelaian etxeko beiak zaintzen zebillera, mandazai edo karramateru bat igaro omen zan andik, eta esan zion: Zer egi-ten dezu or bakarrik? Nik ekarriko dizut panderu bat, ez aspertzeko. Ta baita ekarri ere. Geroztik panderu-jole izandu zan (99-114 koplak).”

*Pandero-joleen kantak. Lehen saila. Pandero-jolea Maria Barrena*⁸



1

Ortuan larrosiak orriak zabal
krabeliñien aldian.
Etxe zuriak bana-biñaka
Arantzazura bidian.

2

Mendirik mendi laiñuak,
pagorik pago usuak.
Ez dira errez arrapatzen
mayorazkuen pausuak.

3

Nere pandero berria
Bilbotikan ekarria,
bost errial pagatuta
erdia urregorria.

⁸ VILLASANTE, Luis. “Pandero-joleen kantak” in *Aránzazu*. XLV. urtea, 445 zenb. (1966), 374-375 or.

4

Ondarruko kaletan
mutilzarrak bentanetan,
nobiya billatzeko
Santa Klarai erreguetan.

5

Neskatillatxo zertzeta
ederra dezu kopeta,
zeure soiñeko txaketa
amar dozena kortxeta.

6

Neskatilla morenia
marunazkua gonía,
abarka-trailla beltzakin
dirudi gipuzkuania.

7

Neure maitia, zer dezu?
Kolore txarra daukazu,
ezpanak sikuak eta
ogirik be ezin jan dezu.

8

Gaztiak badakizute
zela biar dan gauzia,
erten eizute dantzara eta
estrañatzeko plazia.

9

Soldadu txaketa gorri,
zertan dek pandero ori?
Amalau errial da erdi
Madrillen kostia neuri.

10

Baserritarra izanagaitik
ez egin neri burlarik,
nere soiñeko perkalezkuak
ez dauka meriñakerik.

11

Nere nobiyuaren ama
asto baten jabe dana,
aretxek ekarriko digu
etxian biar dan dana.

12

Ama neriak ezkontzeko
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillua bost txitakin.

13

Kalian nago kalia
arri otzaren gaiñian,
idiki zazu ate ori
barrura sartu nadian.

14

Txikitxu zera baiña
aziko zera ondío,
azitzen ez bazera be
ez dizudala utziko.

15

Ama zeuriak esan dit
ez zaudela neretzako,
eskerrak milla mesede
ezta neu ere zeuretzako.

16

Gaztia aide-aide
soiñua danian,
ez gero damu izan
ixildu denian.

17

Ederra zera baiña
ez zera larrosa,
kolore zuri gorri
begi amorosa.

18

Or goien dago mutil bat
kazuela buru,
neskatxak engaiñatzen
badu milla modu.

19

Gaztiaren burua
guztiz ariña da,
zarrai burla egitia
gaizki egiña da.

20

Gaztia nintzarian
oin amar urtetan,
baneban nobiua
milla demontretan.

21

Arantzazura nua
azken bisitara,
lagunduko al didazu
Ameriketara?

22

Arantzazura nua
uretan igari,
ondo ondo erregutu
Birjiña Amari.

23

Ez naiz soiñu-joillia
ezta dantzaria,
baiña nere korruan
jende egogia.

24

Ederra gura neuke
galanta al balitz,
igual aberatsa
bera ona balitz.

25

Neska gona gorri
begi arranpalo,
dantzan obeto daki
artajorran baiño.

26

Ederra ta galanta
biak leku baten,
ona ta aberatsa
zailla da billatzen.

27

Erromeriyen noa
San Antoniora,
Durangon bazkaldu
Mañariyan gora.

28

Erromeriyen joan da
zapatak urratu,
aita San Antoniok
berriak eingoitu.

29

Aita San Antonio
Urkiolakua,
askoren biotzeko
santu debotua,

30

Askok egiten dio
San Antoniari,
egun batian joan ta
bestian etorri⁹.

31

Zuriak eta beltzak
basuan ardiyak,
zuk ere ez dituzu
bentaja guztiyak.

32

Gaztiak badakizute
zelan dantzan egin,
burua zuti-zutik
ta ankairi eragin.

33

Gaztia nintzarian
denpora batian,
ez nintzan konsolatzen
ezkondu artian.

34

Tristerik nago tristerik
senarra daukat gaixorik,
oillo bat il diot baiño
ez dauka mejoriyarik.

35

Kantari nago baiña
biotzetik triste,
ni ola naguanik
ez du iñok uste.

Pandero-joleen kantak. Bigarren saila: Maria Ugarte¹⁰



36

Soiñu jolla berria naiz
aurten jarri naiz aprendiz,
desanparatzen banaizu
ez naiz jarriko ni berriz.

37

Kanta, kanta, compañero,
dana dakizun moduan,
pobrerik ez dala bizi
aberatsen moduan.

⁹ Jatorrizko artikuluan bi kopia hauek batera datoz, bat bakarra balitz bezala. Aldaketatxo txiki bat egin dugu azken kopia honetan. Azken kopia-lerroa beste era batera jarri dugu. Villasantek bezala jarri beharrean: / *egun batian joan/ ta bestian etorri* jarri beharrean, bertso-lerroa beste era batera tolestu dugu: /./ *bestian etorri*.

¹⁰ VILLASANTE, Luis. "Pandero-joleen kantak" in *Aránzazu*. XLVI. urtea, 446 zenb. (1967), 14-15 or.

38

Banaroie, banaroie
Ondarruara soldadu,
nik ez gura joan baiña
eramango nau seguru.

39

–Antonio, nora zoziaz
zeure bibolin orrekín?
–Urkiolara nijoa
nai badozu etorri nerekin.

40

Ederregia zera zu
soluan biarrerako,
ar zazu kaballerua
kalian pasiorako.

41

Abadiñon San Blasetan
neskazarrak bentanetan,
nobiua billatzeko
San Pedroz San Marzialetan.

42

Ederrak bi balio
diferentiak lau,
orrela dabillenak
obia bear dau.

43

Altuan Arantzazu
bajuan Oñate,
eder galanten billa
erten det etxetik.

44

Ederra ta galanta
biak leku baten,
ona ta aberatsa
nekez da billatzen.

45

Arantzazutik gora
erri bat Araba,
neskazarrik ez artu
gazterik al bada.

46

Sagar bat erreta
eta beste bat gordiñik.
A ze bizimodue
pasetan dedan nik!

47

Ederra den bezela
baleki izketan,
atia joko neuke
sarritan krisketan.

48

Urkiola gañeko
aiziaren otza,
antxen ikusi neban
neska buru motza.

49

Aizia otza dago
denpora monua,
numero veinticinco
kitarra soiñua.

50

Ortuan laranjiak
orria du berde.
Udako kolorian
zu neguan bere.

51

Igaz igazkua ta
aurten aurtengua,
i ez aiz ezkonduko,
ganorabakua.

52
Mutil bekosko astun
begiya logura,
baietz uste dek baiño
ez nauk ire gura.

53
Illunkaria da ta
goazen etxera,
ez gera etorri
emen egotera.

54
Orrako mutil orri
diot amorio,
frakiaren zuloti
zorria dario.

55
Or goyen dago mutil
Antzuelakua,
anka bata baleuka
bestia lakua.

56
Eztarri txarra daukat
bularra txarrago,
egin det naikua ta
ezin det geiago.

57
Ez dakit dantzan baiña
ba nabil erdiyan,

tuertua nagusi
itsuen erriyan.

58¹¹
Gaztiak, badakizute
nola bear dan gauzia,
urten eizue dantzara eta
estreiñatzeko plazia.

59
Mendi altuan ez dala azten
illara baizik piñurik.
Nai dok baiña ez dok artuko
nik egindako kiñurik.

60
Sagar garratxak eta
okaran berdiak.
Emen pasatzen dira
kontu zelebriak.

61
Artutzen dezunian
gatzen arduria,
akordatuko zazu
gazte denporia.

62
Eguzkia joan da
ia da illuna,
illunpeko mutillen
berbia leguna.

¹¹ VILLASANTE, Luis. "Pandro-joleen kantak" in *Aránzazu*. XLVI.urtea, 448 zenb. (1967), 78-79 or. Hiru sehaska kanta datoz ondoren. Nahi izanez gero hona: 1-*Lelotxo Montañeko/otsuak jan daue./bera be gaixtua zan da/ondo egin daue.* 2-*Mutiko txapel-gorri/zelan dok izena?/Etxian txortxor eta/kanpuan gizona.* 3-*Nere maitia lo ta lo/zuk orain eta nik gero/zeuk gura dozun egunen baten/biak egingo degu lo.* Bigarren ahapal-diko "txortxor" oin-oharrean agertzen denez "txikiña" omen da.

63

Atzo Bilbon nenguan,
gaur nago Mañariyan.
Ura sarri falta da
gure iturriyan.

64

Ura falta arren
ardaua ugari,
komeni ez dan gauzarik
ez esan iñori.

65

Mutiko musuzikin
begi arranpalo,
tabernara joan da
negarrez ei dago.

66

Joan ai etxera ta
esaiok amari,
garbitu dezala
musu zikin ori.

67

Txantxulario Kamiño
ez daukat dirurik,
iru edo lau alaba
ezkondu gaberik.

68

Bosgarrena semia
kapote zarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin.

69

Arabarra, arabarra,
amalauan garagarra,
amabostian gariya
arabar barregarriya.

70

Antonio Goitiko
arotz edo argiña,
amaika neskazarrei
errekau egiña.

71

Bentanan dauen damia
beltzeran graziosia¹²,
urriñetik igarri leio
ia dan kariñosia.
Soñian kamisarik ez
lepuan perladuria.

¹² Jatorrizkoan *graziosua* dator. Hitz hau, ordea, ez da hoshkide *kariñosia* hitzarekin. Aldaketa, beraz, gurea da. *Perladuria* hitz honek ohar bat du barrenean *collar*.

Pandero-joleen kantak. Hirugarren saila. Claudio Zurutuza¹³

72

Asitzera noa, asitzera
gaztiok dibertitzera
ni onelan ikusita
baten bat erruki ote da?

73

Guztiok aide-aide,
soiñua danian
baita biarra ere
lan-egun danian.

74

Eraztuntxoa letonez,
begiak urre kolorez.
Nere maitia, esan biostazu
artuko naizun edo ez.

75

Altuan Arantzazu,
bajuan Oñate,
mutil neskazaliak
ankak ariñak ditu.

76

Euskeraz kantauko dizuet
danak dakiten moduan,
pobria ez dala bizi
aberatsen moduan.

77

Tristerik nago tristerik,
tristerik eta bakarrik,
ez det nik adiskiderik:
adiskide txarra baiño
naiago dot nik bakar bakarrik.

78

Mutil neskazaliak
lau bentaja ditu,
asko ikusi eta
bate gabe gelditu.

79

Iluna da eta arratsa
etxera bidian aldatza,
urrin dago eta
izango da oso gaitza.

¹³ VILLASANTE, Luis. "Pandero-joleen kantak" in *Arantzazu*. XLVI. urtea, 449 zenb. (1967), 111 or.



80

Goiko errotako Maritxu
etxe onetako alabia,
egun batian joste'itu
prakak eta alkondaria.

81

Arrosatxuak bost orri,
krabeliñiak amabi,
andre ederra nai duanak
ibilli errondan sarri.

82

Arrantzaliak gera gu
geure denbora guzian,
itxasora juten gera
arraitxuaren pozian.

83

Geurekin degu batela,
urian ezta motela,
arekin ekartzen degu
txitxarrua eta berdela.

84

Itxasuak urak aundi,
ni pasako nitzake andik,
ni pasako nitzake andik
nere maitia ikustiagatik.

85

Nere maitia, zer dezu?
kolore txarrak dituzu.
Koloria mudatzeko
metal ura edan biar dezu.

¹⁴ VILLASANTE, Luis. "Pandero-joleen kantak" in *Aránzazu*. XLVI.urtea, 453-454 zenb. (1967), 240 or. Oraingo kasu honetan ez da agertzen artikulu egilearen izenik baina *pandero-joleen kantak* sailekoa denez Villasanteren izena jarri dugu.



86

Esango nuke baña
lotsa naiz esaten,
orrako neska orrek
dakiela edaten.

87

Egunez ere baita
gabian geiago,
baso txikitik baño
anditik naiago.

88

Begira nago begira
kamiño zuri berrira,
noiz etorriko ote dan
neure maitia errira.

89

Itxasuan ura lori
ondarrik ez dau agiri,
nere maitia ikustiagatik
pasako nitzake igari.

90

Nere maitia asarre dago
batere kulpa bagerik,
aren ortura joan naizela-ta
berari esan gaberik.

91

Aren ortutik ez dot nik artu
ak uste duan gauzarik,
larrosia ta krabeliña
ta usai-belarra besterik.

92

Gaztiok zoro-zoro,
neu ere izana naiz,
gaztetako kontuak
aztuta bizi naiz.

93

Eperrak kantatzen dau
goizian goizetan:
ez zaitezte fiatu
mutillen itzetan.

94

Txikitxo polit orrek
zer dezu negarrez?
Aitak ezkonduzeko
doterik eman ez.

95

Amak emango baleust
amar amaseiko,
ezkonduko nitzake
udaberrirako.

¹⁵ VILLASANTE, Luis. "Pandero-joleen kantak" in *Aránzazu*. XLVI.urtea, 455 zenb. (1967). Azalaren atzekaldean agertzen da.

Oraingoan ere ez dakar biltzailearen edo artikulugilearen izenik eta Villasanterena dela uste dugu.

96

Ezkondu nintzarian
bost gona nituan,
bi prendan jarri eta
bi saldu nituan.

97

Soiñean daukadana
oso daukat zarra:
berria egiteko
esperantza txarra.

98

Goiko mendiyen edurra dago
korostoipeian izotza.
Amoriorik ez duan orrek
alegre dauka biotza.

Pandero-joleen kantak. Seigarren saila: Timotea Guridi¹⁶



99

Larrosatxuak bost orri ditu
krabeliñiak amabi,
gure auzuan damatxu batek
imajiñia dirudi.

100

Imajiñia dirudiela
nundik diozun ingarri?

Kolore txuri gorriak
begiyen engaiñagarri.

101

Amak esan dit ezkontzeko
nere moduko batekin,
oillalokia emango didala
zazpi txitarekin.

102

Aizkorriko kurtzien
krabelin gorria,
Zegamako neskatxen¹⁷
engaiñagarria.

103

Ederra zariela
pentsatzen al dezu?
Ispillu faltxu orrek
engaiñatzen zaitu.

¹⁶ VILLASANTE, Luis. "Pandero-joleen kantak" in *Aránzazu*. XLVII. urtea, 460 zenb. (1968), 90 or.

¹⁷ Hemen aldaketatxo bat sartu dugu testuan koplaren ulergarri. Testuak jatorrian honela dio: *Aizkorriko kurtzien/krabelin gorria/Zegamako neskatxak engaiñagarria*.

104

Auxen da penia,
ta iñungo miñik ez:
aitak ezkontutzeko
doterik eman ez.

105

Amak emango baleust
amar amaseiko,
ezkonduko nintzake
udaberrirako.

106

Udia pasatuta
negua etorri,
negurako lagunik
ez det billau oraindik.

107

Neska zar zar zar
denbora pasatu,
zergatikan lenago
ez ziñan ezkondu?

108

Mutil zar zar zar
neska gazte zalia,
ez dek arrapatuko
gure neskatillia.

109

Neska zar zar zar
mutil gazte zalia
ik eraman bear den
kalabazia.

110

Maria saladia
ederra dalako,
asko engaiñatzen dau
obia dalako.

111

Ama zuriak neri
bidian billa ta,
ez deust barbarik egin
parian pasata.

112

Ama zuriak esan dit
ez zaudela zu neretzat,
eskerrak milla, baiña
ni ere ezta zuretzat.

113

Eperrak kantatzen du
goizian goizetan,
ez asko fiatzeko
mutillen itzetan.

114

Fiatzen bazerate
mutillen itzetan,
eroriko zerate
arri labanetan.

VI. ARRATIAKO KOPLADIA: ZEANURIKO LAU BILDUMA

Zeanuriko kopladiari arreta eta kontu berezia eskaini nahi diogu atal honetan Bizkaiko bilduma jator, eder eta aberatsenetakoa delako. Herri honetako koplaleak bildu dituzten biltzaile bat baino gehiago ditugu, zorionez. Biltzailerik handiena, ordea, Eulogio Gorostiaga apez argia izan zen. Manuel Lekuonak *Literatura oral vasca* lanean¹ ere egiten du Zeanuriko kopladiari aipamena: “el coplario de Ceánuri”. M. Lekuonak, geroxeago ikusiko dugunez, E. Gorostiaga eta P. Etxebarriaren bildumak ezagutu eta estimatzen zituen.

Gorbeiapeko herri horretan, Gipuzkoako Arantzazu inguruan bezalaxe, koplairitzak tradizio zaharra izan du. Guk ez dugu pandero-jolerik ezagutzeko zoririk izan. Pandero-jole baten alaba batengana iritsi ginen, Bitoria Artetxegana. Bitoria Artetxek kantatu zidan koplak-saila ere transkribatuko dut atal honetan.

Azkuek ere, bere bilduma zoragarrietan hainbat ale ditu Zeanurikoak. Laugarren saila horrekin osatu dugu. Goazen, beraz, sailik sail ale guztiak transkribatuz.

Lehen bilduma: Eulogio Gorostiagarena

Eulogio Gorostiagaren (Zeanuri 1903-Areatza 1932) bizitza laburra bezain emankorra izan zen. Gazte-gaztetatik, Gasteizko Seminarioan ikasle zegoela, hartu-eman oparoak izan zituen on Jose Migel Barandiaranekin. Apeztu ondoan ere hainbat lan egin zituen folklore arloan. Artikulu eta lanen berri jakin nahi izanez gero, ikus bedi Eulogio de Gorostiaga Jon Bilbaoren *Bibliografian* eta Santi Onaindiaren *Euskal Literaturan*².

¹ San Sebastián: Auñamendi, 1964.

² ONAINDIA Santi. *Euskal literatura*. Bilbao; Donostia: Etor, 1972-1990. V. libk., 105-108 or.

E. Gorostiagaren koplak-bilketak leku batean baino gehiagotan ditugu. *Euzkadi* egunkari abertzalean badira lau bilduma zoragarri 1931ko ekainaren 5, 7, 9, 29 egunetakoak. Lau sail hauetan biltzailearen izena honelaxe agertzen da: *E'tar G. Izen-deituren siglen azpian ezkututzen dena Gorostiaga'tar Eulogio da. Bigarren sail bat artikulu polit batean argitaratua da: "Cantares populares recogidos en Zeanuri (Vizcaya)"*³. Badu, gainera, dantza-kopla bat edo beste "Folklore. Un aspecto de la vida popular en el Señorío de Vizcaya. Cantares"⁴ artikuluan ere.

Bildu zituen bi kopla sail nagusiak *Euzkadi* eta *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* (AEF) aldizkarietan argitara bazituen, ba ote daude bi sailotan bateratasunik? *Euzkadi* egunerokoan, gure kontaduriaren arabera, 83 kopla eman zituen argitara. AEF aldizkarian 82. *Euzkadi* egunkariko koplak guk zenbakitu ditugu, *Anuariokoak*, aldiz, Gorostiagak berak. Bi sail horietan gehienak bat datoz. Zehatzago esan, *Anuarioko* hogeita bat kopla ez datoz bat *Euzkadikoekin*. *Euzkadin*, ostera, badaude beste hogeita bat kopla *Anuarioan* agertzen ez direnak. Kopla berak, batzuetan aldaera gutxi batzuekin agertzen dira batean eta bestean. Nola transkribatu, beraz, gure atal honetan? Guk *Euzkadi* egunkarikoei eman diegu lehentasuna. Behin egunkarikoak zenbakituz gero, AEFkoen kideen aldaerak jarri ditugu oharretan.

*Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei*⁵

1
Taloak erretako
ona da pareá,
Txomin Agarrekk dauko
alaba pareá⁶.

2
Iketza zabaltzeko
ona da larrina⁷,
saltzeako idauko⁸
alaba zarrena.

3
Oraingo mutiltxuak
bana binakoak⁹,
lapiko tapatzat
alagalakoak.

4
Orain etorri yaku
errire modea,
txapel azulek eta
bai meriñakea.

³ *Anuario de Eusko-Folklore*. X. libk. (1930), 7-33 or.

⁴ *Euskalerraren alde*. XIX. libk. (1929), 345-352 or.

⁵ G'tar E. "Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei" in *Euzkadi*. 5.765 zenb. (1931-06-05), 5. or.

⁶ AEF. 8. ahapaldia da.

⁷ AEF. Larrine. Aurrekoarekin batera hau ere 8.a da.

⁸ Arratiako euskararen berezitasuna agertzen da. "Saltzeko omen du" Arratiako euskararen "saltzeko ei dauko" litzateke. Aditzean txertatua dagoen *ei* delakoa *i*-bihurtzen da.

⁹ AEF. 9: Oringo mutilek/ bana-binekoak.

5
Txapel azulek eta
barradun prakak,
Arratien idagoz
mutillek galantak.

6
Sartan da burruntxalu
arroa patela,
Arratieko¹⁰ neskak
guztiek alperrak.

7
Asi Bilbo zarren eta
Kanpazarreraño,
amaka neska-zarko
bayeok oindiño¹¹.

8
Gora gora begitu,
lañoak agiri,
orrako muti lorrek
tontoa dirudi¹².

9
Amar amaiketatik
eguzki beroa,
ama buruen min dot
ni etzera noa¹³.

10
Dingilin dangoa
i ez az zoroa,
sardine burue baño
oba dok olloa¹⁴.

11
Seintxo txikerren amantzako
erri gogorra Orozko,
txoriek txirrist ein dayeneko
artayorran yoan bearko¹⁵.

12
Bilbora bideetan
amak alabea,
salduko dabela
bere saladea¹⁶.

13
Ama buruen min dot
ez esan aiteri,
Txomintxo auzokoa
gustetan yat niri¹⁷.

14
Eguzkia yoan da
bere amagana,
bier etorriko da
denpora ona bada¹⁸.

¹⁰ AEF. 10: burruntxalu; Arratie'ko.

¹¹ AEF. 11: Asi Bilbo zarren/ Da Kanpazarreraño,/ Amaika neska zar/ Ba'yaok oindiño.

¹² AEF. 53: Gora, gora begitu/.

¹³ AEF. 52.a.

¹⁴ AEF. 13.a

¹⁵ AEF. 58.a.

¹⁶ AEF. 73: Bilbo'rako bideetan/... /Salduko leukela/ ...

¹⁷ AEF. 6.a.

¹⁸ AEF. 48: Eguskie yoan da.

15

Zubi txiki bat pasaute dago
neure etxera bidea,
baldin badozu borondaterik
ez dago bide luzea¹⁹.

16

Gorbai altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galanten amak
Mutil zanterren²⁰ bildurre²¹.

17

Batobat akabau te
bigarrena asi,
alegrentzi onetan
gure naunke bizi²².

18

Iturrire yoan data
laster da etorri,
baragarrien bat
topau ezpalei²³.

19

Iturri urrinean
ure dago freskoa,
angoxe urek eginda
dauket katarroa²⁴.

20

Mutil txameline
artzean badozu,
astean iru zurre
seguru dituzu²⁵.

21

Astean iru zurre...
zapatuen beti,
domekan okelea
auzoan ikusi²⁶.

22

Begiak baltzak-baltzak
azala zurie,
munduen askok dauko
zure enbidie²⁷.

¹⁹ AEF. 51: Subi txiki bet pasaute dago/ Neure etxera bidea;/ Baldin badesu borondaterik/ Es dago bide lusea. Aldaera honetan *etxera* idatzi du. Kontu ezagun xamarra dugu. Zeanurin *etsea* eta *itsasoa* da. Zaharren ahoskeran *etxe* eta *itzeso* dugu. Bizkai euskeraren mendebaldeko ezaugarri interesgarri bat da, dudarik gabe.

²⁰ Jatorrizkoan 'mutil anterren bildurren' errata edo gaizki ulertua denez gero, aldatu egin dugu.

²¹ AEF. 17.a.

²² AEF. 18: Alegrentzi onen baten.

²³ AEF. 20: Barragarrien bat/ Topau espaledi.

²⁴ AEF. 21: Angoxe urek einde.

²⁵ AEF. 29: Seguru daukosus.

²⁶ AEF. 30.a.

²⁷ AEF. 27: Begiek baltzak baltzak.

23

Larrosa mayetzeko
iminten zaitut kontuen,
batek ezetz esan arren
asko dagoz munduen²⁸.

24

Ibili ta erabili
ezin dot eralgi
yoan errotara ta
zaye dot ekarri²⁹.

*Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei*³⁰

25

Zotz zuritzalea da senarra,
zarrabeterua kuñetu,
zotz-zuritzaleen irebaziek
zarrabeteruek ondatu³¹.

28

Dingilin dangoa Marine,
beti onelan bagine,
beti onelan izateko
errentearen arine³³.

26

Biturie baño onago
legoa batez Gamarra,
kakarraldoak bran bran einde
aintxe itzi dost senarra³².

29

Baltza nazela diñuste,
baña neuri dust ardure gitxi,
ardagoa be baltza da
baña askok egiten dau erosi³⁴.

27

Taloarekin urdaya
yan da estomague illundu,
txokolatea artzen danean
guztiok gara kontentu.

30

Begire nago begire
kamino berrire,
noz etorriko ete dan
neure laztana errire³⁵.

²⁸ AEF. 5: Larrosa Mayetsekoa/ Iminten zaitut kontuen:/ Batek es esan arren/ Asko dago munduen.

²⁹ AEF. 4: Ibili te erabili.

³⁰ G'tar E. "Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei" in *Euzkadi*. 5.767 zenb. (1931-06-07), 6. or.

³¹ AEF. 60.a.

³² AEF. 62: Biturie baño onantzago/ Legoa bates, Gamarra;/ Karrakaldoak bran-bran eginde/ Antxe itxi dot senarra.

³³ AEF. 50.a.

³⁴ AEF. 1.a.

³⁵ AEF. 70.a.

31
Txarri txiki bet erosi noan
bizimodue sortzeko,
iru peseta pagatu noan
ganora onekoa zalako.³⁶

32
Neure nobioaren ama
asto baten yabe dana,
astoak ekarriko dutso
etzean bear dana³⁷.

33
Goyan ta bean urie,
erdien Errenterie,
zeuk dirudizu, maitea,
larrosa yayoparrie³⁸.

34
A mutil anka luze
pipeartzallea³⁹,
txingerrak erre
surraren puntea.

35
Goyok arinek dire
beok arinego;

artayorran baño
yantzan arinego.
(soloan artayorran
zeinek arinago)⁴⁰

36
Goazan artayorran
lugorri berrire:
bedarrak yorratute
artoak sasire⁴¹.

37
Gaubean erroldan da
goxean logure,
zu ez zara maitea
osasun gure⁴².

38
Edurre tellatuen
sakue lepuen,
ibilli beakogu
aurtengo neguen⁴³.

39
Gazteok entzun dozue
beste onenbeste,
aurten martisenean
dala aratoste⁴⁴.

³⁶ AEF. 74: Txarri txiki bet erosi neban/.../ Iru peseta pagatu neban/ Ganera onekoa salako.

³⁷ AEF. 66: Astoak ekarrikutzos.

³⁸ AEF. 63: Goyan da bean urie.

Zeanuriko eta Zeberioko euskararen ezaugarrietako bat da ezkonparri, jaioparri eta abar. *Anuarion yayoparri* dator, *Euzkadin*, ordea, *yayoparri*. Hutsa delakoan aldatu dugu.

³⁹ Jatorrizkoan 'Pipea-txalea'.

⁴⁰ AEF. 2: .../ .../ Soloan artayorran baño/ Yantzan arinego.

⁴¹ AEF. 3.a.

⁴² AEF. 14: Su etzara, maitea,/ Osasuna-gure.

⁴³ AEF. 31: Ibili bearkou guk.

⁴⁴ AEF. 28: Aurten martisean.

40
Aik mutillak da
errementariak,
praka zarrak baña
begiak gorriak⁴⁵.

41
Aite ta ama trabenan dagoz,
ama ta alaba yokoan;
ostera be euki beaku
bei arrandune auzoan⁴⁶.

42
Trabeneari deutsal
entzuine patrona,
afari txar bi baño
oba da bat ona⁴⁷.

43
Paskua mayetzeko
bigarren goxean,
lupetzak iegozan
Ermure bidean⁴⁸.

44
Ermue dala Ermu
mutillok dantzari,
neskak konbidetako
foltsan diru gitxi⁴⁹.

45
Etxetxo zar bat dago
Barazar ganean,
ez jako urik sartzen
aterri danean⁵⁰.

*Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei*⁵¹

46
Inglaterran barreñezko bidea,
Frantzien meriñakea,
ez dala errez izango ezautzen
aberatsa ta pobrea⁵².

47
Urkiolako denderuari
larogeigarren urtean,
zalda(r) batek urten dutso
orkatilleko zanean⁵³.

⁴⁵ AEF. 22: Aik mutillek eta/ Errementariak;/ Prakatxo sarrak baña/ Begiak gorriak.

⁴⁶ AEF. 26: Aita ta seme trabenan dagoz.

⁴⁷ AEF. 16: Trabeneareari deutsal:/ .../ .../ Oba bat ona.

⁴⁸ AEF. 23: Lupetza eiegoan.

⁴⁹ AEF. 24: Ermua dala Ermu/ Mutillok yantzari.

⁵⁰ AEF. 35: Etxako urik sartzen.

⁵¹ G'tar E. "Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei" in *Euzkadi*. 5.768 zenb. (1931-06-09), 6. or.

⁵² AEF. 32: Inglaterran burreñezko bidea/.../ es dala erres isango/ esautsen aberatza ta pobrea.

⁵³ AEF. 72: Urkiolako denderueri.

48
Aspaldian ez dot ikusi
Elorrioko fiela,
a baño gurago neunke
txarriaren gibela.

49
Goiko mendian edurra dago
errekaldian izotza,
neu agandik urrin nago-ta
pozik daukot biotza.

50
Sailtukari Kamiño
ez yaukat dirurik,
lau alaba yaukazat
ezkondu bagarik⁵⁴.

51
Bostgarrena semia
kapote zarragaz,
konejua dirudi
bere bixerragaz⁵⁵.

52
Maitea Bilbora noa,
ezertxo gura badozu,
amorea firmea da ta
maite polit bat ekazu⁵⁶.

53
Atsoa ta agurea
biek egurretan,

azkorea galdute,
dabiz barriketan⁵⁷.

54
Birjiña Arantzazuko
lora ederrori,
graziak emoteko
nator zugana ni.

55
Bilbon barberurik asko
endemas Barrenkallean,
neu bere araxe noa
buruen min dodanean⁵⁸.

56
Atsoa ta agurea
etxe txiki baten
aguardientea saltzen
pitxer txiki baten⁵⁹.

57
Antonio goiko kaleko
txalen dirue zor dauko,
txalen dirue pagetako
bibulin prenda dauko.

58
Antonion andrea
txikitxu ta polite,
kana bi perkalegaz
Ze gona⁶⁰ polite.

⁵⁴ AEF. 67: Sailtukaris kamiño!/ Etxaukat dirurik;/ Lau alaba yaukasat/ Eskondu barik.

⁵⁵ AEF. 67: Bostgarrena semea.

⁵⁶ AEF. 49: -Amore firmea da ta.

⁵⁷ AEF. 81.a.

⁵⁸ AEF. 68.a.

⁵⁹ AEF. 80.a.

⁶⁰ Jatorrizkoan 'Ze gana polite' dakar. Aldakuntza gurea da.

59

Antonio kopla-kopla
dirue foltzara,
amaka gazte zoro
batzean da plazara.

60

Balentina saladea
enbra ederra zara zu,
zeuk gura dozun artean
ez zara ezkonduko zu⁶¹.

61

Entzuten ez danean
diruen soñue,
lanerako da triste
bai jornalere⁶².

62

Txakur gorri polit bat
galdu yaku guri:
belarri baltzak eta
burua bellegi⁶³.

63

Ai mutil anka luze
txotxo armario,
gantzontzillo borlea
bernati dario⁶⁴.

64

Urkiolako ganeko
pagoen ondoan,
Birjiña santa Klara
genduen gogoan.

65

Triki te trauki
malluaren otsa,
Urkiolako punten
fraile buru motza.

66

Negar da negar dago
Errosa gurea,
katuek yan dutsela,
bai, lebadurea⁶⁵.

67

Ez egizu, Errosa,
katue mankatu,
saguek kuyetako
katue beogu⁶⁶.

68

Olo bat galdu yako
Mari Mondrongori,
ixiñelak onak ditu
agertu baledi.

⁶¹ AEF. 59: Etzara eskonduko su.

⁶² AEF. 36.a.

⁶³ AEF. 37.a.

⁶⁴ AEF. 39.a.

⁶⁵ AEF. 45.a.

⁶⁶ AEF. 46.a.

69

Buztena pardo-pardo
burua bellegi,
aren arrautzatxoak
bolea dirudi.

70

Buztena deu mardoa
samea⁶⁷ bellegi
aren arrutzatxoak
bolea dirudi.

*Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei*⁶⁸

71

Ur(r)abitxi,
urrabitxi,
neskatxiek amentala
Billaron itzi⁶⁹;

75

Liñoa badot baye
ondo iruteko,
andra ardozaleak
ez dau ondo irungo.

72

Amentala ez eze
baita zintak bere,
kanea peseta
pagaduek dire⁷⁰.

76

Lastimez egin yatzu
goruetan aztu,
ariletan asi
matasan aztu.

73

Durangon asite
Mañari bitarte,
Arra(u)tza-tortille
Sartangille bete⁷¹.

77

Beste osaba erdi bat
badauket Algortan,
ak bere itxi daustez
arratoyak kortan.

74

Trabenera andrea,
badozu liñorik?
Arduaren trukian,
irungo dodaz nik.

78

Basu ondoan
botille motza,
espentzetan
Jose arotza.

⁶⁷ Jatorrizkoan 'zamea'.

⁶⁸ G'tar E. "Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei" in *Euzkadi*. 5.785 zenb. (1931-06-29), 5. or.

⁶⁹ AEF. 54.a.

⁷⁰ AEF. 55: Amentala esese/ Baita sintak ere;/ Kanea pesetea/ Pagaduek dire.

⁷¹ AEF. 56.a.

79

Neskatiletxo polite
orain amazortzi urte,
zeure begi baltzetara
enamoradu leitike⁷².

80

Santa Katalinako
dendarie koxoa,
sakuen sartu daure,
sakuen zuloa,
andirik agiri dau
kadera koxoa.

81

Lapatza goiarine
Undurra bekoa...
bien bitarten dago
Undurra goikoa⁷³.

82

Undurra goikoan dagoz
iru neskatille,
kalabazea yan da
lodituten dire⁷⁴.

Yantzara yoakeran:

83

Tan pa ran pa tan
akerra yantzan,
astoa bibulin yoten,
azagarie sueri puzke
erbie urun eralten.
erbie urun eralten.⁷⁵

*Canciones coreográficas (letra)*⁷⁶

84

Pasetan nasenean
zure portaletik,
negarrak urtetan daust
begi bietatik.

85

Oraingo neskatillek
daukie engañue,
uzkerra botateko
katigu kañue.

⁷² AEF. 15.a.

⁷³ AEF. 76: Lapatza goi-arine,/ Undurra sentroa;/ bien bitertean dago/ Undurragoikoa.

⁷⁴ AEF. 77.a.

⁷⁵ AEF. 82.a. Ohar hau agertzen da koplaren ondoren: "Irakurle onein antzeko abes-
tirik entzun badozu, izparringi onetara mesedez bialdu egizu."

⁷⁶ Sail hau *Anuario de Eusko Folklore*, 1930. urtekoa da.

86

Soñu alegrea
gaita zamorana;
enamoraudisie nao,
maitea, zugana.

87

Txikitxo polit ori
ojalaterue,
diru gitxi foltsan da
enbusterue.

88

Len zazpi kana tela
naiko baziran,
orain bear da doblea;
meriñakedun dama gaztea,
urringo arte adio;
meriñakerik ez daukenak
orain ez dau balio.

89

Txoritxo bat on da emen
len emen ez dana;
uden berotuko da
neguen ez dana.

90

Txiki ta trauki
malluaren otsa:
Urkiolako puntan
fraile buru motza.

91

Logure naz da lo egingo neunke
banauko oerako lagune;
badauket lagune baye
agure lepomakurre.

92

Kortako burdie
balitzok kotxea,
aintxe erabiliko ñaukek
neure atso motxea.

93

Atsoari gorde yutzat
buru-kopetea:
orain kostako yako
bera topetea.

94

Asiko naz asitzera
onelan dibertitzera;
ni onelan ikusirik
errukituten ez zera?

95

Esan dot len bere,
diñot orain bere;
udeko kolorea nik
neguen bere.

96

Ez da denpora aundirik
zeuk esan dozule,
saguek izterretik
usegi deutzule.

97

Atsoa zarra, zarra
zarrago ta da txarrago;
atso demoniñoa
tragaute balego.

98

Arrabako landea
balego Gorbeien,
aintxe egingo geunke
sirikiten-sañe.

99
Txapeligerrek il dau txarrie:
arroa bi terdi pixitu idau guztiek;
andi be Mantelolari emon bear erdie...
au dok demoniñekerie.

100
Urra-txutxulunberde,
mesmero mokordo;
aintxe goyen atso bat
kakaginen dago.

101
Salada batek Zorrontzan
egin dau gona gorrie;
barrenetik imini deutso
aginade surie.

102
Soloan nagonean,
eguzki berotan,
neure pentsamentua
lekurik askotan.

103
Iru damatxo Donostiko
irurek gona gorriek;
sartzean dire tabernan da
urtetan daure ordiek.

104
Iru damatxo Donostiko
Errenterien dendari;
yosten da plantxien badakie,
baña ardaoa eraten poliki.

Bigarren bilduma: Peli Etxebarriarena

Peli Etxebarriak Zeanurin bildutako kopla-sorta da hurrengo emango dugun bilduma polita. Kopla hauek 1925. urte inguruan bildu zituen Peli Etxebarriak eta Manuel Lekuonaren eskuetan egon dira harik eta Adolfo Arejitak argitara dituen arte⁷⁷. Honelaxe diosku bere artikuluan Adolfo Arejitak:

Manuel Lekuonak dinoskunez, Peli Etxebarriak Zeanurin jaso ei zituan. Dana dala, ez dinosku biltzaileak berak, eskuzko idatzian, ez non ez nogandik jaso zituan. Izenburu bakar bat ipini deutse: “Bertso zarrak”. Ezagun da gehienak Arrati aldekoak direana, eta beharbada, dan-danak Zeanurikoak izango dira. Baña badira baten batzuk, gaur behintzat Arratian barik beste eskualde batzuetan sarri-sarri entzuten direanak.

“Zeanuriko kopla zaharrak” lan horretan kopla-aleak zenbakiturik daude eta azken zenbakia 109 da. Kanta-kopla gehienak dantza-koplak dira, inolako dudarik gabe. Beste zenbait, ordea, ez. Eman ditzagun kasurako 26, 27 eta 28garrenak.

⁷⁷ AREJITA, Adolfo. “Zeanuriko kopla zaharrak” in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*. 2. zenb. (1983), [223]-236 or.

26: *Sagu zarra/ Eutzi agin zarra/ Ekazu agin barria/ Sagu zar barregarria.* Ume txikiei hagina jausten zaienean esaten den formula ezaguna da. 27. alea: *Urte barri barri/ Daukenak eztaukenari/ Nik eztaukat eta niri/ Ezpabe txarri belarri,* esaterako, guztiok dakigunez, Urteberri egunean umeek eskean kantatzen dutena da. Eta hurrengoa, 28garrena, Errege egunean kantatzen dutena: *Apalazio zaldune/ Iru erregeen egune/ Iru erregek bialdu gaitu/ Limosnatxo baten bille.* Gure irizpide hau kontuan, ez ditugu hona aldatu 44, 68, 103, 104 eta 105 zenbakidunak. Beste zenbaki batzuetan artikulugileak bi kopla lotu zenbaki berean eman ditu, 97 eta 99 zenbakidunak dira. Beste kasu batzuetan duda egin dugu: 181. kopla Arrateko balada ezagun baten hasiera da. 182 eta 183. koplak lo-kantak dira, baina dantza-kopla ezin ote dira bihurtu lo-kantak? Alderantzizko bidea ohikoagoa da: dantza-kopla lo-kanta bihurtzea.

105
Bedarrik ederrena da
soloan garie.

Andrarik onena da
Birjiña Marie.

106
Antoniok koplak kopla
dirue boltzara.
Amaika mutil zoro
batzen da plazara.

107
Antonio Goitia
bigolinerua,
zortzi mari gaitiño
joten dau soñua.

108
Bitorin neska gitxi dago
Millerlen bapebez,
Otxandion badagoz baiña
ogirik egiten jakin ez.

109
Otxandio eta Ubide
Arrazola partetik.

Pobreen fortuna
beti kokotetik.

110
Axpe Arrazolatik
Mañari bitarte.
Arrautze tortillea
sartankilla bete.

111
Antzine esan neuntzun,
Mari Eskupulu,
gabeko erroidea
ez dala seguru.

112
Gabian erroldan da
goizian logure,
ez zara zu, mutilla,
osasunen gure

113
Abustin kirremarro
dendari karue,
sonbreru baltza eta
Sinta moradue.

114

Semetxo txiki negarrez dago,
ama, emoiozu titie.
Aite faltzoa trabenan dago
arlotea ta nagie.

115

Ederra zareala
pentzetan badozu,
espillu faltzo orrek
engañatzen zaitu.

116

Eder ederra baiño
oba da konbeni,
ederrak kendu leio
buruko zentzuni(k).

117

–Maritxu nora zuaz,
eder galantori?
–Iturrira, Bartolo,
nai bozu etorri.

118

–Zer dago iturrian?
–Ardaotxo zurie,
biok edango dogu
nai dogun guztie.

119

Eriotzeaz gauza ba(t) gaitik
ez nagoala kontentu.
Aberatzari diruak gaitik
ezin leio ta parkatu.

120

Aberatz orrek diruak ditu
probeak umildadea,
projimuegaz ondo on bear
zabalduteko atea.

121

Amak ezkondu naiela
neure moduko batekin,
dotea emongo eustela
oillo bat bost txitarekin.

122

Antxine bota neuntzen
astoari plana,
anka luzeak eta
lepo iru kana.

123

Neure laztanak yaten deu
maillukiekaz ogie.
Ostera bere eukiko deu
luze eta linde garrie.

124

Zatan lei alegre danak
triste egon da ez dau probetxu.
Gazte zoroak ez dau falta
norekin entretenidu.

125

Ezkondu nintzarian
bost gona nintuen:
bi prenda ipinite
bi saldu nituen.

126

Oillua faltau yako
Mari Mondrongori:
buztena pardo pardo,
paparra beillegi.
Aren arrautzatzoak
bolea dirudi.

127

Domingo da domeka,
astelena lunes
Ormetzeko Klaritak
artorik yan gura ez.

128

Dimetik Yorrera
paraje zelaie.
Yorrek bota deutzo
Dimeri bonbaie.

129

Aita-semeak tabernan dagoz
ama-alabak jokuan.
Ostera bere egongo dira
erropa zarrak kakuan.

130

Santa Luzietan gaba da luze
san Bernabetan egune.
Nobera ondo egon ezkeru,
ez da erruki lagune.

131

Ababatxoa lo ta lo
ze karajo ta ze koño.
Ababatxoa lo doa
araiño demoniñoa.

132

Arako antzineko
bioren kontuek,
ixilik egon arren
ez daukaz aiztuek.

133

Atsoa ta agurea
alkarren atzian,
basora jua dira
pekorotz batzian.

134

Atsoa ta agurea
asarratu dire.
Atso demoniñoak
bargetatik tire.

135

Arantza baltzena da
lenengo lorea.
Damutzen jakonari
Jaungoikuak obea.

136

Arako zeuk gure
ta neuk ez neuenean,
berba labanik asko
zeu(n)kan zuk miñean.

137

Ama, buruen min dot
ez esan aitari.
Atzoko erroldeak
egin dausta niri.

138

Euskeraz kantauko dot
au da bigarren bertsoa.
Onexek emongo dautzu
yantzan eiteko gogoia.

139

Leiotxu bet egin beot
itxasoaren parean,
andixik ikusteko
neure laztana noiz duan.

140

Soldadu noa soldadu,
ontzi barrien soldadu.
Ez dot gure jua baiña
eroango neure seguru.

141

Oraingo mutiltxoak
bana banakoak,
lapiko tapatzako
alagalakoak.

142

Ibilli ta erabilli
ezin dot eralgi.
Errotara juan da
zaie dot ekarri.

143

Ortuen perejille,
saleruen gatza.
Ekarri Mari Pepa
yan daigun lebatza⁷⁸.

144

Negar da negar dago
Errosa gurea,
katuek jan deutzela
bart labadurea.

145

Anton errementari
bentanan loroa,
urrea dalakoan
plomoa daroa.

146

Errosa, ez eidazu
katue mankatu.
Saguek eroateko
katue beogu.

147

Itsasoan ure lodi
ez da ondarrik agiri.
Neure laztana ikustearren
paseuko nintike ni andik.

148

Ze mutil ankaluze
begi arranpalo,
tabernara juan da
negarrez ei dago.

149

Maritxu Petrolina
Olabarrikoa,
katuek jan dautzela
surteko taloa.

150

San Blas pasau den urte bi
Abadiñora nindun ni,
denpora txarrak emonda
ez nintzen ondo ibilli.

151

Mendi altuen edurre
bota surtera egurre.
Alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

152

Aita aita da ta
susulen berde,
ama ama da ta
masuste berbe.

⁷⁸ Jatorrizkoan 'yan dogun legatza' agertzen da. Baina artikulugileak ondo dio oin-ohar-
rean: Badirudi agindu zentzuz ulertu behar dala, "yan daigun" edo.

153

Aite joan da Bituriera
ama lepoan artute.
Aite etorri da Biturietik
ama bidean galdute.

154

Aite gureak amari
gona gorrie ekarri.
Luze da, labur dala
garri garritik erdi bi.

155

Errekan dago arrie,
aren gañean txorie.
Neskatxa koloregorrie
mutillen engañagarrie.

156

Erreka bazterreko
lirio lorea.
Ez naz ederra baiña,
bai edertzalea.

157

Oilloa faltau jako
Mari Mondrongori,
seiñale onak ditu
agertu baledi.

158

Buztena luze luze,
paparra beillegi,
aren arreultzetxoak
bolea dirudi.

159

Zeaniko errien
iru neskatille,
kalabazea janda
lodituten dire.

160

Txikitine ta polite
Lupetzako Pantxike,
alargunagaz ezkontzia
asko sentiduko neuke.

161

Altuen da San Kristobal,
bajuen Madalena.
Aien bien bitartean
Donutxuko taberna.

162

Udabarriko lorea
eder mayatzean.
Ez egunez etorri,
erdu arratsean.

163

Altuen san Bernabe
bajuen Gordobil.
Otxandioko plazan
tanboliña dabil.

164

San Joan ta san Migel
mezea erasoten,
amabi apostoluek
mezea kantetan.

165

Aspaldien ez dot ikusi
Donostiko Fidela,
a baño gurago neunke
txarri onaren gibela.

166

Aurtxo txikie negarrez dago,
ama, emoiozu titie.
Aite gaiztoa tabernan dago
pikaro jokolarie.

167

Zornotzan salada batek
egin dau gona gorrie.
Barrenetik imiñi dautso
aginadure zurie.

168

Biturie da Alaba
alargun batek eukezan
ederrak iru alaba.

169

Altzak orrie zabal
Begoñe gañean.
Asko be zabalago
Basobaltz aldean.

170

Arin arin duela
itsuen soñue.
Otsek(sic) apurtuten dau
zapata zorue.

171

Gorozikeko etxe baten
zazpi koltxa oge baten,
mutil bi ipiñi dauz
deskantzaten apur baten.

172

Sisilio Belenziko
soso armario,
gantzontzillo borlea
ankatik dario.

173

Jose Benito saleue
Algortan esamiñeue,
Portugaletoko barran
brantza estue paseue.

174

Nabarriz Anbotoko
Eulestimendi.
Aretan iruretan
aize otza sarri⁷⁹.

175

Durangon bazkaldute
Mañarie(n) gora,
Txakurzulon jausi de
eperdiez gora.

176

Laztanen portalean
dagoz arbola bi,
bata naranjea ta
bestea madari.

177

Inkirrinki soñue
Belensin gorako.
Zapatai zoruek
egin uderako.

178

Maritxu Petrolina
ze enbra polite!
Buruen pañeloa
moño ipiñite.

⁷⁹ Artikulugileak ohar hau egiten du: Ez dakit ondo jasota dagoan. Behintzat modu hone-
tara entzuten da beti: "Nabarniz Amoroto/ Santa Eufemia mendi/ Aretan irutetan/ axe otza
sarri".

179
Tortolo Makastiko,
nor dozu nobie?
–Erramona Garatzeko
Koloregorrie.

180
San Adrian, san Adrian
agostuaren erdian,
neu bere antxe nenguan
eurie zan arrastian⁸⁰.

181
Goierengo kamarara
bidea labana,
galdarean sartzeko
mutil barrabana.

182
Ixilik egon adi
faltso arlotea:
igaitik yaukoat nik
sarna kokotean.

183
Astotxo bat baneuko
buzten zuriegaz,
Ermure joateko
gona gorriegaz.

184
Aldats bat igarota
zelai eder baten,

Kristo topatu nuben
mezea emoten.

185
Obabatxoa txingorrigau
ez egin lorik basoan,
azagariek yan ez zagizen
bildotsa zaralakoan.⁸¹

186
Ababatxoa lo ta lo,
zuk orain eta nik gero.
Zeuk gura dozun orduren baten
biok egingo dogu lo ta lo.

187
Dingilin dango, Marine,
beti onela bagiñe!
Beti onela izateko
burue deukek arine.

188
Aizea fresko dago
Arralde gañean.
Arkondara bustie
baleuko soñean⁸².

189
San Antonio, san Antonio
txarrie gexo danean.
San Antonio ez da esaten
urdeie yaten danean.

⁸⁰ Jatorrizkoan honela dakar: San Adrian San Adrian/ Agostuaren erdian/ Neu ver'antxe nenguan/ Eurie zan arrastian.

⁸¹ Artikulugilearen oharra: Biltzaileak “ezakisen” idatzi dau, eta “ezagizen” (ez zagizan) behar leuke.

⁸² Gure oharra: Normalean “Aizea fresko fresko” edo “Aizea fresko dago/ Arrate gañean” izan ohi du hasiera.

190
Aizeak eta euriek
atera bear begiek.
Beko lupetzan galdu doguz
lagunik erdiek⁸³.

191
Auxe da despedidea,
despedide onen tristea.
Egin badot berba txarto
parka eske nago jentea.

192
Neskatilla morenea,
maronezkoa gonea,
abarka-trailla baltzakin
dirudi probintzianea.

193
Orratzaren punteak
irabazi gitxi.
Endemas trabenara
bidea badaki.

194
Negar da negar dago
Errosa gurea,
Katuek yan deutzela,
bai, lebadurea

195
Ez egizu, Errosa,
ez egin negarrik.
Ez zara geldituko
lebadure barik.

196
Errementari androk
goizean-goizean
txikerdi aguardiente
arnasa batean.

197
Olagizonak eta
errementariak
frakatxu zarrak eta
begiek gorriek.

198
Irabazten dituez
pezeta zuriek,
eroaten deutzien
euren egarriek.

199
Edurra teillatuan
zakue lepuan,
ibilli bearko du
aurtengo neguan.

200
Aranakatan,
akerra dantzan,
astoa biolin jotzen,
azagarie sueri puzke,
erbie urun eralten.

201
Dingilin dangoloa
I ez az zoroa!
Sardina burua baiño
oba dok oilloa.

⁸³ Artikulugilearen oharra: Kopla honen azken lerroak beharbada hobeto legokez neurri aldetik beste honetara "Beko lupetzan galdu/ doguz lagunik erdiek."

202

Arto kamara(n) motxoliñoa
domingilloa lepoan.
Onexek jaiok pasau artean
ez dot besterik gogoan.

203

Anton errementari
bentanan lo doa,
urria daroalakoan
plomoa daroa.

204

Txilin txilin mañe
biar santa Mañe,
etzi Domu Santu
zeiñek zuloan sartu.

205

Ama negarrez
Aita dolorez
abadea kantetan
Eleizako atetan
errealen pozez.

Hirugarren bilduma: Bitoria Artetxerena

Bitoria Artetxe zeaniztarra pandero-joleen tradizioz oneneko alaba zen. Ama plazarik plaza ibilia zen kopla-kantuan eta pandero astintzen. Alabak, kanturako belarri onaz gainera, abots zoli eta indartsua zuen. Hitz batean esateko: memoria onekoa eta berbaldun gogoia.

Sarri antzean bisitatu nuen, Kamiñoko etxean, Zeanuriko plaza edo erdigunean, ipuin eta esaunden gaineko berri bila. Amaren kopla-errepertorioa ere eskuratu nahirik gogoratzen zituen kopla-sarrerak koaderno batean apuntatu eta arratsalde batean baino gehiagotan kantatu zizkidan. Hemen paperean ikusten ditudanean ezin adierazi dezaket kopla bakoitzak bere ahoan hartzen zuen grazia eta barren-ukitua⁸⁴.

206

Txikertxo politori
lurraren ganian,
askoren zoragarri
zu yayo zinian.

207

Okerra Mañariko
txakurrek yan daude,
okerra izin de ta
ondo egin daude.

208

Matxalen Busturiko
errekalistia,
sekule ez jako faltau
begien pistia.

209

Matxalen Busturiko
asteen birriten,
Bilbora yoaten da
botike gorriten.

⁸⁴ Kopla hauek lan honetan datoz: KALZAKORTA, Jabier. "Sehaska kantak" in *Ahozko literatura: genero txikiak*. Bilbao: Labayru lkastegia, 1991, 83-118 or.

210

Pasetan nazenien
zaure portaleti,
negarrak urtetzen dust
begi bietatik.

211

Laztanen portalean
dagoz arbola bi,
bata da naranjia
bestia madari.

212

Aretxek yagoten dagoz
dama eder bi,
bata da baltza eta
bestia lar zuri.

213

Larrosa koloreko
begi ederrokaz,
engañatu ninduzun
berba labanokaz.

214

Txikertxu politori,
zer dozu negarrez?
–Aitek tabernarako
dirurik emon ez.

215

Aite tabernan dago
ama sukaldien,
eta neska-mutilok
eskilarapien.

216

Maitia maite zaitut
zeuk alan banozu,
biok biziko gera
zeuk gure badozu.

217

Bedarrik ederrena
soloan garie,
emakumen artian
Birjiñe Marie.

218

Gure umia langorik
ez da munduen besterik,
ez da yayo ta yayoko bere
gure umia langorik.

219

Gure laztana laztanegi da
soloan bearrerako,
artu deiela kaballerua
kalian pasiatzeko.

220

Nire laztana laztango
kalian negarrez dago,
aren negarra gozoago da
askoren barria baño.

221

Lirio lora zuri
eder maietzian,
bakarrik egon barik
erdu arratsian.

222

Amak emon balustez
amar amaseiko,
ezkonduko nintzela
udabarrireko.

223

Udabarrie da ta
denpora beroa,
gazte zoro nago ta
alegre gogoa.

224

Gure ume txikerra
Ferrolera doa,
okerren banderea
aurrien daroa.

225

Txirrintxanketan
akarra dantzan,
astoak bibolin yoten,
azagarie sueri puzke
erbie urune eralten.

226

Ederra ta galanta
biek leku beten,
ona ta aberatsa
gatx dire bilatzen.

Laugarren bilduma: Resurrección M^a Azkuerena

Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza* IV lanean⁸⁵, “Erri-olerkiak” saileko bigarren atalean, “Dantzakoak” izenarekin dantza-kopla sorta bat baino gehiago ematen ditu argitara. Dantza-kopla sorta hauetako bat baino gehiago Bizkaiko mendealdean bilduak daude, Zeanurin. Zeanuriko sorta guztiak, ordea, ez datoz elkarren segidan. Hona hemen: I. Abadinoko (B), XVI. Antonio Goikokalekok (B), XVII. Asiko naz (B), XXVII. Gazteak, badakizu (B), XXVIII. Gora gora (B).

Modu nahasian atal berean argitara zituen dantza-kopla hauen zehaztasun handirik ez du ematen Azkue handiak. Hizkuntza ohar bat ematen du, esaterako, XXVII. ‘Gazteak, badakizu’ kopla iruzkintzeko:

De Zeanuri. Este poema (llamémoslo así) se publica por la presencia de *badakizu* ‘ya lo sabéis vosotros’, forma ya arcaica, que hoy decimos *badakizue*; pues modernamente *zu* equivale a ‘vos’ y no a ‘vosotros’ como en un tiempo.

Dantza-kopla hori, beraz, ez zuen argitara emango baldin hizkuntza-altxor txiki hori, adizki zahar hori, izan ez balu. Nori, non eta noiz bildu ote zituen Azkuek dantza-kopla hauek? Hurrengo sortan, XXVIII. ean, honelaxe dio: “De Ipiñaburu, barrio de Zeanuri. Lo aprendí con su música (que no la anoté por sosa) de una panderetera de catorce años, en el citado barrio arratiano.” Zehaztasun hauek Azkueren eskuidatzietatik osatu ditugu. Hona zer dioen *Diario* deritzan koaderno gorriaren 26. orrialdean (ABA-RMA-030-002):

⁸⁵ AZKUE, Resurrección María de. *Euskalerrriaren yakintza = Literatura popular del País Vasco*. Madrid: Espasa Calpe, 1935-1947.

Zeanuriko Ipiña deritxon auzunean 1932 urteko zezeilaren 8-tik 12 arte egon nintzan Julian Angoitiaren etsean. Maurizia Ozerin eta Gregoria Uriarte (Angoitiaren emaztea) izan nebazan lankide onenak. Baita neskatila gazte bi bere: Primitiva Mendia Angoitia 16 urtekoa ta Miren Agirre Zavala 14koa bere. Onek erri-olerkietan eta kanta bat edo bestetan Euskalerrriaren yakingaietatik ona zeintzuk irakurri neutsazan I-Oitura ta sineskeriak, II-Frases rimadas, III-Medicina popular, IV-Meteorología, V-Aur-yostaketak, VI-Ipuinik eta irakurgairik eneutsen irakurri, esakune ta esakerarik bere ez (...).

Eskuidatziaren lehen orrialdean Eulogio Gorostiagak bildu zuen koplá bat dator:

Ai ene Jaungoikoa:
zeruan banengo,
enintzake etorriko
mundura geiago.

Eskuidatziko 6. orrialdean:

Otzandio Ubide,
Arratia partetik
pobrëaren fortuna
beti kokoteti.

Bigarren koplá honetako hitza *kokoteti* edo *kakoteti* ote da? Bi hitzen artean bigarrenaren alde egingo nuke apostu. Eskuidatziaren 8garren orrialdean, bestalde, aski ezaguna den hau dator:

1
Ipiñaburu leku altuän
Undurragaren buruän,
ikazgiñagaz ezkontzen danak
eztau zentzunik buruan.

2
Atzo goizean prebentaduta
gaur naroazu basora,
leku txarreko egur eginek
aterazoten bitora (boto= txondorlekua).

Baina orain joan gaitezen sailez sail eta eman ditzagun *Euskalerrriaren Yakintzako* aleak eskuidatzietan agertzen diren bezala. Eskuidatzian eta lan argitaratuan ez baitaude berdin. Hona sorta guztiak jatorrian eta *Euskalerrriaren Yakintzan* agertzen diren bezala:

I. Abadinoko (B)

1

Abadinoko Karmentxu,
ai neska polita zara zu,
ai neska polita zareana
urrineti agiri dozu.

2

Undurran neskatilarik ez,
Ipiñaburun baperez
Altzuan badago baia
Undurrarako bat baño ez.

3

Milaerrealen otalora,
Elosun asentzioa,
andra galanta bear dauena
Nafarratera beioa⁸⁶.

Hiru kopla hauek oso antzera daude jatorrizko eskuidatzian eta argitaraturiko sortan. Dagoen alderik nabarmenena lehen koplari *urrineti* hitza agertzen dela da. Zeanuriri *urrineti* esan arren, Azkuek argitaratzeko orduan *urrundi* jarri zuen. Gainerako aldaketatxoak ezerezak dira, dudarik gabe. Zerbait aipatzekotan hirugarren koplari *beioa Nafarratera* eskuidatzikoa hoskidetasuna bilatuz *Nafarratera beioa* egin zuen. Sortatxo honetako lehen bi koplak eskuidatziko 19. orrialdean ere badatoz. Bigarren idazketa honetan ere *urrineti* agertzen da.

Bigarren sortatxo argitaratuan aldaketa gehiago daude. Bigarren saila XVI. *Antonio Goikokalekok* du izena eta lau koplak agertzen ditu Azkuek. Jatorrizkoan, ostera, bi gehiago behintzat agertzen dira. Hona hemen eskuidatzian bezala:

⁸⁶ Huskeria zenbait aipatzearen, hirugarren koplari *Mila Errealen* herri izena idatzi du eta oin-oharrean En Villarreal. Koplari honetan bertan *asentsioa* hitzaren ondoan parentesi artean 'bedar bat' dakar.

1
Antonio goikokaleko[k]
txalen dirua sor dauko,
txalen dirua pagetako
bibolina baituran dauko⁸⁷.

2
Antonio nora oa
seure bibolin orregaz [?]
Urkiolara erromerian noa ni,
etorri nai bozu neugaz⁸⁸.

3
Antonion andrea.
txikitto politä,
kana bi perkalegaz
ze gona politä⁸⁹.

4
Antonio bibolinen
aurten zarrak ilgo dire,
gazteak beste urtean,
olgadu daigun geuk beste urtean⁹⁰.

Lau kopla hauek dira Azkuek argitara eman zituenak. Lau kopla hauetako protagonista Antonio Goitia bibolintera da, dudarik gabe. Antonio Goitia apurren bat mozorroturik dago kopla hauetako Antonio Goikokaleko/ goikokaleko horren jantzipean. Guk geure lanean eskuidatzian agertzen den ereduia ekarri dugu hona sorta honetan aldakuntza nabarmenak sartu baitzituen Lekeitioko ikerlariak. Esan beharrik ez dago eskuidatzian ez dagoela puntuazio markarik; testu argitaratuan, ordea, bai. Hona aldakuntza nabarmenenen berri. Lehen koplari *sor dauko* bildu zuen Azkuek. Zergatik ez zuen, beraz, transkribatu *zor dauko*? Era horretara ulergarriago izango litzateke bibolina bahituran izatea.

Bigarren koplari *nora oa/ seure* irakurtzen dut. Ezinezkoa da *oa* eta *zeure* izatea. Baliteke *seure* horren txistukaria *oas* eta *seure* hitz biena izatea. Galdera ulergarri izateko hasierako *s-oas* bat falta dugu. Normalagoa denez Antonio Goitiari hika egitea, Azkueren kopla argitaratuari hobetsi diogu.

Hirugarren ahapaldian badira aldaketa txiki batzuk. Azkuek *politä* transkribatzen badu, ez da besterik *polite* baino. Artikuluaren gaineko puntu biak jatorrizko bokalari nagusitasuna emateko da. Bi aldiz *polita* transkribatu beharrean gonadun *jantzita* asmatu du Azkuek.

Aldakuntzarik handiena laugarren koplari egin du. Lehenengoa: *Antonio bibolinen* irakurtzen dugu jatorrizkoan. Ez ote da *bibolinen* forma inesiboa *bibolin joten*? Horixe uste dugu guk. Ordena ere aldatua dago *aurten zarrak ilgo dire* irakurtzen da eskuidatzian, argitaratuan: *zarrak aurten ilgo dire*. Aldaketarik handie-

⁸⁷ Arg: Antonio goikokalekok txalen dirua dauko,/ ...

⁸⁸ Arg: Antonio ;nora oa eure bibolin orregaz?/...

⁸⁹ Arg. Antonion andrea, txikitxo polita,/ kana bi perkalegaz gonadun yantzita.

⁹⁰ Arg. Antonio bibolin: zarrak aurten ilgo dira,/ gazteak beste urtean, alai gagozan bitartean.

na, ordea, *olgadu daigun geuk beste urtean* jatorrizko esalditik idatzizko forma ahul batera bihurtzea da: *alai gagozan bitartean*. *Olgadu* aditza herri-aditz aberatsa da, eta zentzu bat baino gehiago har dezake. *Carpe diem* filosofia bitalistaren aldarria ez ote du egiten dantza-kopla honek? Eskuidatzitik aldatu ez dituen koplak hauexek dira:

5

Birjiña Begoñako
lengo urte baten,
itxasoan egoan
ontziak yagoten.

7

Urkiolara yoan ginean,
San Antonio egunean,
bideak galdu eta
larri ibili ginean.

6

Dimatik Igorrera
paraje zelaiä,
Igorrek bota deutso
Dimara bonbaiä.

8

San Antonio San Antonio
txarria gaiso danean
.... ez dago inor etxean
ta baletor urrengo urtean.

Bostgarren koplari *ontzi bat yagoten* idatzi du lehenengo idaztaldian. Bigarrenean, ordea, *ontziak yagoten*.

Hirugarren sortatxoak, *XVII. Asiko naz* (B), bost koplaxo ditu. Kopla hauek eskuidatziaren 12. orrialdean daude.

1

Asiko naz asitera:
ai au da lenengo bertsoa,
beronek emongo tsue
dantzan egiteko gogoä⁹¹.

3

Gorbei-altuan edurrä,
bota surtara egurrä,
alaba galanten amak
mutil zantarren bildurrä⁹³.

2

Euskeraz kantauko tsuet
erderaz eztakit eta,
aspaldion soñurik be
eztot yo bere eta⁹².

4

Urkiolako benteruari
larogeigarren urtean
zaldar batek urten deutso
orkatilako zanean⁹⁴.

⁹¹ Arg: Asiko naz asitera,/...

⁹² Arg: Euskeraz kantauko tsuet, erderaz eztakit eta;/ aspaldion soñurik be eztoz yo bére egin eta.

⁹³ Arg: Gorbei-altuän edurrä, bota surtara egurrä;/ alaba galanten amak nutil zantarren bildurra.

⁹⁴ 4 eta 5garren koplak berdinak dira.

Auxe da despedidea,
despedida onen tristea,
berbarik egin bot txarto,
parkeske nago jentea.

Bost kopla hauetan ia ez dago aldaketarik. Hirugarren koplako *nutil* argitartua errata garbi bat da *mutilen* ordez. Era berean, *bildurra* esaten du koplak horretan eta *bildurrä* behar luke. Zentzuari dagokionez, hirugarren koplako benteruaren zaldarra askok ez lukete gaur egun ulertuko. Zaldarra gazteari ateratzen zaio eta ez agure zaharrari. Gure koplak, gainera, barregarria da non ateratzen zaion: orkatilako zanean. Azken koplak honen ondoren argitara ez zituen bi koplak transkribatuko ditugu:

6

Taloak egiteko
ona da paräa,
Txomin Agarrek dauko
alaba pareä.

7

Garia garbitzeko
ona da artzea,
emoteko ei dauko
alaba gaztea.

Bi koplak hauetan, esan beharrik ez dago, *paräa* hori *parea* irakurri behar dela, erderazko *pala* hain zuzen. *Para* hitzari artikulua erantsiz gero, *parea* izango litzateke Arratian. Hoskide ez ezik, hitz bera dirudien *parea* beste gauza bat da, gaztelaniazko *par*. Horrekin errima bete-betekoak egiten du koplak zoragarri honetan. Bigarren koplako *artzea* horretan ere beste hainbeste gertatzen da. Hitzak *artza* da 'zaranda, criba', eta galbahe handi bat da. *Artzea* artikuluekin da, beraz. Hitz hau ere *artzäa* idatz zezakeen Azkue handiak.

Azken saila koadernoko 18. orrialdean agertzen da. Koplak hauek guztiak Miren Agirre Zabalari bilduak dira. *Euskalerraren Yakintzan XXVIII*. Gora gora (B) sortan daude. Aldaketa handirik ez dago, zorionez. Hona:

1

Gora gora begitu,
lañoak agiri,
orrexek mutil orrek
tontoa dirudi⁹⁵.

2

Txapel azulak eta
barradunak frakak,
Arratian ei dagoz
mutilak galantak⁹⁶.

⁹⁵ Arg: Gora gora begitu, lañoak ageri,/...

⁹⁶ Arg: Txapel azula eta...

3
Orain etorri ddaku
errirä modea,
txapel azulak eta
merine-yakea⁹⁷.

4
Urkiola ganeko
lilio-lorea,
andixe gora dago
zerurä bidea⁹⁸.

5
Lapatza goiarinä
Undurra bekoa,
bien erdian dago
Undurra goikoa⁹⁹.

6
Undurra goikoan dagoz
iru neskatilä (bis),
kalabazea yan da
lodituten dira¹⁰⁰.

7
Iturrira yoan da,
laster da etorri,
barragarriren bat
topau ezpalegi¹⁰¹.

8
Arro arroak dirä
azukariloak,
olakoxeak dirä
Zeanurikoak¹⁰².

9
A mutil ankaluze,
pipa artzailea,
txingarrak erre deutso
surraren puntea.

10
Ikätza zabaltzeko
ona da larrina (bis),
saltzeako eidäuko
alaba zarrena.

11
Oraingo mutiltxoak,
bana binäkoak,
lapiko tapatzako
alagalakoak¹⁰³.

12
O mutil anka luze
txotxo armario,
kantzontzillo-kordela
bernati dario.

⁹⁷ Arg: Orain etorri ddaku errira modea,/ txapel azulak eta merino yakea.

⁹⁸ Arg: zerura bidea.

⁹⁹ Arg: Lapatza goi-arina, ...

¹⁰⁰ Arg: ... iru neskatila:/...

¹⁰¹ Arg:... ba[r]ragarriren bat...

¹⁰² Arg: Arro arroak dira azukariloak,/ olakoxeak dira Zeanurikoak.

¹⁰³ Arg: .../ bana banakoak,/ ...

13
Oraingo neskatillak
dauken gogoagaz
ezkonduko litzakez
ota-moltsoagaz.

14
Ama neurea beti
agiraka neuri;
iluntzean goizegi
etorriagaiti.

15
Urrengo agiraka
eiten deustanean,
enazela etorriko
gaberdirtartean¹⁰⁴.

16
Arrabako landea
balego gorbeyan,
antxe egingo geunke
zirikin zakien¹⁰⁵.

17
Negar da negar dago
Errosa geurea
kantuak yan deutsalä
bai labadurea.

18
Ezegizu, Errosa,
katua mankatu,
saguak kuxetako
katua beogu¹⁰⁶.

19
Despedidea da ta
ibili kontuan,
akabatera noa
urrengo puntüan.

Hemen transkribatu ditugun bi erduetatiko ezaugarri nabarmenenak. Zortzigarren koplan lehenengo *Zeanurikoak* jarri du eta gainean hitz hau ezabaturik *azukarilloak*. Hitz honen ondoren (biak) jarri du. Segida honetako seigarren koplä honek zerikusi nabarmena du lehen orrialdean idatzi duenarekin: *Etxe barrian dagoz/ iru neskatila:/ luzanga, maldrunga/ ta Mari Pantorrila,/ kalabazea yanda/ lodituten dira*. Beste kontu ohargarri bat hamaikagarren koplan dugu, *bana binäkoak* bildu zuena *bana-banakoak* transkribatu zuen Azkuek.

Orain eman dezagun eskuidatzian agertzen den sortarik interesgarrienaren berri. Eskuidatzian 23-4-5 orrialdeetan argitara gabeko sorta zoragarri bat dakar Azkuek. Sorta horretako koplak modu jarraituan idatzirik daude. Guztira 38 koplako bilduma zoragarri bat da. Guk eskuidatzian dauden bezalaxe ekarriko ditugu hona. Modu jarraituan idatzirik daudenak guk kopletan tolestuko ditugu.

¹⁰⁴ Arg: U[r]rengo agiraka eiten daustanean,/ enazala etorriko gaberdirtartean.

¹⁰⁵ Arg: Arrabako landea balego Gorbeien,/ antxe egingo geuke zirikin zakien.

¹⁰⁶ Arg: .../ saguak uxetako katua beogu.

1

Eztia ta koipea
lengusuak dirä,
oraingo mutiltxoak
barritsuäk dirä.

2

Txikitxo polit ori,
norena, norena?
Norena izango naiz?
Aitena ta Amena.

3

Atxinä gazte Erriberako
erlijiosa santäa,
gordeta daukät neuk zeu(r)etzako
eskribäü gizon gaztea,
eskribäü gizon gaztea eta
tinteroä ta plumäa.

4

Zotz-zuritzaillea dozu senarra,
zarrabeteroa koñatu,
zotz-zuritzailëen irabaziak
zarrabeteroak ondatu.

5

Xeintxo¹⁰⁷ txikärdun amarentzako
erri gogorra Orozko,
txoriak txirrist egin daineko
arta-yorrara bearko.

6

Dingilin dangoloa,
i ez az zoroa,
sardin-burua baino
oba dok oilloa.

7

Dingilin dangoa Mariñe,
beti onelan bagine,
beti onelan bizi izateko,
errentea don arinä.

8

Txikitxo polit ori,
¿zelan zara bizi?
Yoan dan aspaldiän
etzatut ikusi.

9

Adios eta banaroela,
ontzi barrian soldadu,
arkondararik soinean ez da
amaren seme sobradu.

10

Baltza nazala dinoste,
nire deust ardurä gitxi,
ardaoa bere baltza da baia
askok eiten dau erosi.

11

Ederra ta galanta
biak leku baten,
ona ta aberatsa
gaitz dira bilatzen.

12

Gazteak: badakizu
zelan dantzan egin,
burua gora-gora,
kaderai eragin.

¹⁰⁷ Hasieran *Seintxo* idatzi du eta gainean X.

13

Larrosa maiatzekoa:
iminten zatut kontuän:
batek ezetz esan arren,
beste asko da munduän.

14

Larrosatxoak bost orri ditu
kabälineak amabi:
Primitibatxo bear dauenak
eskatu bere amari.

15

Milarreal Zumarragako
ein zinan ezkondu,
Antoniok min egon arren
egin zenduzan notadu.

16

Valentina saladäa
embra ederra zara zu,
zeuk gura dozun artean
ez zara ezkonduko zu.

17

Ddantzan badakit baia
fandangoan gitxi,
agaitik eiten deusat
ikusi ta itxi.

18

Ama neureak baleki
ze alabea naukän ni,
egunaz negar da negar,
gaubean bere lo gitxi.

19

Ederra zareala
pentsetan badozu,
espilu faltsu orrek
engañatu zatu.

20

Arantza baltzena da
lenengo lorea,
damututen ddajona
Jaungoikoak obea.

21

Adios Aitari ta
Amari goraintzi,
gazterik naröela
Zaragoza ni.

22

Eroaten banaude
Zaragozaraiño,
ez naude ikusiko
sekula geiago.

23

Laztana Madilera
zeu zoazanean,
eroan bear nozu
neu bere aldean.

24

Esaten dozunean
mantekea letxe,
biziko gineala
erregina letxe.

25

Esaten daunean
mantekea legez,
biziko gareala
erregea legez.

26

Peseta koloreko
begi nabarrokaz,
enozu engañoauko
berba labanokaz.

27

Neure laztan ederra
Perrolen ei dago,
ujala premetida
arago balego!

28

Larrosa mentanakoa
iminten zaitut kontuän:
baltzeorik ez eiteko,
nire pandero-soñuan.

29

Andra Mari urrikoetan
Bebiden (Beobiden)ä,
gu bere yoango gara,
baldin ez bada euriä.

30

Paulino Lekunberriko,
yoizu soinu ori ondo,
Susana Untzurtakoak
erantzungo tsu ondo.

31

Tristurä nago tristurä,
ez nago¹⁰⁸ neure gusturä,
neure gusturä egoteko
yoan bearko dot zerurä.

32

San Juanetik dagoz
ile bi negurä,
agure zarra daukan
atsoa galdu dä.

33

Ddantzan dabilen dama bat
ondotxo neuri gusta ddat:
Korro orretan ezta sartuk(o)
beste bera lango bat.

34

Ai Peru, Peru, Peru
zu beti alperra,
sarri izango dozu
alkondara zarra.

35

Baserriko mutilen
kontsolagarria,
kolkoan arto zati
ikaragarria.

36

Arkondara agirian
prakaren zuloti,
eta txapel txatala
belarri-ondoti.

37

Nik ikusi dot ikustekoa
uritxo bater erdian:
amalau atso tronpeta yoten
motrollu baten ganean.

38

Motrollua zan andia
edo atsoak ziran txikiak.
¡Zelan arraie kaviduko dauz
motrollu batek guztiak!

¹⁰⁸ Eskuidatzian *enago*.

VII. ATAUNGO KOPLADIA

Ataungo kopladiaren berri emango dut atal honetan. Dantza-kopla alorrean ezagutzen dudan sailik zoragarriena da, inolako zalantzarik gabe. Zoragarrietan zoragarriena, gainera, begiratzen diogun alderditik begiratzen diogula. Zergatik? Kopla-kopururik handienetakoa dugu, batetik; koplen edertasuna ere ohi ez bezalako da, bestetik.

Liburu honetan azaldu ditugun kopla ezaugarriak kontuan harturik, dugun kopla-bildumarik zaharrena dela deritzat. Dantza-koplen mundua aztertzeko bilduma honek eskeintzen du oinarririk finko eta sendoena. Baina horretan ez da amaitzen kontua. Kopla-bilduma hau, nik dakidala, argitara gabe egon da orain arte. Gure liburuko ataltxo honetan ikusten du lehen aldiz inprentako argia. Koplen bilako gure ibilietan izan dugun pozaldirik handiena kopla-hauek ikusitakoan izan da.

Dantza-kopla gehienak, bestalde, Bizkaian aurkitu ditugu. Trikiti-koplak batez ere Bizkaikoak direla pentsatzen bada, arrazoi bat baino gehiago daudelako da. Bizkaikoak baino hobeto esanda ez legoke bizkai euskeradunak direla? Beste atal batean ikusi dugun bezalaxe, Gipuzkoako Arantzazuko kopladia ezagutzen dugun aberatsenetakoa da... Beste modu batera ez ote dugu ulertu behar? Hau da, Bizkai-Gipuzkoetan trikiti-koplak kantatu badira ere, Bizkaian eduki duela genero honek indar handiena?

Gipuzkoan eta are Nafarroan ere bildu dira trikiti-koplak, beste atal batean ikusiko dugunez. Gure atal honetako kopladi hau Gipuzkoako ekialdean, Nafarroako mugan, dagoen herritxo batekoa da: Ataungoa. Non bildua den badakigu, baina nor da biltzailea eta nori edo nortzuei bildu zien? Biltzailea Juan de Arin Dorransoro apezka izan zen¹. Nori edo nortzuei bildua, ordea, ez dakigu. Baina utzi ditzagun kontu hauek hurrengo punturako.

¹ Juan de Arinek bildu zituen eske-koplen bila jo nuen Iñaki Arin Bastarririkagana. Ene uste-kabearen handia: eske-koplak ezezik atal honetan transkribatuko dudan dantza-kopla sail zoragarria ere eskuetaratu zidan.

Juan de Arin Dorronsororen gainean berri apurra

Juan de Arin Dorronsoro izan zen, goraxeago esan dugunez, dantza-kopla hauen biltzailea. Juan de Arin Dorronsoro Ataunen jaio zen 1892ko abenduaren 12an eta 1972an hil zen, herri berean. Jaiotetxea Telleri-azpikoa handi-etxea izan zuen. 1905ean, Lekarozko kaputxinoen ikastetxera joan zen eta filosofia-teologiak Gasteizen ikasi zituen. Meza berria 1917ko ekainaren 24an eman zuen. 1919. urtean Ataungo San Martin parrokian koadjutore izendatu zuten 1961. urtera arte. Jose Migel Barandiaranen (Ataun, 1889-Ataun, 1991) herrikoa ez ezik, adin beretsukoa ere izan zen.

Juan Arinen hiru azter sail aipatu beharko banitu, etnografia, historia eta onomastika izan zirela esango nuke. Ez dugu hemen idatzi zituen artikulua eta liburu guztien berri emango. Horren berri izan nahi duenak jo beza Jon Bilbaoren bibliografia bikainera. Datu bat bakarrik emango dugu: Juan de Arinek Ataunen eman zuen bere bizitza guztia. Juan Arin Dorronsoro apaiz egin zenetik aurrera, Ataunen bizi izan zen hil arte guztian.

Pentsatzekoa da, beraz, lan etnografiko guztiak ere herri horretako artzaintza, nekazaritza, toponimia, etxe eta eraikuntza zaharretako zuraje, senda-belar eta abarren gainean idatzi zituela. Guk hemen argitaratzen ditugun koplak ere, bistakoa denez, Ataungoak dira. Juan Arinek artikulua gehienak on Jose Migel Barandiaranen aldizkarietan argitara zituen *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore, Ikuska eta Eusko-Jakintza*-n².

Bada aipatu nahi nukeen bitxitasun bat. Juan de Arin gorputzez txikia zen eta *don Juan txiki* deitu ohi zuten Ataunen. Barandiaranen beraren antzekoa omen zen gorputzez, baina, azken hau bezalaxe, izpirituz handia. Kontu ezaguna da, bestalde, Barandiaran, erbestealdian, Saran zegoela, *apez txipia* deitzen ziotela.

Kontu horiek honetara, Imanol Lazkanoren *Aho bizarrik gabe*³ liburu zoragarria irakurtzen ari nintzela, “Don Juan Txikia” 25garren kapitulua irakurri nuenean, galdera bat erne zen ene burura: pertsona bera ote da gure kopla-biltzailea eta Lazkanoren liburuko don Juan txikia? Biak dira ataundarrak, eta, gainera, garai beretsuan hil ziren. Bata 1972an eta bestea 1974an, liburuan irakurtzen denez. Biei, gainera, *Don Juan txikia* deitzen zieten. Baina ez dira pertsona bera, bi baidik.

² ARIN DORRONSORO, Juan de. *Monografía del clero y religiosos de Ataun: con una breve historia de sus tres parroquias*. Vitoria: Imp. Lib. y Enc. del Montepío Diocesano, 1964. Lan horretatik hartu ditut datu gehienak.

³ LAZKANO, Imanol. *Aho bizarrik gabe*. Andoain: Bertsolari Liburuak, 2003.

Kopla-bildumaren ezaugarriak

Argitara gabe utzi zituen lanen artean badago besterik ere. Juan Arin herri-literaturazalea ere izan zen. Kopla alorrean ezagutzen ditudan bi kopla-bildumarik ederenak Juan Arinek bilduak dira. Lehena santa eskeko koplek osatzen dute. Santa Agedako kopla hauen gainean badut lantxo bat argitaraturik⁴. Oraingo atal hone-takoak, ordea, dantza-koplak dira.

Noiz bilduak eta nori bilduak ote dira? Ez dakigu noiz eta nori bilduak diren. Pentsatzekoa da, koplak bildumaren izenburuaren arabera, 1930. urtea baino gero-ago bilduak direla, Eulogio Gorostiagaren “Cantares populares recogidos en Zeanuri (Vizcaya)”⁵ lanaren tankera hartzen baitiot. Juan de Arinek bilduma horri “Cantos coreográficos al son de la pandereta” jarri zion izenburua⁶ eta Eulogio Gorostiagak ere bai. Koplak nori bildu zizkion ez badio ere, panderetera profesio-nal bati edo gehiagori bilduak direla dirudi. Zergatik? Jendearen memorian banaka txertaturik dauden aleak baino kantari profesional baten memorian argi iltzaturik dauden kopla-aleak diruditelako.

Badago besterik ere. Juan Arin Dorronsorok dioenez, koplak XIX. mende erdialdera kantatuak ziren eta bilduma hain zaharra egiteko bi aukera ikusten ditu-gu. Bata panderetera adinduengandik biltzea XX. mende hasieran edo panderetera hauek zituzten eskuidatzietatik. Hona zer dioen J. Arinek:

Estas estrofas y otras muchas se cantaban en Ataun en la segunda mitad del siglo XIX. La música compuesta para la pandereta tiene dos melodías, la primera algo reposada, la segunda viva y animada llamada pandango. Ambas melodías se alternan. El metro del verso varía según a cual de las melodías deba de acoplarse. En la letra tenemos *kopla zaar-rak* y *verso berrik*. Las estrofas de kopla zaarrak independientes entre sí, pues cada una se completa. Consta de dos imágenes, la primera descripción de algún objeto y la segunda aplicación a la persona. “Larrosa zuri-gorri / Udaberrikoa. 2ª Ederki danzatzan da / Gure auzokoa.” La imaginación del oyente hace la cohesión de ambas imágenes. A estas imágenes llaman *puntutuk*. “Des(p)atxatzea nua / urrengo puntuan”. Las estrofas y *verso berriak* no se someten a estas reglas y la mayor parte de

⁴ KALZAKORTA, Jabier. “Erronda-kantuak eta eske-bertsok” in *Euskera*. XLVIII (2003-1), 109-163 or.

⁵ *Anuario de Eusko-Folklore*. X. libk. (1930), 7-33 or.

⁶ Eulogio Gorostiagak “canciones coreográficas (letra)” jarri zuen aipatu dugun lanean. Juan Arinek ere berdintsu jokatzan du “Cantos coreográficos al son de la pandereta”. Baliteke bateratasun harrigarri bat izatea, baina ez ote da zilegi pentsatzea J. Arinek E. Gorostiagaren izenburu antzekoa hartzea?

las que se cantaban en Ataun últimamente eran aportadas de fuera y escritas para otros fines. Panderoa, pandangoa, koplak, versook, puntue etc. son términos tomados del castellano.

Nik neure eskuetan dudana koplak sail hau hogeitar orrialdetan zerrendaturik dago. Orrialde bakoitzak hiru zutabe ditu eta zutabe hauetan erreskadatuak daude koplak. Bi sail desberdintzen ditu biltzaileak: lehen hogeita hamarrak eta gainerako guztiak. Lehen hogeita hamarrak zenbaki erromatarrez daude eta “Cantos coreográficos para el baile al son de la pandereta” izenburua daramate. Gainerakoek zenbaki arabikoak dituzte eta “Coplas para la melodía del fandango” zehaztasuna dute izenburuztat. Guk, geure liburu honetako irizpideei jarraiki, denak zenbaki arabikoz jarri ditugu.

Ataungo euskararen berezitasun guztiakin gorde nahi izan dugu koplak sail hau. *Lisoba* hitza, esaterako, bi aldiz jartzen du, nekez izan daiteke erratua, beraz. *Lisoba* hitza ez da, nik dakidala, inon dokumentatzen. Hurbilen dagoen hitza Tolosaldeko ‘lisuba’ da. Ez dago esan beharrik *lisoba* delakoa gainerako euskalkietako *lexiba/lisiba* dela. *Bekakillo* (107) hitza ez dut inon aurkitu. Zer ote da? Jatorrizkotik egin ditudan aldaera bakarrak puntuazioa eta ezezkako formak batera idatzi beharrean bereiz transkribatzea izan da. Kasurako, *ezpazera* idatzi beharrean *ez bazera* jarri dut. *Dembora* bezalako hitzetan gaurko erara jarri dut *denbora*. Hitzen bat gaizki transkribatua badago, parentesi artean jarri dut gaineratu dudana.

Kopla hauen gaineko zehaztasun zenbait

Kopla bat gaizki transkribaturik dago edo iturrian berean aldatua dagoela dirudi. Gure saileko 54. kopla: *Apalen ipintzeko/ ona da platera;/ zelatan daudenari/ atera begiak*. Ez dago ondo, gure ustean. Beste modu honetara izan behar luke:

Apalen ipintzeko
ona da platera;
zelatan daudenari
begiak atera.

Beste kopla batek ere zalantza bat behintzat sortu digu. Honela dator jatorrizkoan: *Au gazte jensearen/ Añaren ariñe/ Batek ortza palta do/ Besteak agiñe*. Nik kopla horretan bi huts ikusten ditut. Lehena argia da *jendearen* edo *jentearen* idatzi beharrean *jensearen* idatzi du. Bigarren hutsa konpontzen ez da hain erraza. Zer ote da *Añaren ariñe*? Nik uste dut *Oñaren ariñe* dela. Pandero joleak askotan aurrean duena zirikatuta nahi du eta aurrean duen hori dantzan arin ari da. Honelaxe transkribatuko nuke nik:

76

Au gazte jendearen
oñaren ariñe,
batek ortza palta do
besteak agiñe.

Horrela jokatzeko beste arrazoi bat ere badugu hurrengo koplan, halako ritor-
nello baten moduan *ankak ariñek* esaten du. Hankak eta oinak, beraz, alor seman-
tiko berekoak dira. Hona hurrengo koplak:

77

Ankak ariñek eta
ipurdia pisu,
atzetik dagon orrek
parre egiten dizu.

Beste batean ere duda egin eta zuzendu dugu. Hona nola agertzen den jato-
rrikoan: 111. *Begiak beltxak-beltxak/ Iztari donoso,/ Motillaz ezto bear/ Orren
amoroso*. Nola ulertu behar da koplak hau? Hemen ere bi aldaketa egin ditugu *Iztari*
irakurtzen dena *izlari* jarri dugu. *Amoroso* hitzarekin ondo hitz egiten duena dago-
kiola uste dugu. Bigarren aldaketa argiagoa da, *Motillaz* hori *motillak* izan behar
duelako. Honela gelditzen da, beraz:

111

Begiak beltxak-beltxak
izlari donoso,
motillak ez do bear
orren amoroso.

Dударик handiena beste honekin egin dut: 132: *Altuan Aranzazu/ Bajuan
Alaba/ Nik ere arutako/ Dauket nere alaba*. Zer ote da *arutako* delakoa? Formarik
hurbilena *artutako* litzateke edo *saltzeko*? Hona zer jarri dudak:

132

Altuan Aranzazu,
bajuan Alaba,
nik ere saltzeko
dauket nere alaba.

Kopla erreskada honetako hizkuntza-altxorrak

Zahartasunaren alderdiari erreparatuz gero, hainbat argitasun eman ditzakegu. Diru zaharrak agertzen dira, *dukatak*, esaterako. Zerbait *garestia* dela adierazteko *gora* hitza erabiltzen da: *Ai, motil txamarra gorri/ zenbatean dek pandero ori?* —*Amar erreal da erdi/ gora dek pandero ori*. Edo beste modu batera *garesti* adierazteko ‘diruetan egon’: *Ai, ai, ai motil zarra/ trabenan ago?/ Vitorian oyala/ diruetan dago*⁷. Baina atal honetan hizkuntzari berari dagozkion edertasunez ariko gara. Kopladi honetan, nire ustez, garrantzirik handiena duen kontua kopla egitura edo estetika aldetikoa da, zalantzarik gabe. Hemen ez naiz ariko, ordea, holakoak aztertzen, luzeegi joko lidake eta. Hizkuntzaren aldetik aipa ditzadan bat edo beste. *Berdin* hitzaren erabilera berezia agertzen da 192 koplan. Hona:

Despatxatzea noa
asitako lana,
berdin ez da faltako
emen zer esana.

Mogelen *Peru Abarkan* agertzen den *neurdin* bera dugu.

Ain gutxi egituradun kopla bat baino gehiago ikusten ditugu. 15. —*Ez det nik nai soldadue/ ain gutxi marineroa;/ kalean paseatzeko/ obea da kaballeroa*. Beste kopla batean ere bai: 144. *Ez da monja juango/ ain gutxi segore,/ edozein galayakin/ ez ezkondu ere*.

Kopladi honetako eta gainerako kantutegietako bateratasunak

Uste baino luzeago joko liguke puntu honek. Kopla bat edo beste, ordea, ezin utzi aipatu gabe. Eman ditzagun, kasurako, bi hauek:

143
Zuk esan omen dezu
ez dana badala,
erregearen al(a)ba
monja juan dala.

144
Ez da monja juango
ain gutxi segore,
edozein galayakin
ez ezkondu ere.

Kopla-bikote honetan 143. alean, “erregearen alaba monja juan dala” dio. Hurrengo alean, “ez dela monja joango eta ain gutxi segore” irakurtzen dugu. Kopla

⁷ *Diruetan egon* esapideak ‘aberatsa izateaz’ gainera ‘garesti egotea’ ere adierazten du.

horren erantzulea, norbait izatekoan errege-alaba izango da. Ahapaldi honen antzekoak ikusi ditugu Azkueren eskuidatzietan. Hona “Cuaderno de canciones inéditas” hortako, 7. orrialdean, “Enaiz sartuko monja” (No publicada) izenburua duenean zer irakurtzen dugun:

Enaiz sartuko monja
ain gutxi segore,
enaiz sartuko monja
ain gutxi segore
Edozein mutilekin
ezkonduenean
edozein mutilekin
ezkonduenean
monja sartuko nintzan
komentu batean,
komentu batean.

Zer dakigu kanta honen gainean? Azkuek honela dio: “De Francisca Erkizia, de Zumaya (g) danza cantada”. Gure bi koplek antzekotasun handia dute beste honekin. Azkuek hitz berak ematen ditu beste bi iturritan ere 001-002-001-1077 (469 or.) eta 005-014 001/004 (195 or., nº 507).

Txantulario kamino

Ume-kanta bezala ezaguna dugu “Txantulario kamino” kantua. Gehienetan bi koplako kantatxo hau umeei kantatzen zaie. Umea altzo gainean gerritik esku biek hartu eta dantzatu egiten da errezitatu moduko bat esan edo kantatuz. Bi koplak hauetako bat Zeanuriko kopladian 50. zenbakian dator. Mañarikoan, ostera, bere bi koplekin 68-69 zenbakietan.

93

Gu etxeko motillak
satorran ankakin,
arditik izan ezta
sedazko gal(t)zakin.

94

Manuel pintorero
abarka zarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin.

Zehaztasun orokorrak

Ataungo koplak sailak ez bezalakoa da egituran bertan ere. Sail honetan koplak hurrenkera ordenatua ikusiko dugu. Lehen koplak sarrerakoak izango dira eta azkenak bukaerakoak. Lehen hirurek sarrera osatuko dute. Hasierakoa zertara

datoren adieraziko du koplakantariak, eta, bigarren-hirugarrenetan, panderoaren ezaugarriak emango ditu. Berdin gertatuko da bukaerakoekin. Bukaerako bakarra ez dagoenez gero bat baino gehiago izango dira. Sail hau, beraz, liburu honetako osatuena eta ederrena da. Pandero-jole profesional baten edo gehiagoren bilduma aparta.

Cantos coreográficos al son de la pandereta

1

Asiko banaiz asiko
gazteak dibertitzera,
ni onela ikusita
konsolatzen ez bazera.

2

Ai au pandero berria
Iruñetik ekarria,
egalak ditu urdiñak
erdian urregorria.

3

Nere eskuko panderoa
piña da ardi-narrua,
dama bati kosta zayo
memorial baten dirua.

4

Txoritxoak kayolara,
estudianteak eskolara;
erri ontako motillak
gauean tabernara.

5

Itxasoan solai berde
arrai preskoak an daude;
aurten praile juateko (e)re
dama zu zaitut adiskide.

6

Itxasoan laño dago
Orioko barraraño;

nik zu zaitut maiteago
amak bere semea baño.

7

Itxasoan urek andi,
ez da ondarrrik agiri;
pasauko nitzake ni andi
nere maitea ikusteagati.

8

Begira nago begira,
kamio bide berrira,
noiz etorriko ote da
nere maitea errira.

9

Katarroa dauket eta
ezin det ongi kantatu,
gauerdiko serenoak
ez nauela ondo artu.

10

Zerua urdiña da ta
esperantza berdea,
urreak signifikatzen do
biotz kontentuz betea.

11

Tristerik nago tristerik,
ez dauket adiskiderik,
adiskide zeinbat baño
obea da be(r)a bakarrik.

12

Larrosa eder baratzean,
loratzen da mayetzean;
amioririk ez duanak
ez do miñik biotzean.

13

Ai, motil txamarra gorri,
zenbatean dek pandero ori?
–Amar erreal da erdi.
–Gora dek pandero ori.

14

Or goyen dago iturri,
egarri danak ekarri;
bi alaba dauzkan amak
bat emango al dit nerri!

15

Ez det nik nai soldadue,
ain gutxi marineroa,
kalean paseatzeko
obea da kaballeroa.

16

Marinelaren andrea
kotadun miserablea,
gauean senarrarekin
goizean pesadunbrea.

17

Ama batek ezkontzeko
nere gustoko batekin,
dotea emango di(d)ala
olla lokea bost txitakin.

18

Adios ta orain banoa
nai dezunean etorri,
amoriozko begi biak
erakustera elkarri.

19

Esango ba(d)izut esango
ez naiz ixilik egongo,
plaza zarreko damea
ez dala monja juongo.

20

Kaleran nago kaleran⁸,
arri otzaren gañean,
atea nork irikiko
etxera natorrenean.

21

Nere nobiaren ama
asto baten jabea dana,
berak ekarriko dio
etxean bear dana.

22

Auxe da despedidea,
despedidearen tristea,
agur, aita eta ama,
adios, arreba maitea.

23

Itxasoa esnezkoa,
auntzie kristalezkoa,
urrea enbargatzeko
Birjiña Pilarekoa⁹.

⁸ Halaxe dator bi aldiz 'kaleran' eta ez 'kalean'.

⁹ Hemen bi hitz iluntxo daude: 'auntzie' eta 'enbargatzeko'. Lehenak *untzia* edo *itsa-sontzia* izan behar du, eta bigarrenak *enbarkatu* edo *untziratu*.

24

Klabeliña dago leyoan
ipintzen zaitut kontuan;
amore batek uts emon arren
beste asko di(r)e munduan.

25

Zizarea solarea,
jauregiaren alabea,
amak erakutsiko dizu
Donostirako bidea¹⁰.

26

Nere maitea zer dezu?
Endredo triste zaude zu,
munduko esanakatik
ez zaitezela estutu.

27

Gazte piña ziñanean,
gazte piña ziñanean,

sekulan ez zaitzun palta
galayik aldamenean.

28

Tristuran nago tristuran
ez nago nere gustora,
nere gustora egoteko
juan bearko det nik zerura.

29

Errotara zatozenezan
esayozu errotariari,
lakarik ez kentzeko
zure zaku txikitoari.

30

Kitarra zar-zar batekin
nai dezu ezkondu nerekin,
nai ez badezu nerekin
zuatza Jaungoikoarekin!

Coplas para la melodía del fandango

31

Lapikotxo txurian
okalatxo gutxi;
oraingo motillakin
konpianza gutxi.

32

Lapiko gatz gabeak
ez dauke gustorik;
oraingo motillakin
ez dago gizonik.

33

Eperrak kantatzen do
goizean intzetan;
ezin pia liteke
motillen itzetan.

34

Piatzen bazerate
motillen itzetan,
eroriko zerate
arri labañetan.

¹⁰ Kopla harrigarria. Zer esan nahi du? *Solarea* hitzak *solaria*, hots, *solokaria* esan nahi du? Ganadu edo patariak izan ohi dira solariak, kasu honetan, beharbada zizarea. Baina misterioa handitzen du hurrengo *jauregiaren alabea* horrek.

35
Pikuaren ostoa
itzal egiteko;
ederregie zera
nekazaritzako.

36
Gora begiratuta
odayek agiri;
oroko motil orrek
eroa dirudi.

37
Erreka baztarreko
lirio lorea¹¹;
sonprellu zuri eta
kasaka berdea.

38
Mantalaren sokea
ederra gerrian;
zu baño maiteagoak
baditut errian.

39
Auntzek adarrak aundi,
belarriak luze;
ez naiz ni maitegure
dotearen baize.

40
Aizeak dantzat(z)en do
pago adardune;
motillek ez dik bear
andra alargune.

41
Zozoa ari zera
alperrik kantari,
nere maite polita
ez da nai etorri¹².

42
Goyen dago Larrunza,
parean Igartu;
orra bada Lorenza
ni zuzaz beartu.

43
Aurten erosi ditut
lau libra olio,
dantzan ez dakitenak
ez dute balio.

44
Oll oak badauke
barrupean gan(t)za;
joko degu soñua
eizazute dantza.

45
Baratzako gindea
jan det baño miña;
sekulan ez zat juango
zukanako miña.

46
Iru ta bi dira bost
bost eta bi zazpi;
neskatxak motillakin
ez zebiltzek gaizki.

¹¹ Hemen jatorrizkoan 'lirio lora' dator.

¹² Harrigarria bada ere, halaxe dator eta *ez ez do nai etorri*.

47
Ai, ai, ai motil zarra
trabenan al ago?
Vitorian oyala
diruetan dago.

48
Guretxa¹³ santuaren
señalea gatik,
soñua muda-muda
gure jaunagatik.

49
Larrosa zurigorri
udaberrikoa;
ederki dantzaten da
gure auzokoa.

50
Gure etxeko idiak
adarrak gorriak;
zeñen ondo dabilzan
gure dantzariak.

51
Udaberria¹⁴ da ta
denbora beroa;
gazte zoroak beti
arin do gogo.

52
Aranzazu mendiko
klabelin gorrie;
aspaldi jakin nuan
gogoko berrie.

53
Zuriak eta beltzak
mendian ardiak;
ez dituzu zuk ere
bentaja guziak.

54
Apalen ipintzeko
ona da platera;
zelatan daudenari
begiak atera.

55
Iru milla karakol
bosteun zizalla¹⁵;
Goyerrin ez omen da
neska bat donzella.

56
Larrosa zurigorri
eder mayetzean;
ez etorri egunez
zatoz arratsean.

57
Soñue muda-muda
gogoa danean;
baita artajorran ere
giroa danean.

58
Baratzako pikuak
iru adar ditu;
neska motilzaleak
oñak arin ditu.

¹³ 106 kopian *Gurutza* irakurtzen dugu. Eskuidatziko *Guretxe* kendu eta *Gurutza* jarri dugu.

¹⁴ Jatorrizko idatzian 'Udabeeria da ta'.

¹⁵ Zer ote da *zizalla*? Guk uste arbolaxka moeta bat izango dela. Karakolak beraz arbolaxka honetan ibiliko dira.

59

Altuan Aranzazu,
bajuan Oñati,
ederraren ondoren
an gabiltza beti.

60

Iru koltxoi nabarrak
kutxa bat berrie,
laister egin bear do
etxeko aldie.

61

Sagar bat errea ta
bestea gordiñik;
auxe da denborea
pasa de(d)ana nik.

62

Aurten ezkontzen diran
gazte txotxoloak,
lau dukat egiten do
anega artoak¹⁶.

63

Aizea mudatzeko
ez naiz ni lorea,
estimatu bearko
zure faborea.

64

Orroko neskatx orren
pañuelo orie,
laguna bai daukat
fandangolarie.

65

Iazko kontentua
aurtengo negarra,
gure baratzan dago
amore-bela(r)ra.

66

Gazte(a) zoro zoro
zarrak zoroago,
zarran zoroaldiak
ez di(r)e obeagoak¹⁷.

67

Iru eraztun dauzkat
irruak zillarrez;
galai bat etorri zait
leyora negarrez.

68

Sagarraren lorea
aizeak darama;
zurekin nere pena
ala balarama!

69

Igaz ogei urte ta
aurten emeretzi,
zuretzako nago ni
biar edo etzi.

70

Artajorrara nua
lugorri berrira,
belarra jorratu ta
artoa sasira.

¹⁶ Zentzu handiago izango luke: *Aurten ezkontzen dira/ gazte txotxoloak;/ lau dukat egiten do/ anega artoak*. Hala ere ez dugu aldatu eta jatorrizko dokumentuan datorren bezala jarri dugu.

¹⁷ Hoskidetasuna galdu arren dagoen dagoenean utzi dugu.

71

Oñak ariñak eta
burua ariñago,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

72

Iru gona soñean
atorrarik gabe,
plazan dantzatuko da
axolarik gabe.

73

Orroko mutil orren
dantzatzeko planta,
ederki dan(t)zatzen do
ezkarreko anka.

74

Gonea luze-luze
mantala do motza,
ederki dan(t)zatzen da
gure neska motza.

75

Ederki dan(t)zatzen da
nundiknai¹⁸ asita,
zergatikan dagoan
ondo ikasita.

76

Au gazte jendearen
oñaren ariñe,
batek ortza palta do
besteak agiñe.

77

Ankak ariñek eta
ipurdia pisu,
atzetik dagon orrek
parre egiten dizu.

78

Ea bada... (Joantxo)
modurik badezu,
neskatx bat artu eta
dantzan egin zazu.

79

Gazteak aide-aide
soñue danean,
baita lanean ere
giroan danean.

80

Gaztea nintzaneko
nere kontentue,
pestara juateko
ezin prantatue.

81

Ortzak ustelak eta
ezpañak arroak,
orra motillarentzat
señale klaroak.

82

Gorako saltoa
berako brinkoa,
motillak goyan bear do
gal(t)za gerrikoa.

¹⁸ Jatorrizkoan bereiz idatzita: 'nundik nai asita'.

83
Oraingo motil zarrak
zer dute merezi?
Ardotan beratuta
lisoban egosi.

84
Lisoban egosi ta
arrian kolpe bi,
gorosti makillakin
gerrezurrek ausi.

85
Oraingo motil zarrak
daukate pelea,
ortzetan pipea ta
eskuan tosea¹⁹.

86
Emengo motillentzat
erremedioa,
iturriaren azpiko
botikarioa.

87
Orroko motil (neska) orrek
dauke pantasie,
soñean soñekoa
bestek erosie.

88
Tximini garbitzalle
mutur zikindune,
gal(t)za zar, bizar aundi
Judasen lagune.

89
Orroko motil orrek
adio ta adio,
nere gona zarrari
parre egiten dio.

90
Otxok-otxok motille
pikaro ordie,
egin bearko di(d)ak
ordañe berrie.

91
Ez da ebirik sartzen
ari ez danean,
ez da aizerik ere
ez dabillenean.

92
Oraingo motil zarrak
zertarako dira?
Galtzak jantzi ezker
trabenatan dira.

93
Gu etxeko motillak
satorran anakin,
arditik izan ezta
sedazko gal(t)zakin²⁰.

94
Manuel pintorero
abarka zarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin.

¹⁹ *Toxa* tabakorria gordetzeko larruzko boltsatxoa izaten zen. Bigarren zentzu batean, metafora formal baldar xamarra eginez ere erabiltzen zen.

²⁰ Hemen beste diru zahar bat ikusten dugu: *ardit*.

95
Batzuetan zuti eta
bestietan erori,
nolabait etxe(r)a da
gizon eder ori.

96
Dantzan or omen dabil
anka sestra-sestra,
atea iriki zazu
Periko naiz eta.

97
Ai motil bizkar oker
gal(t)za jarioa
iruditutzen zait
nere erioa.

98
Aurtengo urtearen
errukigarrie,
izotzak galdu dio
matsari²¹ orrie.

99
Gazteak arin-arin
soñue danean,
ez damurikan izan
gelditzen danean.

100
Jesus onaren ama
Maria Birjiña,
amaren eske nator
zeruko erregiña.

101
Aranzazu mendiko
pagoaren ondoan,
Maria santisima
dauket gogoan.

102
Ikazkiñek eiten do
basoan ikatza,
Goierriko motillek
kolore berdotza.

103
Larrosa loratzen da
mayetza danean,
baita klabelina ere
denbora danean.

104
Aitak artajorrara
otsegin²² ezkeru,
buruan min det eta
oñetan o(t)z dago.

105
Agur aita ta ama
Miguel da Ignazi,
gure mundu tristean
il artean bizi.

106
Iaz iazkoa ta
aurten aurtengoa,
gurutza santue da
matrimonioa.

²¹ Jatorrizkoan 'matxari'.

²² Jatorrizkoan 'otxegin'.

107
Ai motil bekakillo
begiak logure,
baietz²³ uste dek baño
ez nok ire gure.

108
Ai motil sudurluze
pipa artzallea,
iretzako andrea
alanbratzallea.

109
Nolako saltzallea,
alako erostun(e),
neskazarrak izan do
gustoko portune.

110
Brontzeko galtza eta
txaleko berdea,
galtzak ezin jaso ta
zertako do andrea.

111
Begiak beltzak-beltzak
izlari donoso,
motillak ezto bear
orren amoroso.

112
Atxurrak etxean da
kirtenak basoan;
ez daukezu arturik
andrea besoan.

113
Ezkontzen bazerade
mandazayarekin,
artu bearco dituzu
pastaburniarekin.

114
Ezkontzen bazerade
basagizonarekin,
artu bearco dituzu
aizkol kirtenarekin.

115
Nere gazte lagunak
egon animoso,
motillen burlakatik
ez penarik jaso.

116
Oraingo motillekin
gizon egiteko,
andreak bearco do
trabajue pranko.

117
Barka zarrean juan da
berrian etorri,
nere nobio zarraren
portuna da ori.

118
Itxasoan dijoa
nere nobioa,
oraindik gaztea da ta
nai bado, dijoa²⁴!

²³ Jatorrizkoan 'baiee'.

²⁴ *Bijoa* izan behar luke, guk uste, *dijoa* beharrean.

119

Aurten ezkontzen dana
urrengo urtean,
ezaun izango dala
lagunen artean.

120

Ardit bat izan ezta
txanpona gastatu,
oraingo motillakin
konpianzaik ez artu.

121

Gorputz eder galanta
kolorea piñe,
mirabe ederra nago
Jaungoikoak egiñe.

122

Larrosa dirudizu
kolore piñekin,
nork izango ote do
portuna zurekin?

123

Begi beltza donakin
begira-begira,
zure kolore piñak
nola ote dira?

124

Txuri-txuriak dira
ni beltz beltxe(r)ana,
nizaz kontentu dago
ni bear nauena.

125

Urrezko goizak eta
pañueloa seda,
señale klaroarekin
Juliana zera.

126

Agure zar-zar batek
bart gure amari,
mandatu egin dio
bear nauela ni.

127

Aitak ekarri dio
amari berrie,
ezkontzen omen dala
alaba Marie.

128

Ederra zera baño
ez zera larrosa,
kolore gorriakin
neskatx amorosa.

129

Ai motil musugorri
neska ederzale,
amaikak agindu die
aginduta kale.

130

Begiak beltzak-beltzak
aranak bezela,
engañatu²⁵ ninduzun
gaztea nintzala.

²⁵ Jatorrizkoan 'angañatu'.

131

Ay de mí, ay de mí,
bostak maite naue ni;
lau alperrik ibilli
batek bear nau ni.

132

Altuan Aranzazu,
bajuan Alaba,
nik ere saltzeko
dauket nere alaba.

133

Azpeitiko neskatzak
arrazoiarekin,
dantzatu nai dutela
txapel zuriarekin.

134

Badakit dituzuna
bat eta bi ere,
esperantza galdurik
ez nago ni ere.

135

Santa Isabel eguegune
uztearen bian,
pestak izaten die
Ataungo Ayian.

136

Bizkaiko neskaitillen
dote arreroa,
burrutzali zarkin bat
iru zulokoa.

137

Beltxe(r)ana naizena
zuk omen diozu,
ez naiz zuri ederra
egia diozu.

138

Beltxe(r)ana naizena
orain esateko,
lenago zan denbora
erreparatzeko.

139

Neska polit-polit bat
Donostian dago,
biar etorriko da
Jainkoak nai bado.

140

Jainkoak nai bado ta
dirurikan bado,
artoak utzi eta
ogie jango do.

141

Nere patrikaratik
josten ikasie,
badet penarik asko
zurekin asie.

142

Nere patrikadatik
erromedietan,
orduán ona ziñan
nere begietan.

143

Zuk esan omen dezu
ez dana badala,
erregearen al(a)ba
monja juan dala.

144

Ez da monja juango
ain gutxi segore,
edozein galayakin
ez ezkondu ere.

145

Indietatik dator
nere nobioa,
andik ekarriko dit
tersiopeloa.

146

Tersiopeloa ta
soñeko berrie,
ay nere biotzeko
konsolagarrie!

147

Bergarako²⁶ kalean
atean-atean,
neskatxik ederrena
erreal batean.

148

Neronek artuko det
erreal batean,
zapatak garbitzeko
ebie a(r)i danean.

149

Aurten urte ona da
txakolina merke,
neska motilzaleak
ezkondu nai luke.

150

Ezkondu nai luke ta
nun dute dotea?
Mantalaren azpian
zatoa²⁷ betea.

151

Ezkondu nai luke ta
arrerorik gabe,
nai duana egin bedi
neska zarran jabe.

152

Ezkondu nai luke ta
nun dauke dotea?
Nere aitak eta amak
emango lukea.

153

Naranjearen kisako
kolore oyekin,
aukeran emen zaude
ogei ta bos(t)ekin.

154

Aukerea daukenak
nekea berekin,
nork izango ote do
portuna zurekin.

155

Beltxa(ra)na graziosa
parerik gabea,
mundu guztiak dio
zerala nerea.

156

Munduak jakin eta
nik ez jakitea,
ondo egiten dezu
disimulatzea.

²⁶ Jatorrizkoan 'Vergarako kalean'.

²⁷ Jatorrizkoan 'Satoa betea'.

145.
Ezkondu nitzanean
Best gona nituan
Bi prenda jardun eta
Bi saldu nituan

146.
Soñean daukadan
Guztiz dauket zarra
Berrie egiteko
Esperanza txarra

147.
Neonek ikusi det
Koartoko leyoetik
Txapela gorrie ta
Neskatza besotik

148.
Parean pasatu ta
Kasorik ez egin
Neonek esan nñon
Adios Katalin

149.
Maria Erramunatxo
Txokolatea nai
Katalin galtzalleak

150.
Egramonatxo baño
Katalin ohea

Arekin pasatzeko
Bere demborea

151.
Aritu det galaya
Zuk esan dezula
Diruakatik baizik
Bear eznazula

152.
Diruakatik baizik
Bear ezpanazu
Zuaz indietara
Andik ekar zazu.

153.
Ateak egiten do
Uretan igari
Ona bada Josepa
Lotxatan erori

154.
Gaztearen burua
Ondo ariñe da
Baño burla egitea
Gaizki egiñe da

155.
Etxe txiki-txiki bat
Iale barrenean
Maitea ikusteko
Nai dean guztian

156.
Galtzak bai ta gizonik
Ezpada etxean
Bizimodu dago
Estadu motxean

157
Txikitxoak soñue jo ta
Potxolo danzatu
Eun ue ezgenduen
Gaiztoa pasatu

158.
Aizea otza dago
Baita illun ere
Juan ere nñke ta
Baita egon ere

159.
Eztarri txarra dauket
Memori plakoa
Isilik balego obe
Ni bezelakoa.

160.
Gazteak ez bazeate
Len danez kontentu
Nik egingo deana
Soñue mdatu.

161.
Alper-alperrik ai naiz
Ni emen kantatzen
Eskerrik asko ere
Eztet irabazten

162.
Despatxatzea noa
Asitako lana
Berdin ezta paltako
Emen zer esana.

163.
Nere gazte lagunak
Ibilli kontuan
Despatxatzea noa
Urrengo puntuan

164.
Lenengoa despatxatu ta
Bigarrena asi.
Ea bada gazteak
Fueletatzen asi.

165.
Nere gaate lagunak
Lagunak, lagunak
Eztira danzatzeko
gauak ta egunak

166.
Illun berea da ta
Guazen etxera
Beti emen eoteko
Etorrik ezkerera

167.
Etxe onek badauzka
Gañean suelo si
Ni aspertu naiz eta
Nai duana asi.

168
Oñatian badira
Tellegiñak asko
Nere gazte lagunak
Pandangorik asko

Juan de Arinen bi fitxaren argazkia. Dantza-koplak makinaz transkribiturik daude.

157

Para(nt)ziko erregiñak
eman do ordena,
txanponan salduzkeko
motillik onena.

158

Onak baldin badire
ez dire galesti,
txarrak izan ezkeru
probatuta utzi.

159

Aitona zirkun zarku
eun urtekoa,
i baño naigo nিকে
ogei urtekoa.

160

Ogei urtekoa ta
gazte floreakoa,
gazte floreakoa ta
nere gustokoa.

161

Iru erregal dire
ogeita bost lauko;
damatxo polit batek
agindu dit gaurko.

162

Gaurko badauket baño
palta det biarko,
izango baldin badet
sayatu bearko.

163

Artoa gutxi-gutxi
garirik izan ez,
aurten aspertuko da
andrea gizonez.

164

Artoak jan ditugu
sorotik ezetan,
ganbaran jarri gabe
saguaren kezketan.

165

Artoa gutxi eta
kalabaza jaki,
gu nola bizi geran
Jaungoikoak daki.

166

Begiak beltzak-beltzak
nere ai(n)gerue,
ez zazu damutuko
neri agindue.

167

Neri agindu eta
besteri prestatu,
aingerutxo onen bat
izango zera zu.

168

Ez da larrosarikan
aran(t)zarik gabe,
ez da amoriorikan
zelorikan gabe.

169

Zeloak ortik eta
zeloak emendik,
zeloak naramate
mundu onetatik.

170

Zeloak dauzkatena
ezagun dirade,
masallea seko eta
kolorea berde.

171
Orroko txar-txar ori
da nere senarra,
bost aldiz ekarri dit
begira negarra.

172
Begira negarra ta
soñe(r)a egurre,
lenagotikan ere
banuan bildurre.

173
Gaztea nintzanean
denbora batean,
ez nintzan sose(g)atu
ezkondu artean.

174
Ezkondu eta gero
urrengo goizean,
sotenak eman zitzaiz²⁸
oiaren aurrean.

175
Ezkondu ni(n)tzanean
bost gona nituan,
bi prenda jardun eta
bi saldu nituan.

176
Soñean daukadan(a)
gutziz dauket zarra,
berrie egiteko
esperantza txarra.

177
Ne(r)onek ikusi det
koartoko leyotik,
txapela gorrie ta
neskatxa besotik.

178
Parean pasatu ta
kasorik ez egin,
ne(r)onek esan nion:
–Adios, Katalin!

179
Maria Erramunatxo(k)
txokolatea nai,
Katalin saltzalleak
ez zion eman nai.

180
Erramunatxo baño
Katalin ohea,
arekin pasatzeko
bere denborea.

181
Aritu det galaya
zuk esan dezula,
diruakatik baizik
bear ez nazula.

182
Diruakatik baizik
bear ez banazu,
zuaz Indietara
andik ekar zazu.

²⁸ Jatorrizkoan 'zitzan' irakurtzen dut. Zer da *zitzan* ori? Nik uste *zizkidan* dela. Hark niri 'sotenak eman' zizkidan, ez da besterik *egurra eman zidan* baino. *Orotariko Euskal Hiztegia* *sotana* 'tunda, paliza', Nafarroako Arakilen esaten omen dena, baina berdin balio beharko du Ataungo euskararako.

183
Ateak²⁹ egiten do
uretan igari;
ona bada Josepa
Lotsatan³⁰ erori.

184
Gaztearen burua
ondo ariñe da,
baño burla egitea
gaizki egiñe da.

185
Etxe txiki-txiki bat
kale barrenean,
maitea ikusteko
nai de(d)an guztian.

186
Galtzak bai ta gizonik
ez bada etxean,
bizimodue dago
estadu motxean.

187
Txikitxoak soñue jo ta
Potxolo dantzatu,
e(g)un u(r)e ez genduen
gaiztoa pasatu.

188
Aizea otza dago
baita illun ere,
juan ere nuke ta
baita egon ere.

189
Eztarri txarra dauket
memori plakoa,
isilik balego obe
ni bezelakoa.

190
Gazteak ez baze(r)ate
len danez kontentu,
nik egingo de(d)ana
soñue mudatu.

191
Alper-alperrik a(r)i naiz
ni emen kantatzen,
eskerrik asko ere
ez det irabazten.

192
Despatxatzea noa
asitako lana,
berdin ez da faltako
emen zer esana.

193
Nere gazte lagunak
ibilli kontuan,
despatxatze(r)a noa
urrengo puntuan.

194
Lenengoa despatxatu ta
bigarrena asi,
ea bada gazteak
bueltatzen asi.

²⁹ Hemen, jakina, 'ahateak' ulertu behar da.

³⁰ Jatorrizkoan 'Lotxatan'.

195

Nere gazte lagunak,
lagunak, lagunak,
ez dira dan(t)zatzeko
gauak eta egunak.

196

Illunberea da ta
guazan etxera,
beti emen e(g)oteko
etorri ez gera.

197

Etxe onek badauzke
gañean suelo bi,
ni aspertu naiz eta
nai duana asi.

198

Oñatian badira
telligiñak asko,
nere gazte lagunak
pandangorik asko.

199

Aizeak dantzatzen do
mendian arbola;
nere gazte lagunak
soñurik asko da.

200

Naikoa det gaurko
banua etxera,
aite ta ama zarrak
kontsolatutzera.

VIII. EIBARKO KOPLADIA

Eibarko kopladiko atal hau osatzeko batez ere hiru iturri erabiliko ditugu. Eman ditzagun lehen biak: Juan San Martinen “Arraten sortzen da bizitza”¹ eta “Arrateko kantutegia”². Bigarren honetan gainerako kopladietan ere oso ezaguna den koplaren baten hiru aldaera dakartza. Hona agertzen dituen modu-moduan:

Eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian
neskarik ederrenak Zalbibar aldian.

Zozuak kantatzen dau Arrate baillian
neskarik ederrena Eibarko kalia.

Eperrak kantatzen dau Arrate partian
neskarik ederrena san Pedro aldian.

Kopla beraren hiru aldaera hauek trikiti-koplaren izatasuna ere adierazten dute: kopla bera izan daiteke batean eta bestean izen propioak bakarrik egokiturik. Kopla hauezaz gainera, Azkueren kantutegiko³ beste bost kopla hauek ere badatoz:

Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño
mutila merkeago, bai neskatxa baiño.

¹ *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1983, 849-866 or.

² *Homenaje a Odon de Apraiz = Odón Apraizi omenaldia*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, Consejo de Cultura = Arabako Foru Aldundia, Kultura Kontseilua, 1981, 335-352 or.

³ AZKUE, Resurrección María de. *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1990. I. libk., 199 kanta, 288 or.

Mutila nahi duenak beretzat erosi,
Arrateko zelaian txanponean zortzi.

Onak baldin badira, eztira garesti;
txarrak baldin badira, probatu ta utzi.

Lau, bost, sei, sardiña-makaillero;
sei, zazpi, ez gabiltza gaizki.

Bi artikulua hauezaz gainera, batez ere Mireia Otzerinjauregi eta Mikel Sangronizen *Eibar kantuz kantu*⁴ liburua erabili dugu. Liburu horretako dantza-koplak '107. Erromeria 1 (137 or.) eta '108. Erromeria 2 (138 or.) ataletatik hartuak dira. Lehenetik 1-30 bitarteko koplak guztiak. Bigarrenean, ostera, erdarazkoak ez ditut hartu. Gainerakoak beste kanta hauetatik: 'Alperrik' (158 or.) eta '120. A mutil kopetillun' (159 or.).

Koplak hona aldatzeko orduan nola jokatu? Koplak bi lerrotan agertzen dira liburuan, atal honetako sarreran jarri ditugunak bezalaxe. Guk, liburua ireki ostean jarraiki, lau bertso-lerrotan jarri ditugu. Ortografiari buruzko zalantza bat baino gehiago ere izan ditugu. Hona beste gabe koplak:

1
Eperrak kantatzen dau
Arrate gaiñian,
neskarik ederrena
Eibarko kalia.

2
Arrateko pikuak
iru txorten dittu,
Eibarko armeruak
ugarrak jan dittu.

3
Eibarko neskatillak
titi biribillak,
andik beratxuago
saiatu mutillak.

4
Eibarko armeruak
txepetxan ankokin,
Mallabin gora doiaz
Bizkaiko neskekin.

5
Eibarko neskatillak
pantorri la motzak,
pixkat goratxuago
gaztaña-lokotzak.

6
Azak eta porruak
lengusuak dira,
Eibarko armeruak
zelosuak dira.

⁴ Eibar: Eibarko Udala, 2001.

7

Eibarko neskatiñlak
elizara sarri,
elizatik urtenda
mutilleri zirri.

8

Eibarko armeruak
bigote zarrakin,
Isasin gora doiaz
Bizkaiko neskekin.

9

Ederra zara baiña
ez zara larrosa,
kolore gorri-zuri
mundu engañosa.

10

Tiriki-tiki-tauki
mailluaren otsa,
noiz ezkonduko ete da
gure neska motza?

11

Amak eman balestaz
amar amaseiko,
ezkonduko nitzala
udaberrirako.

12

Urruku-tuku-tuku
ez neri ikutu,
aita ganbaran da ta
sentiduko gaitu.

13

Aita ganbaran eta
ama sukaldian,
gure neska-mutillak
eskillarapian.

14

Bide labana dago
goiko ganbarara,
galdaran sartu jata
neska barragana.

15

Oraingo neskatiñlek
zer dute merezi:
errekan jabonduta
lixiban egosi.

16

Gaztiak entzun dezu
beste horrenbeste?
Elgetako kuriak
zazpi neska bere⁵.

17

Aita san Antonio
Urkiolakua,
amaika basarritar
engañautakua.

18

Arrateko pikuak
amar orri dittu,
Eibarko neskazarrak
ugarrak jangoittu.

⁵ Bigarren modu batera ere izan daitezke: 'Elgetako kuriak zazpi neska bete'. Bigarren honek hoskidetasun handiago izango luke.

19

Maria Manuela
Buztingorrikua,
amaika buztan gogor
bigundutakua.

20

Ventanas a la calle
son peligrosas,
porque la madre tiene
hijas hermosas.

21

Neuk ikusittakua
neure begixekin,
astua kazuelan
belarri bixekin.

22

Gora begiratu ta
laiñoak agiri,
aurreko mutill orrek
tontua dirudi.

23

Bederatzi andrazkok
egin dabe juntia,
zelan obeto sartu
txirtxillan puntia.

24

Gaztiak esan zebeñ
olioz untauta,
atso zaarrak⁶, berriz,
gogor bultzatuta.

25

Bergararik arutz joanda
Antzuola partian,
gaztañak jan nittuan
baserri batian.

26

Esango nuke baiña
esateko lotsa,
mekaguen la puñeta,
au da neska motza!

27

Kamisa zaarrak dauka
aurrian zulua,
andik ikusten jako
bere mozolua.

28

Amar neska-mutillek
egin dabe juntia,
zeiñek leenago sartu
pitilin puntia.

29

Gabian parrandan da
goizian logura,
ez zara oingo gaztiak
osasunan gura.

30

Kuarto erdi eduki ez,
lau kuarto gastatu,
gizon andrazalia
nekez aberastu.

⁶ Jatorrizkoan 'zaharrek'.

31

Au da pandero barrixa,
Bilbotikan ekarrixa,
bost errial pagatu ta
erdia urregorrixa.

32

Lora bat ikusi neban
erreka baten erdixan,
axe artzera joan eta
uretara jausi nitzan.

33

Nekatillatxo zer dezu?
Kolare zuria dezu,
koloria gorritzeko
metalura eran bear dezu.

34

Begira nago begira
goiko kamiño berrira,
noiz etorriko ete dan
neure maitia errira.

35

Txikitxua zera baiña,
bazera geiago aziko,
azitzen ez bazera be
ez deusudala utziko.

36

Zure amak esanda entzun det
ez zaudela neuretako,
eskerrak milla mesede
ezta neu be zeuretako.

37

Ederregia zera zu,
soluan biarrerako,
artzu kaballerua
kalian pasiorako.

38

Larrosatxuak⁷ bost orri,
klabeliñiak amabi,
lagun ona topatzeko
beti-beti onera etorri.

39

Neure nobixuan ama
asto baten jabe dana,
aretxek ekarrikosku
etxian falta dan dana.

40

Alperrik izango dira
etxian asarre
ez nabe mudatuko
iltzen ez banabe.

41

Il eginda gero be
arkitzen banabe,
lengo itzetan firme
billatuko nabe.

42

A mutil kopetillun,
begiak logure,
baietz uste dok baiña
ez nok ire gure.

⁷ 'Errosatxuak' dator jatorrizkoan.

43

Oraingo mutil zarrak
zer dute merezi?
Errekan beratuta,
lixiban egosi.

44

Oraingo mutil zarrak
dute fantasie!
soñian gerrikoa
bestek erosie.

IX. EREÑOKO KOPLADIA

Dantza kopla hauek Abel Muniategik bilduak dira Ereñon, Bizkaian. Bilduma hau lan polit batean argitara zen: “Bertsogintza Bizkaian (koplatik bertсора)”¹. Gure liburu honetako irizpideei jarraiki, artikuluko ortografia aldatu egin dugu apurren bat. Kendu egin ditugu hatxeak, baina gainerako puntuazio markak dauden daudean utzi ditugu. Esan dezagun, bestalde, Abel Muniategiren artikulua zehaztasun ugari dakartzala koplaren gainean. Badakartza, besteak beste, gure liburu-atal batean ikusi ditugun Antonio Goitiaren zehaztasunak ere.

Sorta honetan, gainerakoan, beste sorta askotan bezalaxe, kopla ezagunak ezezagunekin nahaste ikusten ditugu. Hona ale polit bat: 16-*Amar amaseiko ta /oie ta kaixie/ Maiazkunien dago/ neskatil gaztie*. Askotan bezalaxe, Ereño ingurukoentzat ulergarria den kopla izango da hau. Maizkune hango etxe edo baserri baten izena izango da, seguru asko. Dantza koplan neska baten dotea aipatzen da dirutan eta altzaritan. Diruak zaharrak dira, bestetan ere agertzen diren hamar hamaseikokak edo urrezko dobloiak.

Sailtxo honetako 6, 7, 8 zenbakidun koplak lo-kanta eta are ume-kantatzat ere erabiltzen dira. Familia bakoitzak koplak pertsonalizatu egiten ditu etxeke umeen izenak jarriz. Sorta honetan izen berriak ikusten ditugu: Eider, Igor eta Anertze. Hamalagarren koplak Nabarnizen morokila merke dagoela dio. Zer esan nahi du? Markinaldeko edadetuei behin baino gehiagotan entzun diet Nabarniz *morokil-errixe* dala. Garai bateko jateko ohituraren bat adierazten ote du?

¹ MUNIATEGI, Abel. *Bertsogintza Bizkaian (koplatik bertсора)*. Bilbao: Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. 1995, 8-10. or.

1

Pepatxuk esan eustan
niri gau batian:
–Ezkondu biar dogu
Jaunaren legian.

2

Ortik emendik, Zamudiotik
dago Bilbora bidie.
Barren Kalien agure batek
saltzeko ei dauka andrie.

3

Santiago-Santanetan
Ispazterko tabernetan,
ez da mutillik faltako
gabeko amabietan.

4

Artajorrara noa
lubarri barrira:
bedarra jorratu ta
artua sasira.

5

Igetargi zuritan
Igeko kalien:
–Esaidazu Maritxu
nun bizi zarien.

6

Amaren txitatxuak
ia dira azi,
nire nobiotxuak
jun dira igesi.

7

Eidertxu doianean
Bilbora plantxera,
andik ekarriko dau
dotia etxera.

8

Eidertxu doianean
Bilbora trenien
Anertzek urtengotso
automobillien.

9

Igorrek atrapau dau
sasian zozue,
Eiderrek prestau dautso
saltsatxu gozue.

10

Gorengo kamarara
bidie labana,
galdarara sartu jat
mutil barrabana!

11

Oraingo mutiltxuak
zer dabe merezi:
errekan beratu ta
leixiban egosi!

12

Altu altuan dago
san Juan Foruko,
ez dala mutil zarrik
zeruan sartuko.

13

Badakit zagozana
kortiña artian,
neure koplak entzuten
kamixa utsian.

14

Errementari baino
oba da zesteru,
lepo bete palogaz
kolko bete diru.

15

Nabarnizen ei dago
morokilla merke,
txakur txiki bategaz
topiñie bete.

16

Taluak erretako
ona da palie.
Maria Errotakok
alaba parie.

17

Amar amaseiko ta
oie ta kaixie,
Maiazkunien dago
neskatil gaztie.

18

Mariquita Pelona
Bilbora bidien,
Un cuartillo de vino
arnasa batian.

19

Matsak orria zabal
Begoña ganien
neu bere angoxie,
bai, zorionien.

X. GALDAKAOKO KOPLADIA

Galdakaon argitaratzen zen *Lapiko* aldizkariak bazuen aho literaturaren gaineko sail polit bat. Sail horretan balada puska eta bertso jarriekin nahaste, dantza-kopla zaharrak ere argitaratzen ziren “Bertso zaharrak” izenburupean. Atal honetan, bestalde, kopla ezagunekin batera beste inon nekez aurki daitezkeen ale txanbelinak ere ikusi ditugu. Guk, bestetan bezalaxe, dantza-kopla guztiak —nahiz ezagun nahiz ezezagun— ekarriko ditugu atal honetara.

Aipatu delako *Lapiko* aldizkaritik hona aldatu ditugun lehen hamalau koplak orrialde berean daude¹. Lehen hamalau koplak “Bertso zaharrak” izenburua duen zutabetik hartu ditugu. Lehen bertsoa, ordea, ez dugu gure erreskadara ekarri. Bertso hau jatorrian honelaxe dator: *Perritxikotan nenbilanian/ dama gazte bat topa nun/ elorri baten ondoan./ Gaztea nintzan, zoroa nintzan/ para ninduken ondoan/ amantaltsue zabaldu eta/ (a)rtu ninduen altsoan*. Zutabe horretako koplak, bizkai euskarako fonetismoak errespetatuz, ahalik eta fidelen transkribatzen ahalegindu gara. Ortografiaren aldetik, jatorrizko testuko -tsu ttikigarri guztiak Bizkaiko tradizioz zaharrenak agintzen duen arrastora ekarri ditugu: -txu delakora.

Esan dezagun, bigarrenik, 15-18 koplak aldizkari bereko bigarren alekoak direla². Hirugarren sortatxoa 19-26 zenbakia duten koplek osatzen dute³. Iturrian oraingoan ere “Bertso zaharrak” izenburupean agertzen dira. Lekukoaren edo berriemailearen izena eta biltze-data ere badatoz: Regina Zuazo, 1980ko abuztuaren 4. Egin ditugun bi aldaketarik inportanteenak, 25. koplari *lagun bedi Jangoikoak*

¹ “Bertso zaharrak” in *Lapiko*. 1 zenb. (1979), 16 or.

² “Bertso zaharrak” in *Lapiko*. 2 zenb. (1979), 29 or.

³ “Bertso zaharrak” in *Lapiko*. 6 zenb. (1980), 5. or.

delakoari ergatibo marka zaindurik *bedi* laguntzailea *begi* egin dugu⁴. 26. koplak *bada-lore* delakoa ulertu ezinik, zentzua duen *babalore* bihurtu dugu.

Azken erreskadatxo honetan, 19-26 bitartekoan, 19-20-24 koplak lo-kanta ezagunak dira. Lo-kanta bezala behin eta berriro dokumentatuak egon arren, ez du esan nahi berez eta jatorrian dantza-kopla izan ez zirenik. 21. kopla, azkenik, eske-kopla da bete-betean, edo antzekotasun handiegia du etxeko damaren nota edo goraippurekin.

1
Astotxu bat baneuko
buzten zuriegaz,
Ermuera joateko
gona gorriegaz.

2
Amantal zuritxue
garrien polite,
zu lango damatxurik
ez dago errien.

3
Txapel azulek eta
barradunek⁵ frakak,
Arratien dauzela
mutilak galantak.

4
Asto zaar mokiltsu⁶
zuk orrenbeste dakizu,
ostera bere nigaz juntatzen bazara,
ez dozu mezarik entzungo⁷.

5
Gorengo kamarara
bidea labana,
galdaran sartu jaku⁸
mutil barrabana.

6
Gabean farrandan ta
goizean logure,
ez zara zu, maitia,
osasunen gure.

7
Erreka bazterreko
lirio lorea.
Ez naz ederra baña
bai ederzalea.

8
Matusalen baño
zarrago da beie,
trabes ipini doste
geur neure begie.

⁴ *Jangoikoak lagun begi* ulertu dugu, gaurko euskara estandarrean *Jangoikoak lagun beza*. Beste modu batera ere uler daiteke *Jangoikoa lagun (izan) bedi*, baina bigarren hau nekezagoa delakoan lehenari hobetsi diogu.

⁵ Hemen *barradunek frakak* da normalagoa. Jatorrizkoan: 'barraduen frakak'.

⁶ Kopla ezaguna batez ere Nafarroan. Berez *Asto zaar mukizu* da...

⁷ *Mezarik entzungo ez dozu* hoskidetasunerako.

⁸ Jatorrizkoan 'jakuz' dator.

9

Askan eukigaitik
neiko janarie,
atzeko ostikoa
deko dantzarie.

10

Or dago bei zarrori
lotuta⁹ serio,
esnerik bere berriz
apenas dario.

11

Banoa ni, banoa ni
ontzi berrire soldadu,
ez dot joan gure baña
eroango neurie seguru.

12

Begira nago begire
kamino bide berrire,
noz etorriko ete dan
neure laztana errire.

13

Negar ta negar dago
Errosa gurea,
katuak jan dotsela
surteko taloa.

14

Ez egizu Errosa
katuak tragadu,
sagua koiuteko
katua bear du¹⁰.

15

Adios esan arren
lagunen aurrean,
ez zaitut desanpareu
neure biotzean.

16

Andra Mari basoko
bedarran goxoa,
Goikoetxeko irien
an dago basoa.

17

Goizean eroan
gabean ekarri,
Goikoetxeko mutilak
an tabernan sarri.

18

Txokolate fiñeri
arpei argie,
oitik jaikiteko
eperdi nagie.

19

Txikitxu politori
lurraren gañean,
askoren zoragarri
zu jaio ziñanean.

20

Txikitxu polit majoa
jauna ni Markiñekoa,
lau ziri baiño naiago nuke
baziñe neure errikoa.

⁹ Nola ote da *lotuta* edo *lotura*? Gu lehenaren aldekoak gara.

¹⁰ *Katua bear dogu* da, baina silaba bat gutxiago jarririk *dogu* adizkia *du* bihurtzen da.

21

Errekan dago arrie,
aren gañean txorie.
Neskato koloregorri
mutillen engañagarrie.

22

Itsasoan ure lodi,
ez da ondarrik agiri.
Nire laztana ikustearren
pasako ninteke andik.

23

Itsasoan doienean
ontzia kristalezkoa.
Zerbatek esango ote de
Birgiña Begoñekoa.

24

Logure naz ta lo egingo neuke,
baneuko oirako lagune.
Badekot oirako lagune baña
agure lepomakurre.

25

Maritxu Kareakoa
arpei politekoa.
Ez bazagoz niretzako,
lagun begi Jangoikoak.

26

Madariun salada
zeu bere jakitun zara,
babalore eder orrek
urten egizu plazara.

XI. GERNIKAKO KOPLADIA

Gernikako kopladiari ekingo diogu oraingo atal honetan. Guk hona ekarri ditugun zortzi kopla sail hauetako lehen hirurak Gernika ingurukoak dira argi bezain garbi. Gainerakoen berri zehatzik ez dugu. Guk Gernika ingurukoak direlakoan sartu ditugu sail honetan. Hona zehaztasunak. 1-12 zenbakidunak *Txindor-kumiak* bilduak; 13-24 Muxikako ezizena darabilen batek bilduak Kortezubitik; 25-29 aleak *Larraganek* bidaliak; 30-49 aleak *L'tar K.* delako batek bilduak; 50-57 aleak Miren Edurne Zalduak bilduak (nondik?); 58-59 *Arripe* batek bidaliak; 60-68 aleak *Baserritar batek* bilduak; 69-79 zenbakiak inolako zertzelada gabekoak dira; eta azkenik, 80-94 aleak Victoria Zorrozueta Basterretxeri 1990 inguruan bilduak dira, kopla hauek *Ahozko literatura genero txikiak* liburuan¹ publikatu nituen.

Miren Edurne Zalduaren sailtxo honetan lehen bost koplen buruan “Abestituak” izenburua dator, eta gainerako hiru koplen gainean “Lo-abestija”. Guk, lo-abestiak ez ezik dantza-koplak direla ere uste dugunez, hona aldatu ditugu. Miren Edurneren lo-kopla bat, osterara, ez dugu hona aldatu. Hona hemen: *Logura naz eta lo eingo neuke/ argi-oillarrak jo dabe/ argi-oillarrak jo ezketiok/ ogera juan leitteke*. Badago besterik ere. Lauaxetak zazpi koplako sail honetako azken biei ohartxo hau egin zien:

Uarra. Azkenengo abestitxu au polit-politta dozu. Olako asko batu biar doguz. ¿Lagunduko dauskuzu, ezta? Aberrijaren onerako dira-ta. Erriko atsuakin ibilli igande arratsetan, ¿bai?, eta asko ikasiko duzuz abesti txukunak. Lauaxeta.

¹ KALZAKORTA, Jabier. “Sehaska kantak” in *Ahozko literatura: genero txikiak*. Bilbao: Labayru Ikastegia, 1991, 83-118 or.

Azken bi kopla hauek elkarrekin idazten ditu biltzaileak eta hauek goraiatzten ditu gure Lauaxetak. Edertasunari dagokionez, ez dira ederragoak azken biak baino bi aurrekoagoak?: *Tiriki tauki-tauki/ zeu nere laztana,/ katiatu ninduzun/ librea nintzana./ Libreak libre dira/ zu ta ni katigu./ Orrexek eraitten daust/ sarritan zizpuru.* Bi kopla hauek gure herri lirikaren erakusgarririk onenetakoa osatzen dutelakoan nago.

Bigarren sailean, *Arripek* bildutakoan, honelaxe dio biltzaileak:

Oneik ba-daukoe euren eresi edo soñutxu txukuna be. Sarri entzun dodaz jolasetan, gaur aldendu dabezen-arren.

Ohar honi honela erantzuten dio Lauaxetak:

Balijo daben, ittaunduten daustazu, *Arripe*. Neure ustez gauza gustijak balijo dabe. Gero emen argittalduten diranakaz, idaztiño txukun bat egingo dogu. Zayatu zadixe, ba, asko billatzen. Lauaxeta.

Gernikako kopladiko lehen biltzaileak *Txindor-kumia* izengoitia darabil. Nor ote da? Kepa Enbeita *Urretxindorra* bertsolari handiaren alaba dela uste dugu. *Txindor-kumiak* bilduak lehen hamar koplak dira. Non bilduak diren ere badakigu, Foruan bildu direla baitio. Lauaxetak bilduma polit horren azpian ohar hau jarri zion: *Dantza-abesti polittak batu dozuz.* Lehen bilduma honek baditu leku eta pertsonen testigantza zuzenak ere. Lekuak Gernika bera eta ingurukoak dira: Mendata, Nabarniz, Lumo, Oiz, Busturia. Pertsona-izenak garai hartan ezagun-ezagunak izango ziren: Maritxu Torrekoa, Txomintxu... Badira ezkutuko erreferentziak ere, guk uste. Busturiko miruak usoen hanka hotsa laster susmatzen duela dio. Egin dezagun azken ohar bat hizkuntzazkoa. Ohitura adierazteko Bizkaiko aditz laguntzaile zaharra darabil, eroan aditza, hain zuzen.

Azken bildumatxoaz, 68-78 zenbakiekin adieraziaz, ez biltzailearen ez bildulekuaren inolako zehaztasunik ez dugu. Gernikako gure sail honetan sartu dugu *panderoa* Gernikan eresia esaten delako batetik, eta Nabarniz-Amoroto herri-izenak ekartzen dituelako, bestetik.

Ixilik izenordea darabilen biltzaile batek *Euzkadiko* "Euzko-Erri-Jakintza" sailean egindako bilketan, 1932ko urriaren 15ean, kanta ezagunetatik gainera (dantza-)kopla izan daitezkeen bi bakarrik daude. Gure bilduma honetan 11 eta 12 zenbaki-dunak dira. Goazen besterik gabe gure sailetara:

*Dantza abesti zarrak (Forua'n batuta)*²

1

Oraingo neskatillen
dote arrigua,
burruntzalitxu zar bat
iru zullokua.³

2

Mendata baño gorau
mendi-etxe baten,
amalau neskatilla
morokilla jaten.

3

Maritxu Torrekuak
dirautso amari:
-Txomintxu auzokua
gustatzen yat niri.

4

Ama, buruban min dot
ez esan aittari,
gaubeko errondiak...
ondo galdu nau ni!

5

Nabarnizen ei dago
morokilla merke:
txakur txiki batattik⁴
galdara bat bete.

6

Ezkonduten bazara
Luno aldekuakin,
ibilli biarkozu⁵
pitxer-murkuakin.

7

Ango pitxer-murkoko
esnien gozua,
arek engañetan yok
Gernika osua.

8

Oizen kanpaia da ta
Oizera nua ni;
nogaz ibilli nazan
ez esan amari.

9

Busturiko miruek
pikue zorrotza,
arin susmau darua
usoen ainka otsa.

10

Pañelo zuri-gorri
erretratuzkoak,
Juanpetxuk Andresari
erregalatuak.

² *Txindor-kumia*. *Euzkadi*. 6.185 zenb. (1932-10-02), 6. or.

³ 'Zulokua' irakurtzen dut / hizkiaren gainean tildetxo bat duela *zullokoa?* Bizkaiko euskeran *zillo* normala da, eta ez bakarrik konposizioan *sudurzillo* edo *surzillo*.

⁴ Hemen laburdura garbia dago. Hitz osoa *bategaitik* izango litzateke.

⁵ Laburdura garbia *biharko dozu* izango litzateke osorik.

11

Goizean goiz aldera
arrantzalia kaiera,
al dan bezela eguna
itxasuan pasatzera.

12

Maitia, tristia,
zu zera, neria,
orain zuria naiz-eta
kontsola zaitia.

*Dantza abesti zarrak*⁶

13

Oka pagoetan dagoz⁷
dama gaztetxu bi,
bata da Monttontxu ta
bestia Ana Mari.

17

Saski aundija eta
ugazaba solo⁸,
Kristiñen arrigua
gertaturik dago.

14

Postura eingo neuskijo
gura dabenari,
batak ur egon baietz
Txakil Errotari.

18

Iñaki Motrokillo
dendari karua,
kapela zabalian
zintta moradua.

15

Iru pezeta dira
irutxu bat lauko;
ameak alabea
salduteko dauko.

19

Katalin tiruri-taran,
Kataliñ ariña,
zenbaten saltzen dozu
dozena sardiña?

16

Urkiolako benterubari
larogeigarren urtian,
zaldarrak urten egin ei dautsa
orkatillako zanian.

20

Neu bere jostuna naz,
zeu bere arotza;
nik zeugaz ezkondu nai,
ta zu, barriz, lotsa.

⁶ *Muxikako. Euzkadi.* 6.205zenb. (1932-10-26), 8. or.

⁷ Jatorrizkoan agertzen den adizkia 'dauz' da.

⁸ Halaxe irakurtzen dut. Zer esan nahi ote du?

21

Anton urriti⁹ dozu
lora ta pitxija,
Maripa Barrentzekok
gurezda itxija.

22

Pañelo erretorta
zintta moradua,
Andonak Maripari
erregalatua.

23

Ama zeuriak diño;
“Adela, Adela”:
datorren illian ni
ezkontzen nazala.

24

Nire nobijuaren
izenak¹⁰ dezente;
Antonio, Jeronimo
Pascual, Vicente.

*Kortezubi'tik*¹¹

25

Etorri porakello
ardura bagarik,
iru alaba daukoz
ezkondu gurarik.

26

Laugarrena semia
prakatxu zarrakin,
konejua dirudi
bere bixerrakin.

26

Taluak erretako
ona da palia,
Manuel auzokuak
alaba paria.

27

Ai zer mutiltxu ona
Martintxu guria,
prakatxu zarrak eta
bera deungia.

28

A mutillaren palu
polañia falta,
amak topau dautso, ba,
arratoyak janda.

29

Ez dakit nik zer egin
agure burubagaz;
Martola ta semia
tximiñotan duaz¹².

⁹ Halaxe irakurtzen dut. Zer esan nahi ote du? *Urruti*?

¹⁰ Jatorrizkoan 'ixenak'.

¹¹ *Larragane*. “Kortezubi'tik” in *Euzkadi*. 6.207 zenb. (1932-11-08), 8. or.

¹² Zehaztasun hau dago koplen ondoren: “Umetan sarri entzun gebazan bertso oneik. Geure attita zarra zanak amaikatxu bidar abestu euskuzan”.

*Iutz-neurtu zarrak*¹³

30

Urkiola ganeko
axiaren otza,
antxe topau genduban
praille burumotza.

31

Durangon bazkalduta
Mañarian gora,
zoztorra sartu yakun
eperdijan gora.

32

Atsua ta aguria
asarratu dira,
atso demoniñuak
praketatik tira.

33

Atsua zalakuan
astuan ankia:
–Geldi, geldi, Maritxu,
eingogu bakia.

34

Igetargijak argi
Igeko¹⁴ kalia,
esaidazu maittia
nun bizi zarian.

35

Kalian gora-bera
serijo-serijo,
txordidren puntetatik
zorrija darijo.

36

Pentsamentuban dago
san Pedro Foruko,
ez dala mutil zarrik
zeruban sartuko.

37

Abadiari eruan
erregalu murtzilla,
ezpanak koipeztuta
a dabil mutilla.

38

Agure zarrak ditu
iru elementu:
eztula ta gorrua
eta uzkerak pranku.

39

Agure zurku-murku
pipe artzalia,
txingerrak erre dautso
surraren puntia.

40

Dantzan, dantzan don Peru,
Peru ta Marije ezkondu.
Peru ta Marijen eztegubetan
arto berua jan dogu.

41

Neuk ikusi nituban
san Jaun gabea,
Txomin eta Bartolo
tabernako atian.

¹³ *L'tar K.* "Itz-neurtu zarrak" in *Euzkadi*. 6.207 zenb. (1932-11-08), 8. or.

¹⁴ Halaxe irakurtzen dut.

42

Ormia zalakuan
batak bestiari
txixe egitten eutsen
praketan alkarri.

43

Ama zeuriak neuri
bidian topauta,
ez daust agurrik egin
bestera bueltauta.

44

Ama zeuriak neuri
agur ez egiteko,
ze palazijo dauko
zeuri emoteko.

45

Palazijo eder bat
atxaren ganian,
ez yako euririk sartzen
aterri danian.

46

Din don kanpaya,
Nor il da?
Peru zapatarija.
-Zer egin dau pekatu?
Auzoko txakurra urketu.

47

Urketu nai urketu
ori ezta pekatu.
Barikuban koipetsu
orixe da pekatu.

48

Gure astotxubak
jaurti ebanian ostiko,
apurtu zituban
eunda berrogeta bost lapiko.

49

Lapikerubak
ekarri eutson jueza,
areri bere erakutsi eutson
atzeko putzetsa¹⁵.

*Euzko-erri-jakintza (Abestixubak)*¹⁶

50

Tiriki tauki-tauki
ez nire ikutu:
ama ganbaran dago
sentiduko gaittu.

51

Ezkontzen zariela
daukozu famia,
aspaldijan daukozu
olako gania.

¹⁵ Biltzaileak, L'tar K. batez izenpetzen duenak, ohartxo hau egiten du: "Ama zeuriak neuri" deritxon bertsua, Lekeition musika polittagaz sarri entzun dot.

¹⁶ ZALDUA, Miren Edurne. *Euzkadi*. 6.126 zenb. (1932-08-13), 6. or.

52

Tiriki tauki-tauki
malluaren otsa,
noz ezkonduko ete da
gure neska motza?

53

Eder ederra baño
oba da komuna,
ederrak kendu leio
buruko zentzuna.

54

Tiriki tauki-tauki
zeu nere laztana,
katiatu ninduzun
librea nintzana.

55

Libriak libre dira,
zu ta ni katigu.
Orrexek eraitten daust
sarrittan sispuru.

56

Attita ta amama
basora juañ dira
azkoria galduta
asarratu dira.

57

Amamak aittitari
belarrittik tira,
Aittittak amamari
kopetetik tira
alkarrenak dira-eta
konponduko dira.

*Abestijak*¹⁷

58

Antziñan esan nion
nik zeure amari,
gorde zaitzala zu neretzako
prenda eder ori.

59

Begiak parrez-parrez
biotza negarrez,
zugaitik nago maite-polita
sufritzen dolorez.

*Yantza-abestiak Euzko Gaztediei*¹⁸

60

Undurran neskatillerik ez
Ipiñaburun baperez.
Altzuan badaoz bage
Undurrarako bat baño ez.

61

Nere laztana,
zer dozu negarrez?
Aitek tabernarako
dirurik emon ez.

¹⁷ *Arripe. Euzkadi.* 6.126 zenb. (1932-08-13), 6. or.

¹⁸ *Baserritar bat.* "Yantza-abestia-k" in *Euzkadi.* 5.775 zenb. (1931-06-17), 8. or.

62
Agur tabernerea
urrengo artean,
argia egidazu
kanpora artian.

63
Pipia mosuen da
basue eskuen,
etxerako akordurik
etzuekek orduen.

64
Mutil ankaluze
pipe artzallea,
txingarrak erre deutso
surraren puntia,
Ujala¹⁹ erre balutso
beste enpadu guztia!

65
Atsoari kendu yeutsat
Ulle kopetea

saldute edan deigun
aguardientea
Buru motz dabilela
atso tronpetea.

66
Arrabako landea
balego Gorbeien,
antxe egingo geunke
zirikitu zairen.

67
Goiok arinek eta
beok arinego,
soloan artayorran
zeinek arinago.

68
Astelen-martitzenak
egunik onenak,
oian pasetan ditu
Pepa Tuorenak.

*Dantza-abestiak*²⁰

69
Dringilin drangulun, Mariñe²¹,
beti onelan bagiñe,
beti onelan izaterako
gure errentan ariñe.

70
Pandero zulodune
kaskabel bagie,
Igeko plazan dago
zu baño obie.

¹⁹ Jatorrizkoan 'Ujaba errebalutso/ beste enpadu gustia'.

²⁰ "Yantza-abestia-k" in *Euzkadi*. 5.780 zenb. (1931-06-23), 5. or.

²¹ Jatorrizkoan 'Marine' irakurtzen dut. Azpian, ordea, 'ariñe' datorrenez gero, aldatu egin dugu.

71

Au da pandero barrie
Gernikatik ekarrie,
amar errial pagetako
ez dala urre gorrie.

72

Tiriki tauki tauki
taukietan ere,
zu langorik ez dago
Indietan bere.

73

Indiak irabazten
errezak ez dire,
zure begi ederrak
gatxaguak dire.

74

Nabarniz, Amoroto,
Santa Eufemia mendi,
aretan iruretan
aize otza sarri.

75

Atsue ta agurie
asarratu dire,
alkarrenak dire ta
a(d)iski(de)tuko dire.

76

Pentsamentuen dago
san Pedro Foruko,
ez dala mutil zarrik
zeruen sartuko.

77

Durengon bazkaldute
Mañerien gora,
zoztorra sartu yako
eperdien gora.

78

Matxalen Busturiko
amari negarrez,
amantal barri barik
ezkonduko danez.

79

Ez egin Matxalentxu
amari negarrik,
ez zara geldituko
amantal bagerik.

Victoria Zorrozuia Basterretxerenak

80

Mutiko txanbeliñek
ezkonduten dire,
San Migel inguruen
agerturen dire.

81

Bizerra luzetute
musturre zorroztu,
andriek bartzunegaz
bietzak apurtu.

82

Santixago paseute
Santana geubien,
mutil bi egon ziren
bentana batien.

83

Barrura sartu ziren
zigarro erretan,
amoma topau eben
taloak erretan.

84

Txirrikitin soñuen
yantzan ein genduen,
Bermioko portuen
mundakarren usuen.

85

Txirrikitin soñuen
yantzan egiteko,
zapatatxu zurixek
egiñ uderako.

86

Tiriki-tauki tauki
talkixetan bere,
ez dago olakorik
Indixetan bere.

87

Indixek irebazten
errezak ez dire,
zure begi ederrok
gatxagoak dire.

88

Bilbo baño (i)onago
dauen erri baten,
neska txiki bat dago
etxe andi baten.

89

Txikerra izetiak
deko bentajie,
lau kanasta miñagaz
eitteko gonie.

90

Maitetxo biotzekoa
trebola maiatzekoa,
niretzako yayo ez baziñen
serbidu eizu Jaungoikoa.

91

Tretatxo Larrauriko
landako semia,
Bizkaiko lapur danen
gobernadorie.

92

Tretatxo Goikosolon
pipie artzie,
inpernu ta txakurre
Tretaren atzien.

93

Tretatxuk esan ei deu
Begoñe ganien,
ez dauela koxuko
Bizkaiko lurrien (?).

94

Neure maitetxo or dago
gau da ta negarrez dago,
bere negarra gozoago da
askoren barrie baño.

XII. IRUNGO KOPLADIA

Irungo kopladia deitu dugun sailtxo honetako koplak Nikolas Alzola Gerediagak bilduak dira. Nikolas Alzola, edo erlijio izenez Aita Balentin Berriotxo, Izurtza herrikoa zen semez —Izurtza Durangotik Urkiolara bidean dagoen herri txikitxo bat da—, eta, Irunera joan zenean, *El Bidasoa* aldizkarian “Literatura oral euskérica de la comarca bidasotarra” sail polita zabaldu zuen.

El Bidasoa aldizkaria inongo bibliotekatan osorik aurkitzen ez nuenez gero, aldizkari-zuzendari izanaren alabarengana jo nuen. Ondo gogoan dut, gainera, *Amabost egun Urgainen* nobela idatzi zuen Loidi zenak jarri ninduela *El Bidasoa* aldizkariko zuzendariaren alabarekin hartu-emanetan. Irunen bi goizetan apuntatu nituen aldizkariko folklore ale guztietatik hogeita bi koplak hauek trikiti-koplen sailean sartuko nituzke. Baliteke ahapaldi bat edo beste ez izatea, baina trikiti-koplen espiritu edo estiloa duten aleak hemen sartzen ahalengindu naiz.

Nikolas Alzolak lehen bi koplei “Aita san Antoniyo’re n bertsua”¹ izena jarri zien. Hirugarren koplantik zazpigarrenerainokoa “Izena itxusiya dun neska zar izena”² eta ohartxo bat du: “neskalagunak edadekuak kantatzen gendun gaztiak giñanian”; zortzigarren eta bederatzigarren koplak “Aurten gure erriyan” izenburua du³; hamargarren koplantik hamabigarrenerainokoak “Karlistada denborako bertsuak” du izenburua⁴ eta zehaztasuna: “recogido a S.R.A. de Irun (Ventas) lo cantaban en su juventud”; hamahirugarren koplaren izenburua “Ai ai ai mutilla” da⁵; hamalagarren koplantik hamaseira bitartekoak “Mayatza ederra dago”⁶ izenburua

¹ *El Bidasoa*. 726 zenb. (1959-07-11).

² *El Bidasoa*. 737 zenb. (1959-09-26). “Recogido de S. R. 9-VIII-1959”.

³ *El Bidasoa*. 738 zenb. (1959-10-03).

⁴ *El Bidasoa*. 745 zenb. (1959-11-21).

⁵ *El Bidasoa*. 766 zenb. (1960-04-16).

⁶ *El Bidasoa*. 771 zenb. (1960-05-21).

du eta zehaztasun hau: “recogido de José Julián Marfull Arreche, de Mandelu 10 años de edad (11-V-1960). Los recogió de su madre, natural de Mandelu”; hama-zazpigarren koplak “Amonak ekarri du” izenburuarekin dago⁷ zehaztasun honekin: “Recogido de José Julián Marfull Arreche, de 10 años de edad, de Mendelu (Fuenterrabia) (27-V-1960). Los aprendió de su tía Feliciano Arreche de Mendelu; azken hiru koplak “Mayatzeko pikua” izenburuarekin datoz⁸; hogeita bat eta hogei-ta bigarrena “Neskata batek dittu hamalau nobiyo”⁹ izenburuarekin dator eta azal-pen txiki bat agertzen da koplaren ondoren: “eta ederki egiña gañera”, bi ale hauek ere S.R.A.ri bilduak dira Irunen (Ventas) (1-X-1959) “nere amak eta neska lagunak kantatzen omen zuten. Nik ere bai”¹⁰. Hona hemen koplak, besterik gabe:

1

Aita san Antoniyo
Urkiolakua,
askoren biyotzeko
santu debotua.

2

Askok egitten diyo
san Antoniyo,
egun batian juan da
bestian etorri.

3

Izen itxusiya dun
neska zar izena,
aditu utsarekin
lotsatzen naizena.

4

Soñekorik onena
diñek bara jantzi
gañera eskuetan
sonbrilla ta guzi.

5

Oraingo mutill guztiak
ainbeste malizi,
nik ikusi orduko
zigazten igesi.

6

Neska zar zar zar
denbora pasatu,
zergatik egitzan bara
lenago ezkondu?

7

Neri iñork ez esan
neonek eziñ esan,
orregatik geldittu
niñuen neska zar.

8

Aurten gure erriyan
pobriak arlote,
Pasayan ere ala
dirala diyote.

⁷ *El Bidasoa*. 247 zenb. (1960-06-11).

⁸ *El Bidasoa*. 787 zenb. 1960-09-10).

⁹ *El Bidasoa*. 761 zenb. (1960-05-12).

¹⁰ *El Bidasoa* aldizkarian argitaratu emandako Nikolas Alzola Gerediagaren artikuluen bilduma polit bat libururaturik dago: *Euskaraz, Irunen barrena*. Irun: Luma, 1994.

9

Gaintxuisqueta ortan ere
zeregin badute,
alfer demoniñuak
txupatzen gaittuzte.

10

Azpeitiko neskatxak
gona gorriyakiñ,
ezkonduko lirake
baluke zeñekiñ.
Ai ai ai mutillak
txapela gorriya.

11

Sarjentua moskorrak
txarretera galdu,
neskatxak dirua eman ta
berriya erosi du.

12

Ai ai ai mutillak
fandangulariya,
ai ai ai mutillak
txapeldun gorriya.

13

Ai ai ai mutilla
txapela gorria
oraingo mutil txarrak
ez dute bertzerik merezi
urian beratu ta
lixiban egosi.

14

Mayatza ederra dago
goizetan intzetan,
ez geiegi fiyatu
mutillen itzetan.

15

Fiyatzen bazerate
mutillen itzetan,
geldittuko zerate
eternidadetan.

16

Amonak ogiya kolkotikan
attonak ardua zatotikan,
eran mutillak gogotikan
baziok berdiñ ontatikan.

17

Amonak ekarri du
txerriya ostuta,
zintzillikan jarri du
isatsa moztuta.

18

Mayatzeko pikuak
iru surten ditu,
neska mutilzaliak
ankak arin ditu.

19

Ankak ariñak eta
burua ariñago,
dantzan obeki daki
artojorran bañon.

20

Artojorrara nua
luberri berrira,
belarra jorratu ta
artua sasira.

21

Neskatxa batek ditu
amalau nobiyo,
zortzi konpiteruak
sei botikariyo.

22

Pobrieri despira
eman omen diyo,
gero aberatsak
esan diyo ariyo.

XIII. MAÑARIKO KOPLADIA

Mañariko kopladiaren berri emango dugu atal honetan. Mañaria, Arantzazu eta Zeanuri dira Euskal Herriko gunek koplatsuenak. Zenbat eta Euskal Herriko bazter zaindu euskeratsua izan, hainbat eta leku koplatsua da, gehienetan.

Atal honetara ekarriko ditugun sailak Kirikiño eta Mañarikoren artean egindako bilketen uzta da. Osaba-loba biltzaileek argitara-leku bera izan zuten: *Euzkadi* egunkari abertzalea. Kirikiñoren hiru bildumatxo ezagutzen ditugu, lehena *Euzkadi* 1913-05-26 egunekoa, bigarrena, *Euzkadi* 1926-12-24koa eta hirugarrena 1927-06-12 eta 14koa. Lehen bilduma hau oso goiztarra da, Kirikiño *Euzkadiko* euskal atalaren arduradun egin zen urte berekoa. Bigarren sorta 1927ko *Argiaren Egutegian* ere agertu zen (104 or.). Ez dakigu bigarren sorta honen biltzailea zein izan zen, baina *Euzkadi* egunkarian agertu zenez gero, Kirikiñok bildua ote da? *Euzkadiko* alean *Argiaren egutegitik* bilduak direla dio¹. Guk geure Mañariko sailen sartzeari erabaki dugu. 1927ko ekainaren 13 eta 14ko dantza-kopla sorta biak ere Kirikiñok batuak ote dira ala haren ilobak?

Mañariko kopladia dugun aberatsena ez ezik, *Euzkadi* egunkariko lehen dantza-kopladia ere bada, guk dakigula. Kirikiño izan zen *Euzkadi* egunkarian agertuko ziren dantza-kopla biltzaileen bide-erakuslea. Lehen bilduman, 1913koan, kopla hauen gorapamen polit bat ere egiten du. Hona “Bertso zarrak” artikuluan datozen hitzak:

Beti-beti errekeaz bera jautia be gogaikarri egiten da, noz-edo-bein errekeaz gora ibillaldi bat egin biar dogu.

¹ Koplaren ondorenean zehaztasun hau dakar:

-¿Norenak dira bertsoak?/-Batek baki. Bertso zarrak dira, euzkeldunek len sarri kantetan zituezala./-¿Nundik artu dozuz ba emen ipinteko? Ala ¿zeuk buruz yakin dozuz?/-“Argia”-ren Egutegi-ko artu ditut. Onetariko bertso ta beste gauza polit asko daukoz. Erosixu. /-¿Zenbat emon biar da?/-¿Zenbat emon biar da?/-Lau errial./-¿Eta nun erosi Bilbon?/-Estazino kaleko estankuan./-Bakit, euzkeldunak dira. Ointxe nua.

¿Zer esan gura dodan?

Ezta pillosopija andija. Orain arte nik ikusi dodazan bertso guztijetan ezpa'da gejenetan bai beintzat, burutzat aurkitu dot berso berriak.

Buru orixe, ixen orixe beti ardura andiz ipinten dabe, itxuraz bildur diralako iñok zartzat artuko ete dauzan; zarrari iñok eztautsola oneskunik edo estimaziñorik ixaten uste dabe auza.

Eta orregaitik, bertsuak beti dira berriak, auxe da errekeaz bera.

Ba, niri gaur otu yat beste alderantza artutia, errekeaz gora; ta emen ipintia bertso zarrak, neure erriko gaztien artian entzunak, uste ixanik askorentzat barrijak izango dirala.

Leku onetantxe bein idatzi eben, erri batzubetako gaztiak ipinten ebela atxakitzat erderazko bertsuak erabilteko euzkerazkorik ezeukela; ta atxaki ori ondolik ebagiteko ipiñi ebezan euzkerazko bertso erreskada batzuk.

Erri orreitako gaztientzat ba, nire bertso zarrok berriak izango dira, ta ara nundik nora gauza zarragaz barrija egin leiken.

Enaz baña arrotuten asmakunde edo decubrimiento onegaz, orain baño lenagokua dalako.

Nire txiki-alditan sarri ixaten zan gure artian izketa auxe:

–¡Oi! Ara Bizkotxu, ze majorik praka barrijakaz da...

–Gure amak egin yaustazak gure aitaren zarrakas.

Alper-alperrik da asmaketan ibiltia nihil novum sub sole...

Joskuretatik be latiñazuak berez urteten yakuz lurruna lez. Sankristau iñoz ixatiak balijo dauku orraitño.

Orra ba orain ganorabakokeri geyago barik nik bilduriko bertso zarrak. Atsegin ba'yatzubez, barriro be ipiñiko dodaz besten batzuk iñoz.

Kirikiñoren lehen sail honek hogeita hiru kopla ditu eta ez zituen askoz gehiago argitaratu, guk dakigula. Hamasei urte egon zen, 1913tik 1929ra, *Euzkadiko* euskal atalaren arduradun. Lehen urtean, sorta polit hori eskainiz gero, zergatik ez hurrengo urteetan ale bitxi gehiago eskeini? Bilduma handiagoa zuela badakigu artikulua azkenean *atsegin ba'yatzubez, barriro be ipiñiko dodaz besten batzuk iñoz* esaten baitu.

Errose Bustintzak, *Mañarikok*, askoz geroago argitaratuko ditu bere aleak. Lobaren biltzaile lana, osabarena baino aberatsagoa izan zen. Osabak baino kopla, bertso eta balada gehiago argitara zituen. Hemengo atal honetan agertuko ditugu aurkitutako guztiak.

Osaba-loben bizkai euskara dela eta, kontu jakina da J.A. Mogelen erara idatzi zutela. Ez ditugu hemen zehaztasun guztiak ipi-apa guztiekin zerrendatuko. Hitz batez, Kirikiño eta Mañarikoren lanetan *buruba, zuriya, astua* eta abar ikusiko ditu-

gu, denok ezagutzen dugun Markinako eskolako fonetismoekin. *Gazte* hitza ia beti *gaste* ikusten dugu, i bokalaren ondoren baldin badago zetarik, bustidura automatikoa egiten du: *ixan*. Guk Kirikiño eta Mañarikoren koplak atal honetara aldatu ditugunean, ahalik eta aldaketa gutxien sartzen ahalegindu gara.

Errose Bustintzaren kopladiaren gainean

Errose Bustintza izan dugu, guk dakigula, dantza-kopla gehien bildu dituenena. Errose Bustintza *Mañarikok* bildu zituen dantza-kopla guztiak *Euzkadi* egunerokoa argitaratu zituen. Egunkari honetan gerra aurreko aroa da aberatsena, batez ere 1931 urtetik aurrerakoa. Gerra denboran Kataluniako *Euzkadin* argitaratu zituenak lehenagoko kopla-sailen berrargitarapena da. Eman ditzagun, kasurako, bi adibide. 1938ko urtarrilaren 4an argitaratuak *Euzkadi* 1936ko uztailaren 4an argitaratuak dira. Gure sail honetako azken zortziak, 1938ko uztailaren 26koak, lehenago ere emanak zituen ia berdin.

Jendeak, eta batez ere andre zahar briskalariak, oroimen bizi eta aberatsean zituen koplak bildu zituen, eta, bildu ahala argitaratu. Ez zien, guk dakigula, pandero-jotaile edo bibolinteroei galdetu. Ez zien, guk dakigula, A. Villasantek bezala, panderetera profesionali galdetu, gaztetan erromeriara joaten ziren atso-agureei baizik. Kopla hauek “Dantza-abesti zarrak”, “Abestitu zarrak” edo “Dantza abestiak” sailan argitaratu zituen. Erreskadan zenbakitutako koplez gainera, badago besterik ere. Mañarikok, esate baterako, kronika batean² sartzen duen koplaxoa herri-kopla dela dirudi:

Aurten gitxi
urrengoan asko,
jaunak emongo yok
gauzarik asko.

Beste kronika batean³ bilduma honetara aldatu dugun koplaren iruzkina hone-laxe egiten du:

Eta... beñola, emeko neska gaste batek, axe gogaikarriyak putz-egituen eban bittartian, arri mokil baten ganian jezarritta bere begijak Kaparrako sorgintegirantz zitubala aguzi eban bertzia abestuko dogu:

Jayo nintzan eta
gure neuke bixi;
ikusi gura ez nabena
begi bijak itxi.

² *Euzkadi*. 6.221 zenb. (1932-11-13), 8. or.

³ “Mañaria” in *Euzko*. 53. zenb. (1933-08-05), 6. or.

Hona adibide gehiago. 1935eko azaroaren 2an, esaterako, “Basuan egun bat” narrazioan honako kopla hauek ikusten ditugu:

Urkiola ganeko
lirijo loria
ortixik gora dago
zerura bidea.

Ahapalditxo hau Arrateko balada-multzoan ere ikusten dugu bere aldaeratzoe-kin: *Arrateko landako/ floridadia/ andixek gora dago/ zerura bidea*. Prosa lan berean beste bat ere ikusten dugu:

Zurijak zuri dira
neu naz baltzerana,
kolore perpetua
baltzeranena da.

Kopla honen antzekoak asko ezagutzen ditugu eta gure liburu honetan bat baino gehiago agertzen dira baina berdin-berdinik ez? Zer ote da *kolore perpetua*? Lehen begiratuan *perpetuo* adjetiboa datorkigu burura, eta zentzuaren aldetik ondo dago. Zuri direnak beztu daitezke eguzkiak erreta, baina beltzaranak ezin dira zuri-tu, bistakoa denez. Beste esangura bat ere ez ote du? Ez ote da *perfektua* /f/ konsonantea, Mogelen eskolakoen antzera, /p/ bihurturik? Edota azkenik, ezin dira biak batera izan dilogia polit bat sortzen dela? Baina badira gehiago ere. Hona pasarte bat bere azalpen eta guzti:

Mendi-erpiñian, korañiaz irak lurreratzen ebillen morrosko baten abotik axetaratu ziran bertzuak:

Masusta koloreko
begi batz orrekaz
engañatu ninduzun
berba labanakaz...

Gorputza euki arren
eder ta politta,
bijotzian daukazu
gaiztoaren atsa.

Zeure matte onari
zabiltzaz burleka,
sartuten daustazula
mille bat arantza.

Bertzo itun orrek entzun gendubazanian, zugatz enborrian jezarritta pipia pumetan eguan aguretxu batek ona zelako bertzo barrigarrijaz atsegindu ginduzan.

Ara or goyan atso bi
batak bestia dirudi,
batak daukoz eun urte eta
bestiak eun da amabi.

Batak gura dau ezkondu eta
bestiak josten ikesi,
aren soñeko gonaik onenak
milla ta bosteun ipingi.

Ahapaldi guzti hauek herri-ahapaldiak dira. Azken bietan, esaterako, ez dugu inolako dudarik. Beste gaineko hirurak herri-koplak apur bat ukituta ote dira? Galderak galdera, ekin diezaiozun gure sailari eta jar ditzagun osaba-loben erreskadak.

Ebaristo Bustintza *Kirikiñoren* kopladia⁴

1
Matsak orrija zabal
Begoña gañian,
neu bere angua naz
bai zorionian.

2
Etxe txiki bat daukat
Artxanda ganian,
euririk ez da sartzen
aterri danian.

3
Amak emon baleustaz
amabost ogeiko,
ezkonduko nintzala
etxaguntzarako.

4
Artajorrara nua
luarri barrira,
bedarrak jorratu ta
artuak sasira.

5
Barregarrijak dira
katuen lorratzak,
biribillak ondora
puntara zorrotzak.

6
Arin-arin eiten dau
basuan erbijak,
erraturen dauzala
punturik erdijak.

⁴ *Euzkadi*. 113 zenb. (1913-05-26), 5. or.

7

Arin-arintxua da
itsuen soñua,
zapatai apurtzeko
azpiko zorua.

8

Bilbotik ekarri dot
atso bat ostuta,
leyuan ipiñi dot
kasketa moztuta.

9

Atsoai gorde dautsot
ule kopetia,
kostako yako bada
bera topetia.

10

Amar-amaiketako
eguzki berua,
atxurra itxi soluan
ta etxera nua.

11

Txikitxo politorrek,
zer dozu negarrez?
Amak jolaserako
baimenik emon ez.

12

O mutil ankaluze
pipia artzallia,
pipiak erre dauska
surraren puntia.

13

Jainkua<k> gura badau
munduak ez arren,
bijak batuko gara
ixaratxu baten.

14

Oraingo mutiltxuak
bana biñakuak,
lapiko tapatzeko
alagalakuak.

15

Begijak baltzak eta
azala zurija,
munduban askok dauko
zeure gurarija.

16

Askok gurarija ta
batek eruango,
zu lako lora ederrik
beti al da ixango!

17

Erreka bazterreko
lirijo loria,
ez naz ederra baña
bai ederzalia.

18

Ai ene Jaungoikua
zeruan banengo,
ez nintzake etorriko
lurrera geiago.

19

Gora begitu eta
lañuak agiri,
orrako mutilorrek
kirtena dirudi.

20

Antziñan esan neutsan
ama zeuriari,
gorde zenkidazala
pitxi eder ori.

21

Aurten etorri dira
agindu barrijak,
ezkondu daitezala
mutilzar guztijak.

22

Ezkontzen ez badira
gagozan illian,
errematera duaz
datorren urtian.

TRIKITIYAK⁵

24

Ezkondu nintzanean
bost gona nituan,
bi puskatu ziran ta
bi saldu nituan.

25

Soñean daukadana
oso daukat zarra,
berriak egiteko
esperantza txarra.

26

Ezkongai nintzanean
amaren etxean,
txokolatea neukan
gorderik kofrean.

27

Eskondu eta gero
kofrerik ez iñun,
txokolatea berriz
sudurretik urrun.

23

Maitia, maite zaitut
zeuk alan banozu,
bijok bixiko gara
ondo ta gozatsu.

28

Azak eta borrajak
olioz beterik,
ezin jan oi nituan
negola ezkongairik⁶.

29

Ezkondu eta gero
urtebete bage,
porrusaldea neukan
oliorik gabe.

30

Orrako gizon ori
det nere senarra,
sarritan ekartzen dit
begira negarra;
gerta al baliteke
laister salduko nuke
nik nere senarra.

⁵ *Euzkadi*. 4.422 zenb. (1926-12-24), 1. or.

⁶ *Ezkongarik* halaxe ikusi dugu. Hala izan daiteke, baina aldatu dugun erara ere bai. Kontua, beraz, *-ga/-gai* atzizkietan dago. Lehenak, gauza jakina denez, *-gabe* esan nahi du.

31

Gaztiak gazte dira,
neu be ez naz ain zarra,
egarri nazanian
bertsolari txarra.

32

Oraingo mutiltxuak
zer dabe merezi?
Errekan beratuta
lexiban egosi.

33

Lexiban egosi ta
arrijan golpe bi,
arrijan⁸ golpe bi ta
kakuan eskegi.

34

Arin arintxue da
itsuen soñue,
zapatai urretzeko⁹
azpiko zorue¹⁰.

35

Zapatak urretuta
gorputze nekatu,
zerurako bidia
pizka bat luzetu.

36

Desiertura nue,
an gura dot bizi,
munduko gustuari
nai neuskijo itxi.

37

Itxasuan duanian
untzija kristalezkua,
andixik deituten dabe
Birjiña Begoñakua.

38

Arin-arin eiten dau
basuen erbijek,
uts egiten ditula
punterik erdijek.

39

Barregarriek dire
katuen lorratzak,
buztena luzie ta
erpiek zorrotzak.

40

Batian gorantza ta
bestian berantza,
astuak egiten dau
basuan arrantza.

⁷ *Euzkadi*. 4.564 zenb. (1927-06-12) "Euzko-Folklore" Mañari (Bizkaya)-n baturiko dantza abestiyak. Oneek erabilezan lenago panderua yota gastiai dantzan eragiteko.

⁸ Jatorrizkoan *arriyan* ikusten dugu bi aldiz. Gure sistiman, ordea, *arrija* izango litzateke. Berdin jokatu dugu gainerako guztietan.

⁹ Hemen aldaketa txiki bat egin dugu hobeto ulertzeko. Jatorrizko testuan *Zapatai urrentzako* dakar, baina zentzua argi baino argiago dago. Aditza *urratu* da, Bizkaiko aho-euskaran *urretu* gaur egun leku gehienetan. Horrexegatik aldatu dugu. Hurrengo koplan, gainera, ondo dator: *zapatak urretuta*/...

¹⁰ Jatorrizkoan *sorue* dator. Aldaketatxoa gurea da.

41
Arratietik datoz
mutillek gorrijek,
kolkuen arto zati
ikaragarrijek.

42
Mutille galanta ta
polañie palta,
tabernako atostian
arratoiek janda.

43
A mutil anka luze
pipia artzallia,
pipiak erre due
surraren puntia,
obeto erre balue
enparau gustia.

44
Gaztiak entzun dozu
beste onenbeste?
Mutillek ainbat salto,
txapelak ainbeste.

45
Esango neuke baña
lotsa naz esaten,
oraingo mutiltxuek
dakijela eraten.

46¹¹
Mendi andi andi bat
bijoen erdijen,
ez d(og)u arkal ikusten
nai dogun gustijen.

47
Zeu ikusi bagarik
dekuan egune,
pentsetot gaba dala
aren da illune¹².

48
Izarrak argi argi
Artzate ganien.
Esan bear daustazu
nun bizi zarien

49
Begire nago begire
kamiño bide barrire,
noz agertuko ete dan
neure maitie errire.

50
Maitie maite zaitut,
zuk alan banozu,
bijok biziko gara
zeuk gure badozu.

¹¹ *Euzkadi*. 4.565 zenb. (1927-06-14). Kanten buruan argigarri hau dakar: “Euzko-Folklore” Mañari (Bizkaya)-n baturiko dantza-abestiyak.

¹² Nola ulertu kopla hau? Zu ikusi bagarik daukadan eguna, pentsatzen dot gaua dala hain da iluna. Harrigarria da *hain* delakoaren forma zaharra agertzen da: (*h*)*aren*. Silaba bakarra bitu egiten da era honetara.

51

Itxasuan ura lodi
ez dala ondarrrik agiri,
neure maitie ikustiarren
pasauko nintzateke ni.

52

Lejo¹³ bat egin biar dot
itxasuari begira
andixik ikusiteko
neure maitia noz doian.

53

Etxe txiki bat dago
atxaren ganien,
neu bere angoxie
bai zorijonien.

54

Zorrontzan neskakil batek
egin dau gona gorrije,
barrenien ezarri deutso
agiñadura zurije.

55

Mañaritik gorago
etxe zapal baten,
amalau mutil zarko
morokille jaten.

56

Onek bai dantzarijek
dantzan egiteko,
begira dauenari
barre eragiteko.

57

Auxe da despedidie
despedidaren tristie:
agur, aita ta ama,
agur, arreba gaztie.

Errose Bustintzak bilduak

DANTZA-ABESTI ZARRAK¹⁴

58

Jaijo nintzan eta
gura neuke bizi,
ikusi nai ez nabenak
begi bijak itxi.

59

Arin arintxue da
itsuen soñue,
zapatai urratzeko
azpiko zorue.

¹³ *Lejo* dalakoak *lejo* izan behar luke, hau da, bizkai euskara Markinaldekoan *lei(h)*o hitzaren aldaera.

¹⁴ *Euzkadi*. 5.776 zenb. (1931-06-18), 5. or.

60

Zapatak urratuta
gorputza nekatu,
zerurako bidia
apur bat luzatu.

61

Izarrak argi-argi
arranak¹⁵ aldian,
zugaz pentsetan nago
denpora luzian.

62

Ametsak amets dira
orain nago pozez,
zeure maitetasuna
artzeko bijotzez.

63

Erreka bazterreko
lirio¹⁶ loria,
ez naz ederra baño
bai ederzalia.

64

Or goiko zelajetan
lora ederrak dira,
baso-uso politak
lo gozuan dira.

65

Sagastiko iturrijan
ur gozua dator,
egarrija ase ta
atsegiñez nator.

66

Arpegi zurija du
neskatilla orrek,
aingerua dirudi
nere maite onek.

67

Iru mille kabelin,
lau mille larrosa,
zure bijotz txukuna
edertasun utsa.

68

Bijotza minberatu
begiak illundu,
zure edertasunak
egin nau itsutu.

69

Ederra ta galanta
bijak leku baten,
ona ta aberatsa
gaitz¹⁷ dira billatzen.

70

Jaungoikuak nai badu
munduak ez arren,
bijok biziko gara
etxe txiki baten.

71

Igaz ogei urte ta
aurten emeretzi.
Zeuria izango naz
bijar edo etzi.

¹⁵ Zer ote da hau? *Hamarrak?*

¹⁶ Kasurik gehienetan *lirio lorea* da, baina hemen horrelaxe agertzen da.

¹⁷ Jatorrizkoan “Gaiz dira billatzen”.

72

Eder-ederra baño
oba da polite,
ederrak kendu leijo
buruko zentzune.

73

Leiuana¹⁸ dagon damia
kale osuan jaubia,
ojala bazindekedaz
gorputz ta arima neuria.

74

Neure maitia zer dozu?
Koloria zuri dozu,
koloria gorritzeko
metal-ura eran biar dozu.

75

Etxebarri izena
ez da izen txarra,
kortara jausi yako
bere sabai zarra.

76

Ederrak bi balijo
kariñosiak lau,
apala izatiak
asko balijo dau.

77

Agur, agur, Maritxu,
Marija zelemín,
bakotzak bere lekuen
naikue zeregiñ.

78

Mañariko mutillak
san Droke gabian,
aza berdiak janda
kafia ganian.

79

Barrenkallen dago
“Kazuela buru”,
neskatxak engañatzen
badau mille modu.

80

Iragarrita dauko
san Juan Korukok
mutil zarrík ez dala
zeruan sartuko.

81

Mañaritik gorauko
etxe zapal baten,
amalau mutil lelo
morokille jaten.

82

Oraingo mutiltxuak
zer dabe merezi?
Errekan beratuta
lexiban egosi.

83

Lexiban egosita
arrijan kolpe bi,
arrijan kolpe bi ta
kakua¹⁹ eskegi.

¹⁸ Hemen ere *leijuan* behar luke.

¹⁹ Jatorrizkoan *kakuan* dator. Eskegi, ordea, *kakoan* egiten dira.

84

Alperrik izan dira
etxien asarre,
ez nabe mudatuko
ilten ez banabe.

86

Gaztiak gazte dira
neu be ez naz ain zarra,
egarri nazanian
bertsolari txarra.

85

Il eta gero bere
biztutzen banare²⁰,
lengo itzetan pirme!
aurkituko nabe.

DANTZA-ABESTIAK²¹

87

Dringilindrangulun Marine
beti onelan bagiñe,
beti onelan izaterako
gure errentan ariñe.

90

Tiriki tauki tauki
taukietan ere;
zu langorik ez dago
Indietan bere.

88

Pandero zulodune
kaskabel bagie,
Igeko²² plazan dago
zu baño obie.

91

Indiak irabazten
errezak ez dire,
zure begi ederrak
gatxagoak dire.

89

Au da pandero barrie
Gernikatik ekarrie,
amar errial pagetako
ez dala urregorie.

92

Nabarniz Amoroto
Santa Eufemia mendi,
aretan iruretan
aize otza sarri.

²⁰ Ez da ondo irakurtzen *biztuten banaue* ote da?

²¹ *Euzkadi*. 5.780 zenb. (1931-06-23), 5. or.

²² Ieko plazan, hau da, Eako plazan izan behar du. Behin baino gehiagotan agertzen da Ea herria liburu honetako kopladietan. Ea herria, gainera Ige, bezala, eta ez euskaldun askok dioten bezala: Ie.

93
Atsue ta agurie
asarratu dire,
alkarrenak dire ta
adiskidetuko dire.

94
Pentsamentuen dago
san Pedro Foruko,
ez dala mutil zarrik
zeruen sartuko.

95
Durengon bazkaldute
Mañarien gora,
zoztorra sartu jako
eperdien gora.

96
Matxalen Busturiko
amari negarrez,
amantal berri barik
ezkonduko danez.

97
Ez egin Matxalentxu
amari negarrik,
ez zara geldituko
amantal bagerik.

98²³
Mendi andi bat dago
bijoren erdijan,

ez dula alkar ikusten
nai dogun guztijan.

99
Zu ikusi bagarik
daukodan eguna,
pentzetot gaba dala
aren da illuna²⁴!

100
Itsasuan ura lodi
ez dala ondarrik agiri,
neure maitia ikustearren
pasauko nintzate ni²⁵.

101
Itxasuan doianian
ontzija kristalezkua,
andixek deituten dabe
Birkiña Begoñakua.

102
Maitia maite zaitut
zeuk alan banozu,
bijok biziko gara
zeuk gura badozu.

103
Mendi altuan edurre²⁶
suaren bildur egurre.
Alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

²³ *Euzkadi*. 5.784 zenb. (1931-06-27), 5. or.

²⁴ Osabaren bilduman (47 zenbakia) ilunago agertzen da.

²⁵ Jatorrizkoan *nintzakeri* dakar, aldaketatxoa gurea da.

²⁶ Jatorrizkoan *edurra/egurre/bildurre*. Hoskidetasuna gordetzeko bateratasuna gurea da.

104
Atxian²⁷ lañua ta
mendijan edurra,
gaztiak bizkarrian
biar dau egurra.

105
Oraingo mutiltxuak
barrabanak dira,
euren berba guztijak
guzurrak ei dira.

106
Etxe txiki bat dago
atxaren ganian,
neu bere angoxia
bai zorijonian.

107
Neronek ikusija
nere begijakin,
asto bat lapikuan
belarri bijakin.

108
Arin arin eitten dau
basuan erbijak,
uts egiten ditula
puntorik erdijak.

109
Onek bai dantzarijak
dantzan egiteko,
begira dagonari
barre eragiteko.

110
Auzoko mutil orrek
atzo ta arañegun,
Iturriko²⁸ landara
egiteko lagun.

111
Ez nintzan jua eta
ez dot gura bere,
kokotxu orren gura
ez naz ni neu bere.

112
Baltzerana nazala
zeuk esan ei dozu,
ez naz zuri ederra
egija esan dozu.

113
Desierture noia
an gure dot bizi,
munduko gustuari
nai neuskijo itzi²⁹.

²⁷ Jatorrizkoan *Atsian lañua ta/../'*.

²⁸ Zer da hemen izen propioa?

²⁹ Azken koplak honetan bi aldaera egin ditugu *dote* delakoa *dot* horretara batetik, eta *neuskija* delakoa *neuskijo* adizkira, bestetik.

114

Bedarrik ederrena
soloan garija,
emakumen artian
Birjiña Marija.

115

Josepantoni kolore gorri
kapitan baten alaba,
aitak doterik emon ez arren
billatuko dau senarra.

116

Astelenian ezkondu eta
martitzenian basora,
eguztzenian orbela batu
egubenia etxera.

117

Bariku-eguenian bedarra ebagi
zapatuan laijetara,
domekan barriz afan guztijaz
amarretako mezara.

118

Soñuak ots polita
dantzari ederrak,
Obako neskatillak
lagunik onenak.

119

Izurtzan neskatil batek
egin dau gona³¹ gorrije:
barrenian ezarri dautso
agiñadura zurije.

120

Gastiak entzun dozue
beste onenbeste?
Mutillak zenbat salto
txapelak ainbeste.

121

Arratiko mutillek
kontsolagarriak,
kolkuan arto zati
ikeragarriak.

122

Engañatu ninduzun
berba labanakaz,
egijan kolorian
guzur labanakaz.

123

Orain nago pagatzen
zotin garratzakaz,
gaubez eta egunez
negar samiñakaz.

³⁰ *Euzkadi*. 5.790 zenb. (1931-07-04), 6. or.

³¹ Egunkarian *gina* dator.

DANTZA-ABESTI ZARRAK (MAÑARIAN BATUTA)³²

124
Mutiltxu txanbeliñak
bentaja bi dittu,
plazan eder ta galant
etxian irrittu.

125
Eperrak kantetan dau
goxian-goxian,
ez asko piatzeko
mutillen izketan.

126
Piatzen bazerade
mutillen izketan,
eroriko zerate
arri labanetan.

127
Gaztia nintzalako
ni zorua ixan,
zeugaz ezkontuteko
konpormau ein nintzan.

128
Ez igarri baneutsu
zetako zenbiltzan,
baña igarri ez da...
oin nola gabiltzan!

129
Tiriki tauki tauki
malluaren otsa,
amalau argin baña
oba dok arotza.

130
Arotzak egitten jok
egurraz zozpala,
aregaz egosten jok
lapikotxu ederra.

131
Barrenkalian dago
amillu-jentia,
ezkonduko litzakez
balebe bentia.

132
Badabe bentia ta
nun dabe dotia?
Santi Kurutz Larran dau
otian loria.

133
Txikitxuba ta politta
Txorruetako Prantziske,
alargunaz ezkontzia
asko sentiduko neuke.

134
Txikitxuba zera baña
besoan zattut aziko,
mundu guztiagattik be
ez nauskizula itxiko.

135
Gaztia nintzarian
oin amar urtetan,
baneban ezkongeiya
bai barrabanetan!

³² *Euzkadi*. 6.181 zenb. (1932-09-28), 7. or.

136
Gaztia nintzan orduan
axiak nituzan buruan,
orain akordadutzen naz
protxu ez dan orduan.

137
Antioniok kopla-kopla
dirua poltsara,
amaika mutil zarko
bajuak plazara.

138
Antioniok ez daki
biuliñik joten,
kanta zoro batzugin
jentia engañatzen.

139
Gaztia nintzanian
oin amar urtetan,
ez nintzan sosegetan,
ezkondu artian.

140
Ezkondu eta gero
urrengo goxian,
belarriondokuak
ezkaratz zarrarian.

141
Muxikako jostun batek
Astelarrako etxe baten,
iru parka ta arkondara
josi dituz egun baten³³.

142
Altuan san Bernabe
bajuan Gordobil,
Otxandijoko plazan
tanboliña dabil.

143
Gaztia nintzanian
nire kontentua,
atian ikustia
tanbolinterua.

144
Lau lau-lau
andriak galdu nau,
lau bost sei
dantzan ikasi lei.

145
Ai ene, oi ene
kortara jausi naz ta,
txarrijak jan nabe.

146
Ementxe naukazue
kantetan penetan,
eskerrik asko bere
ez daust iñok esan³⁴.

³³ Egunkari-arduradunaren oharra: “Ez zan makala ixan. Onelako jostun erañak baña Muxikan jaioten dira; ta ¡jakiña!, gero bertso-papeletan urten biar.” Ibon.

³⁴ “Uarra. Bertso oneik, geure erritxuko atso brizkalarijeri entzunikuak dira.”

DANTZA-ABESTI ZARRAK³⁵

147

Andra galanten etxian
axia presko goxian,
atia dribili-dranba
iñor ez dago etxian.

148

Txikitxu konponidia
Mañatxu taberneria,
iru kuartillo ta erdigaz
egitten dau azunbria.

149

Karmen eguna dala
zeuk be badakixu,
buruko pañelua
dotore daukozu.

150

Ez dakit dantzan baña
banabil erdijan,
tuertua alkate
itsuben errijan.

151

Onek bai dantzarijak
dantzan egitteko,
begira dagonari
barre eragitteko.

152

Gaztia badakizu
zelan dantzan egin,
buruba gora-gora
ankari eragin.

153

Txakurzuloti larrapost
Mañarijan jausi,
mamiña mallatuta
azurrik ez ausi.

154

Gorengo kamarara
bidien labana,
kortara jausi jaku
mutil barrabana.

155

Anton errementarik
buruban kalbua,
urria dalakuan
plomua darua.

156

Ez naz ederra baña
bai ederzalia,
ez dauket ezer baña
bai esperantzia.

157

Esperantziak diño
badago legerik,
ez artu agurarik
badago gazterik.

158

Izango bada bere
parkakin bakarrik,
zaldun gazte polit bat
biar dodala nik.

³⁵ *Euzkadi*. 6.192 zenb. (1932-10-11), 7 or.

DANTZA ABESTI ZARRAK³⁶

159

Abadiñon san Blasetan
egozan dama gazte bi,
bata zan baltzerantxua
bestia barriz lar zuri.

160

Larrosa mayetzekoa
ipinten zattut kontuan,
batek uts emonagaittik
beste asko dagoz munduan.

161

Nire maittian gonia
urrezko orratzaz josija,
sedazko ari piñagaz
guztija dozu egiña.

162

Begi ederrak nok ditu?
Baltzak edozeñek ez ditte,
iraña egingo zeustan
zurijak izan banittu.

163

Baltzaran graziosa
parerik gabea,
munduan askok daki
nazena zeuria.

164

Munduan askok jakin
ta zeuk ez jakittia...
ondo egiten dozu
diximulatzia.

165

Neskatillatxu pertxeta
gerrija dozu liraña,
zure gorputzak dirudi
erretratuan egiña.

166

Errotako arrijak
uruna darijo,
mutiltxu txanbeliñok
ez dabe balijo.

Lengo egun baten, lagun batzuk basorik baso giñuazala, basa-bideko itturritxu baten onduan, andera zar bat, atxotxu maittagarri bat, aurkitu gendun.

Eta, berak eskuban ekarran pitxer zuri andittik ur gozo ozkirrija gogoz edanda gero, emakumien artian geyenetan oi dan lez, bat barri ta bi barri, barriketa ugerijan asi gintzazan, beragandik bertso eta esakun zarrak jakiteko ustez. Orretan genbiltzazan eta orduko geure barriketaldija ez zan izan alperrik, andera maittagarrija, bertsuak-bertso ber bertatik esaten asi yakulako.

Ona emen bere abotik belarriratu yakuzan bertzo zar batzuk.

³⁶ *Euzkadi*. 6.945 zenb. (1935-03-28), 1 or.

DANTZA-ABESTI ZARRAK³⁷

167

Asiko naz asittera
gaztiok dibertitzera,
ni onelan ikusi eta
errukittuten ez zara.

168

Itxurie ta presentzije
ta mille bat duket baneuko,
erri ontako mutil kaxkarrak
aintzat ez neukez artuko.

169

Neska presumida orrek etxera dijoanian
esango dau bere artian:
“Antoniok ondo poztu nau
gaur Urkiola ganian.”

170

San Antonio, San Antonio
txarrija gexo danian,
San Antonio ez da esaten
urdaia jaten danian.

171

Mattian portalian
arbola eder bi,
bata da kerixia
bestia madari.

172

Erreka bazterrian
larrosa ederrak,
maittian arpegijan
kolore gorrijak.

173

Nire nobijak baki
taluak egitten,
batta buru-zapija
dotore imintten.

174

Arpegi ederra ta
gorputza lindia
ezkonduko nindeke
zurekin mattia.

175

Neska ederrak dagoz
gure auzuetan,
danak era batian
dabiltz goruetan.

176

Orrako burdi zarra
balitza kotxia,
antxe ibiliko neuke
neure atso motxia.

177

Atzo egon naz Bilbaon
gaur nau Bitorijan,
sarri ura palta da
geure itturrijan.

178

A mutil anka luze
begi arranpalo,
tabernara juan da
negarrez ei dago.

³⁷ *Euzkadi*. 6.455 zenb. (1933-08-16), 7. or.

179

Urkiolara juan
sapatak urratu
Aita san Antoniok
barriak eingotu.³⁸

DANTZA-ABESTI ZARRAK³⁹

180

Neskatillatxu ponpoxa
ederra dozu kopeta,
zure soñeko erropiak
iru dozena kortxeta.

181

Mendirik mendi lañua
adarrik adar zorua,
ez da pazil arrapatzen
Alejandraren eskua.

182

Pasatzen naizenian
zure portaletik,
negarrak urtetan daust
begi bijetatik.

183

Amak emon baleustaz
amabost ogeiko,
ezkonduko nintzake
udabarrirako.

184

Udabarrija da ta
denpora berua,
gazte zorua naz ta
alegre gogua.

185

Or goiko mendijetan
txorijak kantari,
gure neska-mutillak
dabiltzaz dantzari.

186

Bedarra guri guri
udabarrijetan,
neska-mutillak gazte
erriko jaietan.

187

A mutil txanka labur
zer dozu izena?
Etxian "txotxo" eta
kanpuan "gizona".

³⁸ Uarra. Dantza-abesti oneik, emeko atso briskalarijen artian batu dodaz, Zugatzagottia'tar Birkide andereak eta abestu daustiaz. Onek, jokuan subertoso dagoanian ittandu ezkeru, poz-pozik abestuten daustaz, baña txakurren batzuk galtzen dauzanean, bere ondotik alde egin biar. Bestela...

³⁹ *Euzkadi*. 6.466 zenb. (1933-08-29), 8. or.

188
Aurtengo okaranak
nekez eldu dira,
dantzarijentzat amar
nekez gorde dira.

189
Errotako astuak
lau anka ta buru,
artotan jango leuke
zorro bat gonburu.

190
A mutil anka luze
kurtzulu bekoki
kolkuan darabiltzak
zazpi arto zati.

191
Olan ezin bok bete
tripa zittal ori,
amak emongo dua
baba lapiko bi.⁴⁰

DANTZA-ABESTI ZARRAK⁴¹

192
Euskeraz kantauko dot⁴² nik
au da lenengo bertsoa,
onexek emongo daust
dantzan egiteko gogoa.

193
Neskatillatxu pertzeta
meriñake zuriduna,
panderuaren otsian
dantzan ondo dakixuna.

194
Gastiak ekin ekin
soraro-bedaro,
zuentzat denporia
etorteko dago.

195
Zuentzat denporia
eldu dattenian,
an dago Santa Klara
moja biarrian.

196
Kalia gora bera
serijo-serijo,
uliaren puntatik
zintia darijo.

197
Uliaren puntako
zinta moradua,
mutillak neskiari
erregalatua.

⁴⁰ "Bertso oneik be Zugatzaguena'tar Birkide andereak eta abestu daustiez."

⁴¹ *Euzkadi*. 6.472 zenb. (1933-09-05), 8. or.

⁴² Ez da ondo ikusten zer den *dot* edo *det*. Bietatik bat aukeratzekotan lehenengoa egingo nuke.

198
Txiki-txikitxue ta
polit-politxua
bera ixan dattela
graziosatxua.

199
Etorri nintzania
erri onetara,
enamoratu nintzan
begi balzetara.

200
Pentsamentua balitz
bai mandatarija,
sarri jakingo geunke
alkarren barrija.

201
Gaztetxu dibertidak
dirianakattik,
zarrak egoten dira
murmuretan beti.

205
Attuxu Mari Manu
trabenera zarra,
sarri eiten dautsazu
ardauari ura.

206
Batetik ura eta
bestetikan ostu,
partikaria laster
diruz bete dozu.

202
Orrei esaten jake
“murmuradoriak”
Jainkuak egiñiko
pobre arlotiak.

203
Oraingo mutiltxuak
¡bai banidadia!
Soñeko gerrikuak
iñok erositta.

204
Jostorratzen puntiak
irebazte gitxi,
artez be tabernara⁴³
bidia badaki.⁴⁴

TRABENERIARI

207
Zeure partikaria
txarto bete bozu,
orren zabaltzalla
laster izangozu.

208
Bakotxari beria
emoten bautsazu,
Jaunak zeru altura
eruango zaittu.

⁴³ Jatorrizkoan erraturen bat dagoela uste dugu *zatez be tabernara* dioelako.

⁴⁴ “Bertso oneik be, neure erriko atso-brizkalarijen artian baturikoak dira.”

209

Entzuizu neskatilla...
aittu egidazu,
zeure burue ondo
jaboten ekizu.

210

Gabeko erretirua
goxetik egizu,
bestela laban einda
jausiko zara zu.

211

Baltzio txarretatik
alde eitten badozu,
bape kezkarik barik
biziko zara zu.

212

Zeure burua ondo
jaboten badozu,
jaunak gizon ontxu bat
gero emongotzu.

213

Zeure pamelija be
ona izangozu,
zartzarorako poza
gero izangozu.

214

Zeure zartzarotxua
ondo emoten bozu,
jaunak zeruan gero
sarittuko zaittu.

Dantza-kantak

215

Antioniok egin arren
solteru burue,
Bermion itxi dittuz
bost ume ta andrie.

216

Gizon ardauzaliak
atzian zulue,
etxian biar dana
kanpora darue.

217

Jentia emen dabil
firri eta farra,
biba mokordue ta
biba kakazarra.

⁴⁵ Euzkadi. 7.213 zenb. (1936-02-06), 1 or.

DANTZA ABESTIJAK⁴⁶

“Ona emen lengo egun baten, neure lagun batzukaz mendi-ziar egurastuten niñoa-
la batu nebazan esakun eta bertsotxu zarrak. Dabilienak beti pillatu. Ortik itaun, eta
emetik itaun, aletxu batzuk izanda be, zegozer beti batu...”

218

Aurten etorri dira
ordena barriak,
ezkondu daittezela
neskazar guztijak.

219

Ezkontzen ez badira
datorren illian,
errematera duaz
urrengo urtian.

220

Maritxu Petroliña
Etxebarrikue,
jango neuke talue
zuk egiñikue.

221

Gaztia nintzarian
oin amar urtetan,
baneban ezkongeiya
;bai barrabanetan!

222

Bata gazte politta
bestia mutilzar,
ederto bixiteko
komenientzija lar.

223

Mutiltxu txanbeliñak
bentaja bi dittu,
plazan eder ta galant
etxian irrittu.

224

Ederra, banidosia,
galanta bada nagija,
baltz igerrak gusturik e[z]
argalak illun begija⁴⁷.

225

Maritxu Kataliña,
entzun egidazu,
ugerra ta koipie
ugeri daukazu.

226

Dantzan ariña eta
briskan be zolija
biarrian, ostera,
alper ta nagija.

227

Zu lako neskatilla
alper ta kirrija,
mutil kokoluentzat
nobija zolija.

⁴⁶ *Euzkadi*. 7.339 zenb. (1936-07-04), 1 or.

⁴⁷ Ez dago argi *nagija* eta *begija* diren edo *nagije* eta *begije*. Zalantzan gaudela -a buka-
erakoa aukeratu dugu. 1938ko urtarrilaren 4an dantza-kopla berberak agertzen dira eta -ja
bukaerarekin amaitu ditu.

228

Igaz igazkue ta
aurten aurtengua,
ez az i ezkonduko
ganorabakua.

229

Tristerik nago tristerik
ez daukat alegrantzirik,
bosteun urteko agure bat
oian daukat neuk gaxorik

230

Ollo bat il dautzat baña
ez dauka mejorijarik,
beste bat ilgo neuskijo
sekula jagiko ez balitz.

DANTZA ABESTIAK⁴⁸

231

Udabarriko loria
nora zuaz zu neguan?
Zu lako lora eder bat
ez dot ikusi zeruan.

232

Maritxu Errotatxuko
neskatuaren politta,
bijotz erdijan dauzala
iru dozena larrosa.

233

Antoniok egin ei dau
itturrijen santzo,
Maritxu saladiak
eskatzian salto.

234

Orra or goian ermita
deritxona Santiago,
nire mattia antxe dago
asistuten ermitaño.

235

Dantzan ez dakijen orrek
oñak narrazka darabiltz,
obeto egingo leuke
plazan agertuko ez balitz.⁴⁹

236⁵⁰

Karmen eguna dala
zeuk bere bakizu,
buruko pañelua
dotore daukazu.

⁴⁸ *Euzkadi*. 7.379 zenb. (1936-08-20), 1 or.

⁴⁹ Udagoenetan mendijetako orbel artietan ostenduta egoten diran gaztaiña aliak lez, geure basetxietako atso-agura agurgarrijen kolkuetan ondo gorderik egon diran esakun eta bertso zarrak agertzera nayatortzue. Lenagokuak esaten eben lez, ludija zar eta barri dala ta, gauza zartxu oneik be atsegiñez irakurriko dozubelakuan nayatortzue. Ona euretariko batzuk ba.

⁵⁰ *Euzkadi*. 7.833 zenb. (1938-07-26), 4. or.

237

Mutiltxu txanbeliñak
bentaja bi ditu,
plazan eder ta galant
ta etxian irritu.

238

Arin arin eiten dau
basuen erbijak,
uts egiten dauzala
punturik erdijak.

239

Kabeliña bentanako
iminten zaitut kontuan,
batek uts emonagaitik
beste asko dagoz munduan.

240

Ederrak bi balixo
kariñosiak lau,
umilla ixatiak
asko balixo dau.

241

Etorri nintzarian
erri onetara,
enamoradu nintzan
begi baltzetara.

242

Maritxu Kataliña
Etxebarrikue,
jango neuke talue
zuk egiñikue.

243

Eder-ederra baño
oba da kumune,
ederrak kendu leijo
buruko zentzune.⁵¹

⁵¹ “Ona emen, lengoan agindu neutzubezan dantza-abestijak. Bertzo oneik gure erriko “Domingotxu” ezpatadantzari gorenengoari entzundakoak dira. Bixi danaz urrengoan geyago.”

XIV. MARKINAKO KOPLADIA

Bi kopla-bilduma hauek laurogeiko hamarkadaren erdialdera bilduak dira. Ez dakigu data zehatzik baina bi sailak 1985. urtekoak dira. Lehen hamalau koplak Jose Aizte etxebarrirari bilduak dira. Biltzaileak Ibone Azpiri, Izaskun Biteri eta Irune Erkiaga dira. Bilketa-data 1985. urtea. Bigarren bilketako 15-46 koplak Josepa X-ri bilduak dira eta biltzaileak Ibone Azpiri eta Agustina Ibarluzea.

Lehen lekukoa, Jose Aizte pandero jolea, famatua izan genuen Markinaldean. Santa Juni egunean –guk halaxe deitzen diogu santa Eufemia egunari– Markinaldean egin ohi zen kalejiran ezagutu nuen behin baino gehiagotan panderoa jotzen. Santa Ageda bezperan ere eske-koplak kantatu ondoren, pandero-hotsean egiten zuen errepika.

Jose Aizte gizon handi bat zen gerri buelta ikaragarri handikoa, aurpegi biribilduna, panderoari larru-hots alaia ateratzen ziona. Ez dut inor ikusi hark beste gozatzuenenik soinua jotzen... Gure bildumatxo bi hauek, beren urrian interesgarriak direla eta, atal batean ordenatzea erabaki dut.

Koplen ezaugarriak direla eta

Bildumatxo honetan, beste bilduma askotan bezalatsu, badira ale harrigarriak. Eman dezagun, kasurako: *40-Abadien krixedie/ beti portunosie,/ gaixorik badago bere/etxien konfesorie*. Kopla hau, nik dakidala, ez dut bestetan ikusi. Kopla honetako *portunosa* hitzak beste bat dakart burura, markinar bati bildutako *desportunea* Arretxinagako san Migeletan kantatzen den *Mahai ganeko* dantza kantatuan esaten zena, hain zuzen. Ohargarria da, hala ere, 46. koplan *fortuniak emon da* esaten dela.

Bilduma polit honen ezaugarriak begi bistakoena Markina eta inguruko herriei egiten zaien aipamena da. Goierri auzoak zein Santa Juni mendiak, Markinaldea

ekartzen digute gogora. Pentsatzekoa da, era berean, kopla hauek gehienak Santa Juniko zelaian kantatuko zirela. Beste inon ikusi gabeko kopla harrigarri bat aipatuko banu: *23-Santa Junin atxa luze/aren gañian artie,/ atzo goizien artu neban/Karlos Kinttoren kartie*. Kopla hau aipatzen den garaikoa ote da? Baliteke hala izatea.

Hizkuntza zertzeladak direla eta

Kopla hauetako euskarari dagokionez, bateko eta besteko hitz zein morfologia ereduak ikusten ditugu. Eman ditzadan zenbait adibide: *langorik* eta *ondorik*, esaterako, hoskide ikusten ditut kopla berean. Lehena arratiarra dugu eta bigarrena markinar markinarra.

Hitzei dagokionez, badago zer azterturik. Hamalaugarren koplari *abarka sopitxia* ikusten dugu. *Sopita* hitza, Azkuek bere hiztegian dioenez, *remiendo de la abarca* da. Hitz hau oraingo Markina euskaraz *sopitta* eta artikuluarekin *sopittia* izango litzateke. Hitz hau Arratiako euskaraz (*abarka*)-*ipingia* da. Hamalaugarren kopla hau, esan beharrik ez badago ere, gure kopladian dugun koplari hizun eta berdotsenetako bat da.

1

Txori txiki bi
iru egiztariak
biziak ez du nai
erbi zar batzerik,
ai, oi, ene, erbi zar batzerik,
atzo ikusi nittun
iru egistari.

2

Erbia aurrian da
txakurrak atzetik,
tiroka artu nabe
ala ere zutik.

3

Mendira joaten dira
erdi-esperantzan,
botatzen ez badute
ka(r)tutxuan kar(k)asa.

4

Egur batzia dana
biar det bukatu,
olako kontutxuak
ondo apuntatu.

5

Altuan san Antonio
Abadiñoako lurrian,
amaiak bisitatzen dabe
ari bere egunian.

6

Tristerik nago tristerik
ez daukat adiskiderik,
adiskide txarra baño
oba dot bizi bakarrik.

7

Nere maitia ser dozu?
Kolare txarra dozu,
kolore ori mudatzeko
metalure eran bear dozu.

8

Begira nago begira
oingo kamiño berrira,
noiz etorriko ete dan
neure maitea errira.

9

Nere maitia badoia
ez dau nai juan soldadu,
ez dau nai joaterik baña
eroango dabe seguru.

10

Aitte san Antonio
Urkiolakua,
amaika neska-mutil
buztartutakua.

11

Askok egiten deutso
san Antoniori,
egun batian juan
da bestian etorri.

12

Urkiolara juenda
zapatak apurtu,
aitte san Antoniok
barrixak ingo'ittu.

13

Durangon bazkalduta
Mañarixen gora,
aldats aundixe dago
san Antoniora.

14

Durangon bazkalduta
Txakurzulon gora,
abarka sopitxia
ipurdixen gora.

15

Banoie astera
gaztiok dibertitzera,
onelan ikusi eta
errukittutzen bazera.

16

Egiñ, egiñ gaztiek
egiñ alegiñek,
ez jatzue damutuko
gaur ondo egiñe.

17

Tikitxue maitte zaitut
usuek umie baño,
sarritten lagunduko deusut
etxe-azpiko landaraño.

18

Maittie maite zaitut
alan zeuk banozu,
bixok izengo gera
zeuk gure badozu.

19

Zeuk izen gure eta
munduak ez arren,
bixok biziko gera
tellepetxo baten.

20

Santa Juniko zelaien
ez naz izen aspaldixen,
zelaitxu polittagorik
apenas dauen Bizkaixen.

21

Santa Junie dago
Allusti partien,
atxaren punte-punten
mendi bizkarrien.

22

Entzutie artu eban
pasau den astien,
jun nintzen beregana
andik lasterrien.

23

Santa Junin atxa luze
aren gañian artie,
atzo goizien artu neban
Karlos Kinttoren kartie.

24

Ederrak bi balixo
onak iru ta lau,
norberan gustokuek
geixen balixo dau.

25

Izengo da san Antonio
Abadiñoko lurrien,
neu ere araxe noie
san Antonio egunien.

26

Aitte san Antonio
Urkiolakue,
amaike neska-mutil
buztartutakue.

27

Txikitxu zerala baie
aziko zera ondiño,
azitten ez bazera be
ez zaittutela itxiko

28

Txikitxu polittori
norena, norena?
Norena izengo naz
Jangoikuarena.

29

Andra Marixe irailgoz
Arraten erromerixe,
neu bere araxe noie
eitten ez badau eurixe.

30

Arrateko pikuek
iru piko dittu,
Eibarko barberuek
ugerrak jan dittu.

31

Txikitxu polit nungue?
–Jaune, neu Markiñekue,
gauzok baño gurago neuke
baziñe neure errikue.

32

Markiñeko kalien
dagoz arbola bi,
laranjie da bata
bestie madari.

33

Ederregixe bazera
soluen bierrerako,
artizu kaballerue
kalien pasiorako.

34

Ederrak bi balixo
onak iru te lau,
norberan gustokuek
geixen balixo dau.

35
Santutxuko erroskerie
viva la virgen Marie,
erroskakin einde deuko
pratikerie eta jakie.

36
Allustiko iturruxen
pasau dan langorik¹,
moskortu lau neskatxa
alkarren ondorik.

37
Neure amak ezkontzeko
neure moduko batekin,
dotie emongo deustela
ollo lokie bost txitxekin².

38
Ezkondu nintzenien
bost gona nittuen,
bi jarri prendan eta
bi saldu nittuen.

39
Soñian dauketana
txito³ dauket zarra,
barriek egittekoa be
esperantza txarra.

40
Abadien krixedie
beti portunosie,

gaixorik badago bere
etxien konfesorie.

41
Ederra zariela
zeugaittik diñue,
ederra ez zara ta
guzurre diñue.

42
Txikitxu zeraten legez
baziñe eder-galanta,
amaiekek joko leuskizu
ate onduen kisketa.

43
Mendirik mendi lañue,
pagorik pago usue,
ez da erreza arrapatzen
maiorazguen pausue.

44
Maittie maitte zaittut
alan zeuk banozu,
bixok izengo gera
zeuk gure badozu.

45
Zeuk izen gure eta
munduak ez arren,
bixok izengo gera
tellepetxo baten.

¹ Guk Markinaldean *langorik* ez genuke erabiliko *lakorik* baino.

² *Txita* hitza *txitta* edo *txitxa* entzuten da gaur egun Markinaldean.

³ Harrigarria badirudi ere, J.A. Moglek darabilen *txito* ikusten dugu kopia honetan.

Jaixo Allustien⁴ da
Nabarrizen azi,
fortuniek emonda
Sarkunbiden bizi.

⁴ Herri bera izentatzeko bi modutara egiten dugu *Aulesti* euskaraz eta *Murélaga* erdaraz. Markinarrak, ordea, *Allusti* esan ohi dugu. Hemen, ordea, *Allustien* dator *Allustin* behar-rean.

XV. NAFARROAKO KOPLADIA

Nafarroako kopladia urri baino urriago agertzen da gure liburutxo honetan. Nafarroako biltzaile handienetakoa den Damaso Intzagana jo arren, ale gutxi bildu ditut. Damaso Intzak Luis Jauregi *Jautarkoli* egin zion *Biozkadak* liburuaren hitzaurrean hiru ale polit dakartza:

1

Txuriak eta beltzak
mendan ardiak,
zuk ere ez dituzu
bentaja guziak.

3

Galantegia zera
gure etxerako,
azal guriagia
otz-berotarako.

2

Pikuaren ostoa
itzal egiteko,
ederregia zera
nekazaritzako.

Damaso Intzak bere errefrau-sailetan koplak errefrautu bat baino gehiago dakartza: *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*¹ lanean:

801. Belarra yorratu eta artoa sasira. Jorralari gaiztoaz esana. Kartak ere ola dio: "Arto-yorrara noa lur berri berrira; belarra yorratu ta artoa sasira".

881. Goizian purr-salda, ta eguerdian azak; aixe kabitzen naute ipurdiko galtzak.

¹ Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, 1974.

912. Otsondoko katua Parolan eiztari; erne begi(ra)itzen dio leioko gaztari. Otsondo ta Parola bi etxe dira.

980. Atso zarra milindrin, ire bentak egin din: ortzak ere joan zaizkin, deabru zar bat dirudin (Etxaleku)

1484. Goizean purru-salda, eguerdian aza: aixe kabituko du ipurdian galtza.

1610. Sagarra lore lore denbora denian, gazteak anak arin soñua denian.

1625. Dantzan obeki daki lanian baño, "arto-jorran baño".

1656. Dantzan obeki dako lanian baño, "arta-jorran baño".

1699. Goizian purru-salda, arratsian azak: aixe kabitzen ditu ipurdian galtzak.

1716. Agustin Pierres, ate-zokoan negarrez: arto-puska eskutan, ta ogi-puska naiez.

1781. Neska zarra milindrin: orain iriak (ireak) egin din.

1868. Uso zuria aidean: ederrago maiean.

1922. Tiru-liru kantatzen du miruek: urek ekarri, ardoak eraman arrantzalienen diruek. 2285, 2375. Espartzako erria, tellak gorri gorria; bizi denak ikusi(r)en du buluz-gorri gorria.

2287. Elurre-melurre, ez diat ire beldurre; badiat etxian arto t'egurre.

2458. Yantzan hobeki daki, arto-yorran bano.

Errefrau hauek, esan beharrik ez dago, dantza-kopla garbiak direla. 1610 zenbakiduna, esaterako, gehiagotan ere ikusi dugu.

4

Utzi Lekunberri
Etxarri ta Aldatz;
Pobre gertatu dira,
aurten lurrez babaz

5

Arruiz ori bidea,
guzien burue,
or izanen omen da
saltzeko modue.

6

Madotz eta Oderitz
Astitz ta Mugiro;
orietan Jainkoak,
zerbait emen digu.

7

Baribar ta Irebes
Goazen Allire;
oyetan ez omen da
eraiteko diñe.

8

Errazkin da Albisu
Azpiroz Gorriti,
baban pasia libre
kamio berriti.

9

Amazazpigarrrena
or dago Lezeta;
ikazkin batenikan
erri ortan ezta.

Aita Donostiak Latasan, Nafarroan, hamar koplak bildu zizkion Modesto Lekunberriri 1920an². Koplak ezagunak dira, baina Latasa herri-izenarekin halako herri kutsu berezia ematen diotenak. Neskei egotzitako koplak mutilei zuzentzen zaizkie erreskada polit honetan. *Neska mutilzaleak dena, gurean mutil neskazalea...: Oraingo neskazarrak/ duten arrea ezaguna gurean Latasako mutilek/ duten arrea*. Hona gehiagoko gabe koplak sailtxoa:

10

Latasako mutilek
zer duten merezi:
errekan beratuta,
litxuan erori.

11

Or goyen goyen
etxe bat badago,
euririk ezta sartzen
ateri badago.

12

Baratzeko pikuak
iru txurten ditu;
mutil neskazaleak
ankak arin ditu.

13

Ankak arinak eta
buru ariñago:
dantzan obeki daki
artajorran baño.

14

Artajorrara nua
lur berriberrire,
belarrak jorratu ta
artoa sasire.

15

Latasako mutilek
duten arrea
burruntzali zar zar bat
iru zulokoa.

16

Latasako mutilek
duten fantesie:
gerrian gerrikoa
bestek erosie.

17

Eperrak kantatzen du
goizian intzetan;
neskatxak ez fiatu
mutillen itzetan³.

18

Ederra zara bañan
etzera arrosa,
kolorez zuri-gorri
neskatx' amorosa.

19

Ederra zeran bezin
Baziña sekreta
Maizeo joko nuke
Leyoko krisketa.

² P. JOSE ANTONIO DE DONOSTIA (O.F.M. Cap.). Cancionero vasco, IV: Danzas (1163-1627) in *Obras completas*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994, 2104-2105 or.

³ Jatorrizkoan honelaxe dator: *Eperrak kantatzen du/ Goizian intzian./ Neskaxak, ez fiatu/ Mutillen itzitan/ La ra la la...*

Hamar koplari ezagunen bildumatxo bat egin beharko bagenu hamar haue-
tatik bederatzi sartuko genituzke bilduman. Beharbada desezagunena *Latasako
mutilek duten fantesie*././ Zerrendatxo honek, bere laburrean, dantzarako koplek
duten aldakortasuna bete-betean erakusten du.

Amaiurko Antonio Elizalde txistulariari ere, 1934ko martxoan sail polit hau
bildu zion A. Donostiak⁴:

20

Baratzeko pikua
iru ostu ditu:
dantzan dabilen orrek
oinak arin ditu.

21

Oinak arin arinak
buru arinago,
dantzan obeki daki
arta jorran baino.

22

Oraingo mutil txarrek
zer duten merezi:
urian beratu eta
lixuan (kakuan) egosi.

23

Oraingo mutil txarrek
duten fantesia:
gerriko berria
bertzek erosia.

24

Oraingo mutil txarrek
amar urtetako,
pipa toxa eskuan
ostatura bapo.

25

Oraingo neska gaztek
deramaten gala,
zapata koxkorrekin
debantala nabarra.

26

Ama, nai balin baizu
mutilik erosi,
eliz'atian badire
txanponian zortzi.

27

Onak balin badira,
eztira garesti;
gaiztok balin badire,
probatu ta utzi.

28

Agure zar-zar batek
gure amari
mandatu egin dio
bear nauela ni.

29

Gure amak errepuesta
nola'man baitaki:
etxian baduela
agurerik aski.

⁴ Cancionero vasco, IV: Danzas (1163-1627) in *Obras completas*. Donostia-San
Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994, 1895-1896 or.

Azken bi kopla hauek badute zerikusi handia Azkuek bere kantutegian bildu zuen 822 zenbakiko kantu narratibo batekin. Kantuak “Asentsio-eguna da seinalaturik...” du izenburua:

1

Asentsio-eguna da seinalaturik,
Kristo zerura doia besoek zabalik,
bere diszipuluai adios eginik. (bis)

2

Napar irargi bai, Napar-irargi,
alargun dirudunok ezkongei aundi, (bis)
dirurik eztaukenok or doaz igesi.

3

Agura zar bat daukat oian gaixorik,
oilo bat bere il dotsat, eztauka obekuntzarik,
beste bat ilgo neuskio, urten ezpalekit.

4

Agura zar zar batek ni barko gabean
dantzan erabili nau belaunen gainean,
belaunen gainean da beretzat ustein. (bis)

5

Agura zar zar orrek ama neureari
mandatu egin deutso bear nabela ni;
ama gureak badaki, zoroa dan arren,
enaizela ni gura agura zar orren..

Azken ahapaldi hau, bostgarrena, bi koplaren multzoa baino ez da. Bi kopla horiek Amaiurko bildumako azkenaren berdintsuak dira, inolako dudarik gabe. Hona hemen, azkenik, Patziku Perurenak bildutako zortzi kopla.

30

Eperrak kantatzen du
goizian intzetan; (bis)
ez sekulan fiatu
neskatxan itzetan

31

Berastegin badittuk
iru neskatilla: (bis)
Joxepa, Bernarda ta
Ai ai ai ai, Mari pantorrilla!

32

Oraingo neskatillak
balute norekin, (bis)
ezkonduko lirake
bi ollo dotekin.

33

Oraingo mutil gaztek
arroska burua, (bis)
lepoan korbata ta
ziarro purua.

34

Etxea zuritzeko
ona da kisua; (bis)
orroko neskatx orrek
ipurdi pisua.

35

Zuloa tapatzeko
ona da platera, (bis)
zelatan dagonari
begiak atera!

36

Aure buru aundie
ganbelapekoa, (bis)
i baño naigo nitek
ogei urtekoa.

37

Agure txartxar batek
bart gure amari, (bis)
gona altxatu dio
tralaran tralari⁵.

Ez dugu jarri sorta polit honetan kopla bakoitzak daraman azken errepika. Sorta honetako lehen lau koplak guztiz ezagunak dira, batean eta bestean; azken laurak, ordea, biziak bezain bitxiak dira. Azkena, esaterako, ez dut nik dakidala, beste inon ikusi.

⁵ PERURENA LOYARTE, Patziku. *Leitzako errege erreginak: (ahoz belarrirako urre altxorretan)*. Bilbao: Euskaltzaindia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1996, 522 or.

XVI. ONDARROA ETA LEKEITIOKO KOPLADIA

Lekeitioko koplak saila *Euzkadi* (1933-02-01) egunkariko bilduma polit batekin hasiko dugu. Biltzailea *Beti-bat* izengoitiduna da. Hamabi koplako sailtxo honek argibide hau dakar:

Uarra. Neurtitz oneik neure arreba Jasone eta Agurtzanek abestu deustez. Eztot uste daukenik senidetasunik azkeneko iru bertso orrek besteakin; sasikuak edo dirudije.

Lekeitioko bildumatxo hau oso ezagunak diren bost lehen koplak osatzen duten kantarekin hasi dugu. Euskararen ezaugarrietan bat aipatuko banu, *ateta* hitza egingo nuke, Lekeitioko euskararen *ataria* esan nahi du. Gure sailtxo honek, beste alde batetik, 7-8-9 koplak osatzen duten hirukote finko eta indartsua dakar. Hiru koplak hauek Agustin Chahoren bilduman ere agertzen dira eta zahar bezain zoragarriak dira. Koplak horien gainean hitz egin dugu gure liburu honetan agertzen den azterketa batean.

Hona aldatu dugun Lekeitioko bigarren bilduma Mariasun Gabiola Odiagarena da. Mariasun adiskideak bere amama Maria Leniz Urkiagari jasoak dira. Biltze-data 1984ko azaroaren zortzia. Sail hau Joxemartin Apalategi Begiristainek argitaratutako *Antropologia berria: ahozko herri produkzioa*¹ lanean dator.

Jakina den moduan, zenbaitetan, pandero-joleak lehen bi lerroak errepikatu egiten ditu bi aldiz eta azkena ere bai. Guzti horrezaz gainera, bukaeratzat lehen biak kantatzen ditu berriz. Errepika hauek, hala ere, era batera baino gehiagotara egin ditzake. Hala transkribatzea, ordea, astun egiten da eta ez dugu bide hori jarraitu. Lehen hamaika koplak (gure kontaduriako 13-23 zenbakidunak) halaxe daude jatorrizkoan.

¹ Donostia: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea (EHAE), 1988. T. 3/IV, 852-857 or.

Gainerakoetan errepikatzen dena da bi lehen bertso-lerroak eta azken biak, bukatzeko lehen bi bertso-lerroak kantatzen dituela. Kopla bukatu ondoren gehigarri bat baino gehiago egon litezke: *ai oi ai* direlakoak edo *morena* bezalako epifonemak. Hogeita laugarren kopla, esaterako, honelaxe kantatuko luke:

Olgau nai dabenak
Karmen egunian,
olgau nai dabenak
Karmen egunian,
etorri Markiñara
illunabarrian
Ai oi ai illunabarrian
Olgau nai dabenak
Karmen egunian.

Bilduma hau zoragarria da gure ustez, beste inon ikusi ez ditugun ale zoragarriak dakartzalako. Hemeretzigarren kopla, esaterako, ez dut beste inon ikusi. Badu sail honek, gainera, Lea-Artibai bailadako herrien aipamena: Markina, Aulesti, Amoroto eta abar. Hona aldatu dugun koplari, esaterako, Karmen eguna aipatzen da, Markinako herri-jai nagusia, uztailaren hamaseia.

Transkribatzeko irizpideei gagozkiela, ahal dela ez dugu ezer aldatu nahi izan. Hamahirugarren koplari, esaterako, *oiñeko miñez* transkribatu dugu ia beti *oiñetako miñez* agertzen bada ere. Beste kasu argixko bat aipatzearen *gerrixa dinddia* delakoa *gerrixa lindia* izan beharko luke baina berriemaileak halaxe kantatzen bazuen, zergatik aldatu?

Ondarroako kopladiari osatzeko *Boga-Boga* aldizkarian² errefrautzat bi hauek ikusi ditut: *1. Munduan nai dabenak luzaroan bizi, oilloakas oera, txoriakaz jagi. 2. San Pedro zeruetako giltzaren jaubea, zeurea txalupea, neurea sarea.* Bi erre-frau hauetatik lehena da dudarik gabe zabalena. Bi hauek ez ote dira koplak?

Munduan nai dabenak
luzaroan bizi,
oilloakas oera
txoriakaz jagi.

San Pedro zeruetako
giltzaren jaubea,
zeurea txalupea,
neurea sarea.

² MOTXAILIEN ESANKIZUNA. "Esaera zarrak" in *Boga-boga*. (1964 uztaila-abuztua), 6 or.

Neurtitz zarrak

1

Ama zeuriak neuri
kalian topauta,
ez daust agurrik egin, mattia
burua birata.

2

Ama zeuriak neuri
ez agur etteko,
ze palazijo dauka, mattia,
zeuretzako?

3

Palazijo eder bat
atxaren ganian,
ez yako euririk sartzen, mattia,
aterri danian.

4

Pasaten nazanian
zeure atetatik,
negarrak urtetzen daust, mattia,
begi bijetatik.

5

Begija barrez-barrez
bijotza negarrez,
sarri apartatzen naiz, mattia
zeugandik dolorez.

6

Mattia matte zattut
zeuk alan banozu,
bijok biziko gara, mattia,
zeuk gura badozu.

7

Esan zirazun, baña
ez neutsun siñistu,
biarko ninduzula, mattia,
diruak banituz.

8

Diruagattik baño
biar ezpanozu,
zuaz Indijetara, mattia,
ein zaiz indianu.

9

Indijak irabazten
errezak ezтира,
zeure begi ederrak, mattia,
gatxaguak dira.

10

Neure maitte politta
Donostian dago,
iparra gura neuke, mattia,
mendebala dago.

11

Au da beti-betiko
mendebal urtia,
eguntxurik batere, mattia,
iparrak gabia.

12

Esaten zeustanian
mantekia legez,
bixiko giñiala, mattia,
erregiña legez.

13

Abarketak urratuta
zapatarik ez,
Bermion gelditu nintzan
oiñeko miñez.

14

Au dok egixa
zortziko berrixa,
iru txakur txikiko
lau librako ogixa.

15

Agostuen lenenguan
san Pedro Mendixakua,
ez jat³ sekula aztuko
orduko illuntzekua.

16

Andre Marija irailgoz
Arraten erremedixa,
neu bere araxe nua
eitten ez badau eurixa.

17

San Pedro-santa Klaretan
neska zarrak bentanetan,
nobixua topetako
Santixago-Santanetan.

18

Neure nobixuen ama
asto baten jaube dana,
astuek ekarriko (d)eutso
etxian biar dabena.

19

Amak ezkontzeko diñeust
neure moduko batekin,
dotia emongo daustela
ollua bost txitarekin.

20

Neure kapela makurra
beti tabernara gura,
alakon baten itxikot
asunberdiren kontura.

21

Bentanan dauen damia
begi ederren jaubia,
ojala baziñatekez
gorputz da arima neuria.

22

Errekaldian asuna
etxeko andra lizuna,
eun mille sorgiñek erungo al abe
errekaldian barruna.

23

Au da pandero barrixa
Gernikatik ekarrixa,
amar errial pagetako
ez dala urre gorrixa.

24

Altuen san Antonio
bajuan Madalenia,
bixen bittartian dago
Txakurzuloko bentia.

³ Jatorrizkoan *etxat*.

25

Olgau nai dabenak
Karmen egunian,
etorri Markiñara
illunabarrian.

26

Urkiolara junda
zapatak apurtu,
aitta san Antoniok
barrixak ingo ditte.

27

Gorabera luziak
gerrixa lindia,
kolore zurigorri
probentziana.

28

Oraingo neskatillak
tonillo tonillo,
eztago tonillo
maixoranak baño.

29

Nabarriz, Amoroto,
Santa Eufemiamendi,
aretan iruretan
aize otza sarri.

30

Despedida da ta
zagoze kontuan,
akabatzera noia
urrengo puntuan.

31

Eperrak kantatzen du
Arrate ganian,
neskarik ederrenak
Allusti aldian.

32

Amak emon baleustaz
amar amaseiko,
ezkonduko nitzela
udebarrirako.

33

Gorengo ganbarara
bidia labana,
topiñan sartu jaku
mutil barrabana.

34

Tiriki tauki tauki
malluaren otsa,
amalau argin baño
oba dok arotza.

XVII. UBERA (BERGARA) AUZOKO KOPLADIA

Bilduma txiki hau Argiñe Urkiola Andrinuak egindako bilketa batetik hartua da. Lan horren kopia bat Natxo de Felipe adiskideak eskuetaratu zidan duela hamar urte baino gehiago. Hona lanaren izenburua: “Bergarako Ubera auzoan jasotako kanta zaharrak”.

Lehen hiru koplak Ubera auzoko Mari Karmen Gaztelu Egurenak kantatuak dira. Bigarren sailtxoa, 4-5-6 koplak, Maria Luisa Alberdi Arroiatajauregik emanak dira. Jaiotzez iurretarra da M.L. Alberdi, baina 25 urte zituenetik Uberan bizi da. 7-8 koplak Ubera auzoko Bittori Aranburuk emanak dira. 9tik 12rako koplak Mertxe Olabe Zabalak zaldibartarrak emanak dira. Zaldibartarra izan arren Ubera auzoan daramatza urterik gehienak. 12tik 26ra bitartekoak Bixenta Larrañaga elorriarrak kantatuak dira. Lekuko hau hamahiru urtetik aurrera Uberan bizi da.

Bilduma honetan gehienetan ematen diren koplak irakurriko ditu irakurleak. Koplarik ezagunenak diren arren ataltxo bat eskaintzea pentsatu dut. Koplaren bat edo beste aipatzekotan hogeigarrena aipatuko nuke. Zergatik? Liburu honetako sarreran ikusi dugunez, maitasun kanta edo are balada baten pusketa polit bat dugulako. Azkuek bere kantutegian jarri zuen “Bostogei urtetako dontzeilatxo bat” horren pusketa bat da. Bigarren koplak bat iruzkintzekotan hogeita hirugarrena da harrigarria: *Ezkonduta eta/ lelengo gabian/ azak eta porruak/ Orio kalia. Orio edo olio hitzaren zentzua galdu eta Orio herria izentatzen da eta bere berezko esangura galdu egiten da.*

1

Begira nago begira
kamiño bide berrira,
noiz etorriko ote dan
maitia neure errira.

2

Tristerik nago tristerik
ez daukat adiskiderik
tristerik eta bakarrik
adiskide txarra baiño
obe da bizi bakarrik.

3
Alegeriak giñan baña
tristura aundixak jo gaittu,
zazpi librako oillo zurixa
basakatuak jan dosku.

4
Nere nobiuaren ama
asto baten jabe dana,
astuak ekarriko dio
etxian biar dan dana.

5
Illuna dago posua
amoretxu bat besuan,
etxean zer jan ez degu
manteniduten auzuan.

6
Gazia nintzianian
denbora batian,
ez nitzan sosegatzen
ezkondu artian.

7
Ezkondu nintzianian
lelengo gabian,
zazpi belarrondoko
obe baztarrian.

8
Baratzeko pikuak
iru txorten ditu,
neska mutilzaliak
ankak arin ditu.

9
Ankak ariñak eta
buru ariñago,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

10
Artajorrara nua
luarri berrira,
belarra jorratuta
artuak sasira.

11
Aitak artajorrara
deitzen nauenian,
ama oera nijua
min det sabelian.

12
Errekonduan errota
aren gaiñian arria,
arri gaiñian txoria,
neskatxo mutil zale
engañagarria.

13
Matraillatxo gorria
krabeliñatxo bezelakua,
larrosatxuak bost orri
krabeliñiak amabi.

14
Andre ederra nai dabenak
errondan ibili sarri,
andre ederra nai dabenak
errondan ibili sarri.

15
Ederregia zera zu
soluan biarrerako,
artizu kaballerua
kalian pasiorako.

16
Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin,
dotia emango didala
oillo lokia bost txitekin.

17

Begira nago begira
goiko kamiño berrira,
noiz etorriko ete dan noiz
nere maitia errira.

18

Nere maitia zer dezu
kolore txarra daukazu,
koloria mudatzeko
metalura edan bear dezu.

19

Begira nago begira
goiko kamiño berrira,
noiz etorriko ete dan noiz
nere maitia errira.

20

Tristerik nago tristerik
tristerik eta bakarrik,
nobiua daukat gaixorik
oillo bat il detzat baiña
ez duela mejoriarik.

21

Tristerik eta bakarrik
adiskide txarrakin baiño
obe da bizi bakarrik.

22

Gaztia nintzarian
denbora batian,
ez nintzan sosegatzen
ezkondu artian.

23

Ezkondu eta
lelengo gabian,
azak eta porruak
Orio kalian.

24

Ankak arinak eta
buru arinago,
dantzan obeto daki
artajorran baino.

25

Artajorrara nua
luarri barrira,
bedarra jorratu ta
artua sasira.

26

Arrateko pikuak
iru adar ditu,
neska mutilzaliak
ankak arin ditu.

XVIII. ZEBERIOKO KOPLADIA

Bizkaiko sartaldea ezagutzen dugun lurralderik aberatsenetakoa izan dugu dantza-koplatan. Zeanuri eta Zeberio, esaterako, Bizkaiko sortaldeko Lea-Artibai eskualdea baino mila aldiz aberatsagoa izan da. Horren adibide argia dugu Zeanuriko kopladia. Zeberioko kopladia, geure ustez, Zeanurikoa bezain aberatsa izan behar izan da. Zergatik ez dugu, bada, erreskada aberatsik? Bizkaiko alderdi honetako koplak bilketa berandukoa izan delako, inolako dudarik gabe.

Geure atal honetara, hala ere, bi sail ekarriko ditugu, lehena Juan Manuel Etxebarriaren *Zeberioko kantak*¹ liburuan barrena barraiaturiko koplez osatua, 79 koplak guztira.

Bigarren saila 27 koplakoa da eta Artiñano Legardi Romeroren artikulua interesgarri batetik ateratu ditugu, “Zeberion erromeria”² artikulutik. Tankera honetako lanetan nekez badatoz ere, aipatutako artikuluan Zeberioko trikitilarien berri emateaz gain erromeria leku eta datak ere biltzen ditu artikulugileak. Gure lan honetarako, ordea, interesgarriena agertzen duen koplak-sail polita dela deritzagu. Oraingoan ere betiko irizpide bera erabiliko dugu. Ez diegu, beraz, dantza-koplei gaurko ortografia bete-betean erantsiko.

Lehen saileko lehen hogeita zortzi koplak Leon eta Mauriziaren errepertorio-koak ditugu. Diogunaren argigarri da hogeita zortzigarrena: *Eup, Leon Arteakoa, albokari famosoa; Mauriziak jotzen deutso/ berari be panderoa*.

Bigarren sailean badira zahar kutsua duten zenbait koplak. 99. koplak, kasurako, Azkuek eta abarrek jasotako moduan ikusten dugu *Gazteak badakizu/ zela(n) dantzan egin /... ,* hau da, *badakizu* adizkia gazteak pluralari dagokiola, adizki zaharren era zaharra gordetzen dela (*gazteak badakizue* erabilera berriagoa litzateke). Zeanuriko koplak atalean Azkueren oharra ere jarri dugu.

¹ Oartzun: Sendoa, 1999.

² Elorria. Zeberio: Elorria Kultur Elkartea; Bilbao: Beta III Milenio, 2002, 11-13 or.

Subjuntibozko baldintza *edin* erroduna ere agertzen da: 105/.../ *an dauzen mutilekaz/ tardau ez baledi*. Ez ote da, hala ere, *baledi* hau *balegi* baten aldaera?

1

Neure lastana, zer dozu?
kolore txarra daukazu;
koloreak gorrituteko
metalure edan bear dozu.

2

Itxasoan ura lodi
ta ez dau ondarrrik agiri:
neure lastana ikustearren
pasauko nainteke andi.

3

Txikitxue zara baia
aziko zara ondino;
aziten ez bazara be
ez zaitudala itxiko.

4

Txikitxu eta polita
orain amazortzi urte,
alargunaz ezkontzea
asko sentiduko neunke.

5

Ederregia zara zu
soloan bearrerako;
artizu kaballerua
kalian paseorako.

6

Ama buruan min dot
ta ez esan aitari,
gaubeko errondeak
galdu nauala ni.

7

Asko gurotzut nik zuri,
beste bateri geiago;
ez naz ezkonduko zugaz
iñon besterik badago.

8

Itxasoan doianean
ontzia kristalezkoa,
zeinbatek esango ete dau
Birjiña Begoñakoa.

9

Altuan bizi naz baia
kalera daukat gogoa,
ortik jenteak dauka ta
bizitza alosokoa.

10

Amak ezkondu nadila
Otxandioko urira,
ez dot joan gura baia
ango untzegintegira.

11

Nere aitak amari
zer egin deutson bazenki:
fraka zarrak saldu eta
gona barria erosi.

12

Nere aitak amari
gona gorria ekarri,
gona gorri-gorria
zazpi jostunek josia.

13

Neuk esanda ez zara joan
neure laztanan portura:
atzo goizean esan neuntsan
egun on euki daizula.

14

Amak ezkondu nadila
nire moduko batekin,
dotea emongo deustala
amalokea bost txitekin.

15

Agur eta banoa
Ondarroara soldadu;
ez dot joan gura baia
banaruela seguru.

16

–Antonio, nora zoaz
zure bibolin orregaz?
–Domekan Errigoitira
etorri nai bozu neugaz.

17

Salada batek Zorrontzan
egin dau gona gorria;
ganetik bota deutso
aginadura zuria.

18

Auxe da despedidea,
despedidonen tristea!
Egin badot berba txarto,
parkeske nago, jentea.

19

Entzun dot esan dozula
ez zagozala niretzat;
eskerrik asko, majea,
neu bere ez nago zuretzat.

20

Mendi altuan edurra,
bota surtera egurra;
neska galant baten amak
mutil zatarren bildurra.

21

Euskeraz kantauko dot nik
dana dakiten moduan:
pobrerek ez dala bizi
aberatsaren moduan.

22

San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzan ni;
denpora txarrak emonda
ez nintzan ondo ibili.

23

Begira nago begira
goiko kamiño barrira,
noz etorriko ete dan
neure maitea errira.

24

Ama gureak baleki
zelango alabea nazan ni,
egunez negar da negar
eta gaubean lo gitxi.

25

Panderetatxo barria,
amak Bilboti ekarria,
amar erreal pagauta
erdia urre gorria.

26

Altuan bizi naz baia
kalera daukat gogoa;
ez dot jakin orain arte
nora dan amodioa.

27

Begira nago begira
kamiño zubi barrira,
noz etorriko ete dan
alkate gure errira.

28

Eup, Leon Arteakoa,
albokari famosoa;
Mauriziak joten deutso
berari be panderoa.

Porruak

29

Goiak arinak dozak,
beak arinago;
jantzan obeto daki
artajorran baiño.

34

Diman erromeria
maiezpaskoetan;
or datoz mutilok
neskak konbidetan.

30

Mutil anka luzea,
begi arranpalo;
jantzan obeto daki
artajorran baiño.

35

Neskak konbidetako
Dimako plazea;
mutilok galdu daude
sedazko boltsea.

31

Errementari baiño
oba da zesteru:
lepo bete egur artuta
kolko bete diru.

36

Amak emon baleutsie
etxean lotsea,
ez eudiela galduko
sedazko boltsea.

32

Ekin, ekin, gazteak
neuk esan artean;
etxera joango gara
gaua in daitenean.

37

Oraingo neskatillak
zer dabe merezi?
Errekan beratuta
galdaran egosi.

33

Amaika demoniño
baiagok munduan;
Josepa lengusinak
engañau ninduan.

38

Maritxu karduena,
neskatxa polita,
aurreko trapu zarra
moño³ ifinita.

³ Jatorrizkoan *mono* irakurri dugu.

39

Begiak baltzak-baltzak,
azala zuria;
axek topauko jok
lastertxu nobia.

40

Barregarriak dozak
katuen arrautzak:
ondora biribilak
puntara zorrotzak.

41

Gizonak gura badau
euki deskantsua,
andrea artu daiala
zaarra ta antzua.

42

Andrazkoak badakar
sarri umetsua,
erraz faltauko jako
berari pentsua.

43

Aita ta ama tabernan dagoz,
ama ta alaba jokoan;
barriro be ez da faltako
erropa zarra kakoan.

44

Pasetan nintzanean
zure portaletik,
negarrak emoteustan⁴
begi bietatik.

45

Onako lotsabako
lotsa ez dozuna,
ia galdu deustazu
nire osasuna.

46

Urkiolara joan,
zapatak urrutu;
gure san Antonio maiteak
barriak ingoitu.

47

Askok egiten deutso
san Antoniori,
egun batean joan, maitea,
ta bestean etorri.

48

Aita san Antonio
Urkiolakoa,
askoren biotzeko, maitea,
santu debotoa.

49

Durangon bazkalduta
Mañaritik gora,
aldatz andia dago, maitea,
san Antoniora.

50

Urkiolara joan
domuru santuruz;
lelengo preguntea, maitea:
Non dao Maria Jesus?

⁴ *Emoten eustan* horren kontrakzioa dugu *emoteustan*. Bizkaiko beste leku batzuetan *urteten eustan* da.

51

Iturrira joan da
laster da etorri,
mandazain mutilokaz, maitea,
tardau ezpaledi.

52

Mandazain mutilaren
errosarioa,
birjina Santa Klara
Erriojakoa.

53

Maritxu Petronila,
Olabarrikoa,
txakurrak jan deutsal
surteko taloa.

54

Gaztea nintzanean,
denpora batean,
ez nintzan soportatzen
ezkondu artean.

55

Ezkondu eta gero
urrengo gaubean
zurra artu nendun
oiaren aurrean.

56

Ederra ta galanta
biek leku baten,
ona ta aberatsa
latz dago billatzen.

57

Atsoa zarra zarra
aburea zarrago;
atso demoniño ori
ken akit orrago.

58

Arraska la tximani
karraskillea lau,
neska zarraren billa
astean iru gau.

59

Ubotaren ganean
iru tirolari:
Txomin ta abadea
ta Manuel de Goiri.

60

Patxiko tantanero,
txarria soloan:
ataraten ez bozu⁵
makillea lepoan.

61

Maria Pitxinena,
neskatxa polita,
aurreko trapu zarra
moño ifinita.

62

Antonio Goitia
arotza ta argina,
amaika neska-mutileri
jantzan eragina.

⁵ Autorearen oharra: ez bozu (ez badozu).

63

Belea dabil atxean,
berentzat zorigatxean;
arantza baltza sartuko al jako
atzeko zulo baltzean.

64

Antonio Polonio,
txarrie soloan;
ataraten ez bozu,
bardea lepoan.

65

Martin errementari,
bentanan lora,
urra dalakoan
plomoa daroa.

66

Klaudio Laudio kamino,
ez jaukat dirurik;
lau alaba jaukadaz
ezkondu gabarik.

67

Bosgarrena semea
kapote zarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin.

68

Txakur gorri polit bat
faltau jaku guri;
señale onak dituz
agertu baledi.

69

Antonio Goitia
txilibeteruak
kuartillu terdi gaitik
joten dau soñua.

70

Antonio Mintegiko
tanbolinteruak
izterrak zabalduta
joten dau soñua.

71

Orozkoko errian,
atean atean,
amaika neska mutil bajagok
alperrik galtzean.

72

Ezkontzen ez badira
aurtengo urtean,
errematera doa, maitea,
datorren urtean.

73

Nor izango ote da
errematantea?
Perutxu Tokolo Olazarreko
faltso bergantea⁶.

74

Matxalen Busturiko
izan balitz ona,
ez zala etorriko
Busturitik ona.

⁶ Biltzaileak ohar hau egiten du: "Perutxu-ren tokian edozen izen. Olatzar toponimoaren ordeztu beste edozein".

75

Matxalen Busturikok
goizean goizean,
errondea darabil
bere portalean.

76

Udaberria da ta
Manuela bero;
arexek emoten jok
eskatu ezkeru.

77

Amorebietako
bizi-alarguna,
bakarrik egon barik
artuina⁷ laguna.

78

Negar ta negar dago
Errosa gurea,
katuak jan deusala
bai, lebadurea.

79

-Ez egizu, Errosa,
katua mankadu;
saguak kuxetako
katua bear dogu.

80

Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galantan amak
mutil zantarren bildurre.

81

Ederregia zara zu
soloan bearrerako,
obe da kaballerua
kalean paseorako.

82

Neure nobiaren ama
asto baten jabe dana,
astoak ekarrikotso, ai,
etxean bear dauana.

83

Begire nago begire
goiko kamiño barrire,
noz etorriko ote dan
neure maitea errire.

84

Abadiñoako Karmentxu
neska polite zara zu,
neska polite zareala, ai,
urrundik ageri dozu.

85

Aite gureak amari,
gona gorrie ekarri,
luze dala labor dala,
garri garritik ebagi.

86

Au da pandero barrie
Durangotik ekarrie,
amar erreal pagaute
dana da urregorrie.

⁷ Autorearen oharra: artuina (artu egin).

87

Neure laztanak jaten dau
mailukiekaz ogie,
ostera bere eukiko dau
luze ta linde gerrie⁸.

88

Mutil txapel gorriduna
jantzan ondo dakizuna,
zuk izango dozu emazte
dama jake zuriduna.

89

Mari Karmen joskilea
etxe oneko alabea,
egun baten josten dauz
prakak eta alkondarea.

90

Dindilin dango Mariñe
beti onela bagiñe,
beti onela izateko
burue dauket ariñe.

PORRUSALDA

91

Domingo da domeka
astelena lunes.
Oraingo neskatilak
artorik jan gure ez.

92

Ai mutil ankaluze
begi arranpalo,
jantzan obeto dakik
artajorran baino.

93

Dimen erromeria
maietz pazkoatan,
ortxe datoz mutilak
neskak konbidetan.

94

Txikitxu politori,
zer dozu negarrez?
Aitek tabernarako
dirurik emon ez.

95

Aitek tabernarako
dirue emoteko,
berak artuko leuke
nok emon balego.

96

Amalau zapatarik
ein dabe juntea:
zeinek lenago josi
zapata puntea.

⁸ Harrigarri iruditzen zaigu beste aldaera hau: *Neure maittia zer jan dozu?/ Mallukixekin ogixe/ ostara bere ezta faltako/ garri linda luzie*. Biltzailea Eba Perez. Mertxe Badiolari batua, Kortezubin, 1983an.

97

Gaztea nintzanean,
denpora batean,
ez nintzan sosegatzen
ezkondu artean.

98

Eguzkie joan da
bere amagana,
bier etorriko da
denpora ona bada.

99

Gazteak badakizu
zela(n) dantza egin:
burua gora-gora
kaderai eragin.

MARTXEA

102

Durengon bazkaldute
Mañaritik gora,
Urkiolara goaz
san Antoniora.

103

Urkiolara joanda
zapatak urrutu,
Aita san Antoniok
barriak eingo ditu.

104

Kortan dauku txal bat
azurra ta azala,
aita san Antoniok
loditu daiala.

100

Amorebidetako
bizi-alargune,
bakarrik egon barik
artuizu lagune.

101

Tiriki tauki tauki
mailuaren otsa,
amalau argin baino
oba dok arotza.

105

Iturrira juanda
laster da etorri,
an dauzen mutilekaz
tardau ez baledi.

106

An dauzen mutil orrein
errosarioa,
Birjina santa Klara
Erriojakoa.

XIX. MANUEL LEKUONAREN BILDUMA

Manuel Lekuonak *Literatura oral euskérica* liburuan¹ dantza-kopla batzuk dakartza. Kopla horien iturria 1930. urteko *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* aldizkaria da. Aldizkari horretan, 1930. urtean bi sail handi datoz, Zeanurikoak Eulogio Gorostiagak bilduak eta Manuel Lekuonak berak bilduak: “Cantares populares recogidos por Manuel de Lekuona” (31-89 or.). Lan horretatik lehen koplak aldatu ditugu hona, hau da, “Cantares coreográficos, fandango, danza de pandereta o trikiti” (37-50 or.).

Artikuluaren lehen tarte horretan kopla edo lauko guztiak ez dira dantza-koplak. Lekuonak 67 kopla zenbakitzen ditu. Guk atal honetara dantza-koplak direnak bakarrik aldatu ditugu, 56 guztira. Manuel Lekuonaren bilduma honetan Zeanurikoak, Larrabetzukoak eta batez ere Oiartzungoak daude.

Bizkaiko kopletan grafia aldatu dugu. Eman dezagun adibide bat. *Antxiñe esan neutzan/ Ama seuriari,/ Gorde sakidasala/ Prenda eder ori*. Guk Bizkaiko tradizioan idazten den bezala jarri dugu: *Antxiñe esan neutsan/ ama zeuriari/ gorde zakidazala/ prenda ederrori*. Grafia aldatu arren, fonetismoak gorde ditugu. Orain iruzkindu dugun koplari *zeureari* jarri beharrean *zeuriari* gorde dugu.

Dantzarako gonbita²

LARRABETZU

1

Auxen da pandero berrie
Durangotik ekarrie,
amar errial pagaute
dana da urregorrie.

2

A mutil zer ago sumatzen?
sumatzen edo pumatzen,
nori geituko ete-dotsen
erdu dantzan puska baten.

¹ Donostia: Euskaltzaleak; Beñat Idaztiak, 1936.

² *Invitación a la danza*, jatorrizkoan.

Dantza despedida³

3

Auxe da despedidia,
despedidiaren tristia!
Motiborik emon badot
parkeske nago jentia.

4

Bentana bat egin biar dot
itxasoaren partian,
andixi ikusteko
neure maitia dojjanian.

Dantza-koplak⁴

5

Arin-arin eitten dau
Soloan erbiek:
utsik egitten deittu
punturik erdiek,
Ai, ai, ai!
punturik erdiek
ole morena!
Punturik erdiek
ole salada!
Soloan erbiek.

8

Loria bateti ta
loria besteti,
zeugaitikan noala
mundu onetatik⁵.

9

Ama goruetan-da
alabia josten;
mutilek egon dire
bentanan sorosten.

6

Maria Ramonatxu
labradore fiñe:
antxiñe artu neban
zeuganako miñe.

10

Zer ikusi ete daben
bentana orretan?
Aguria egoala
taloak eretan.

7

Antxiñe esan neutsan
ama zeuriari,
gorde zakidazala
prenda ederrori.

11

Auxe aguriaren
fortuna bakoa!
Gatuak jan dotsela
Surteko taloa.

³ *Despedida de la danza.*

⁴ *Jatorrizkoan: Coplas de baile.*

⁵ Halaxe dakar. *Lehena bateti/besteteti gero onetatik.*

12
Gaztaña koloreko
begitxu balzakaz...
Ondo engañeu nozu
berba labanakaz.

13
Maritxu Karduena
ze atso politte!
Buruen ixaratuagaz
moñoa ipiñitte.

14
Txikirriki soñuen
Bilinkikorako;
zapatatxu berriek
egin uderako.

15
Udeberrie de-ta
denbora beroa;
gazte zoroa naiz da
alegre gogo.

16
Gojengo kantarara
bidie labana;
galdaran sartuko dot
mutil barrabana.

21
Baratzeko pikuak
iu xurten ditu,
neska mutilzaliak
ankak arinak ditu.

17
Esango neuke baña
lotsa naz esaten,
amalau mutil dagoz
sestepe baten.

18
Astegojeneko
jabonaduria,
txitxililn frakak eta
bentanan gonia.

19
Neskatile galanta
beste alderditik,
tarrataria daude
atzeko partetik.

20
Ederregi bazara
lurrean bear eitteko,
ezkondu aberatsagaz
kalean paseatzeko.

OIARTZUN

22
Ankak ariñak eta
burua ariñago;
dantzan obeki daki
artajorran baño.

23

Artajorrara nua
luberrri-berrira,
belarra jorratuta
artua sasira.

24

Arantzazura nua-nua
ai nere poxa!
antxen ikusiko det
praile kaska-motxa.

25

Arantzazu-mendiko
Grabelin gorriya;
Neskatxa muxugorri
Engañagarriya.

26

Xole ta xole
xole goxua!
xolek eran du
mama goxua.

27

Ernaniko plazan
iru atso dantzan,
irurak ez dute
ardit bana poltsan.

28

Ernaniko plazan
iru atso dantzan;
irurak ez zizuten
ardit bana poltsan

ZEANURI

29

Aputz eta Polañe
ibili ziren yantzan
Igartuko landan
garixume santan.

31

Txirikiti-txaiña
biar domekea,
txokolatez beterik
baneuko tripea.

30

Potxolo joango da
India urrinera,
aitetxon pañeloa
gorbeta dauela.

32

Oraingo neskatillen
dote arreoan,
buruntxaletxu zar bat
iru zulokoa.

OIARTZUN

33

Oraingo neskatxak
zer dute merezi?
Lisiban beratuta
gobaran egosi.

ZEANURI

34

Amalau zapatarik
ein dabe juntia:
zeiñek lenago josi
zapata-puntia.

35

Txikirrikitsu, nongua zera?
-Ni, jauna, Markiñakua.
-Lau ziri baño gurago neuke
baziñe neure errikua.

36

Tiriki tauki tauki
malluaren otsa,
andixik bera dator
pralle buru motza.

37

Tiriki tauki tauki
malluaren otsa,
bizar ezkontzen zaigu
gure neska motza.

38

Abarketa zurijak
sinta ta ebilla...
Ez giñala etorri
txotxolo orren billa.

ESKORIATZA

39

Libiri ta labero,
bai, ganau-useña
errotako astuak
bai, bedar gureña⁶.

OIARTZUN

40

Arantzazu-mendiko
paguaren onduan,
Mariya santisima
nedukan goguan.

41

Ategorriyetako
danbolinterua,
bizkarra makurtuta
jo zazu soñua.

⁶ Hemengo gureña ez da besterik gure adina baino.

42

Barku zarrian jon
berriyan etorri:
nere nobiyuaren
suertia den ori.

43

Nere nobiyuaren ama
asto baten jabe dana:
artxek ekarrik[o] zigun
etxean bear degun dana.

44

Sarjentua moxkorra
txarretera galdu;
neskatxak dirua eman-ta
berriya erosi du.

45

Aizazu, txiki,
aizazu maite:
nundik bera dagon
Portugalete?

46

Portugalete
vino clarete
erango nuke, bai,
baso bat bete.

47

Baso txikiya baño
aundiya nayago,
tabernariyarekin
aserre nago.

48

Enakela, banakela
enak artakua;
buztiñakin ingo nitek
i bezelakua.

Erromeriatik bueltan

49

Burruntxali xar,
xarranbillote!
Pepari muturra
jan diyote.

50

Iru gorontza
gonarik ez;
ezkondu nai ta
majorik ez.

ESKORIATZA

51

Erromillete
erromillete
Erroken astua
Mikelete.

IRUN

52

Tti ttibili ttibili ti
tti ttibili ttibili tti
tti ttibili ttibili tti
tti ttibili ttibili tti.

53

Gure Samartxiel,
ez geyegi penatu;
xator batek dixu
ermita xulatu.
Samartxiel!
txanponeko dominua
tti-ttibili-ttibili-tti. Etab.

OIARTZUN

54

Jaleo, jaleo
tikiyok amari eltzia
Atzetik, atzetik,
dena babaz betia.

Axeri-dantza

OIARTZUN

55

Alpargatak urratuta
zapatarik ez:
Erniyon gelditu nitzan
oñeko miñez.

56

Auxen duk egiya,
zortziko berriya:
iru txiki ardorekin
librako ogiya.

XX. HAN HOR-HEMENO LAN MONOGRAFIKOETAN SAKABANATUTAKO KOPLAK

Herri bateko eta besteko euskara biltzen duten liburuetan, askotan, edergarri eta aberasgarri, herri-kanta zein testuak eskaintzen dira. Ideia zoragarria, benetan. Aditzen eta deklinabidearen paradigma beharrezkoek gainera herri-altxorren erakuspen polita izan ohi da, gehienetan, liburuaren azkenaldera ematen dena. Holako aleek izan behar ote dute beren lekua gure liburu honetan? Hona neure ikuspuntua. Aukeran dauden lan monografiko zein artikulu guztietako funtsa edo altxorra ez da nahikoa gure dantza-koplen irudi benetakoa emateko. Nik dantza-koplen altxorra ispilu hautsi baten tankerakoa ikusten dut. Zenbat eta ispiluaren puska gehiago batu, hainbat eta ispilu osoagoa eratu genezake puska guztiekin. Zenbat eta biltzaile gehiagoren lana berbildu, hainbat eta altxor osotuagoa eman genezake. Bihoaz, beraz, bildu ahal izan ditudan ale hauek.

Loiuko koplak

Mikel Atxa adiskideak bere amama Pantxike Urrutikoetxea loitarrari¹ bildu zizkion kopla hauek. Bilketa 1990. urtekoa da. Kopla hauek lo-kanten doinuan kantatuak izan arren trikiti-koplak dira. Sail luze bat argitara nuen “Sehaska kanta” artikuluan *Ahozko literatura: genero txikiak*² liburuan. Sail haretatik politentxoak hona ekarri eta zenbakitu ditut.

¹ Pantxike Urrutikoetxea Mentxaka (1904-1998) Laurotan jaio eta bizi izan zen, aita Laurotakoa eta ama Gatikakoa zituen.

² Bilbao: Labayru Ikastegia, 1991, 83-118 or.

1

Zamudioko sague
aren begire katue,
urdai-lapurretan dabil
katu madarikatue.

2

Lezamako neskatxa bat
iko ganean negarrez,
baja neizu, baja neizu!
Jaungoikoren amarez.

3

Txikerrak azten deituena
zeru altuen Jainkoa,
aziko zaitu zu ere
txikitxua (i)azi bakoa.

4

Ama neuriak aiteri
praka barriek ekarri,
aundiegi dituela eta
erdi-erdi ebagi.

5

Eroango zaitue bañe
ez zara ondo biziko,
Bilbon usauko neskatxentzat
erri txarra Orozko.

6

Laztanan portalean
(i)arbola eder bi,
bata da lirio ta
bestea da madari.

7

Maitea maite zaitut
zeuk olan banozu³,
ez esan banozula
maite ez banozu.

8

Ama neure biotzekoa
ez egin negarrik,
gizona il dot eta
(i)ordeia dot zor nik.

9

Obabatxue lolori
seiñ onek aita dirudi,
seiñ onek dantzan ikisiko dau
aitagana emon baledi.

10

Asue ta Erandio
Sondika ta Loiu,
bear asko eginde
arto gitxi koiu.

11

Neure nobio majo
Malmasedakoa,
astegunien bere
yake/txapel zedazkoa.

12

Urkiola ganeko
paguaren atzien,
errekadu ein zeunstan
zeutzako ustien.

³ Zintan *banauzu* entzuten dut.

13

Errepuesta emon nontzun
ondradamentean,
ez nazela⁴ zutzako
bai zorionean.

14

Beste izeko bat bere
nenduen Algortan,
ak bere agindu ostezan
arratoiak kortan.

15

Matxalen Busturikok
amairu nobio,
zazpi mediku eta
sei botikario.

16

Matxalen Busturiko
amari negarrez,
amantal barri barik
ezkonduko danez.

17

–Ene alaba Madalen
ez eizu negarrik,
ez zara ezkonduko
amantala barik.

18

Txomintxok emon dotso
bosteko gorrie,
Madalenek ekarri⁵
amental barrie.

19

Santantontxu egunean
Mungien perie,
araxe joan dire
Peru eta nobie.

20

–Nora izan zara Mari?
–Bilbora izen naz,
ikeratute nago
ango kontuekaz.

21

Bilboko damatxuek
ez daude lo egiten,
euren buruko zapok
modara iminten.

22

Ain iminten deituez
txurruiek andiek,
azkonarra dirudi
euren arpegiek.⁶

23

Gaztiak bakizue
Antonon barririk:
zazpi mando (e)i dekoz
kortan ernaririk.

24

Nai direla arra(k)
zein nai direla emeak,
ernaririk badekoz
ingotzoz⁷ umeak.

⁴ Zer da *ez nozula* edo *ez nazela*?

⁵ Nik lehen transkripzioan *ekarrine* jarri nuen.

⁶ Lehen transkripzioan *aurpegiek* jarri nuen.

⁷ Zer da *ingotzoz* hau? Ez da besterik *egingo deutsoz* baino. Lehen transkripzioan *ingotziz* jarri nuen.

25

Txikitxu polite batek
ni barko gaubean
yantzan ibili naula
belunen ganean.

26

Erabilten ez banau
gaubean gaubean,
eskagirik imingo[t]
tximinin parean.

27

Zortzi ta iru amaka,
zeu lango dauz banaka,
ederregi zaralako
gure zaituzie danak ba!

28

Magale zabalean
sortu zan etxea,
Espiritu Santuan
obran ta graziaz.

29

Espiritu santue
obraz sortu zana,
Trinidad Santuko
bigarren persona.

30

Amari kendu barik
donzellatasuna,
Jesus Mariagandik
gure Jesus ona.

31

Bentanarik bentana
dabilen mutille,

zar sunde deula ta
ez dau inok gure.

32

Amak esan deula Manu
ez zareala zu neutzako,
eskerrik asko Manutxu
ez naz neu bere zeutzako.

33

Ekin ekin gazteak
billurrik bagarik,
il da Barrabas eta
ez dao infernurik.

34

Amaka demoniño
bayagok munduen,
Josefan lengusinek
engañau nenduen.

35

Josefa (i)atarazu
obeto kontue,
zer esan bear duskun
Jangoiko santuek.

36

Morenita me llaman
los ar(t)illeros,
si me llaman otra vez
me voy con ellos.

37

Andiko errietako
Pedro begizuri,
gorantziek deukedaz
emoteko zuri.

38

Andiko errietako
Erramun jansarri,
iñok bere ez leizu⁸
urrik emon zuri.

39

Amaka ta (i)amabi
ogei ta iru lauko,
atsoak alabea
salduteko deuko.

40

Atsoak alabea
saldu daienean,
pozik egingo deu lo
oian bazterrean.

41

Maritxu tabernerea
neskatxu konponidea,
kuartillu t'erdi ardauaz
egiten dau azunbrea.

42

Gazteak badakizue
zelan dantzan egin,
besoak gora-gora
kaderari eragin.

43

Damatxu bentanakoa
egon zakidaz kontuen,
amore batek utse emanaitik
beste asko da munduen.

44

Antonio nora zoaz
Zeure bibolin orregaz?
–Santa Kruz Bizkargikora
nai badozu etorri neugaz.

45

Pedro Erriko, Pedro Erriko
Goierriko flauterue,
aren soñuen dantzan iteko
eskuen bear da dirue.

46

Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galantan amak
mutil zantarran bildurre.

47

Antxiñe gaztea nintzen
orain egin naz agure,
andreak eta umeak bere
ez naude ikusi gure.

⁸ Alderantziz ere bai: ez leizu iñok bere.

Bergarako koplak

Bergarako Euskera liburuan⁹, “Esaera zaharrak” sailean, 20 esaera datoz. Esaeretako bat koplak esaera bihurtua da: *Markiña-Etxeberriko/ Joxepa Ramona/ ezer ez emoteko/ baiña borondate ona*. (Ez daukagunean borondate ona izan ohi dugu). Gure sailerako, ostera, “Lo eta jolas kanta” sailean agertzen diren koplak dira interesgarrienak. Hona hemen:

1

Nere maite polita
Donostian dago,
iparra gura leuke
mandebala dago.

2

Hau da zorioneko
mendabal urtia,
iparrikan beiñere
atera gabia.

3

Arrateko zelaiko
lirio loria,
anditxe gora dago
zerura bidia.

4

Txikitxo politori,
zeu nere laztana,
katigatu ninduzun
libria nintzana.

5

Libriak libre dira
zu ta ni katibu,
librerik obe dana
guztiok dakigu¹⁰.

6

Txikitxo polittori
zu nere laztana,
askoren zoragarri
mundura ziñana¹¹.

7

Artolok dauko, Artolok dauko
(Artalak tauka, Artalak tauka)
Artolok ddauko famia
(Artalak tauka famia)
beria dabela, beria dabela
mundu guztiko jentia.

8

Urrapanpa Xixili
lapikua jo ta itxuli,
urrapanpa Manola
katuak legatza jan zola.

9

Aittaitta ta amama
juan ziran mendira,
aixkoria galduta
asarretu ziran.

10

Aittaittak amamari
kopetatik tira,
amamak aittaittari
belarritik tira.

⁹ Bergara: UNED, Euskal Kultur Departamentua, 1988, 281-283 or., 286-297 or.

¹⁰ Berri-emaile: Paula Alberdi. 1922an Osintxuko Mugarrin jaioa eta bertan bizi dena.

¹¹ Berri-emaile: Rufina Beiztegi, 1905ean Isasi-n jaioa, Ozaetan bizi dena.

Antzuolako koplak

Bergara ondoko Antzuola herriko euskera batzen duen *Atzuolako hizkera*¹² liburutik ere dantza-kopla polit batzuk ekarriko ditugu hona:

1
Txikitxo politt ori
lurraren gaiñian,
askoren zoragarri
mundura ziñian.

2
Asko gura zaittu eta
bakizu zeuk ere,
asko gura dabena
nai neuke neuk bere (304 or.)

3
Txikitxo politt ori
zu nere laztana,
askoren zoragarri
munduan ziñana.

4
Asko gura zaittu ta
bakizu zeuk ere,
asko gura daben bat
nai nuke neuk ere.

5
Turuku ttuku ttuku
es neri ikutu,
ama ganbaran dago
sentittuko gaittu.

6
Ama ganbaran
eta aitta sukaldian,
neska-mutillak berriz
eskillarapian. (313 or.)

7
Txantxulario kamiño[k]
ez dauka dirurik,
lau alabatxo dittu/ lau alaba badittu
ezkondu gaberik.

8
Bosgarrena semea
kapote zarrakiñ,
konejua dirudi
bere bizarrakin. (319 or.)

9
Panderuan narruak
irauten badau,
Jauregiko mutil zarrak
soiñua joko dau. (320or.)

¹² LARRAÑAGA IGARZA, Jone. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala, 1998.

Aia herrian bildutako uztaxoa

Ixilik izenordea darabilenak bertso zahar eta kanta puska zenbait argitara zituen *Euzkadi*¹³ egunerokoan. Gure biltzaile horretaz dakigun zehaztasun bakarra da Aian bildu zuela bere uzta. 1932ko uztailaren 22ko bilduman honako dantza-kopla hauek daude:

1

Tin tilin, tin tin tin
marrubaren otsa,
oraingo neskatillak
ezkontzeko poza.

2

Ezkondu nai dute
nun dute dotia?
Mantalaren azpijan
botella betia.

3

Nere gaztetan sartu banintzan
fralia edo misijo;
nere gorputzak ez zun izango
orain hainbeste bixijo.

4

Ai Katalin, Katalin,
Katalin gaxua!
bigarren batalloyan
daukazu majua.

5

Txikitxuba da baña
gutziz da pijua,
kazadorietako
kabo primerua.

6

Alperkeriz beteta
lanik egin nai ezik,
iru alaba dauzkat
ezkondu nairik.

7

Laugarrena semia
kapote zarrakin
konejua dirudi
bere bixarrekin.
Iñok ezkondu nai al dau
alaja onekin?

8

Ai, ai, ai mutilla
txapela gorrija
zer dezu ixena
ipurdi gixena.

¹³ IXILIK. "Euzko-erri-jakintza" in *Euzkadi*. 6.107 zenb. (1932-07-22), 5. or.

Iñaki Gaminderen uzta

Iñaki Gaminderen biltze-lan ederretan badira dantza-kopla gogoangarriak. Hemengo gure atal honetan kopla-bilduma polit bat osatu nahi dugu. Lehen kopla sorta, batetik berrogeita bostera bitartekoa, Iñaki Gaminderen “Umeentzako ehun kantu Bizkaiko”¹⁴ artikulutik aterea da. Izenburuak berak adierazten duenez, trikiti-koplak ume-kantu bihurtuak dira horko ehun kantuak.

Guk geure atal honetarako ehun kantu horietatik trikiti-kopla tankera duten berrogeita bost ale ekarri ditugu. Gure zerrendako ordena eta artikulukoa bera da. Gure zenbakitzeko sistema, ordea, liburu honetan darabilgun bera da. Bi kopla segidakoak badira banatu egin ditugu. Era horretakoak dira, esaterako, 2-3, 33-34, 36-37, 38-40, 42-43.

Bi koplako segidetan eder bezain zaharretako bat 36-37 bikoa da, Lope de Vegaren *Los ramilletes de Madrid* obran agertzen dena. Beste biko zoragarri bat, ume-kanta edo sehaska-kanta beharbada, 44-45 zenbakikoak dira. Indiak pluralean Ameriketa esan nahi du eta bibolintero-kopla aintzinakoetan behin baino gehiagotan ikusiko ditugu.

Hona gainerakoen iturriak: 46-48: *Arrieta barbarik berba* (Arrieta: Arrietako Udala, 2001); 49-55: *Bakio barbarik berba* (Bakio: Bakioko Udala, 1999); 56-58: *Meñaka barbarik berba* (Meñaka: Meñakako Udala, 2001); 59-69: *Leioa barbarik berba* (Leioa: Leioako Udala, 2001); 70-71: *Mungia barbarik berba* (Mungia: Mungiako Udala, 2001).

Kopla hauek gure atal honetara aldatzean grafia pixka bat aldatuz geure liburu honetan erabili ditugun irizpideetara egokitu ditugu.

1

Ai mutil ankaluze
begi arranpalo,
tabernako atien
negarrez ei dago.
(Axangiz: G. Egia)

2

Aitite Makuletako
pipetxu zalea,
pipetxuk erre dotzo
surren puntea.

3

Amama koitadea
gortati negarrez,
katuek eron dotzo
taloa dandarrez.
(Erandio: D. Madariaga)

4

Altu altuen dago
san Juan Foruko,
ez dala mutil zarrrik
zeruan sartuko.
(Axangiz G. Egia)

¹⁴ *Litterae Vasconicae: euskeraren iker atalak*. 6. zenb. (1993), 58-90 or.

5

Altuan san Bernabe
bajuan Gordobil,
Otxandixoko plazan
tanboliñe dabil.
(Otxandio: F. Ajuria)

6

Artuak irurogei
garidzek larogei,
ezkonbarri tristiak
zer egin ete lei?
(Axangiz: G. Egia)

7

Asi goiko kaletik
beko kaleraño,
amaikatxu neskazar
badago ondio.

8

Erdi erdidzek dauz
alperrik galtzien,
artun akulue
eta banue saltzien.
(Axangiz: A. Irazabal)

9

Astotxue txikitxua
urrengo lekua
okerreko bidetik
zek ete darua?
(Otxandio: P. Olaso)

10

Atsoa eta agurea
asarratu dire,
alkarrenak dire ta
konponduko dire.
(Zeberio: A. Arroita)

11

Buruan kalboa
da lepoan atrile,
argie parau yakuk
auzoko mutile.
(Zeberio: A. Arroita)

12

Dringili drangoa
ez naz ni zoroa,
sardinen burue baino
oba da olloa.
(Zeberio: A. Arroita)

13

Eder ederra baño
oba da komune,
ederrak kenduten deu
buruko zentzune.
(Zornotza)

14

Ederrak bi balio
onak iru te lau
ederra izeteak
asko balio deu.”
(Leioa: Alizia Elordui)

15

Erramona mona
lau kana gona,
bost kana zinte
Erramona tinte.
(Zeberio: A. Arroita)

16

Esaten datzo san Antonio
astua gaixo danian,
asko agindu gitxitxu emon
sasoya datorrenian.
(Elantxobe: A. Goenaga)

17
Erreka bazterreko
liridxo lorie,
ez da ederra baña
bai edertzalíe.

18
Gaztiék gazte moduen
dibertiñoa aguen,
ez dala bizi pobrerik
aberatsan moduen.
(Axangiz: G. Egia)

19
Gorengo kamarara
eskillara labana
galdarara sartu dxaku
gure neska barrabana.
(Abadiño: Abadiñoako lexikoaz)

20
Guk deku gurdi zarra
baneko kotxia,
antxe lageko neunke
neure atso motxia.
(Lezama: Rosi Goiri)

21
Gure aitite kamaran dago
kartetako jokuan,
ostera bere egongo dira
artatxoriek soloan.
(Zeberio: A. Arroita)

22
Kortako gurdi zarra
balitze kotxie,
antxe erungo nauke
neure neska motxie.
(Otxandio: F. Ajuria)

23
Logure naz ta lo ingo neuke
baneko ogerako lagune,
badekot ogerako lagune baña
agure lepo makurre.

24
Maritxu kardubera
ai ze andre politte,
buruko pañeluz
zedaz ipiñitte.
(Axangiz: G. Egia)

25
Mutil txapelokerrik
artuten badezu,
astian zazpi surre
zuriak dituzu.
(Munitibar)

26
Neure laztango laztango
kalean negarrez dago,
aren negarra obeago da
askoren barrea baño.
(Leioa: Alizia Elordui)

27
Neure maitea zer dozu?
Koloria gorri dozu
koloria gorritzeko
metalure edan bear dezu.
(Axangiz: G. Egia)

28
Neure nobiaren ama
asto baten yaube dana,
astoak ekarkotzo
etxian bear dauena.
(Mungia: Iratxe Zubiaurre)

29

Nire nobidxoaren
dote arridxua,
burduntzalditxo zar bat
iru zulokoa.
(Axangiz: G. Egia)

30

Patxiko txiko txiko
nor dozu nobidxe?
Sentenoaren alaba
koloregorridxe.

31

—
txarrix zoluan
artu kutxilloa ta
badoa kapetan.

32

Peru ta Maridxe
dxuan ziran egurretan,
ez eban bape topa
iai Maridxe i Jose.
(Otxandio: F. Ajuria)

33

Txantxibiri potonak
ez dauko dirurik,
lau alaba dekozela
ezkondu gurarik.

34

Bostgarrena semie
zapata zarrakin,
konejua dirudi
bere bixarrakin.
(Ibarrangelu: A. Goitia)

35

Txiki txikitxue
ta polit politxue,
nori emon dotsezu
neure agindue?
(Leioa: Alizia Elordui)

36

Txikitxu Montañako
ai neure laztana,
katiatu ninduzun
libria nintzana.

37

Libriak libre diraz
neu nago katigu,
libre nais esan arren
ez daukat probetxu.
(Elantxobe: L. Goenaga)

38

Txikitxu polittori
zer dozu negarrez?
Aittek tabernarako
dirurik emon ez.

39

Aittek tabernarako
dirue emoteko,
berak artuko leuke
nok emon baleuko".
(Abadiño: Abadiñoko lexikoaz)

40

Udebarriko lora ederra
non egon zara neguen?
Abazuzen bildurragaz
lurren barruen sartute.
(Leioa: Alizia Elordui)

41

Yo tengo muchas cosas
ixikoak itxite,
una gallina loka
dozena bat txite.

42

Beste ixeko bat be
banukan Algortan
arexek itxi dostez
arratoiak gortan.
(Lezama: Rosi Goiri)

43

Txikitxu polittori
norena zara zu?
Aittena ta amena
aitte zerukoarena.

44

Txikitxu polittori
morena zara zu
zu lakorik ez dago
indietan bere.
(Lemoiz: M. Luisa Arruza)

45

Aitxitxe Makuletako
pipetxu zalie,
pipiek erre deutzo
surraren puntie.

46

Amoma koitxedie
kortatik negarrez,
katuek eroan deutzo
taloa dandarrez.

47

Seintxu txikerra negarrez dago
ama emoixu titidxe,
aitxe faltzoa tabernan dago
pikaro dxokolaridxe.

48

Aitxe san Antoniño
osasune badeu,
artoari itxita
ogie jango dou.

49

Askok egiten dotzo
san Antoniñori,
egun batien dxoan
ta bestian etorri.

50

Durangon bazkaldute
Mañariti gora,
trokotzak sartu dxates
eperditxi gora.

51

Zetako eron zendun
eperdie sabalik?
-Ez nabelako pentzeu
trokotzik yagonik.

52

Matxalen Busturiko
amari negarrez,
amental gorri barik
ezkonduko danentz.

53

Ezkondu eta gero
illebete barik,
porrusaldie eiñ eban
oriorik barik.

54

Amak emongo dotzu
eperdi baltzien,
amak emongo dotzu
eperdi baltzien
beti zabiltzelako
mutillen atzien
ole ole ai
mutillen atzien.

55

Tiriki txiki txauki
mallukaren otza,
tririki taki txauki
mallukaren otza
laster eskonduko da
gure neska motza.
ai oi ai
gure neska motza
tririki txiki txauki
mallukaren otsa.

56

Neska zar bi ebiltzan
juengo jaietan,
euren kokotak apainyu
eta gaztetan agian.

57

Atzetik emon arren
gastiaren antza,
arpegiko azala dute
tximur eta latza.

58

Aitete mukurretako
pipetxuzalea,
pipetxuk erre dotzo
musturren puntea.

59

Amama koitedea
gortati negarrez,
katuek eroan dotzo
taloa dandarrez.

60

Erreka bazterreko
lirio lor[e]a,
es naz ederra baye
bai edertzalea.

61

Es nas ederra baye
bai edertzalea,
ederren atzean da
neure denporea.

62

Seintxu txikerra negarrez dago
ama emoiuzu titie,
aite ordie tabernan dago
pikaro jokolarie.

63

Aite ordie tabernan eta
seme pikaro jokoan,
ostara bere egongo dire
txarri ederrak auzoan.

64

Aita ta seme tabernan dagoz
ama ta alaba yokoan,
ostara bere egongo dire
bei txilindunek auzoan.

65

Neure lastango lastango
kalean negarrez dago,
aren negarra obeago da
askoren barrea baño.

66

-Udabarriko lora ederra
non egon zara neguan?
-Abazuzean bildurreaiti
estaldute lurren barruan.

67

-Udabarriko lora ederra
non egon zara neguan?
-Abazuzean bildurreagaz
lurren barruen sartute.

68

-Mayetzeko lora ederra
non egon zara neguen?
-Abazuzean bildurreaitik
lurren barruen sartute.

69

Aitxitxe Makuletako
pipia zalia,
pipiak erre dotzo
surreri puntia (M)

70

Amoma koittedea
gortatik negarrez,
katu demoniñuak
taloa dandarrez.

XXI. LABAYRU IKASTEGIAREN ARTXIBOKO BIZKAIKO ANTOLOGIA

Labayru Ikastegia orain dela urte asko hasi zen herri literatura batzen, Bizkaian batez ere. Ondare hori bertako ahozko artxiboan dago eta gaur egun ere osatzen doa, aldian-aldian grabazio berriak eginez. Artxibo horretako corpusa oinarri hartuta, Asier Astigarragak 1986an Bizkaiko eske- eta dantza-koplen bilduma prestatu zuen, ikerketa-beka bat tarteko zela. Lan hori ez zen argitaratu, baina nik eskuartean erabili ahal izan dut eta corpus horretatik ale hautatuak jarriko ditut hemen. Erromeria-koplak bakarrik aukeratu eta zenbakituko ditut herrika zerrendaturik. Herriak abezekiro ordenatuko ditut. Batean eta bestean kantatu ohi diren dantza-koplak antzekoak direnez gero, berri-tasun edo desberdintasuna agertzen dutenak sailkatzen ahalegindu naiz.

AMOROTO

1

Aguztuen lenengoan
san Pedro Mendixakue,
ez zaitela (i)aztuko
orduho iluntzekue.

2

Altuben san Antonio
Abadiñoko lurrien,
amaiak bisitatzen du
santue bere egunien.

3

Nabarniz-Amoroto
Santa Eufemia-mendi,
aretan iruretan
aize otza sarri.

4

Amoroto koskonillo
Berritxua fanfarrillo,
Mendexa tremesa poke,
Lekitto gosiek itto.

5

Andre Marixe irailgo
Arraten erromerixe,
neu bere araxe noie
ez badau eitten eurixe.

6

Santa Eufemiako zelaixen
laban einde jausi nintzen,
(i)ez jaten azurrik ausi
mamiñe mallatu jaten.

ARRATZU

7

Iturri eder bat dauko
etseak aurrian,
neuk ere edateko
nai doten guztian.

8

Amar-amaiketako
(i)eguzki klarue,
ixe da neuretzako
etsera-ordue.

ARTEA

9

Laztanen portalian
dagoz arbola bi,
bata da naranjia
bestia madari.

10

Aran azpien dagoz
damatxu polit bi,
bata da dana baltza
bestia lar zuri.

11

Begoñako iturriek
baleki berbetan,

zer esan euko leuke
astelen goizetan.

12

Astelen-martitzenak
egunik onenak,
oian pasetan jozak
Antton Torre zenak.

13

Atsua ta aguria
alkarren atzian,
Basarganera dire
pekorotz artean.

DERIO

14

Biturie ta Araba
Biturien plaza zabala,
alargunek azi ditu
iru alaba galantak.

15

Astotxu bat baneunko
buzten zuriegaz,
Ermure joateko
gona gorriegaz.

16

Madari umo salada
urten egizu plazara,
babalora ederrori
zeu bere jakitun zara.

17

Kalabaziaren aienak
lorea dauko beillegi,
mutil txapel gorridune
babalorea dirudi.

18

Durangon bazkaldute
Mañeritik gora,
Txakurzulon jausi da¹
eperdiez gora.

19

–Zelan etorri zintzen
eperdi zabalik,
–Ez nabelako jakin
trukutsik dabenik.

20

Urkiola mendiek
daben entzutia,
(i)Aita san Antoniori
zor dotso guztia.

21

Fanderetatxu barrie
amak Bilboti ekarrie,
amar errial pagaute
erdie da urregorrie.

25

Antonio Goitia
arotza ta argiñe,
amaika mutil-neska
jantzan eragiñe.

26

Bermion estartagaz
eginez konfesatu,
bibolinegaitiño
kontue artzen du.

22

Txikitxu txikitxutatik
etxetik kanpora,
(i)extranjeri aldian
emon dot denpora.

23

Neure txikiek badeitu
banda bietan zinte bi,
eun duket kostata dagoz
ta (i)ondo ez direz kana bi.

24

Maritxu goietakoa
arpegi ederrekoa,
ez bazara neuretzako
lagun eizu Jangoikoa.

DIMA

27

Azak eta porruek
lengusuek dire;
oraingo mutiltxuek
barritsuek dire.

28

Otsandio, Mekoleta
Ubide aldian,
pobreen fortuna
beti kokotian.

¹ Jatorrizkoan *jausi de dio*, argigarritzat jarri dugu *jausi da*.

Amak ezkondu nadille
 Otsandioko urire,
 ez noa ama araxe
 ango untzegintegire.

EA

30
 Pandero zulodune
 kaskabel bagie,
 Ieko plazan dago
 (i)au baño (i)obie.

31
 Busturiko saladieri
 makillaue ostu dotse,
 aurreko intxaurrien bera
 eskaitte imini dotse.

32
 Oraingo neskatillak
 atoria baltza,
 nik guzurra badiñot
 goniori altza.

33
 Madalen Busturiko
 Busturixan gora,
 zoztorra sartun jakon
 eperdittik gora.

34
 Durangon bazkaldute
 Mañerittik gora,
 trukutza sartun jatan
 eperdittik gora.

35
 Zetarako joan zara
 eperdi zabalik,

ez dozu jakin ala
 zoztorrik dauenik?

36
 Ibarrolan dagoz pozu bi
 batek bestia dirudi,
 Ibarrolako magal zabalak
 an eitten ei dabe iari.

37
 Lau gonak soñian da
 guztiak bustitte,
 etxera juan ziren
 iñonak jantzitte.

38
 Oraingo mutiltxuak
 bibota zorrotza,
 buruan erraixia
 patrikara otza.

39
 Kasuela burruntzaldi
 kutzara tenedor,
 gure auzoko etxian
 geuzia por mayor.

40
 An ibiltzen bada
 etxe aundixetan,
 dirua korriduten
 burdin-bidietan.

41

Mariñelaren andrie
koitteda miserable,
goixean errondan da
(i)arrastien naibagie.

42

Mariñerue naz ni
ez dauka(t) dirurik,
bost alaba dekodaz
ezkondu gurarik.

43

Itsasora noianian
baporra galdugordian,
amaikak esango dabe
banengo ni ligorrian.

44

Orain, orain, orain
enbraren burua,
katarran narriegaz
pandero-narrua

45

Errotapien txorixe
aren ganien arrixte,
arek biak erabilteko
eraztun ona garixte.

46

Idi zuriak ekarten dabe
Mendi alturik otie,
(i)ondo gordeta deukazu
kaixa kisteen dotie.

47

Neure maitea doan orduen
zaldi urdiñen gaiñian,
berreun kaskabel urregorritzko
zaldixek idunerean,
beste hainbeste (i)eta geyago
atzeko pretalarien.

48

Altuen dau san Kristobal
bajuen Madalenie,
aren bixen bitartien
Urrutxun tabernie.

49

Urrutxun tabernarako
txakolin gorrixte,
Albisko neskatillen
kontsolagarrixte.

50

Maritxu, kañie niri,
kañie niri, kañie niri,
Maritxu kuartillu t'ardi
kuartillu t'ardi, kuartillu t'ardi.

51

Kurtillu gutxitxu,
kuartillu t'ardi, kuartillu t'ardi,
Maritxu kañie niri
kañie niri, kañie niri.

52

Eun duket imiñ'odaz
aretx arro baten,
beste euntxo imiñi gura neukez
bixer edo baten

53

Or salto, emen salto
Mutillen antzien,
Amak emongo deust
Niri arrastien.

54

Matxalen Busturiko
ze atso politte,
traputxu zuriekin
moñua iminitte.

55

Juanita burubako
elizan goikua,
amak emon ei dotso
belarriondokua.

EMERANDO

56

Erregalatu nai da
(i)abade morsilla,
ezpanak koipeztuta
morena, (i)ai yagok mutilla.

58

Oraingo mutiltxuan
dote arregua,
fraka zarrak eta
txapel ugerdoa.

57

Txantonek bere jeukan
katue formala,
neuk bere ez dekotela
entero argala.

59

Sarritan egoten da
karkabatan ere,
asto buzten bakorik
ez jok inok gure.

EREÑO

60

Neskatilla-mutillok
utxutxu-mutxutxu,
olan ibili baño
obozue ezkondu.

62

Goizian porrusalda
azak eberdixen,
a ze alimentue
joan dan ile bixen.

61

Aittitte Mutxurixeko
amumazalie,
ez duala artungo
geur lako saldie.

63

Urkiolara joan
domuru santuruz,
lenengo preguntie
non den Mari Jesus.

FRUIZ

64

Aitak errue dako
amak andiago,
an dauzen mutillekin
itxi dotselako.

65

Ama gure badozu
zeruen sillie,
(i)emon alabieri
gaztetan lotsie.

66

Asi Fruizen eta
(i)Artebakarrera,
ez dala politaurik
Siriakatxu baino.

67

Amak esaten dotso
Siriakatzuri,
(i)ez edateko urik
kopatxu bat barik.

GATIKA

68

Sentalla ta barrabas
karako ta koño,
kakartean sartu naz
eperzuloraño.

GERNIKA

69

Txopetien okelia
piperra pikante,
soloan artajorran
ze eitten egon leike.

LUMO

70

Neure nobixotxuek
izena deu Batxi,
ona bada artu te
txarra bada itxi.

MENDEXA

71

Mariñelen emazia
koittadu miserabilia,
goizian senarrarekin
gaberako naigabia.

NABARNIZ

72

Kintoaren bizitza
da penagarria,
errebista daukagu
ikaragarria.

73

Diana jo ta lista
ondoren sopia,
bera jan arte falta
sarritan bakia.

XXII. KOPLA ASMATUAK EDO AUTOREDUN KOPLAK

Sarrera

Kopla asmatuak biltzen dituzten hiru sail ekarriko ditut oraingo atal honetara. Lehen saileko aleak *Iruzubi* delako batek asmatuak dira. Markinako Iruzubieta auzokoa izan behar zuen ezizen hori erabili zuenak. Lehen sail hau, 1-10 bitartekoak, 1930. urtean, *Argia* aldizkarian¹ argitara eman zuen. *Argiako* artikuluan zehaztasun bat ere badakar: “Gurutze Donearen egunean, neskatx bati jarriak”. Guk geure atal honetara errepika ezagunik gabe aldatuko ditugu.

Bigarren sailean, 11tik 91koan, Toribio Etxebarriaren sorta luze xamar bat dakart. Sorta hau *Ibiltarixanak*² liburutik aterea da. Hona zer dioen autoreak kopla hauen gainean: Erromerixa soñurakoak, triki-trirako kantak.

Los juglares de nuestras romerías generalmente improvisan al gusto de los que bailan, a veces con un naturalismo que asustaría a un pagano. Los que siguen, según el genio de nuestro txoko, los envié a los Mendiguren (Alberto y Paula) nuestros amigos de vida en lo bueno y lo malo, a la intención de los que cantan en los corros de Arrate y demás fiestas locales, con una intención pedagógica que temo no la aprecie nadie.

Hirugarren saila, 92-109, Emiliano Mujikak asmatua da eta *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratua³. Kopla asmatu hauek ez dute beste argibiderik egilearen herria baino: Albiztur.

¹ IRUZUBI. “Trikitiak” in *Argia*. X. urtea, 492 zenb. (1930), 1 or.

² Zarautz: Itxaropena, 1967, 178-184 or.

³ MUJIKA, Emiliano. “Alper-alperik” in *Euskal Esnalea*. 13.urtea, 240 zenb. (1923), 222-223 or.

Herri-koplak, nire ustez behintzat, mila bider politagoak izan ohi dira autore-koplak baino. Nik behintzat ez dut ikusten herri-kopletako jenialtasunik ondoko sortetan. Herriaren zigilua berdindu edo imitatu ezina da. Urteen joanak eta gizaldiz gizaldiko kate luzeak ematen dien distira ez dute koplak hauek. Herri-koplak urrezko koplak distiratsuak badira, bestetxo hauek lurrezko koplak ilunak, besterik ezinean. Liburu honetako herri-koplen sail guztien ondoren, ez ote du merezi autore-kopla-sail batzuk ere agertzea? Ez ote ditu kontraste honek ederragotuko gure herri-koplak?

Lehen saila trikitiak

Gurutze Donearen egunean, nexkatx bati jarriak

1

Garai batean aurra
itxu jayotzen zan,
bañan gaur jayo orduko
yayo daki dantzan.

2

Umea izan arren
asko ikusiya,
okerreko bidea
dana ikasiya.

3

Kaliaren erdiyan
mutilleri elduta,
gaxoa ortxen dabill
burua galduta.

4

Ageriyan dabilzki
kolko ta besoak,
zerbai badalakuan
ume mukizuak.

5

Arpegian naikoa
badabilki autsa,
ezpal goriak eta
lepua beltz beltza.

6

Dantzan zebilelako
oñ azpian artu,
mutillak egin dio
beatz dana lertu.

7

Oñak zikiñak ditu
azkazal luzeak,
katea urrezkoa
naiz egon goseak.

8

Anka makil ederrak
uda berrirako,
illar berriarentzat
zurkaitzetarako.

9

Azukria egiteko
naiko gaya badu,
atze, eta aurretik
ezurra ageri du.

10

Txurro ta barkilluak
gogoz ditu jaten,
iñorrek ez baitio
bestarik ematen.

11

Orrelako neskatxik
iñork biar badu,
datorren igandean
aukeratuko du.

12

Ez da mundu onetan
gazte izaterik,
ez badabe gaztiak
dantzako lekurik.

13

Gura badozu ariñdu
orduen astuna,
artu zugaz maittia
eta emon eguna.

14

Gazte zaran artian
jolaseri oratu,
beñ ba gozautakua
iñok eziñ kendu.

15

Usterik gitxienian
degu ill biarra,
gaitetz artian dantzan
deigun beintzat parra.

16

Aratostiak juanda
Garizumia ekarri,
Garizumia igarota
berriz pekatari.

17

Bizixa bai laburra,
bildur juango ete dan,
d'ala be bizi gara
ordueri bultzan.

18

Negarrez jayo nintzan
kantuan nai dot ill,
ba poz negarra naste
munduak darabill.

19

Nola zuk urreratu
dantzan izan ezik,
gura zenduken zura
aittu ixill-ixillik?

20

Amazortzi urtegaz
danak gitxiegi,
preziua jatxi arren
iñor aiñ agiri.

21

Neri eiñ zestazuna
eiñ detsue zeuri;
mundun ez da pagatzen
ez dan pekaturik.

22

Dirudunan ondoren
ni laga ninduzun;
baña oiñ dirudunak
beste bat eiñ lagun.

23

Seguru ni ez naizena
zuk naiko zalduna,
baña ez zuk be neregaz
galduko erastuna.

24

Koittau, Praizko, ebanetz
artu doteduna!
zorion ni andra dotela
laga eban jostuna!

25

Dirudun alper batek
errenti daukala;
edozeiñ biargiñek
egixago jornala.

26

Darabizun gaztian
gaizkirik es esan,
gar orretan ez dakizu
erreko ez zaran.

27

Kontu aundi barik dana
gurarik ezkondu,
beñ ezkonduta gero
beriala damutu.

28

Zenbat arpegi ikusi
ainbeste nik gura;
edertasuna da ba,
mill'asko modura.

29

Zure bayetza lagun
ekitzerakuan,
nola zan ibai ertzian
bela urak eruan.

30

Zenbat maitte neguan
orduan otzetan;
a sua juanda gero
otz naiz epeletan!

31

Zuk aiñ maitte banozu
zaittut nik geixago;
ez detsut artzekorik
da ez zorrian nago.

32

Ez dakitt gaitz onentzat
nik zer botika asi,
beti dot ba buruan
aztu nabena ni.

33

Ez dabe soñuak eitten
erromerixia,
ezta erromeririk
ez bada an maittia.

34

Antxiñakuak diñue
biar aiskidiak,
alkar ondo nai'zateko
noiz beñ asarriak.

35

Badira dakixenak
izarrak neurtzen,
berriz asmau ezinda
neskatxa bat baitzen.

36

Maitasunan gañian,
zenbat ez da esan!
milla urtik juanda
beti asieran.

37

Milla liburu sakon
irakorri alperrik;
biotzeko nai-gura.
zer dan dakixanik.

38

Aizia letz suantzat
maittientzat urrindu;
bada gitxi, amatau,
aundi' berriz biztu.

39

Zeri zagoz begira?
Erosi al nai nozu?
Mundu dana bat eĩnda
naiku' diru ez dozu.

40

Soñuz beteta nago
t'itz ezin biurtu;
jarraixan nik kanpora
maitte baninduzu!

41

Diru-zale ez naizela,
ez dot gurako nik,
maitetasuna baño
zuk beste doterik.

42

Gaurko erromerixan
uste zan, iñor ez,
zu agertu ez zaranetik
naiz d' an tokirik ez.

43

Ikusi dot itxu bat
zoyala gaur barrez;
ta zu begi ederrez,
zergaittik negarrez?

44

Beĩn izan nitzan baten
zuen baserrixan,
zoriona aitu neban
zer leku txikixan.

45

Iñoiz, ai, zu bazara
gure sukaldian,
ziur berez jatekuak
zure gatza aldian.

46

Zeru' zurixa balitz
gure sukaldian,
ziur barez jatekuak
zure gatza aldian.

47

Zeru' zurixa balitz
ta Itxasu' baltza,
zurixan baltz eĩn ezin
nai netsuken dana.

48

Goiko kalian dago
maittian etxia,
aren atai argixan
zeruko atia.

49

Aitta guri' zeruetan
gure gaiñ zarana!
Zoro baten ondoren
aztuta zugana!

50

Etortzen nittuan penak
bidetik itxuli,
jakiñaz nere ostatu'n
ez dala lekurik.

51

Bati galdez beĩn nintzan
zertara zu aztu:
-Mozkor aundi biregaz
bat naiku' ez badozu.

52

Zu ederra izatia
zin zorigaiztua,
burura jatsulako
igo orren arrua.

53

Zure begixak leztxe
nere atsekabiak,
batera oso itzalak
ta erruki gabiak.

54

Larrosiak lextotxe
ederra itxuria,
larrosiak bezela,
dozu arantzia.

55

Gizona zauritzia
bada kulpa aundixa,
zer ausi kentziakin
zuk neri bizixa!

56

Au dan bizi neria,
zure billa beti,
t' aurkitze bakotxian
zauri bat eregi.

57

Neri gertatzen jata
zure agirixekin,
ura ezpanen urrian
eta, ai, edan eziñ.

58

Goikua ez lenengotzat
nola pekatu dan,
bildur naiz maitiago
ez ete zaittudan.

59

Ai, banitz zure etxian
giltzian itxitta,
errementarixa ill
eta galdu giltza!

60

Eder' zaran neurrixan
bazendu errukixa,
zestakizu itxuliko
beñ neri bizixa.

61

Eskeko bat aittizu
ataiko atian;
neu naiz narabizuna
aspaldi eskian.

62

Lua galdu neban da
ez dakitt nun topau;
zu aztutzian, bada,
nola billa ekiñ au?

63

Begi ederrak dituzu
ta korputz liraña;
iñon errukixa eta
biotza ez baña.

64

Loren gorri ederra
ta usaiña dozu;
keixak lako ezpanetan
erla-eztixan gozu'.

65

Mendixetako edurra
lezkotxe zurixa,
zure kristau izate
barruan garbixa.

66

Bayetz baten begira
nozu argi edo illun;
illgo banintzateke
zuk biar erantzun.

67

Nori, Jauna, nik esan
nere atsekabia,
lurrari ezik de ilian
ni lurperatzia?

68

Pekatu konfesau dot
zaitturala maitte,
penitenziatzat neri
irauntzi' ortantxe.

69

Neri datorkirana
igartzen ez errez;
amorez il biarra
ta iñori esan ez.

70

Illunak tristuria,
kanpaiak negarra,
neri aintzen diralako
zu laga biarra.

71

Baten esan zestazun
maitte ninduzula;
zorion izan ez balit
esan a gezurra!

72

Ausi neban legia
kontentau guran zu:
Zerua galduz gero
zaittut zu be galdu.

73

Izarrak ei diñue
zarala neretzat
guzurrik ez balebe
gauz orretan beintzat!

74

Polita zaralako
asko zure ondorik,
baña zu iñork ez maitte
zaitturan beste nik.

75

Maitte zuk baninduzu
zaitturan erdixa,
nik beste erdixa gaittik
osua bizixa.

76

Aita zerukuari
bizi naiz ni eske,
eiñ deizun nere biotza
zuretako etxe.

77

Infarnua dozuna
eukizu seguru,
ostutako biotza
ez destazu biurtu.

78

Bart eiñ dot amesetan
zuk maite nozula;
benetan esairazu
ez dala guzurra.

79

Nundik bariko gaitz bat
dot ez dakitt nik nun;
dana ba, zu eskeru,
ikusten dot illun.

80

Zure esperantz onak
nakarre bizirik;
ori barik, antxiña,
lurra nik gañetik.

81
Nere pentsamentuak
doyazela aidian
zer jolas zuriekin
bat eiñ deixenian!

82
Au dan izatekua
dotena zurekin!
zuk ez destazu gura
ta nik zu aztu eziñ.

83
Erakutsi zestazun
errez maitatutzen,
baña eziñ ikasi
oriñ zu aztutzen.

84
Gurak, esaten dabe,
zorutzen dabela,
Sant' Agedan ni aspaldi
ori egi izatera.

85
Sasoi baten zu ondoren,
ninduzun ni barrez;
iñor jabe dozula
naukazu negarrez.

86
Laguna nai litzake
odolan antzera,
an nun jakun zaurixa
antxe bertan bera.

87
Ar da eme giñuzen'tik
eiñ gure Jainkuak,

Arek bedinka dittu
ondo alkar aittuak.

88
Asieran laztan bat
ostu netsun nekez,
bañan aren ondoren
milla batzuk errez.

89
Zerlakua ez dakit
ete dan Zerua;
zeru aren antzera
bixon ezkutua.

90
Arratetik etxera
beiñ jakun illundu;
illun da kulpagarri
biar guk ezkondu.

91
Dakiran baztar batek
baleki berbetan,
ez leuke, ziur, falta
mill' urti'n zer esan.

92
Maittien zaiñ testigu
Ama-Ilargia,
ixilla ez balitza
zer kontu illaria!

93
Amatxok esan desta
kontuz ni zurekin,
ori, ai!, zerbait lenago
biar neban jakin.⁴

⁴ ETXEBARRIA Toribio. *Ibiltarixanak: Arrate'tikuen izketango alegiñak*. Zarautz: Itxaropena, 1967, 178-184 or.

Alper-alperrik

94

Alperrik Joxe-Mari
oa bide ortan,
ez dek ezer egingo
ale gabe errotan.

95

Alperrik jazten dituk
soñeko berriak;
irekin ez dik naiko
auzoko Mariak.

96

Alperrik orrazten dek
kalpar luze ori,
amak laguntzen zioak
ez dediñ erori.

97

Alperrik deituko dek
beraren etxean,
aita gordeta zeok
atean atzean.

98

Alperrik ez iriki
ate maratilla,
aitak eskuan zeukak
koskordun makilla.

99

Alperrik dituk ire
ametsik geyenak,
goiz jeki bearrik ez dik
garaiz dabillenak.

100

Alperrik irteten aiz
Marian bidera,
beste laister-bidetik
joaten dek etxera.

101

Alperrik egongo aiz
leyotik begira,
norbait gabe ez dek joango
bakarrik mendira.

102

Alperrik begiz jo dek
iretzat ez dana,
bion biotzetara
zeudek bide bana.

103

Alperrik asiko aiz
berandu lan eske,
alperraren izenak
irauten dik merke.

104

Alperrik egiteko
egiñ dek naiko lan,
bañan txoririk ez dek
sartuko kayolan.

105

Alperrik egiten dek
gauetan irrintzi,
ontzak erantzun baizik
eziñ dek iritxi.

106

Alperrik joko dituk
alboka soñuak,
ez zaizkik gutxituko
irripar kiñuak.

107

Alperrik izango dek
artu deken naya,
t'obe dek ez noizkotu
eztayen garaya.

108

Alperrik ekarri dek
gurdi soñuduna,
lanak asteko zeok
Joxepa jostuna.

109

Alperrik jayo zaizkik
baratzan loreak,
Mariantzat bazeudek
aldego t'obeak.

110

Alperrik abill bada,
ez dik emango itzik,
alper-alperrik daukak
eltxetxua utsik.

HAMAIKA OHAR SOLTE ETA BAT EDO BESTE GEHIAGO DANTZA-KOPLLEN GAINEAN

Liburu honetan ezagutzen ditugun kopia-zerrendarik ederrenak eskeintzea izan dugu helburu nagusia. Oraingo atal honetan hor-han-hemen sakabanaturik dauden ale batzuk hona bildu eta behin-behineko ohar batzuk egin asmo ditugu. Koplen gaineko azterketa bat baino pintzelkada soil batzuk dira atal honetan eskainiko direnak. Koplen gunearen gunea zein ezaugarri erabatekoak eman beharrean, uste pertsonal batzuk jarriko ditugu. Usteok, nolabait mailakatu behar eta, zenbakiturik emango ditugu.

1. Gure ustez, dantza-koplarik politenak lehen bi kopia-lerroetan irudia dutenak dira. Irudi hori eske-kopletan ere ematen da eta estetika berezi bati dagokio. Dantza-kopletako irudiak imajina bat edo imajina bi eduki ditzake. Eman dezagun imajina bakarreko Zeanuriko dantza-kopia bat:

Eztia ta koipea
lengusuak dire,
oraingo mutiltxoak
barritsuek dire.

Eztia eta koipea elkarren antzekoak diren bezala, mutiltxoak ere barritsuak dira. Lehen bi kopia-lerroetako irudian imajina bakarra agertzen da. Tankera horretakoak dira euskal dantza-kopia gehienak. Eske-kopia gehienetako irudiak, oster, bi imajina izan ohi ditu. Badago bi kopia motetan ezaugarri garrantzizko bat. Irudiak bi imajina baditu, bigarren imajinak lehenaren egitura sintaktiko bera du. Bigarren imajinan, gainera, lehen imajinako hitz eliditu bat egon ohi da. Bi lege hauetatik lehena beti betetzen da, bigarrena, oster, ez. Eman dezagun adibide bat:

Mendirik mendi lainoa,
pagorik pago usoa;
ez da erraz arrapatzen
maiorazko(a)ren pausoa.

Kopla zoragarri honetako irudia bi kopla-lerrotan dago: *Mendirik mendi lainoa,/ pagorik pago usoa*. Irudi honek bi imajina ditu. Lehen imajina *Mendirik mendi lainoa* da. “Mendirik mendi lainoa” dabilen bezalaxe ibili ohi da “pagorik pago usoa”. *Pagorik pago usoa*, beraz, bigarren imajina da. Ez dago esan beharrik bi imajinak egitura sintaktiko bera dutela: X-rik X Y. Imajina biak, gainera, kromatismo bera dutela iruditzen zait: zuria (lainoa eta usoa) beste zerbaiten gainean. Bi imajina hauek irudia osatzen dute. Irudi hori bete-betean dator gerora datorren pentsamentuarekin: maiorazkoaren pausoa ere zail da harrapatzen. Irudiko bi imajinetako usoa eta lainoa zail dira harrapatzen maiorazkoaren pausoa bezala. Ez dago esan beharrik maiorazkoa zein maiorazkanean izango zela garai bateko erromerietako dantzariarik estimatuena. Dantzariarik estimatuenak edo bestela esan, plazarik plaza ibiltzen ziren ezkongairik estimatuenetakoak.

Baina geure harira etorri, eman dezagun bi imajinako beste irudi bat:

Egur igarra suaren bildur,
eguzkiaren edurra;
alaba galanta daukan ama
mutil zantarren bildur da.

Kopla bikain hau Azkueren esku-idatzietatik aterea da. Hemen irudiak bi imajina ditu. Has gaitetzen lehenarekin: *Egur igarra suaren bildur*. Egurra suak erretzen du, denok dakigunez. Egur iharra suak errazago erretzen du, esaterako, egur hezea baino. Egur iharra sugarriagoa da edo, sunahikoagoa, horrexegatik da suaren bildur.

Kontrako imajina bat erabiliko bagenu eguzkiak elurra urtzen du eta, horrexegatik, elurra eguzkiaren bildur da. Baina lehen imajinan bildur esaten denez gero, bigarrenean ez du esaten: *eguzkiaren (bildur) edurra*. Ez dago esan beharrik, beste alde batetik, kopla honetan *egurra* eta *edurra* personalizaturik daudela. Zeren bildur, batez ere pertsonak izan baitaitezke, denok dakigunez.

Bi imajinako irudi polit honen kontrapuntua da neska galanten ama bildur iza-tea mutil zantarrena. Esan gabe doa hona ekarri ditugun bi imajinako bi kopla haue-tan ez dagoela aditz jokaturik imajinetan; pentsamenduan, ordea, bai. Ezaugarri guzti hauek, gaingiroki esan baditugu ere, koplaren estetika formala laburbiltzen dute. Utzi ditzagun zehaztasunak hurrengo baterako.

2. Goraxeago esan dugunez, dantza-koplen ezaugarri nabarmenenetako bat lehen bi kopla-lerroetan irudi bat agertzea da. Esan dezagun, gainera, dantza-kopla irudidunak edozein kopla-sailetan urriagoak izan ohi direla irudi gabekoak baino. Liburu honetako kopla-sail guztietan ezaugarri hori ikusiko du behin eta berriz lan honen irakurleak. Dantza-kopla irudidunak, ordea, askoz ederragoak, borobilagoak, beteagoak dira gehienetan, eta kopla-estetika zahar baten erakusgarri bikainak

dira, goraxeago esan dugunez. Irudietan askotan izadiko fruituak agertzen dira. Eman dezagun, kasurako, Pio Barojaren *La leyenda de Juan de Alzate* lan ezaguneko hasierako orrialdeetan agertzen den koplak bat:

Zagarra, lori, lori,
denbora denian
gazteac ancac arin
soñua iotzian.

Dantza-kopla honetan bi mundu agertzen dira, lehenean irudi bat ikusten dugu *Zagarra, lori, lori, / denbora denian*. Lehen bi koplak-lerro hauetan sagarraren ezau-garriak aipatzen dira. Honelaxe itzultzen du Pio Barojak “En el tiempo de la manzana gorda, gorda, los jóvenes mueven rápidamente las piernas”. Lehen bi bertso-lerroek sagarraren gainean hitz egiten dute eta azken biek beste mundu bat agertzen dute, koplak-kantariak aurrean dituen neska gazteen hanka arinak. Irudia duten koplak hauetakoa bigarren zatian dantzan ari direnak zirikatzeke eztenkada biziak zuzentzen dizkie, begi bistakoa denez, trikiti-kantariak dantzari.

Kopla hau, esan beharrik ez dago, itxuraldatua dago. Gure liburu hainbat sailetan ematen da. Irudia hau izango litzateke: *Sagarra lore-lore / denbora denean...* Kopla horretan ez dago *lodi-rik lorea* baino. *Sagarra lore lore* beste era batera ulertu du Donostiako idazle unibertsal: *sagarra lori lori*. Sagarrondoaren loraldia laburra da, denbora gutxian egon ohi delako *sagarra loretan / loran*. Denbora denean aprobetxatu behar da, beraz, uste baino laburragoa izaten delako aukeraldia.

3. Dantza-kopla sail gehienak elkarrekin zerikusirik gabeko koplak erreskadaz osatuak dira, baina badira zenbaitetan bi koplako gune edo unitateak, hiru koplakoak eta lauak ere bai, erdarazko azterketa batean erakutsi nuen bezala. Miltzo hauetan lehen koplak da gutxien aldatzen dena. Eman dezagun koplak ezagun bat. Koplak hau zaharra da inolaz ere, garai bateko hamaseikoa edo urrezko dobloia aipatzen baitu:

Amak emongo baleust
amar amaseiko,
ezkonduko nintzake
udaberrirako.

Hamar hamaseiko dirutza handia izan behar zuen, urrezko hamar gurgiltxo diruditen hamar txanpon izan behar zuten eta. Dantza-kopla zahar honen ondorengo segidakoa ez da beti bat bera izaten. Eman ditzagun, kasurako, Arantzazuko koplak-dan dauden bi segidakoa aleak. Anizeto Barrenaren sailean datorrena hauxe da:

Ezkondu nintzarian
bost gona nituan,
bi prendan jarri eta
bi saldu nituan.

Ikusten denez, ezkondu *hitz giltzarekin* edo lotzailearekin jarraitzen du. Batean noizko ezkonduko zen amak dirua emango balio, eta, bigarreanean, zer gertatu den ezkondu ondoren. Arantzazuko bertako Timotea Guriaren sailean segidako koplak desberdina da. Hona hemen:

Udia pasatu ta
negua etorri,
negurako lagunik
ez det billatu oraindik.

Bigarren honetan ezkondu hitzari baino urtesasoari egiten zaio kasu. Adibide askoz gehiago eman daitezke. Eman ditzadan Bermeoko euskaraz R. Ortuzarrek idatzi zuen *Oraigarriak*¹ liburuko koplak:

Amak emon baleki
amar amaseiko,
ezkonduko neitxeke
udebarrirako.

Amak emon baleki
oye ta kaixie
Petitxenien dago
nobidxe gaztie.

Bi koplak hauek gorago esan dugunaren berme dira. Lehena beti da finkoena eta bigarrena askoz aldakorragoa. Harrigarria da *Amak emon baleusta(z)* hori izan beharrean, *emon balekit* edo *balegit* izatea *edin* edo *egin* subjuntiboa oinarri dela eginiko baldintza, hain zuzen.

Kopla josi edo jarraipendunak ikusteko hona Azkueren kantutegi eskuidatzian (kuaderno berdea B, 9 or.) agertzen den segida hau:

1
Oletan ei dagoz
iru neskabila,
asko egoten dira
eurari begira.

2
Bata da Mari Pepa
bigarren Carlota
irugarren oi bere
aldeko salada.

¹ Bermeo, 1925, 103-104 or.

3
Erreka eskiñako
zelai eder baten
mutil gazte bat euan²
biboliña joten.

4
Lelengo preguntea
neuk ein nion ari
biok juango³ ginala
biok soñulari.

5
Orratzaren punteak
irabazte gutsi
endemas tabernara
bidea badaki.

6
Sagar bat erreta
ta beste bat gordinik
axe bizimodua
pasatzen dot bai nik.

Sei koplako segida honetan lehen biak kopla josiak dira. Hirugarrenaren eta laugarrenaren arteko lotura ere ikusten da. Gainerako biak kopla solteak dira, gure iritzian.

4. Kopla polit bezain zaharrenetako bat Xabier de Muniberen *Borracho burlado* antzerki lanean⁴ agertzen da. Erran delako kopla hau XXVI. eskenan agertzen da. Hona koplaren atarikoak:

Scena XXVI Un hombre, y los de antes. (Mientras las Tenderas doblan las piezas, sale un hombre vendiendo Manzanas.) Canta. Es una canción bascongada muy antigua, y muy común⁵, que se pone aquí por ridícula:

Araco ainchinaco
bioen contuac
ijil egonagatic
ez dauzcat aztuac.

Itzulpena ere egiten du idazleak: *Aquellas cosas antiguas nuestras, aunque estàn en silencio, no estàn por cierto olvidadas*. Kopla hau berau Zeanuriko kopladian ere agertzen da⁶.

² Lehenengo zegoan idatzi du eta gainean euan.

³ Ikusten dudana *juungo* da.

⁴ PEÑAFLOIDA, Francisco Xabier María de Munibe Idiáquez, Conde de. "El borracho burlado" in *Teatro zaarra*. Tolosa: Auspoa, 1965, 134 or., edo bestela edizio faksimil eta kritikoa, Xabier Altzibarrek prestatutako edizio kritikoa: *Gabonsariak; El borracho burlado*. Ed. facs. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra = Parlamento Vasco, 1991, 35 or.

⁵ Jatorrizko edizioan ez da agertzen tilderik hitz honetan.

⁶ AREJITA, Adolfo. "Zeanuriko kopla zaharrak" in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*. 2. zenb. (1983), 229 or.

Arako aintzineko
Bioren kontuek
Ixilik egon arren
Eztaukaz aiztuek.

Ez al da harrigarria bi koplak argitara eman ziren garaiak hain desberdinak izan arren, eta hainbat denbora igaro arren, batetik besterako alde hain txikia izatea? Ez dago esan beharrik, beste alde batetik, *eztaukaz* adizkia bizkai euskarako *ez daukadaz* adizkiaren ahozko laburdura dela.

5. José Miguel Barandiaranen *Mitología del Pueblo Vasco*⁷ liburuan, “Nombres de Gentiles” titulupean pasartetxo hau dator:

Zirri-Mirri. Este es el nombre de un gentil o *mairu* de la región de Oyarzun. En una leyenda de este pueblo se dice que en el caserío de *Aranburu* estaba de criada una *mairu*. Una noche se oyó en el portal una llamada. La *mairu* preguntó de dentro qué pasaba. El del portal le dijo: *Zirri-mirri il dun* “ha muerto *Zirri-mirri*”. Salió la criada y no volvió más.

Barandiaranek dakarren erdarazko kontaera hori Ataunen jaso da. Joxe Arratibel beneditarra ere ataungoa zen, baina beste auzoera batekoa. Bere *Kontu zaarrak*⁸ liburu zoragarrian “Neskame sorgiña” ipuinean hauxe dakar:

Beñ Artzateko baserrian, gizon zaarra juan omen zan soroa, saski arbi bat ekartzera. Saskia betetzen ari zala, ots bat entzun zuan maillotik, berai deitzen bazioten bezela. Norbaitek kantatzen zuan:

Aitona burutxuri,
esaiozu xarpaxarri
il dala Xirrimirri,
datorrela xarri xarri.

Gizonak bete zuan saski arbia, ta ots ura aintzakotzat artu gabe, etxera etorri zan. Beieri jaten eman, ta bazkatzen ari zirala, gizonak zer entzun zuan esan zien etxekoeri, kantatuaz:

Aitona burutxuri...

Artzaten neskame bat zeukaten garai artan, ta itz oiek entzutean, gauza guziak zeuden tokian utzi, ta mendi aldera juan omen zan laister-

⁷ Lasarte-Oria: Etor-Ostoa, 1997, 240 or.

⁸ Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

ka. Gero jakin omen zuten, neskame ura sorgiña zala. Xirrimirriren alaba.
Geiago ez omen zuten Artzaten ikusi.

Arratibelek eta Barandiaranek herri berean, Ataunen, esaunda edo elezahar antzerakoa aurkitu zuten. Elezahar honen bihotzean kopla bat ikusten dugu. Kopla berezi hau Aitona burutzuri batekin hasten da. Jakina, kantu honek ez du inolako zerikusirik gure dantza-koplekin. Zentzuari edo mamiari dagokionez beste mundu batekoa da. Bada, ordea, zerbait. Kopla ezaguna da berdin hasten den dantza-kopla polit bat:

Aitona buruzuri
oilanda zalea,
nork erakutsi dizu
etxera bidea?

Kopla hau esaera modura ere ikusi dugu Azkueren esaera zaharren bilduman. Honela dakar, batetik: *Agura buru-zuri oilanda-zalea nok irakatsi due gurera bidea*, eta bestetik, *Agure buru-zuri, oilanda-zalea apenas artuko dostak neure oilandea*⁹. Sarrera horrek, *aitona buruzuri* delakoak, beraz, beste zerbaiti ematen dio abioa.

6. Zenbait koplak sortu diren denboran dute beren esangura bete-betekoa. Denborak aldatzen badira, kopla aldatu edo galdu egiten da. Inoiz edo behin gerta daiteke koplaren esangura ulertu ez arren, transmisioz gordetzea. Eman dezagun kasu bat. Hona hemen Eulogio Gorostiagak batu zuen ale bat:

Aspaldian ez dot ikusi
Elorrioko fiela,
a baño gurako neunke
txarriaren gibela.

Kopla hau herrietan *fielak* zeuden garaikoa da. Fielak herrian kargu bat zeukan, gaur eguneko alkatearen antzeko autoritatea zen. Oroit gaitezen Mogelen *Peru Abarca* lanean Peru Abarkak dioenaz: “Bein baño geijagotan izan naz neure erriko buru edo Piel”. Zeanuriko kopla horrek ere garai bateko erriko fielaren gainean hitz egiten du. Kopla bera beste era batera ere agertzen da. Hona Peli Etxebarriak Zeanurin bertan jaso zuen moduan:

Aspaldian ez dot ikusi
Donostiko Fidela,
a baño gurago neunke
txarri onaren gibela.

⁹ Bi esaera hauek *Euskalerrriaren Yakintza* laneako eskuidatzietan ikusiak dira.

Oraingo adibide honetan fiel delakoa Fidela pertsona izen bihurtzen da. Koplak, ulertuko bada, aldatu beharra izan du. Elorrioko fiela, beraz, XIX. mendean edo lehenago ez ote zen gizatxar bat? Bizkaia osoan gizatxar edo txargin beldurgarrien artean beldurgarrienetako bat ote zen? Peru Abarka lanean bertan ‘oso txarto pasau’ adierazteko *Elorriokoak ikusi* esapidea dator. Zer gertatu zen Elorrión? Zer gertatu zen ez dakigu gaur egun, baina zerikusia ote zuen Elorrioko fielak eginda-koarekin?

7. Kanta zaharren puskak trikiti-kopla bihurtzen dira askotxotan. Anbotoko kantei kapitulu oso bat eskaini diegu. Hona hemen beste adibidetxo bat. Azkuek bildu zuen kantarik zoragarrienetako bat honako hau dugu:

Bost ogei urtetako dontzellatxo bat
oiean daukat gaixorik.
Oilo bat re il diot bainan
eztauka mejoriarik;
beste bat ere ilen nioke
yeiki ezpaledi oietik.

¡Ai au pena, penaren pena!
¿zer izango det geiago?
Sudurra ere luzatu zait
kokotza baino bérago.
Nere etxean naiago lukete
len bai len ila banengo.

Ikus Azkueren kantutegia¹⁰. Azkuek kanta hau “Endechas y Elegías” sailean sartu zuen baina badirudi burla-kanta bat dela gehiago. Kanta horretan ehun urteko dontzeilatxo bat norbaitek ohean daukala dio. Kanta horren ale bakarra ezagutzen genuen *hapax legomena* bat bailitzan. Kanta hori Lekeitioko folklorezaleak Luis del Puerto erreteriarriari entzun omen zion. Azkueren eskuidatzietara¹¹ ere jo izan dugu berri gehiagoren bila eta dakarren zehaztasuna hau baino ez da: “debe ser vasco-francés”. *Ehun* esateko modu harrigarriak euskaltzale bat baino gehiago harritu du, kantan *bostogei* esaten baita. Oin-oharrear honela dio: “La única vez que he oído bost ogei por eun”. Guk aipatu dugun kanta horrek bi ahapaldi baino ez ditu. Guk lehena baino ez dugu hemen aipatu. Ahapaldi hori berori ikusten dugu

¹⁰ AZKUE, Resurrección María de. *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1990. I. libk., 396 kanta, 496-497 or.

¹¹ Kuaderno gorria 002-003-005, 1174 kanta, 510 or.

“Asentsio-eguna da señalaturik” baladan¹², Gipuzkoan, Gatzagako Teresa Pagoagari jaso. Hona guri dagokigun ahapaldia:

Agura zar bat daukat oian gaixorik,
oilo bat bere il dotsat, eztauka obekuntzarik,
beste bat ilgo neuskio, urten ezpalekit.

Kanta hau askoz osoagoa den arren, begi bistakoa da goraxeago aldatu dugun aldaera bera dela Bizkaiko euskarari. Mañariko kopladian, ordea, agertzen diren bi koplak hurbilago daude Errenteriko ereditutik Bizkaikotik baino. Ehun urteko agurea gainera bostehun urteko bihurtzen da. Hona bi koplak:

Tristerik nago tristerik
ez daukat alegrantzirik:
bosteun urteko agure bat
oian daukat neuk gaxorik

Ollo bat il dautzat baña
ez dauka mejorjarik,
beste bat ilgo neuskijo
sekula jagiko ez balitz.

Honetan ere, Azkueren kantan bezala, oilasko bat hil dio. Orain gatozen beste kontu batera. Oraingo lehen koplari ez dago dontzeilatxo bat, askoz orokorragoa den agure bat baino. Urteak ez ditu *bostogei bosteun* baino, askoz ezinezkoagoa. Bostehun delako hau ez ote da egiazki bostogei esaten zen bermea? Hau da hasierako bost- gorde da eta *-ogei delakoa -ehun* bihurtu da.

8. Dantza-koplak errefrau bihurtu daitezke eta ez alderantziz, guk uste dugunez. Altubek¹³ batutako errefrauetan hauek datoz:

28, 53. Alperrik izango dok gizonik abillena, eztok aberastuko duan dabillena.

46. Dirurik eztaukona perritxukutan, suspiru egiteko lekurik askotan.

65. Gabian errondan da goxian logura, ene semetxu ez az osasuna gura.

90. Udabarriko lora ederrak, erortzen dira negura. Beti gustora biziko danik, eztok yayoko mundura.

¹² *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1990. III. libk, 822 zenbakian.

¹³ KALZAKORTA, Jabier. “Altuberen mendebaldeko errefrau bilduma bat” in *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*. Bilbao: Mendebalde Kultur Elkarte, 1997, 45-79 or.

Iñaki Gilisasti Fanoren *Urduliz aldeko berba lapikokoa: léxico del euskera de Uribe kosta*¹⁴ liburuan, “Esalege edo esateak” atalean, esalegetzat ematen dira berez kopia diren ale hauek:

1. Abade makar kuku Lezama aldekoa, baztarrak endredetako ala alakoa.

24. Antonio Polonio danbolinderue, isterrak zabaldute yoten dau soñue.

79. Errementari baño obe dok sesteru; lepo bet egurreas kolko bete diru.

Damaso Intzaren *Naparroa-ko euskal esaera zarrak* liburuan hauexek ikusi ditut:

801. Belarra yorratu eta artoa sasira. Jorrulari gaiztoaz esana. Kartak ere ola dio: “Arto-yorrara noa lur berri berrira; belarra yorratu ta artoa sasira”.

881. Goizian purru-salda, ta eguerdian azak; aixe kabitzen naute ipurdiko galtzak.

912. Otsondoko katua Parolan eiztari; erne begi(ra)tzen dio leioko gaztari. Otsondo ta Parola bi etxe dira.

980. Atso zarra milindrin, ire bentak egin din: ortzak ere joan zaizkin, deabru zar bat dirudin (Etxaleku).

484. Goizean purru-salda, eguerdian aza: aixe kabituko du ipurdian galtza.

1610. Sagarra lore lore denbora denian, gazteak anak arin soñua denian.

1625. Dantzan obeki daki lanian baño, “arto-jorran baño”.

1656. Dantzan obeki dako lanian baño, “arta-jorran baño”.

1699. Goizian purru-salda, arratsian azak: aixe kabitzen ditu ipurdian galtzak.

1716. Agustin Pierres, ate-zokoan negarrez: arto-puska eskutan, ta ogi-puska naiez. 1781. Neska zarra milindrin: orain iriak (ireak) egin din.

1868. Uso zuria aidean: ederrago maiean.

1922. Tiru-liru kantatzen du miruek: urek ekarri, ardoak eraman arrantzalienen diruek.

9. Garbizaletasunak eragindako konponketak direla eta adibide harrigarri bat eskainiko dut ataltxo honetan. Azkueren Bidaia kuaderno beltzean Aulestiko Matias Zelaiari (kuaderno beltza, 78 or.) bi kopia hauek bildu zizkion:

Ama gauza origaitik
ez egin negarrik
ezteutsudala emongo
errementaririk.

errementari baiño
oba da zaragin,
lepo bete palugaz
altzo bete diru.

Berriemaileak sesteru esan zion eta hitz hori hoskide da *diru* hitzarekin. Zesteru hitza *zaragin* bihurtzen bada, koplak ez du ez grazia ez hoskidetasunik.

¹⁴ Bilbao: [s.n.], 2003, 407-408 or.

10. Atso-agureen arteko burrukak dantza-kopla zein ume-jolasetarako eskena ezin egokiagoak dira. *Arranondo* aldizkarian¹⁵ pentagrama eta guzti dator konposizio bat. Herrikoa da bete-betean edo zerbait ukitua, Ondarroako erara? Inolako informaziorik ez datorrenez, herritarra dela uste nahi nuke:

Aittitte ta amume
bixak egurretan,
aizkoria galdu eta
bixak errixetan.

Aittitte ta amume
bixak egurretan,
aizkoria galdu eta
bixak errixetan.

Aittittak amumari
gonetatik tira,
amumak aittittari
praketatik tira.

Aittitak amumari
kopetetik tira,
amumak aittitari
belarritik tira

Tiratu ta tiratu
prakazarrak apurtu.
Tira ta tira
alkarrenak dira,
tira ta tira
konponduko dira.

tiratu ta tiratu
belarriak gorritu,
Tira ta tira
alkarrenak dira,
tira ta tira
konpon duko dira.

Arranondo aldizkarian berean¹⁶ “Gure berba eta esakera batzuk” lanean artikuluegilearen izenik gabe dator. Hona 7. orrialdean irakurtzen ditudan bi kopla:

Aitita morokilo,
kedarrez pipia,
aretxek erre dautso
zurraren¹⁷ puntia.

Aitita ta amuma
bixak egurretan
aizkoria galdu eta
bixak errixetan.

Eskena barregarriak hitzen bidez irudikatzea dantza-koplen estetikan sartzen da bete-betean. Guk hona ekarri ditugun koplak liburu honetako hainbat sailetan agertzen dira. Atal honetan koplak hobeto ikusteko lerroak lauka tolestu ditugu.

11. Kopla misteriotsuak direla eta hona adibide bat baino gehiago Azkuek Zelia Zelayaran otxandiotarrari bildu zizkion aleetan (B deitu kantutegi eskuidatzian, 16 or.):

¹⁵ *Arranondo*. 60 zenb. (1995), 20 or.

¹⁶ 141 zenb. (2002), 7 or.

¹⁷ Jatorrizkoan “zuraren” dator, okerra delakoan aldatu dugu.

1. So zuritzaileak dozena da
zarrabeterua koñatu,
so zuritzaileak irabazita
zarrabeteruak ondatu.

Zer arraio esan nahi ote du koplak horrek? Guk Azkueren idatzi hori honela ulertuko genuke:

Zotz zuritzailea gizona eta,
zarrabeterua koñatu,
zotz zuritzaileak irabazita
zarrabeteruak ondatu.

Zergatik modu horretara? Azkueren eskuidatzi argitaragabeko batean, guk hemen Zeanuriko sailean argitara dakargunean, honelaxe dio:

204

Zotz-zuritzailea dozu senarra,
zarrabeteroa koñatu,
zotz-zuritzaileen irabaziak
zarrabeteroak ondatu.

Eulogio Gorostiagaren sailean ere (AEF 1930, 19or.) ere berdintsu:

Sotz-suritzallea da senarra,
Sarrabeterue kuñetu;
Sotz-suritzalteen iribasie
Sarrabeteruek ondatu.

Kopla honetan *senarra* dena gure ataltxo honetan *gizona* da, itxura guztien arabera. Lanbide ezereza, ezerezik badago, *zarrabeterua* da. “Zarrabeterua” ez da besterik bibolinterua baino. Hiztegieta agertzen den “zanfoña” edo “gaita” ere izan daiteke, hala ere. Guk nahiz eta hiztegieta ez agertu, “bibolin” esangura hartzen diogu. Garai bateko bibolinteru edo zarrabeteruak inoizko ofizial edo lanbidedun pobreenak izango ziren. Bibolinterua zer den ikusi dugu Antonio Goitiaren koplak aztertu ditugunean. Garai bateko bibolinteruak pobreak baino pobreagoak izango ziren, inolaz ere. Kontuan izan behar da, gainera, koplak honen kantaria zarrabeteroa izango zela. Zotz zuritzailea ere pobre baino ofizial pobreagoa izango zen. Eulogio Gorostiagaren koplak honelaxe dator itzulita: “Carpintero es el marido, / Herrero el cuñado;/ Del carpintero las ganancias/ El herrero derrocha.” Itzulpen harrigarri honetan bitxia egiten zaigu *zotz-zuritzailea* “carpintero” izatea. Are harrigarriago, gainera, *zarrabeteroa* “herrero” izatea. Bigarren koplak, ordea, are ilunagoa da:

2

Konprimenturik asko ein geuntsan
zubona zegoan ontzari,
lumak kenduta pisauazkero
etzan izango ontza bi.

3

Barruan ezer ezpadau bere,
kanpotik badu etxura,
egazti ori koixuazkero
ezin saldu lei pixura.

Bi kopla hauek ulergaitzagoak egiten zaizkit. Zer ote da *zubona*?

12. Dantza-kopla gordin askorik ez da publikatu. Garai bateko biltzaileek, begi bistakoa denez, ez zieten beren bildumetan harrera bera egingo era bateko eta besteko koplei. Liburu honetan ere ez dago kopla gordin askorik. Joxean Artzek, 1980. urte inguruan, hiru disko publikatu zituen herri olerkiak kantatuz. Disko horietan trikiti-kopla batzuk ere sartu zituen, hona hemen eskuratu dizkidanak:

1

Udaberria dator
Manuela bero,
pozik emango luke
eskatu ezkerro.

5

Esango nuke baña
esatea lotsa,
mecauen la puñeta
au dek neska motza.

2

Oraingo neskatillak
ezkondu baño len,
nai izaten dute
portalean Belen.

6

Iñok eskatzen ezta
eskeintzeko lotsa,
alperrik galtzen dauka
bere santu motza.

3

Altzolako neska motza
amalau erralde,
aretxek eskeintzen du
larrua debalde.

7

Lizarrari ostoa
atara baño len,
ikusi nai lukete
sustar bat barrenen.

4

Iru milla demonio
lau milla jentilla,
alpargatatxo zuriz
zinta ta ebilla.

8

Urkiola ganeko
garo pilla baten,
eskatzen nizun baña
etzidazun ematen.

13. *Euzko Enda*¹⁸ agerkarian 1940. urtean argitara eman zen dantza-kopla sailtxo polit bat. “Dantzarako bertso zaarrak” izenburupean hamaika kopla-ale zetozen artikuluan. Kopla horiek Arratialekoak izan behar dute hango erreferentzieta-tik gainera —besteak beste, Barazar leku-izena—, hango euskara agertzen dutelako batikbat. Beste modu batera esan, Arratialeko koplak giputz jantzia dutela ageri dira *obeto>obeki*, *edurra>elurra*, *dogu>degu* eta abar. Hona ekarri ditugunean idazkera aldatu egin dugu zertxobait. Aldaera nagusiak oin-oharretan markatu ditugu. Kopla gehienak ezagunak dira, gainerako kopladietan errazen ematen diren horietakoak, hain zuzen. Hona hemen:

1
Ankak ariñak eta
burua ariñago,
dantzan obeki daki
artojorran baiño.

2
Arto jorrara noa
luberri-berrira,
bedarra¹⁹ jorratuta
artoa sasira.

3
Astean iru zurre
zapatuan beti,
domekan okelea²⁰
auzoan ikusi.

4
Etxetxo zar bat dago
Barazar ganean,

ez jako urik sartzen
aterri danean.²¹

5
Ama, buruan min dot
ez esan aitari,
Txomintxo auzokoa
gustetan jat²² niri.

6
Pasetan nazanean
zure etxe-aurretik
negarrak urtetan deust
begi bietatik.

7
Elurra tellatuan
zorroa lepoan,
ibili bearko degu
aurtengo neguan.

¹⁸ “Dantzarako bertso zaarrak” in *Euzko Enda*. II. urtea, 16 zenb. (1940) 5. or.

¹⁹ Jatorrizkoan *belarra* ikusten dugu.

²⁰ Bizkai euskerako *okela* Zeanuriko euskeran *okelea* izan ohi da. Guk hemen zabalago dabilen *okelea* aurkitzen dugu.

²¹ Jatorrizkoan beste era batera dator, guk aldaketa gutxi batzuk egin ditugu. Hona jatorrian datorren bezala: *Etxeko zarr bat dago/ Barazaz ganean/ Etxako urik sartzen/ Aterri danean*.

²² Aldizkarian *zat* dator.

8

A mutil ankaluze
pipe artzalea,
txingerrak erre deutso
surraren puntea.

10

Atsoa ta agurea
biek egurretan,
azkorea galduta
dabilz barriketan.

9

Mutil txanbelin²³ ori
artzean badozu,
astean iru zurre
seguru daukozuz.

11

Mari Kruz Errotako
nekazari fiñe,
antziñe artu neuan
zeuganako miñe.

14. Idazleek beren lanetan, zenbaitetan, dantza-kopla bat edo beste txertatzen dute sorkariaren edergarritzat. Modu horretan jokatu zuen Lope de Vega handiak ere. Orain baino lehen aztertu dut kopla hori: *Zure vegi ederro[c]/ en el Astana/ catiuaturic naue/ librea ninzana*. Euskal idazleek ere zenbaitetan berdin jokatu dute, herri-koplak tartekatuz edo herriko erara berriak sortuz. Manu Ziarsolo *Abeletzek bere Gazi-gazak* liburuan²⁴ honako hau txertatzen du:

Amaika majaderok
jatejok ogia;
saman korbata ta
poltsiko gorria.

Gure dantza-koplen erara moldatua dirudi ale hori. Julene Azpetiak, ordea, gure tradizioko dantza-kopladitik hartzen du edergarria:

Adio, eta oraiñ banua
barku berrian soldadu,
barku berrian soldadu eta
amaren seme sobradu.

Adio eta oraiñ banua,
au da despedaren tristia,
iltzen ez banaiz etorriko naiz
adio ene maitia²⁵.

²³ *Euzko Endan txanbolin* dator. Gainerako Zeanuriko kopladian *txanbelin* datorrenez gero, halaxe jarri dugu.

²⁴ San Sebastian: Edili, 1975, 12. or.

²⁵ AZPEITIA, Julene. "Martxela" in *Egan*. 4-6 zenb. (1969), 70-89 or.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Liburuak

- ALUSTIZA, Julián [Aztiri]. *Lihoaren penak eta nekeak*. Arantzazu, Oñati: Ed. Franciscana Arantzazu, 1981.
- *Euskal baserriaren inguruan*. Oñati: Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea, 1985.
- ALZOLA GUEREDIAGA, Nicolas. *Euskaraz, Irunen barrena*. Irun: Luma, 1994.
- AMURIZA, Xabier. *Bizkaiko Bertsogintza II. Izendunak*. Bilbo: Kulturgintza, 1995-2006.
- APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin. *Antropologia berria: ahozko herri produkzioa*. Donostia: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea (EHAE), 1988.
- ARIN DORRONSORO, Juan de. *Monografía del clero y religiosos de Ataun: con una breve historia de sus tres parroquias*. Vitoria: Imp. Lib. y Enc. del Montepío Diocesano, 1964.
- ARRATIBEL, Joxe. *Kontu zaarrak*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.
- AZKUE, Resurrección María de. *Euskalerrriaren yakintza = Literatura popular del País Vasco*. Madrid: Espasa Calpe, 1935-1947.
- *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1990.
- BARANDIARAN, José Miguel de. *Mitología del pueblo vasco*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa, 1997.
- Bergarako euskera*. Bergara: UNED, Euskal Kultur Departamentua, 1988.
- Bilbao, el espacio lingüístico: Simposio 700 aniversario = Bilboren 700. urteurrena: hizkuntza gunea Sinposioa*. Bilbao: Universidad de Deusto, 2002.
- Bizkaiko euskera, bizkaiera?*. Bilbao: Barrainkuako Udal Kultur Etxea, 1993.
- BRENAN, Gerald. *La Copla Popular Española*. Málaga: Editorial Miramar, 1995.
- EICHEVERRIA, José María, GUIMÓN, Juan. (moldatzaileak). *Ecos de Vasconia*. San Sebastián: A. Díaz y C^{ia}., [1893].

- Elorria. Zeberio: Elorria Kultur Elkarte; Bilbao: Beta III Milenio, 2002.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel. *Zeberioko kantak*. Oiartzun: Sendoa, 1999.
- ETXEBARRIA Toribio. *Ibilitarixanak: Arrate'tikuen izketango alegiñak*. Zarautz: Itxaropena, 1967.
- GAMINDE, Iñaki. *Bakio berbarik berba*. Bakio: Bakioko Udala, 1999.
- *Arrieta berbarik berba*. Arrieta: Arrietako Udala, 2001.
- *Leioa berbarik berba*. Leioa: Leioako Udala, 2001.
- *Meñaka berbarik berba*. Meñaka: Meñakako Udala, 2001.
- *Mungia berbarik berba*. Mungia: Mungiako Udala, 2001.
- GARATE, Gotzon. *30.466 atsotitzak = refranes = proverbs = proverbial*. Bilbao: Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2003.
- GILISASTI FANO, Iñaki. *Urduliz aldeko berba lapikokoa: léxico del euskera de Uribe Kosta*. Bilbao: [s.n.], 2003.
- Homenaje a Odón de Apraiz = Odón Apraizi omenaldia*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, Consejo de Cultura = Arabako Foru Aldundia, Kultura Kontseilua, 1981.
- INTZA, Damaso (O.F.M. Cap.). *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*. Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, 1974.
- IRIGOYEN, Juan de. *Los tremendos de Kanala : kresala eta lurruna = (aliento del mar, vaho de la tierra): novela bizkaina del mar*. Bilbao: [s.n.], 1936.
- IZAGUIRRE SALABERRIA, Cándido (O.F.M.). *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*. San Sebastián: [s.n.], 1967.
- JOSE ANTONIO DE DONOSTIA (O.F.M. Cap.). *Obras completas del P. Donostia*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994.
- Kantu kanta khantore*. Baionan: Kordelieren Irarkolan, 1967.
- Kantuz*. Bayonne: Le Livre, [s.a.].
- LARRAÑAGA IGARZA, Jone. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala, 1998.
- LAZKANO, Imanol. *Aho bizarrik gabe*. Andoain: Bertsolari Liburuak, 2003.
- LEKUONA Manuel. *Literatura oral euskérica*. Donostia: Euskaltzaleak; Beñat Idaztiak, 1936.
- LEKUONA Manuel. *Literatura oral vasca*. San Sebastián: Auñamendi, 1964.
- Luis Villasanteri omenaldia = Homenaje a Luis Villasante = Hommage à Luis Villasante*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1992.
- Mariya: 75 euskal-abesti xorta, bakoitza bere eresi berezia'rekin*. Bordeaux: Imprimerie M. Mendiburu, [s.a.].
- MARKAIDA, M.^a Eugenia, et alii. *Ahozko literatura: genero txikiak*. Bilbao: Labayru Ikastegia, 1991.
- Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Bilbao: Mendebalde Kultur Elkarte, 1997.

- MITXELENA, Koldo. *Diccionario general vasco = Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Desclee de Brouwer; Mensajero, 1987-2005.
- MUNIATEGI, Abel. *Bertsogintza Bizkaian (koplatik bertsoa)*. Bilbao: Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. 1995.
- ONAINDIA, Santi. *Euskal literatura*. Bilbao; Donostia: Etor, 1972-1990.
- OTZERINJAUREGI, Mireia, SANGRONIZ, Mikel. *Eibar kantuz kantu*. Eibar: Eibarko Udala, 2001.
- PEÑAFLOIDA, Francisco Xabier María de Munibe Idiáquez, Conde de. “El borracho burlado” in *Teatro zaarra*. Tolosa: Auspoa, 1965.
- *Gabonsariak; El borracho burlado*. Ed. facs. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra = Parlamento Vasco, 1991.
- PERURENA LOYARTE, Patziku. *Leitzako errege erreginak: (ahoz belarrirako urre altxorretan)*. Bilbao: Euskaltzaindia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1996.
- Piarres Lafitte-ri omenaldia = Homenaje a Pierre Lafitte = Hommage à Pierre Lafitte*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.
- SALLABERRY, Jean Dominique Julian. *Chants populaires du Pays Basque: paroles et musique originales*. Bayonne: Imprimerie de Veuve Lamaignère, 1870.
- SANTESTEBAN, José Antonio de (biltzailea). *Colección de aires vascongados para canto y piano*. San Sebastián: Almacén de Música de Santesteban, [1864-1895].
- URKIZA, Julen. *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografía*. Markina-Xemein: Karmel, 1999.
- ZIARSOLO, Manuel [Abeletxe]. *Gazi-gazak*. San Sebastián: Edili, 1975.

Aldizkariak

- Aizu: oinarrizko euskarazko aldizkaria*. Bilbao: AEK, 1981– .
- Anuario de Eusko-Folklore*. Vitoria: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1921-1935; San Sebastián: Sociedad de Ciencias Aranzadi, 1955-1981; Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1981-1990; Atau: Fundación José Miguel de Barandiarán Fundazioa, 1981– .
- Aránzazu: revista mensual ilustrada*. Oñate: PP. Franciscanos de Cantabria, 1921– .
- Argia: euskerazko asterokoa*. San Sebastián; Zarauz: [s.n.], 1921-1936.
- Arranondo: Kultur Elkarte*. Ondarroa: Kultur Elkarte, 1990– .
- Boga-boga: boletín de la Junta Parroquial de Ondarroa*. Ondarroa : Junta Parroquial de Ondarroa, 1950– .
- Brisas guerniquesas: hoja parroquial de Santa María*. Guernica: Parroquia de Santa María, 1957-1967.
- Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1982-1995.

- Egan: suplemento de literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.* San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1948- .
- Eguna: jel.* Bilbao: Partido Nacionalista Vasco, 1937.
- El Bidasoa: semanario independiente.* Irún: [s.n.], 1880-1967.
- Euskalerrriaren alde: revista de cultura vasca.* San Sebastián: Martín Mena y Comp^a, 1911-1931.
- Euskal-Esnalea.* San Sebastián: [s.n.], 1911-1931.
- Euskalzale: asteen asteango albistaria.* Bilbao: Euskalzale, 1897-1899.
- Euskera: Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak = trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca = travaux et actes de la l'Academie de la Langue Basque.* Donostia; Bilbo; Toulouse: Euskaltzaindia, 1919- .
- Euzkadi.* Bilbao: [s.n.], 1913-1937.
- Euzko: Jaun-Goikua eta lagi-zarra.* Bilbao: Euskeltzale Bazkuna, 1932-1934.
- Euzko-Enda: bulletin mensuel dédié à l'union de la race basque = boletín mensual dedicado a la unión de la raza vasca.* Anglet; Bayonne: Comité Basque de Secours aux Réfugiés, 1939-1940.
- Gerediaga.* Durango: Gerediaga Elkartea, 1983-1986.
- Ibaizabal: Durangoko aldizkaria = revista del Duranguesado.* Durango: Gerediaga Elkartea, 1979-1981.
- Idatz & Mintz: literatur atalen sorta.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Caja de Ahorros Vizcaína, 1982- .
- Karmel.* Larrea-Zornotza; Markina: PP. Carmelitas Descalzos, 1957- .
- Lapiko: herriko aldizkaria.* Galdacano: [s.n.], 1979-1980.
- Litterae Vasconicae: euskeraren iker atalak.* Bilbao: Labayru Ikastegia, 1988- .